ekimenen konbergentzia Lan, Osasun eta Gizarte Segurantza Saila pobrezia aztertzeko dinamika berrian parte hartzera bultzatzeko erabakian gauzatu zen. Hortik sortu zen ikerketa-proiektua hainbat urtetan luzatu zen, eta, garai hartako zirkunstantzia partikularrak zirela eta, ikuspuntu horretatik aztertu zen, ikerketaren ikuspuntutik, hain zuzen.

Ondorio praktikoetara begira, prozesua 1984. urtean hasi zen, pobreziari buruzko ikerketaren marko teorikoa sendotzeko gai izan zitekeen informazioa erraztea helburu zuen operazio esperimental baten diseinuarekin. Lehen azterketa horretarako landa lana 1985eko maiatzean zehar egin zen, eta argi eta garbi erakutsiko zuen pobrezia-egoerek egoera diferentzial okerragoa eragin dutela, bai elikagai-kontsumoaren mailari dagokionez, bai ondasun eta kapitalen jabetza-mailari dagokionez, eta baita eduki ekonomikoa duten aisia-jardueren mailari dagokionez ere.

Perspektiba metodologikotik begiratuta, azterketaren emaitzek garbi utzi zuten hurbilketa subjektiboa zela biderik zuzenena (Leydeneko Unibertsitateko Bernard M.S. Van Praagek defendatzen zuen bezala), bai ikuspuntu teorikotik bai ikuspuntu praktikotik begiratuta, pobreziaren azterketara hurbiltzeko. Emaitzek, ordea, Anberesko metodologiaren erabilera erabat baztertzearen aurkako aholkua ematen zuten. Center for Social Policy (CSP) erakundeko Herman Deleeck-ek defendatzen zuen Anberesko metodologia, bere bertsio tipologikoan batez ere[3]. Espainian ere zenbait ikerketetan erabiltzen hasia zen hurbilketamota hori[4].

---

[3] CSP erakundean, Deleeck-ek pobretasunera hurbiltzeko metodo bat sustatzen zuen, eredu sozialen azterketan oinarritua, familietara zuzendutako hiru galderen bitartez. Lehen galderak existitzen jarraitzeko segurtasunaz hausnarketa egitera behartzen zituen familiak (etxean hilero sartzen dirua kontuan hartuta, nola ibiltzen zarete zu eta zure familia hilaren amaierara iristeko? Oso gaizki, gaizki, gaizki samar, ongi samar, ongi edo oso ongi?; bigarren galderak etxekoen errenta-premiei buruzko pertzepzioa jasotzen zuen (zure etxean, zenbat diru beharko zenukete hil bukaerara iristeko); azkeneko galderak diru-sarrera benetan erabilgarriei buruzko informazioa jasotzen zuen (Zenbatekoa da zure etxeko errenta garbia hilean, diru-sarrera mota guztiak barne hartuta?).

Gutxieneko soziobitalak kalkulatzeko, hilaren amaierara gaizki samar iristen ziren familiak baizik ez zituen aintzat hartzen CSP-k, hau da, existitzen jarraitzeko segurtasunik ezaren mugan-mugan zeudenak. Familia horietan, errenta erabilgarria eta beharrezkotzatjotzen zena alderatzen ziren, eta bietan txikiena hartzen zen beste kalkuluak egiteko erreferentzia-elementu gisa. Batez besteko errentatik (+/– desbideratze tipikoa bi halako) gehiegi aldentzen ziren familiak baztertu ondoren, hilabete bukerara iristeko beharrezko errenta erakusten zuen batez besteko errenta kalkulatzen zen hortik.

Eusko Jaurlaritzaren ekimenez, aurre-testaren emaitzak hartu eta Euskadiko pobreziari buruzko lehen azterketa izango zenaren behin betiko diseinua egin zen. Orduko Lan, Osasun eta Gizarte Segurantza Sailaren Ongizatearen Zuzendaritzari eman zioten azterketa egiteko ardura, eta honako izenburu honekin argitaratu zen: *Estudio sobre Situaciones Sociales Desfavorecidas en Euskadi (ESSDE,* Euskadiko gizarte-egoera ahuleko taldeei buruzko azterketa).

Fenomenoa neurtzeko moduari dagokionez, azterketatik bildutako datuek Europan behartasuna aztertzeko erabiltzen ziren metodo nagusientzako adierazleak lortzeko bidea erraztu behar zuten. Garai hartan, funtsean, metodo hauek erabiltzen ziren:

— EDIS eta Willmott-ek zehaztutako metodo estatistiko objektiboak.
— SPL (Van Praag) eta CSP (Deleeck) korronteek proposatutako metodo subjektiboak.
— Gabetasun kontzeptutik gertuen zeuden hurbilketak, hala nola Townsend eta Rowntreek proposatutakoak.

---

Analisiaren hurrengo urratsa zen konparatzea familia bakoitzeko diru-sarrea bere erreferentziazko familia-motari zegokion gutxieneko soziobitalarekin. Hortik abiatuta, existitzen jarraitzeko segurtasuna zuten edo ez zuten familiak zehazten ziren. Familia tipologia kontuan hartuta, gutxieneko soziobitalera iristen ez ziren familiak bigarren taldean sartzen ziren. Familia horien ego-era finkatzeko, termino dikotomikoak (segurtasun-atalasetik behera edo gora egon) eta portzentzualak erabiltzen ziren, honako formula honen arabera:

$$SE = \frac{Y}{MSV} * 100$$

SE existentzia-segurtasunaren balioa da, ehunenekoetan kalkulatua; Y familiaren errenta erabilgarria, eta MSV erreferentziazko familia-motari dagokion gutxieneko soziobitala.

Familia-tipologia jakin batzuei aplikatzen zitzaion hurbilketa (gizabanako erretiratua, gizabanako aktiboa, bikote erretiratua, seme-alabarik gabeko bikote aktiboa, eta abar). Laginak hogeita hamar familiatakoa izan behar zuen gutxienez.

[4] Anberesko metodoa Espainian aplikatzeko erreferentzia nagusia Luis Vila, Javier Charroalde eta Espainiako pobretasunaren fenomenoa aztertzen aritu zen taldeko beste kide batzuek Instituto de Estudios Laborales y de la Seguridad Social (IELSS) erakundearen baitan bultzatutako ikerlana zen. Horren helburua familia-eredu jakin batzuentzako pobretasun-atalase batzuk zedarritzea zen, hilaren bukaeraren gaizki samar iristen zirela zioten talde horien egungo errenta eta beharrezko errenta konparatuz. Era horretan, gutxiengo soziobitalak zedarritu nahi ziren, eredu estatistiko adierazgarri batzuentzat.

Galdeketa taxutzeko orduan, CSP eta SPL metodoak Euskadiko behartasuna neurtzeko prozesuaren beharrizan espezifikoetara egokitzeko egin behar ziren aldaketak egin ahal izateko modua bilatu zen.

Landa-lana 1986ko otsailetik martxora bitartean egin zen. 1987. urtearen hasieran, *Pobretasuna Euskal Autonomia Erkidegoan (Aurrerapena)* txostena argitaratu zuen. Txostena Eusko Jaurlaritzaren Lan, Osasun eta Gizarte Segurantzaren Sailak ordu arte egindako ikerkuntzaren edukiaren sintesia da. Gerora begira, garrantzi handia izan zuen Leyden/SPL hurbilketa (Van Praag-en formulazioaren arabera) erreferentzia gisa hartzea, mantentze-pobreziari buruzko datuak aurkezteko.

Nahiz eta ikerketa hutsaren ikuspegitik egina egon, azterketaren emaitzek ikerketaren mugak gainditu zituzten, eta zirrara handia eragin zuten Euskadiko gizartean eta politikan. Euskadiko gizarte-egoera ahuleko taldeei buruzko azterketaren datuak hedabideetan argitaratzeak iritzi publikoaren begi-bistan jarri zuen krisiaren eta langabeziaren ondorioen errealitatea: ordu arte aberatsa izandako gizarte baten pobretze handia. Familia pobreen kopuruari buruzko datu txundigarriak gorabehera (eztabaidagarria beti), azterketatik ateratako ondoriorik deigarriena, jendea benetan harrituta utzi zuena, honako hau izan zen:

— Batetik, eta familia pobreen kopuruari buruzko eztabaidak alde batera utzita, prekarietatearen eta pobreziaren arazoa lehendik ere bazela (eta ez neurri txikian, gainera) egiaztatzea. Krisia eta langabezia bezala, pobrezia gure artera iritsia zen.
— Bestetik, auzo jakin batzuetan —krisian zeuden industrialdeetan, hiriburu batzuetako langile-auzo degradatuetan, Bilbon batez ere, eta hiri nagusietako parte zaharrean—, muturreko pobreziaren errealitateak zalantzan jartzen zuen gizarte babesaren sistemaren eraginkortasuna, eta horrelako egoera erdi eta epe luzera mantentzearen ondorioei buruzko galderak planteatzen zituen.

Azterketaren emaitzen aurrerapena egitean, honela laburbildu zituzten lortutako emaitzak:

> «Pobrezia ez da inondik ere herrialde aurreratuekin zerikusirik ez duen zerbait, are gutxiago, gure kasuan bezala, krisiak gogor zigortzen duenean, langabezia inoizko handiena denean, edota Gizarte Segurantzak finantza-arazo gero eta handiagoak dituenean. Pobreziaren eragina guk aurreikus genezakeena eta Europan ikusten dena baino handiagoa da, nahiz eta estatu osoan izan litekeena baino txikiagoa izan beharbada. Txostenak azpimarratzen duenez, pobreziak bereziki erasaten die giza talde jakin batzuei, hala nola

> langabetuei, etxeko zereginen erantzukizuna bere gain duten emakumeei, edo baliaezintasunagatik erretiratutakoei, eta horrek agerian uzten du Gizarte Segurantzaren politika sektori al jakin batzuen eraginkortasunik eza. Azkenik, berretsia gertatzen da pobreziak kalte handia egiten diola bai gizarte elkarbizitzari, bai herritarren aukera berdintasunari, eta, hori guztia dela eta, ezinezkoa gertatzen dela zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoa arautzen duten oinarrizko printzipio politikoak aplikatzea».

Aldi berean, alor horretan egin zitekeenaren oinarriak ezartzen ziren.

> «Horren aurrean, hala instituzio publikoek nola gizarte eragileek neurriak hartu behar dituzte, eta jokabide-estrategiak aztertu berriro, bai gure baliabide erabilgarriak modu eraginkorragoan banatzeko, bai lanerako eskubidea eraginkortasunez aplikatzeko. Izan ere, eskubide hori bermatzea oinarrizkoa da pobrezia epe ertainera gutxitzeko (batez ere gazteen artean, desanimatuta baitaude aurrean duten etorkizun aldakor eta iluna ikusita). Instituzioek eta eragileek berriro aintzat hartu beharko luketen beste neurri bat talde behartsuei gizarte elkartasunaren aldeko ahalegin berezia egitea eskatzeko aukera da. Nolanahi ere, ezein gizarte demokratikok ezin onar dezake Autonomia Erkidego honetan egun dauden muturreko pobrezia-egoerak enkistatzea».

> «Epe laburrean, oinarrizko helburua bi alderditan zentratu behar da batez ere: pobrezia kronikoa ezabatzean eta behartasun gorria desagerraraztean, hain zuzen. Gizarte ongizatearen epe laburreko politikaren ahalegin guztiek horretara jo behar dute»[5].

Era horretan, bere helburua batez ere teknikoa eta are akademikoa bazen ere, Euskadin prekarietate-poltsa handiak eta are muturreko pobrezia-guneak ere bazirela agerian jartzean, Euskadiko gizarte-egoera ahuleko taldeei buruzko azterketak gerora Euskal Parlamentuan egingo zen eztabaida politiko garrantzitsurako oinarriak jarri zituen. Azterketa argitaratu ondoren Legebiltzarrean izan zen eztabaidaren ondorioz, euskal familia askoren pobrezia-egoerari buruzko ez legeko proposamena onartu zuen 1987ko maiatzaren 8an Eusko Jaurlaritzaren osoko Bilkurak.

> «Eusko Legebiltzarrak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari Euskal Autonomia Erkidegoen dagoen pobreziari buruzko programa espezifikoa abia dezan. Helburu horretarako, dagokion legebiltzar-batzordeak proiektu bat prestatuko du, Eusko Jaurlaritzak berriki ar-

---

[5] *Pobretasuna Euskal Autonomia Erkidegoan* (Aurrerapena), Enplegu eta Gizarte Ongizate Sailburuorde Carlos Aldasoro Ballesteroren aurkezpena.

gitaratu duen Euskal Autonomia Erkidegoko pobreziari buruzko azterketaren aurrerapenean dauden datuak kontuak harturik».

Proposamen hori onartu ondoren, 1989. urtearen hasieran Pobreziaren aurkako Borrokarako Plan Integrala ekarriko zuen prozesua abiarazi zuen Eusko Jaurlaritzak[6]. Plan horrek gutxieneko baliabide ekonomikoak bermatzeko sistema bat ezartzen du lehen aldiz Espainian, gizarte-laguntzako soldata izenez ezagutu zenaren ezarpenean oinarrituta. Euskal plan hori abian jartzeak estatuko ia autonomia erkidego guztietara zabaldu zuen gero gizarte-laguntzako soldataren ideia, instituzio autonomikoek Espainiako gizarte babesaren eredua definitzen emandako laguntzaren adibide dena[7].

Eusko Jaurlaritzak bultzatutako ekimenaren eraginez, ikerketa eta estatistikaren ahalegin guztiak pobreziaren eta bazterketaren kontrako borroka-planak abiarazteko eta ebaluatzeko neurriekin zerikusia zuten alderdietan zentratu zen bereziki. Izan ere, 1988ko azaroan, beste datu-bilketa bat egin baitzen, Euskadiko gizarte-egoera ahuleko taldeei buruzko azterketaren diseinuan oinarritua, baina Euskadiko pobreziaren aurkako borroka-plana martxa jartzen laguntzeko asmo hutsez. Planean aurreikusitako gizarte-laguntzako soldataren prestazioaren eskari potentzialari buruzko aurreikuspenak ezartzeko behar ziren datuen bilketa bat izan zen soilik.

90eko hamarraldiaren lehen urteetan, baina, aintzat hartu zen Euskadiko gizarte-egoera ahuleko taldeei buruzko azterketarekin hasitako ekimenari berriro heltzeko komenigarritasuna, ikuspuntu estatistikotik begiratuta betiere, pobreziari buruzko azterketa Euskal Autonomi Erkidegoaren estatistika-plangintzan txertatzeko asmoz. Eusko Legebiltzarrak berak hartu zuen Euskadiko pobreziari eta gizarte desberdintasunei buruzko inkesta izan-

---

[6] Familien gutxieneko diru-sarreri buruzko otsailaren 28ko 39/89 eta Gizarte-behar larrietarako laguntzak arautzeko martxoaren 21eko 64/89 dekretuen bidez eraman zen aurrera hasieran plan hori. Handik urtebete eta gutxira, gai horri buruzko lehen autonomia-legea onartu zuen Eusko Legebiltzarrak: Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrerei buruzko maiatzaren 3ko 2/1990 legea, hain zuzen.

[7] Euskal Autonomia Erkidegoaren ekimenak Espainiako politikaren norabidea aldatzea ekarri zuen neurri batean, Madrilgo Autonomia Erkidegoak (Joaquin Leguina buru zuela) antzeko neurriak hartzea erabaki ondorengo urteetan gaiari buruzko araudi autonomikoak bata bestearen atzetik onartu zirelarik. Hala, gizarte-babeserako eredua bi oinarri sendotan bermatuko zen: Gizarte Seguratzaren sistema orokorraren prestazioetan, batetik, eta, Autonomia Erkidego batzuetan beste batzuetan baino gehiago, diru-sarrerak bermatzeko programa osagarri batean, bestetik. Guxieneko errenta autonomikoen eredu horrek autonomia osoz funtzionatzen du oraindik ere, estatuaren esku-hartze orotatik kanpo.

go zena Euskal Autonomia Erkidegoaren estatistika-planetan txertatzeko ekimena. Era horretan, Euskadiko pobreziari eta gizarte desberdintasunei buruzko inkesta 1993-1996 bitarteko Euskal Estatistika-Plangintzan txertatuta geratuko zen.

Operazio berria Euskal Estatistika-Plangintzan txertatzeko erabakiak pobreziari buruzko azterketen ebaluazio-prozesu metodologikoa berrartzera behartzen ditu estatistikako arduradunak. Hori dela eta, Europako pobreziari buruzko ikerketaren egoerari buruzko azterketa metodologikoa abiarazten da 1994. urtean. Horren helburu nagusia da Europako ikerketetan fenomeno horren azterketara hurbiltzeko erabiltzen diren metodoak aintzat hartzea eta aztertzea.

1994ko azterketa metodologikoaren ondorioak xehetasunez aztertu ondoren, Euskadiko pobreziari eta gizarte desberdintasunei buruzko inkestarako galdeketa-eredu baten ebaluazio-azterketa abiarazi zuen Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak 1995. urtean. Azterketa horrekin amaitu ziren estatistika berria behin betiko abiarazi aurreko lanak.

1995. urtean aurrera eramandako azterketa pilotutik ateratako irakaspenak oinarritzat harturik, 1996. urtean Euskadiko pobreziari eta gizarte desberdintasunei buruzko lehen estatistika-operazio ofiziala egin zen. Operazioa, bere funtsean, sendotutzat jo daiteke ordurako. Hala ere, 2000-2008 bitartean aurrera eramandako operazioetan, aldaketa eta hobekuntza metodologikoak egingo dira. Bereziki garrantzitsuak dira, 2004. urteko azterketan, europar estatistika-errekerimendu berriak aintzat hartu behar izatetik ondorioztatzen direnak. Une horretan, Euskadiko pobreziari eta gizarte desberdintasunei buruzko inkestak gai horretan operatiboa den europar estatistika batera egokitu beharrari aurre egin behar dio lehen aldiz: *European Union Statistics on Income and Living Conditions* (EU-SILC) delakora, hain zuzen. EUSILC estatistikaren ondorioz, Euskadiko pobreziari eta gizarte desberdintasunei buruzko inkestak norabide berria hartzen du, eta 2004. urtetik aurrera Eurostaten metodotik eratorritako emaitzei buruzko askoz informazioa hobea eskaintzen du, egotzitako alokairuaren metodoaren aplikaziorako hurbilketa barne.

## 2. **PGDIREN EZAUGARRI NAGUSIAK**

Euskadiko pobreziari eta gizarte desberdintasunei buruzko inkestak, 1966an indarrean sartua, eta Euskadiko gizarte-egoera ahulei buruzko azterketak zenbait desberdintasun dituzte. Azterketa horren helburu zabalagoen aurrean, inkestaren helburu nagusia pobrezia- eta

prekarietate-lerroak —eta beroriek Euskadin izandako eragina— ezagutzea, aztertzea eta ebaluatzea izan zen, hala nola gizarte desberdintasunekin lotutako adierazleak lortzea.

Zehatzago esanda, pobreziari eta gizarte desberdintasunei buruzko inkestak helburu espezifiko hauek zituen:

— Pobreziaren eta prekarietatearen eragina neurtzea eta kuantifikatzea, hala mantentze-pobreziari nola metatze-pobreziari zegokionez.
— Pobreziaren eta prekarietatearen edukia zedarritzea, kasurik larrienei erreferentzia berezia eginez.
— Pobrezia objektiboaren eta pobreziari buruzko norberaren pertzepzioaren arteko lotura aztertzea.
— Bai pobrezia-egoeren, bai prekarietate-egoeren arrisku-faktoreak zehaztea, aldagai orokor jakin batzuei dagokienez.
— Pobrezia- eta prekarietate-egoerak kontrolatzeko gizarte-ekintzak aztertzea, batez ere bizitza independente baterako sarrera-prozesuekin zerikusia dutenak. Pobrezia estalia delakoaren azterketa ere sartzen da testuinguru horretan.

Pobreziari buruzko inkestak uko egiten dio, aipaturiko testuinguru horretan, gizarte-egoera ahulei buruzko azterketaren hurbilketaren alderdirik zailenei, bai pobreziaren iraunkortasun- eta erreprodukzio-aldagaiei dagokionez, bai populazio pobrearen beharrizan eta problematika diferentzialen azterketari dagokionez. Izan ere, alderdi horiek aldizkako operazio estatistiko batean egitea komeni dena baino azterketa puntual zehatzagoak eskatzen dituzte. Aldizkako operazio estatistikoak pobrezia, prekarietate eta gizarte desberdintasunei buruzko adierazle orokorren jarraipenean zentratzen baitira batez ere.

Aitzitik, operazioaren aldi desberdinak garatu ahala, helburu espezifiko berriak gehitu ziren, edo profil zehatzagoz garatu ziren. Horietan artean pobrezia- eta prekarietate-adierazle osagarriak nabarmentzen dira besteren gainetik, batez ere elikadura egoki bat izateko arazoari buruzkoak.

Pobreziaren eta ongizate-gabeziaren arteko bereizkuntza da Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko inkesta eta Gizarteegoera ahulei buruzko lehen azterketa bereizten dituen beste ezaugarrietako bat. Europan nagusi ziren ikusmoldeen eraginpean, gizarte-egoera ahulei buruzko azterketa horretan, gutxieneko ongizatea ziurtatzeko ideia pobrezia erlatiboarekin uztartzen zen, eta oinarrizko beharrizanak bermatzeko ideia, berriz, erabateko pobreziarekin, pobrezia sozialki jasanezinarekin, edo behartasun gorriare-

kin. Pobreziari buruzko inkesta berria diseinatzeko orduan, baina, erabaki zen hurbilketa zuzenena egiteko ez zegoela pobrezia-egoeretan mailaketarik egin beharrik, hau da, ez zegoela zertan bereizi pobrezia erlatiboaren, erabateko pobreziaren eta behartasun gorriaren artean. Bereizketa benetan eraginkorra, modu orokorrago batean, ongizate-gabeziaren eta zentzu hertsiko pobreziaren artean ezarri beharrekoa zen.

Bada, hala ere, Euskadiko gizarte-egoera ahulei buruzko azterketaren eta Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren arteko jarraitutasuna agerian jartzen duen funtsezko elementu bat: pobreziaren eta prekarietatearen neurketari originaltasunez hurbiltzea. Euskadiko gizarte-egoera ahulei buruzko azterketak bezala, Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak ere bi alderdi desberdin bereizten ditu prekarietatea aztertzerakoan: mantentze-prekarietatea eta metatze-prekarietatea. Errealitate horiei hurbiltzeko orduan, gainera, aintzatago hartzen ditu gizartearen pertzepzioak ikerlarien iritziak baino.

Europako testuinguruan, Pobrezia eta Desberdintasun Sozialen Inkestak atentzioa ematen du bi arrazoi nagusirengatik. Batetik, azkeneko hogei urtean beti metodologia erabiliz egin den pobreziari buruzko estatistika bakarra delako Europa osoan. Bestetik, pobrezia aztertzeko Europan erabiltzen diren hurbilketa-metodo nagusiak aplikatzetik lortutako emaitzak eskaintzen dituen inkesta bakarra delako. Hau da, beraz, Pobrezia eta Desberdintasun Sozialen Inkestaren ekarpen nagusia: bere emaitzak printzipio metodologiko komunak aplikatuz lortu direla, eta horrek errealitate sozial konplexu honekin zerikusia duten alderdi desberdinek izandako bilakaera ezagutzeko aukera ematen duela, Europan uneren batean edo bestean erabilitako adierazle desberdinei dagozkien emaitzak jarraitzeko eta elkarrekin konparatzeko bidea emateaz gainera.

Pobrezia eta prekarietateren fenomenoak aztertzeko tresna egokia dela agerian geratu den neurrian, Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta hau egungo Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren operazio estatistiko nagusietako bat bihurtu da. Inkestak garrantzi handia izan du gizarte politikan, eta izaten jarraituko du aurrerantzean ere, Euskal Autonomia Erkidegoko pobrezia eta ongizate-gabezia mota desberdinen bilakaeraren jarraipena egiten lagunduko duen neurrian. Pobreziaren eta gizarte desberdintasunen adierazleei buruzko informazio jarraitua izateak aukera emango die administrazio publikoei, alderdi politikoei, gobernuz kanpoko erakundeei eta, oro har, herritar guztiei, pobreziaren eta prekarietatearen errealitateetan gerta daitezkeen aldaketak ezagutzeko, eta errealitate sozial horiekin unean-unean lotzen diren aldagai nagusiak detektatu eta aztertzeko.

Txosten honek, lehen zatian, Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren metodologia-ezaugarri nagusiak zehazten ditu, erabilitako neurketa-adierazleak eta neurketa-indizeak aztertuz batez ere. Gero, bigarren zatian, lortutako emaitza nagusiak eskaintzen ditu, epe luzera ikusten diren aldaketetan atentzio berezia jarriz. Helburu horretarako, datu-fitxategiak egokitu dira, datuak dauden aldian, hau da, 1986-2008 urte bitartean, konparazioa (2008ko atalaseen sisteman oinarritua) ahalik eta egokiena izan dadin.

# Lehen zatia.

# POBREZIA ETA PREKARIETATE ADIERAZLEAK PGDIn

# Atariko gogoetak

Euskal Estatistika Plangintzaren barruan, Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren helburu nagusia pobrezia- eta prekarietate-lerroak ezagutzea, aztertzea eta ebaluatzea da, eta lerro horiek Euskadin duten eragina jakitea. Gorago ere esan den bezala, Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren ezaugarri berezienetako bat pobrezia eta prekarietatea neurtzeko hartutako ikuspuntuaren orijinaltasunean datza.

Europako pobreziaren azterketara hurbiltzeko metodologia tradizionalak kontraesan deigarri batzuen aurrean jartzen du ikerlaria. Batetik, ondasun eta ekipamenduetarako sarbidemaila handi samarra duten familia batzuk pobretzat jotzen dira; bestetik, ordea, kontsumo-ondasun iraunkorrak eskuratzeko zailtasunengatik, edo bizi diren etxebizitzaren biziegokitasun-baldintzengatik, bizi-baldintza prekarioak dituzten familia batzuk ez-pobretzat jotzen dira.

Gizarte bateko kideen ongizate espektatibeetan gorabeherak sartzen dituzten kultur ezaugarrien eragina alde batera utzirik, aipaturiko kontraesanaren arrazoia pobreziaren eta prekarietatearen bi alderdi desberdinak ez bereiztean datza funtsean, ez baitute biek beti aldi berean aurrera egiten. Batetik, diru-sarreren prekarietatea edo mantentze-prekarietatea nabarmentzen da. Prekarietatearen alderdi hori familiaren bizitza ekonomikoaren eguneroko dinamikarekin uztartzen da, hau da, familiak (erabiltzeko dituen diru-sarrerekin) ohiko gastuei (janaria, etxebizitza mantentzeko gastu orokorrak, eta aisiarekin zerikusia dutenak) aurreko egiteko duen ahalmenarekin. Horren aurrean, berriz, metatze, inbertsio edo kapital prekarietateak zerikusi handiagoa du familiek epe ertainera eta luzera bizi-baldintza egokiak (eta etorkizunari aurre egiteko gutxieneko segurtasun ekonomikoa) bermatuko dizkieten ondasunak eta baliabideak eskuratzeko duten ahalmenarekin.

Ekonomiaren zikloek bereizketa horren zentzua antzematen laguntzen dute. Krisialdietan, adibidez, goraldietan ongizate-maila nahikoa gozatutako familiak mantentze-pobre gisa ager daitezke. Familia horiek gauza izan ziren bai ohiko beharrizanei aurre egiteko, bai epe luzera ongizate-maila nahikoa bermatzen duten kapital ondasunak eskuratzeko ere. Familia horietako askok oparoaldietan metatutako aurrezki eta ondare-ondasunei esker egin ahal izan zioten aurre krisiari denboraldi batez. Behartsu berri horiek Euskadik joan den mendean izandakoa bezalako bilakaera ekonomikoetan sortzen dira, ekonomiaren hazkunde azkarreko aldiak eta beheraldi sakoneko aldiak txandakatzen direnean.

Ekonomiaren oparoaldietan, herrialde pobreetatik iritsitako etorkinek erabat antzalda dezakete errealitatea. Gehienetan, familia edo pertsona horiek, eguneroko beharrizanei aurre egiteko baliabide nahikoak izan arren, ez dute etxebizitza duin bat izateko modurik, edo ustekabeko gastuei aurre egiteko behar adina aurrezkirik. Begien bistakoa denez, pobreziaedo prekarietate-mota horrek ez dauka zerikusirik aurreko ahapaldian deskribatutakoarekin.

Pobrezia eta prekarietatea izaera desberdineko arazoak dira, are Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestan ematen zaien zentzu hertsiki sozioekonomikoan ere. Aipaturiko adibideek erakusten duten bezala, ez da gauza bera epe labur batez etxebizitza behar bezala mantentzeko behar adina baliabide ez izatea, eta epe ertainera edo luzera bizi-baldintza egokiak izateko modurik ez izatea, hau da, gutxieneko kalitateko eta behar bezala hornitutako etxebizitza bat, edota gainerako kontsumo-ondasun iraunkorrak izateko modurik ez izatea. Azken errealitate hori pixkanaka baino ez da aldatzen, baliabide patrimonial berriak metatzeko ahalmenaren arabera, normalki. Gainera, pobreziaren eta prekarietateren alderdi desberdinok ez dute zertan elkarrekin agertu beti.

Pobrezia eta prekarietatea aztertzeko orduan, hori dena hartu behar da kontuan. Ikerketa aplikatuan, ordea, ez dira behar beste kontuan hartzen fenomenoaren alderdi desberdin horiek. Europan, baliabide-maila nahikoa zehaztera bideratutako ikuspegien eta gabezia- edo desabantaila-egoerak aztertzen dihardduten joeren artean bereiztera iritsi dira, gehienez ere. Baina hurbilketa horiek osagarritzat edo errealitate bera eta konplexu batera hurbiltzeko modu desberdintzat planteatu ordez, ikuspegi berezi eta funtsean aurkakotzat aurkeztu izan dira sarritan, duela oso gutxi arte.

Ondoko orrialdeetan, Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestan agertzen diren pobreziaren eta prekarietatearen alderdi desberdinak aztertzen dira xeheki, eta haien ezaugarri orokorrak ez ezik haiek neurtzeko erabilitako adierazle-motak ere aurkezten dira. Orobat aztertzen da Inkestak pobrezia errealaren neurriari hurbiltzeko eta pobrezia edo prekarietate estalia dei genezakeena aztertzeko egindako planteamendua.

# I. atala.

# Mantentze-pobrezia eta mantentze-prekarietatea

## 1. **HURBILKETA KONTZEPTUALA**

Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestan aztertzen den pobreziaren lehen alderdiak pobrezia neurtzeko modu tradizionalekin du zerikusia. Beharrizan arruntei aurre egiteko diru-sarrera edo errenta nahikorik ez izatearekin estuki lotuta dauden pobrezia-motak aipatzen dira lehenik delako inkesta horretan. Kontuan izan behar da epe laburrean aurre egin beharreko gastuak direla beharrizan arruntak, hau da, bai gastu arrunt orokorrak, bai denboran zehar banatuta aplikatzen diren inbertsio-gastuak: etxebizitza erosteagatik ordaindu beharreko interesak eta amortizazioak, adibidez. Pobreziaren alderdi hau —familia batzuek ohiko gastuei aurre egiteko dituzten ekonomia-baliabide urriak gogorazten dituena— *mantentze-pobrezia* gisa definitua izan da Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestan.

Zehatzago hitz eginda, eta eguneroko bizitzan duen benetako esanahiari dagokionez, oinarrizko beharrizanak asetzeko (batez ere janari, etxebizitza eta jantziarekin zerikusia duten gastuak estaltzeko) ekonomia-baliabide aski ez dagoelako egoera adierazten du mantentze-pobreziak.

Mantentze-pobreziaren arrisku-egoeren garrantzia bikoitza da. Batetik, etxeko oinarrizko kontsumo-premiei aurre egiteko diru-sarrera nahikorik ez dagoela adierazten du. Bestetik, luzaroan iraunez gero, eskastasun-egoera potentzialki koiuntural horrek pobrezia-mota larriagoak eragin ditzake: epe luzerako muturreko prekarietatean bizitzea, adibidez. Arazoa koiunturala baino gehiago estrukturala dela, eta, beraz, epe motzean eta laburrean konpontzen zaila dela agerian geratu ondoren, pobrezia-egoera horiek Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestan metatze-pobrezia gisa definitu den pobrezia-motara igortzen gaituzte. Hurrengo kapituluan, xehetasunez deskribatzen da zertan datzan metatze-pobrezia.

Azpimarratu beharra dago pobreziak ez dituela agortzen herritarren oinarrizko premiak asetzeko orduan agertzen diren prekarietate-egoera guztiak. Horren haritik, Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak argi bereizten ditu mantentze-pobreziaren errealitateak ongizate-gabeziaren arazoetatik. Ongizate-gabezia, bestalde, loturik dago, halaber, prekarietate-egoera desberdinen azterketarekin, mantentze-pobreziari dagokio-

nez. Ongizate-gabeziaren arazoak gizarte jakin bateko gutxieneko ongizate-eta erosotasun-mailari eusteko beharrezkotzat jotzen diren ohiko gastuei epe laburrean aurre egiteko behar adina ekonomia-baliabide ez izatearekin daude lotuta. Arazo horiek direla eta, familiek edo pertsonek ez dute gizarte hori ezaugarritzen duten bizimodu, ohitura eta jarduera normaletan parte hartzeko aukera txikienarik ere.

Gauzak horrela, ohiko mantentze-premiak asetzeari dagokionez, prekarietate- edo ongizate-gabeziaren arazoek gizartearen aldetik espero den gutxieneko ongizate-mailara iristeko herritarrek dituzten zailtasunekin zerikusia duten bitartean, pobrezia-arazoak, berriz, oinarri-oinarrizko premiak asetzeko zailtasunarekin lotzen dira, zentzu hertsian. Neurri batean, pobreziaren ideia horrek fenomeno hori neurtzeko ikuspegi absolutuetara garamatza, iraupenaren eta oinarrizko premien estalduraren ideiarekin loturik dauden ikuspegietara, alegia. Prekarietate edo ongizate-gabezia, berriz, fenomenoari buruzko ikuspegi erlatiboago batekin dago uztartuta, eta gizarte jakin batek berezkoak dituen ongizate-espektatibekin loturik. Nolanahi ere, Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak garbi erakusten duenez, hala errealitate batek nola besteak gizartearen zirkunstantzia espezifikoak islatzen dituzte bere garapenaren aldi bakoitzean.

Gorago esan den bezala, pobrezia eta ongizate-gabeziaren arteko bereizketa erabakigarria da Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestan eta metodo horren oinarrizko ezaugarri originala da gainera. Familiek beharrezko gastuei aurre egiteko duten ahalmenean, prekarietate-errealitate desberdinak agerian jartzen dituen neurrian, pobreziaren eta ongizate-gabeziaren arteko bereizketak errealitatearen irudi hobea ematen digu Europako ikerketetan egun erabiltzen diren «pobrezia erlatiboa» eta «pobrezia larria» kontzeptuek ematen digutena baino. Gainera, aurrerago ikusi ahal izango dugun bezala, aukera ematen digu modu egokiagoan aztertzeko bai aldaketa sozialaren eta garapen ekonomikoaren arteko harremana, bai horrek prekarietate-errealitate desberdinetan duen eragina.

Pobrezia kontzeptua gehiago zehazteak, eta ongizate-gabeziarenetik bereizteak, abantaila handia du, gainera: pobrezia-lerroei buruzko datu errealistak eskaintzen ditu, sozial eta politikoki sinesgarriak, eta pobreziaren aurkako borrokan erabaki instituzionalak norabidetzeko gai direnak. Bide horretatik posible izango litzateke bereiztea pobreziaren aurkako borroka, gizarteak herritarrenentzat espero duen ongizate-maila bermatzera zuzendutako politika orokorrago batetik. Euskal Autonomia Erkidegoak pobreziaren eta bazterketaren kontrako borrokan duen esperientziak, batetik, eta alor horretan estatis-

tikaren eta erabakimen politikoaren artean egon den erlazioak, bestetik, hala bermatzen dute. Neurri batean, IMIren mailek eta gero Oinarrizko Errentarenenek Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren emaitzetatik eratorritako esperientziara egokitzera jo dute.

## 2. POBREZIA- ETA PREKARIETATE-ADIERAZLEAK MANTENTZE-DIMENTSIOAN

Pobreziaren arazoa estatistikoki aztertzearen ezaugarrietako bat, azterketa diru-sarrera urrien ondoriozko pobrezia edo mantentze-pobrezian oinarritzen denean, komunitate zientifikoak askitzat jotzen dituen definizioeta kalkulu-metodoak sendotzeko zailtasuna da. Horregatik, Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestan, pobrezia- eta prekarietate-adierazle desberdinak eskaintzen dira, mantentze-dimentsioaren barruan.

Adierazle nagusiak berariazko metodo batean oinarritzen dira, Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren metodoan, haina zuzen. Metodo horrek hiru egoera-mota bereizten ditu pobrezia/ongizate eskalan: pobrezia-arriskuak definitutakoak, pobreziaren eta ongizatearen arteko erdibidean kokaturikoak, eta, azkenik, ongizate-egoerak.

Hala ere, Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren berrikuntzak bateragarriak dira Europako pobrezia eta prekarietateari buruzko azterketetan erabiltzen diren adierazleak lortzeko bidearekin. Hala, Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak emaitza onak ematen ditu arazoa aztertzeko erabilitako metodo nagusientzat, eta emaitza horiek garrantzizko erreferentziapuntua izan dira Europan, diru-sarrera urrien ondoriozko prekarietatearen azterketari lotutako atalaseak lortzeko orduan.

Zehatzago esateko, Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak honako metodologia hauen erabileratik eratorritako pobrezia-tasak ematen ditu egun. Baita ongizate-gabezia adierazten duten tasak ere, zenbait kasutan:

— Europako instituzioen adierazle originala; EDIS taldearen eta Caritas erakundearen azterketetan erabiltzen da (batez besteko errenta baliokidearen %50).
— Eurostaten metodotik eratorritako adierazle berria, bi motatakoa (%40 edo %70), egotzitako alokairuarekin edo gabe.
— Leyden adierazlea, bere bertsio laburtuan (Subjective Poverty Line edo SPL).

— Eusko Jaurlaritzak 1986ko azterketan diseinatutako adierazlea, Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren (PDSI metodoa) 1996ko operazioan egokitua[8].

Egungo edo iraganeko ohiko erabilerako adierazleen eskuragarritasunak aukera ematen dio erabiltzaile bakoitzari epe luzera jarduteko eta nahi dituen adierazleak erabiltzeko. Hala, pobreziak Euskal Autonomia Erkidegoen duen eragina eta Europako beste edozein herrialdetan duena elkarrekin konparatzeko, horretarako egokien jotzen den metodologia erabil daiteke.

Planteamendu zabal horrek ikerketarako deserosoak diren bi errealitate-mota ulertzeko bidea ematen du: lehenik, erabat ezinezkoa dela pobrezia-lerro bateratua behin-betiko ezartzea, oraingoz behintzat; eta, bigarrenik, oso zaila dela metodologia bat edo bestea aplikatzetik eratortzen diren emaitzak konparatzea. Hurbilketa-mota desberdinak aztertuta, ikusiko dugu oso emaitza desberdinak ematen dituztela, bai pobreziaren eta prekarietatearen eragin-kopuruari dagokionez, bai arazoak eragindako etxebizitzen eta pertsonen karakterizazioari dagokionez.

Hona hemen orain PDSI metodotik eratorritako mantentze-pobreziaren eta mantentze-prekarietatearen atalaseak kalkulatzeko erabilitako metodologia. Europan erabiltzen diren gainerako metodoak ere aipatzen dira, labur bada ere. Horien adierazleak eragiketa estatistikoan lortzen dira. PDSI metodoa hurbilketa kritiko batean eta metodo tradizionalen ondorengo garapenean oinarritzen denez, aipa dezagun lehenengo zein diren metodo horiek.

---

[8] 1986ko Euskadiko gizarte-egoera ahulei buruzko azterketan erabilitako hurbilketa batzuk baztertu egin ziren 1996tik aurrera, ez baitziren sendotu ez Espainian ez Europan. Horien artean aipagarriak dira CSP hurbilbidea eta Willmotten metodologia. Euskadiko gizarte egoera ahulei buruzko azterketara egokitutako oinarrizko beharrizanen metodorako hurbilketa ere baztertua izan zen. Prozedura horretan, familia-tamaina bakoitzaren gutxieneko elikadura-kostua kalkulatzen zen, elikadura-gastuaren eta familia-tamainaren erregresiotik abiatuta, logaritmo nepertarretan neurtua. Erregresioa beren elikadura-beharrizanak asetu bai, baina egoera guztiz egokia lortzen ez zuten taldeei aplikatzen zitzaien. Talde horiek beren elikadura-beharrizanak ozta-ozta asetzen zituztenak ziren. Gero, Engel koefizientea lortzen zen, familia-tamaina bakoitzerako. Horretarako, diru-sarreren aldagaia erabili ordez, gastuen aldagaia erabiltzen den, gastu arrunteko terminoetan interpretatua. Erreferentzia-talde bera hartzen zen, alde batera utzirik diru-sarrerik ez zituzten taldeak (ez erregularrak), eta gastu osoari etxebitziaren gastua deskontatuz. Hurbilketa mota horrek Europan duen harrera eskasak bultzaturik, PDSIn adierazle hori baztertzea erabaki zen.

## 2.1. **Europako estatistika-metodoa**

Pobreziaren azterketa izaera erlatiboa duten estatistika-adierazle objektiboen eraketarekin lotua egon da tradizionalki Europan. Orain arte nagusitu den ikuspegiak ehuneko jakin bat joera zentraleko estatistika-adierazle bati aplikatzetik eratortzen den pobrezia-atalasearen azpitik dagoen baliabide-mailarekin uztartu du beti pobrezia-atalasea. Adierazle hori gizartearen baliabide globalen (diru-sarrera garbi erabilgarrien edo egindako gastu-mailaren) aldagai adierazgarri baterako kalkulatu da. Hurbilketa horretan, herritarrek estatistika-adierazle objektibo batekiko duten jarrera islatzen du pobreziak, estatistika-adierazlea ikerlari talde batek aldez aurretik zehaztua dagoela.

Bere orientazio estatistiko garbiagatik, ikuspegi horri Europako estatistika-metodoa esan ohi zaio.

### 2.1.1. Europako estatistika-metodo originala (EDIS-Caritas)

Europako pobrezia neurtzeko historiak berezitasun jakin batzuk ditu. Horietako nagusietako bat da fenomeno hori neurtzeko prozedura normalizatua Europako Erkidegoen ekintzarekin zuzenean lotua dagoela. Erkidego horiek dira, hain zuzen, pobreziaren neurketa erlatiboaren sendotze prozesurako oinarrizko urratsak eman dituztenak.

Orain dela urte gutxi batzuk arte, Espainian egindako hurbilketarik ezagunena Europako instituzioek pobreziaren kontrako lehen borroka-programak abian jartzean erabili zutena izan zen. Pobreziak Europan duen eragina aztertzerakoan, pertsona bakoitzeko batez besteko diru-sarrera garbi erabilgarri baliokideen funtzio bat bezala ikusten zuen metodo originalak pobrezia. Hala, pobrezia-atalasea maila estatistiko erlatibo batean ezartzen zen: lurralde jakin bateko etxeetako edo familietako heldu baliokide bakoitzeko diru-sarrera garbi erabigarrien batez bestekoaren %50ean, hain zuzen. Gauzak horrela, hurbilketa horren arabera, kontsumo-unitate baliokide bakoitzeko batez besteko errentaren %50etik beherako diru-sarrerak dituzten etxe edo familiak pobretzat (edo pobrezia erlatibok erasandakotzat) hartzen dira.

Hurbilketa honetan erabiltzen den baliokidetasun-eskala, O'Higgins eta Jenkins-en azterketa klasikoan (1987) erabilitako bera, Oxford eskala zen. ELGE erakundeak aldez aurretik ezarri zuen eskala hori. Honako hauek dira baliokidetasun-balioak:

— Lehenengo heldua: 1,0

— Heldu osagarri bakoitza: 0,7
— 14 urtez azpiko seme-alaba bakoitza: 0,5

Etxe bakoitzean heldu bakoitzeko eskuragarri dauden diru-sarrerak etxe horretara egokitutako baliokidetza-faktoreak zatitutako etxeetan eskuragarri dauden diru-sarrerak dira.

Espainian, metodo hori garrantzi handikoa izan zen. EDISek eta Caritasek (EDIS, 1984) egindako azterketa aitzindarien gidaritzapean, Europako erakundeek hasieran hartutako metodologia aplikatuz eraman zen aurrera pobretasunari buruzko ikerketa[9]. Ikerketa-tradizio horren inertziak, eta estatistika-instituzio ofizialen geldotasunak, ikuspegi originala bere horretan mantentzen lagundu zuten gerora ere, are Eurostatek bultzatu eta Europar Batasun berriak onetsitako errebisioa egin ondoren ere.

Esan beharra dago, hala ere, EDIS/Caritasek aldaketa batzuk egin zituela Europako metodo hori Espainian aplikatzerakoan. Izan ere, batez bestekoaren %50ko adierazle horrek oso pobrezia-tasa handia ematen duela kontuan harturik, EDIS eta Caritasen ikerketetan pobrezia larriaren atalasea bereizteko beharra ikusi zen. Horrela, EDIS eta Caritasek pobrezia erlatiboaren eta pobrezia larriaren arteko bereizketa egiten dute. Lehen pobrezia-mota horretan batez besteko errenta baliokidea baino %50 gutxiagoko diru-sarrerak dituzten familiak sartzen dira, eta pobrezia larriaren barruan, berriz, aipatu errenta hori baino %25 gutxiagoko diru-sarrerak dituztenak[10].

Honako taula honetan, metodo hori (edo, hobeto esanda, EDIS eta Caritasek Espainian egindako azterketa aitzindarietan erabilitako metodo horren bertsioa) aplikatuz zedarritzen diren pobrezia-atalaseak agertzen dira. Datuak Euskadiko Autonomia Erkidegoari dagozkio. 2008. urteko Pobreziari eta gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta hartu da erreferentziatzat.

---

[9] Ruiz Castillo (1987), Ruiz Huerta eta Martínez (1994) edo Martín-Guzmán-ek (1996) EDISen lehen hurbilketetan ezarritako ildoari jarraitzen diote. Ayala eta Palacio-k (2000), berriz, hurbilketa tradizionalaren erabilgarritasun mugatua onartzen dute inplizituki, erakunde autonomikoek (dagokien baliokidetasun-eskalarekin) bermatzen duten gutxieneko diru-sarreraren maila erabiltzen baitute pobretasun-lerroa finkatzeko.

[10] EDIS eta Caritasen azken azterketean (FOESSA fundazioa, 1998), lau pobretasun maila bereizten dira: muturreko pobretsuna: errenta garbi baliokidearen %15 baino gutxiagoko diru-sarrerak; pobretasun larria: errenta garbi baliokidearen %15-25 baino gutxiagoko diru-sarrerak; pobretasun moderatua: errenta garbi baliokidearen %25-35 baino gutxiagoko diru-sarrerak; prekarietate soziala: errenta garbi baliokidearen %35-50 baino gutxiagoko diru-sarrerak. Lehen bi mailak pobretasun larritzat definitzen dira, eta beste biak pobretasun erlatibotzat.

1. TAULA

**Mantentze-pobreziaren atalaseak**
**Europako estatistika-metodoaren arabera.**
**Edis-Caritas bertsioa. 2008**

(Datuak eurotan)

| **Etxearen tamaina** | **Pobrezia larria (batez bestekoaren %25)** | **Pobrezia erlatiboa (batez bestekoaren %50)** |
|---|---|---|
| Pertsona 1 | 306,92 | 613,83 |
| 2 pertsona | 521,76 | 1.043,51 |
| 3 pertsona | 675,21 | 1.350,43 |
| 4 pertsona | 828,67 | 1.657,35 |
| 5 pertsona | 982,13 | 1.964,26 |

*Iturria:* Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta, 2008.
Eskala 0,7 bigarren pertsonarentzat eta 0,5 gainerako pertsonentzat.

Esan beharra dago EDIS/Caritas metodoak ez duela egun erakundeen onespena, ez Europan ez Espainiako estatuan. Beraz, metodoa agortutzat eman daiteke nolabait, azken urteotan aplikatutako ikerketari dagokionez. Pobreziari eta gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak erabilgarri dauden datuen konparazio eta jarraipen ondorioetarako ematen du metodo honen aplikaziotik eratortzen den informazioa.

### 2.1.2. Eurostaten metodo berria

Europako estatistika-metodoaren diseinuari buruzko eztabaida metodologikoa hiru ardatz nagusitan zentratu da: diru-sarrerei edo gastuei buruzko datuen erabilerari lehentasuna ematea; batez bestekoa edo mediana erreferentzia-adierazle gisa erabiltzea (pobrezia-atalasea finkatzeko orduan kontuan hartu beharreko neurri estatistikoaren ehunekoari buruzko eztabaida barne); eta baliokidetasuneskala egokiak zehazteko modua.

Dagokion barne-eztabaidaren ondoren (Eurostat, 1998 eta 2000), Eurostatek diru-sarrera urriak kalkulatzeko darabilen hurbilketa berria (Europako erakunde guztien onespena duena) metodo originalaren egokitzapen hustzat aurkezten da. Europako hurbilketa tradizionalari dagokionez, Eurostatek hiru aldaketa garrantzitsu sartzen ditu pobrezia-atalaseen kalkuluan:

*a)* Batez bestekoaren ordez mediana erabiltzea.

*b)* Aintzat hartu beharreko estatistikoaren (kasu honetan, medianaren) ehunekoa ohiko %50aren ordez %60an finkatzea.

*c)* Oxford eskala egokitzea, baliokidetasun-eskala eredu lauagoa erabiliz, honako balio baliokide hauetan oinarritua:

— Lehen heldua: 1,0
— Heldu osagarri bakoitza: 0,5
— 14 urtez azpiko seme-alaba bakoitza: 0,3

Zehaztu beharra dago, Eurostaten hurbilketan, jatorriz behintzat, erreferentzia-terminoa ez zela pobrezia, diru-sarrera urria baizik[11]. Beraz, EDIS eta Caritasek pobrezia larriaren maila finkatzeko erabilitakoaren antzeko hurbilketa aukera liteke, pobrezia larria pobrezia erlatiboaren atalasearen %50aren inguru dela kontuan harturik. Horrela, konparazioetarako, eta estatistika-metodo originalaren paralelismoz, hurbilketa horren garabidean Pobreziari eta gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak pobrezia larriko egoeratzat hartu zituen hasieran diru-sarrera urrien atalasearen %50tik behera kokatutakoak (medianaren %30aren baliokideak, beraz).

Aukera hori Eurostatek medianaren %40-70 bitarteko adierazle-sail batekin lan egiteko erabakia hartu aurrekoa da. Horrela, Europan egun homologatuta dagoen adierazlea Eurostaten adierazlea baldin bada (medianaren %60), diru-sarrera urrien kontzeptuari asimilatua dagoena, esan dugun bezala, medianaren %40, 50 eta 70eko adierazle erlatiboak ere erabil daitezke. Nahiz eta %30eko maila pobrezia larri edo oso larriaren maila zedarritzako erabil litekeen, pobreziarako hurbilketa, zentzu hertsi an, %40eko gutxieneko mailarekin lotuta egongo litzateke, Eurostaten hurbilketa erabili nahi izanez gero behintzat. Izan ere, Pobreziari eta gizarte Desabantailei buruzko Inkestak adierazle hori erabiltzen baitu Euskadiko Autonomia Erkidegoko pobrezia Europako Batasuneko beste lurralde batzuetakoarekin konparatzeko orduan.

2008. urtean, diru-sarrera urriko eta pobrezia larriko atalase hauek zedarritu ziren, Eurostaten metodoa aplikatu ondoren.

---

[11] Eurostateen metodoa pobretasuna aztertzeko erabilitzen da batez ere, baina diru-sarrera txikien atalaseak zehazteko ere balio du, zentzu hertsian. Antzeko egokitzapen terminologikoa egiten dute europar erakundeek pobretasunaren kontzeptua erabili ordez bazterketa sozialarena erabiltzen dutenean.

2. TAULA

**Diru-sarrera urriko eta pobrezia larriko atalaseak Eurostaten metodoaren arabera. 2008**

(Datuak eurotan)

| Etxearen tamaina | Pobrezia larria (medianaren %40) | Pobrezia erlatiboa/ Diru-sarrera urriak (medianaren %60) |
|---|---|---|
| Pertsona 1 | 545,60 | 818,40 |
| 2 pertsona | 818,40 | 1.227,60 |
| 3 pertsona | 982,08 | 1.473,12 |
| 4 pertsona | 1.145,76 | 1.718,64 |
| 5 pertsona | 1.309,44 | 1.964,16 |

*Iturria:* PGDBI 2008.

Eskala 0,5 bigarren pertsonarentzat eta 0,3 gainerako pertsonentzat.

Eurostaten metodoari dagokionez, esan beharra dago beste aldaketa bat egin dela duela gutxi EU-SILC metodoaren aplikazioan. Izan ere, egotzitako alokairua deritzan kontzeptua erabiltzen hasi baita diru-sarrera erabilgarrien zenbaketa-prozesuan.

## 2.2. **Estatistika-metodoaren alternatibak**

Litekeena da estatistika-metodo erlatiboaren monopolio praktikoak huts egitea Europako pobrezia eta prekarietateari buruzko ikerketan. Metodo objektiboetara jotzeak ez du fenomeno sozial horren hurbilketa inperfektuak egiteko aukera besterik ematen. Ikerketa aplikatuak agerian utzi ditu estatistika-metodoaren mugak. Hurbilketa alternatibo batzuk muga horiek gainditzen saiatu ziren hasieratik.

### 2.2.1. Kritiken norabidea

Europako estatistika-metodoari buruzko kritikak ebaluatzean, atentzioa ematen du ikusteak —ikuspegi enpirikotik begiratuta— desoreka handiak daudela metodoa aplikatzetik eratortzen den sailkatze objektiboaren eta kaltetutako biztanleek egoeraz duten pertzepzioaren artean. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, adibidez, 2008. urtean Eurostaten metodoak (medianaren %60) pobretzat sailkatu zituen etxeen %75,3-k ez

zuen bere burua pobretzat jotzen. Hon gutxi balitz, Eurostaten metodoak ez-pobretzat jotzen ditu Euskadin gutxienez beren burua pobre samartzat jotzen duten etxeen %41,7.

Kontuan harturik arrisku-egoeretako batean dauden etxeak (beren burua pobre samartzat daukate gutxienez, edo pobretzat sailkatu dituzte estatistika-metodoa aplikatu ondoren), sailkapen objektiboaren eta pertzepzio subjektiboaren arteko desoreka-mailak etxe horien %78 jotzen ditu, Eurostaten metodoa erabiliz gero, eta etxe horien %82,4 batez besteko errentaren %50eko metodo originala erabiliz gero.

3. TAULA

**Sailkapen objektiboaren eta pertzepzio subjektiboaren arteko desoreka-maila. Europako estatistika-metodoa. 2008**

(Kaltetutako etxebizitza kopurua ehunekotan)

| Desoreka-mota | Metodo originala (EDIS) | Eurostaten metodoa |
|---|---|---|
| Beren burua pobretzat jo ez arren, pobretzat sailkatuta dauden etxeak | 72,5 | 75,3 |
| Beren burua gutxienez pobre samartzat jo arren, ez-pobretzat sailkatuta dauden etxeak | 67,3 | 41,7 |
| Erreferentzia-etxe guztien artean nolabaiteko desoreka duten etxeak (pobretzat sailkatuta dauden edo beren burua gutxienez pobre samartzat jotzen duten etxeak) | 82,4 | 79,0 |

*Iturria:* PGDBI 2008.

Datu horiek agerian uzten dutenez, Europako estatistika-metodoa (bere formulazio klasikoan edo Eurostatenean) aplikatzetik eratortzen diren pobrezia objektiboko errealitateen mugak ez datoz bat gizarteak fenomeno horretaz duen pertzepzio subjektiboarekin, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez behintzat.

Zientziaren helburua ez da, bistan da, gizartearen pertzepzioak arrazionalizatzea edo haiei izaera zientifikoa ematea, baina garbi dago ezin duela fenomeno sozialak kategorizatzeko tresna bihurtu ere, gizarteak fenomeno honetaz duen pertzepzioekin inolako loturarik izan gabe. Pobrezia sozialki interpretatutako errealitatea da, eraikuntza sozial bat, eta oinarrizkoa da gizarteak kontzeptu horretaz duen ideia aztertzea. Pobrezia eta prekarietateari buruz-

ko ikusmolde bat nagusitu da gizartean, eta ikerlariek aintzat hartu beharra dute ikusmolde hori, neurri batean behintzat, gehiegizko apriorismo estatistikoa saihesturik.

Aipaturiko problematika enpiriko horrek oinarri teoriko orokor bat du, garbi-garbi. Egiatan, estatistika-metodoek ez dute pobrezia neurtzen, baliabideen banaketan dagoen desberdintasun estatistiko jakin bat baizik, hala nola desberdintasun-egoera horrek erasaten duen pertsona-kopurua[12]. Metodo horiek pobrezia neurtzeko adierazle bat eskaintzen badigute ere, pobrezia desberdintasunari hertsiki lotuta dagoen fenomenoa den neurrian, pobreziaren benetako eragina aztertzeko orduan adierazlea aleatorioa gertatzen da bere emaitzetan.

Bestalde, diru-sarreren desberdintasunetan oinarritzen diren egiturak denboran oso egonkorrak diren neurrian, adierazle elkartuak ere hala izan ohi dira, EDIS edo Eurostaten adierazleen epe luzerako jarraipenak agerian utzi duen bezala. Horregatik, estatistika-metodo erlatiboak —egun formulatuta dauden moduan behintzat— ez dira adierazle eraginkorrak pobrezia epe ertain eta luzean neurtzeko. Pobrezia eta prekarietatearen bilakabidean dauden aldaketak kontrolatzeko gauza ez diren neurrian, adierazleok ez dira oso erabilgarriak politika sozialen ondorioen jarraipena eta azterketa egiteko[13].

Estatistika-metodoari egiten zaion beste kritika bat da pobrezia-atalasea zehazteko modua guztiz arbitrarioa dela, eta ikerlariaren irizpideen mende uzten dela dena, azken batean. Ez dago dudarik zientifikoki oinarritu behar dela zergatik erabili batez bestekoa edo mediana, gastuen aldagaia edo diru-sarreren aldagaia, diru-sarrera edo gastuen %40a, 50a edo 60a, edo baliokidetasun-eskala jakin bat (alde batera utzirik, jakina, pobrezia-atalaseak zehazteko orduan aintzat hartu beharreko lurraldearen erreferentzia-marko espezifikoaren arazoa: eskualdea, estatua, Europa). Egia esan, baliokidetasun-eskala bat edo beste, edo ehuneko bat edo beste aukeratzeko erabakiak estatistikako arduradunen aldez aurretiko erabakiak dira. Erabaki horiek ez dira, gainera, behar bezala kontrastatutako datu enpirikoetan oinarritzen beti.

---

[12] O'Higgins eta Jenkins-ek honela defendatzen dute hurbilketa hori: «...there is an inescapable connection between poverty and inequality; certain degrees or dimensions of inequality ... will lead to people being below the minimum standards acceptable in that society. It is this "economic distance" aspect of inequality that is poverty. This does not mean that there will always be poverty when there is inequality: only if this inequality implies an economic distance beyond the critical level» (O'Higgins y Jenkins, 1990).

[13] Metodo objektibotik eratorritako adierazleek korrelazio txikia dute, edo are negatiboa ere, pobretasunaren zehar adierazleen bilakaerarekin (autopertzeptzioa, ondasunen jabetza-maila, etab.).

Kontu hori funtsezkoa da ikerketa jardunean. Etxe edo pertsonen diru-sarreren arteko desberdintasunak gradualak direnez, pobreen kopuruak nabarmen egin dezake gora edo behera, pobrezia-atalasea zehazteko metodo bat edo beste erabilita. Praktikan, baina, pobrezia neurtzeko adierazlearen egokitasuna adierazle horrek historiaren une jakin batean eta testuinguru geografiko jakin batean duen erabilgarritasun espezifikoaren mende egongo denez, erabilgarritasun hori funtsezkoa gertatzen da kontu aleatorio batean.

Europako pobrezia-adierazlearen eraketan egindako aldaketak oso adierazgarriak dira. Aldaketa jarraituak izan dira eta adierazlearen alderdi askotan izan dute eragina: diru-sarrerak kalkulatzeko moduan (egotzitako alokairuaren mekanismoa berritzea ekarri du), erreferentzia-adierazlean (batez bestekoa edo mediana), pobrezia erlatiboaren atalaseak zedarritzeko erabilitako adierazlearen ehunekoan (tartea %40-70 bitartekoa da gaur egun), eta baliokidetasun eskalan (OCDE eta OCDE zuzendua).

### 2.2.2. Metodo tradizionalen alternatiba bat: Leyden edo SPL metodoa

Pobreziarako hurbilketaren estatistika-metodoek berekin dituzten arazoak alboratzeko (batez ere metodo horiek atalaseak eta baliokidetasun-eskalak zehazteko erabiltzen dituzten bide aleatorio eta arbitrarioak saihesteko), eta Europako metodoak pobrezia- eta prekarietate-eredu bat ez baizik eta desberdintasunadierazleen eredu bat definitzen duela ikusita, ikerketa eskola batzuek hurbilketa-eredu alternatiboak abiarazi dituzte.

Proposamen alternatiboen ezaugarri nagusia, Anberesko CSP taldeak edo Leydengo Unibertsitatera atxikitako profesionalek formulatutakoa bezalakoa, hau izan da: pobrezia-adierazle objektibo eta eraginkor bat eratzen saiatzea, familien beraien iritzietan oinarritua, haiek beraiek adierazteko beharrizanak aztertu ondoren. Gauzak horrela, aldagai ekonomiko klasikoen (diru-sarrera edo gastu estimatua) eta aztertu nahi den gizarteak bere premiei buruz duen pertzepzioaren artean dagoen harremanean oinarritutako pobreziaadierazle berriak diseinatu dira. Metodologia berritzaile hauek gauza bat dute elkarrekin: pobrezia-atalaseak eta baliokidetasun eskalak finkatzeko orduan, biztanleek beren oinarrizko beharrizanei buruz dituzten iritzietatik abiatuta finkatzen saiatzea.

Aurrera eramandako metodo horien artean sendotuenetako bat Leyden-eko Unibertsitatearen inguruan abian jarritakoa da. Metodo horren arabera kalkulatutako pobrezia-

lerroa LPL lerroa izenez ezagutzen da (Leyden Poverty Line). Lerro horrek badu bertsio laburtu bat, SPL deritzana *(Subjective Poverty Line).* SPL metodoa Leydeneko Unibertsitateko pobrezia-lerroetan oinarritzen da, hala nola Kapteynen lehentasunaren formulazioaren teorian ere. Izan ere, autore horrek formulatu zuen SPL lerroa kalkulatzeko eredu laburtua. Hala, beraz, metodologia hori aplikatzen duten azterketetan, hurbilketa-mota hori erabiltzen da.

Metodo horren lehenengo aurkezpen egituratua Goedhart-en taldeak egin zuen (Goedhart et al, 1977). Goedhart, Halberstadt, Kapteyn eta Van Praag-ek pobrezia neurtzeko ikusmolde berria darabilte. Haiek ez dute hertsiki alternatibotzat definitzen ikusmolde hori, osagarritzat baizik[14]. Ikusmolde berri horren elementu nagusia familia-buruei egiten zaien galdera hau da: ea zenbatsukoa ote litzatekeen haien ustez beraien etxerako behar luketen gutxieneko diru-sarrera. Hurbilketa horren abantaila nagusia da ikerlariek balio-judizio bakarra egiten dutela aldez aurretik; honako hau, alegia: arazoa duten pertsonak beraiek direla beren beharrizanak ebaluatzeko egokienak.

Hurbilketa horrek bere definizio ekonomikoa du: Watts-en pobrezia. Definizio horren arabera, pobrezia ez da gizabanakoaren edo haren jokabide-ereduaren ezaugarri bat, pertsona baten egoeraren berezitasun bat baizik. Gainera, pobreziak ongizate-eskalan hartuko lukeen lekua kontsumo-ahalmenak definituko luke, hau da, oinarrizko ondasun eta zerbitzu batzuk erosteko baliabide nahiko izateak edo ez izateak. Horren arabera, beharrezkotzat jotzen den kontsumo-maila bermatzeko baliabide nahikorik ez izatean datza, beraz, pobrezia.

LPL/SPL hurbilketan, ongizate-eskalan oso maila apalean dagoenaren egoera da pobrezia. Eskala itxuratzen duten ongizate-maila desberdinak zehazteko, tresna espezifiko bat erabiltzea proposatzen da: *Individual Welfare Function of Income* (IWFI) delako funtzioa. Van Praagek proposatu zuen lehenik tresna hori erabiltzea, baina gero Kapteynekin batera landu zuen (1973). Funtzio horrek solaskide bakoitzak ongizate-maila desberdinen eta diru-sarreren maila espefizikoen artean egiten duen asoziazioa ordenatzen du, galdera ebaluatibo baten bidez: *Income Evaluation Question*. Galdera horren bidez, elkarrizketatuek euren ustez eskalan aintzat hartutako ongizate-maila desberdinak hobekien definitzen dituzten diru-sarreren mailak sailkatzen dituzte, txikitik handira.

---

[14] Honela adierazten dute beren helburua: «to define the concept of the poverty line in a simple and operational way, complementary to other methodologies: We do not present our methodology as a perfect substitute for the other approaches to determining a poverty line ... but rather as a complement to them — a method that would be employed in conjunction with one or another of them».

Pobrezia atalasea finkatzeko orduan, Goedhartek eta haren taldeak bi alternatiba eskaintzen dituzte: edo puntu jakin bat ezartzea IWFI eskalan, edo ongizate-maila jakin bat izateko gutxieneko diru-sarrerak zenbatekoa izan beharko lukeen galderari jendeak emandako erantzunetara jotzea. Pobreziaren edo ongizate-gabeziaren neurketari buruzko galdera batzuei familia edo etxe batzuetan emandako erantzunen artean dagoen loturari buruzko azterketan oinarritzen da SPL metodoa. Goedhartek egiaztatu duenez, beharrezko gutxienekoen ebaluazio-prozedura hori familiaren tamainarekin eta diru-sarreren mailarekin dago lotua batez ere, eta erlazio loglinearra islatzen du.

Bestalde, orobat geratu da egiaztatuta, gizabanakoek beharrezko gutxieneko diru-sarreratzat jotzen duten zenbatekoa *(ymin)* dirusarreren emendiozko funtzio bat dela, 0 eta 1 arteko elastikotasunarekin. Beraz, zenbat eta handiagoa izan egungo diru-sarrera, orduan eta handiagoa izango da gutxieneko diru-sarreratzat jotzen den zenbatekoa.

Grafiko baten bidez azter daiteke banakako gutxieneko diru-sarrerak (ymin) eta egungo diru-sarrerak (y) berdinak direneko lerro teorikoa irudikatzen duen 45º-ko lerroa, gutxieneko diru-sarrerak eta diru-sarrera errealak lotzen dituen lerroarekin gurutzatuta. Horrela, irtenbide natural bat ematen ahal zaio agregazioaren arazoari: lerroak $y = y^{*}min$ puntuan elkartzen dira. Puntu horren eskuinean, etxeek beharrezko gutxienekotzat jotzen dituztenak baino diru-sarrera erreal handiagoak dituzte; Puntu horren ezkerrean, etxeek beharrezko gutxienekotzat jotzen dituztenak baino diru-sarrera erreal txikiagoak dituzte[15].

Elkarketa-puntuak, beraz, hilaren bukaerara iristeko edo oinarrizko beharrizanak asetzeko behar adina baliabideak dituztenak eta ez dituztenak bereizten ditu, bere estandar propioen arabera. Gauzak horrela, *y*min* pobreak eta ez-pobreak, edo prekarioak eta ez-prekarioak, bereizten dituen atalasea da. Goedhart eta haren taldearentzat, beharrezko diru-sarrera minimoak eta etxean benetan eskuragarri dauden diru-sarrerak elkarrekin bat egiten duten puntuari dagokio.

Premisa horietatik abiatuta, benetako dirusarreren mailak eta beharrezko diru-sarrera minimoak familia- edo etxebizitza-tamaina bakoitzerako bat egiten duten puntua bilatzen

---

[15] Goedhart-ek eta haren lankideek dioten moduan: «a respondent's perception of the poverty line is distorted by the fact that his actual income is not equal to his minimum income level. There is only one income level,$y^{*}$min, where this misperception does not obtain».

1. GRAFIKOA

**Jasotako diru-sarrera minimoen eta benetako diru-sarreren arteko harremana. LPL/SPL metodoa**




saiatzen da SPL metodoa bere bertsio laburtuan; eta erregresio-eredura jotzen du horretarako. SPL lerroaren kalkulu sinplifikatuaren metodoak hiru aldagai ditu:

*Ymin:* Beharrezko diru-sarrera minimoak.
*Y:* Etxean benetan eskuragarri dauden diru-sarrerak.
*fs:* Etxearen tamaina.

Hala, *ymin*-en eta *y*-ren arteko erlazio positiboak bide ematen du *y*min* balioa zehazteko. Atalase horretatik beherako benetako diru-sarrerak *ymin* baino txikiagoak izan ohi dira. Atalase horretatik gorakoak, berriz, *ymin* baino handiagoak.

Atalase hori ekuazio honen bitartez kalkulatzen da, zifra logaritmikoak erabiliz:

$$Y^{*}min = \hat{a}0 + \hat{a}1\, fs + \hat{a}2y$$

Hortik abiatuta, honako ekuazio hau deribatzen da $Y^{*}min = y$ balioarentzat (balio hori orekagunea da, eta bertan diru-sarrera minimo teorikoak eta benetako diru-sarrerak bat datoz; beraz, pobrezia-atalasea da):

$$Y^{*}min = \frac{\hat{a}0 + \hat{a}1\, fs}{1 - \hat{a}2}$$

SPL metodoan, pobrezia erlatiboaren adierazle bat zehazteko erabili izan ohi da aurreko ekuazioa, pobrezia aztertzeko Europako erakundeek egiten duten hurbilketarekin bat egin nahirik. Zentzu horretan, pobreziari buruzko ideia gizarteak hilaren bukaera iristeko *gutxieneko diru-sarreraz* duen pertzepzioarekin uztartzen da.

Leydengo formulazio teorikoan, ongizatera iristeko maila desberdinek zehaztutako eskala baten kontzepzio orokorrak bide ematen zuen, hala ere, larritasun handiagoko egoerak ikusteko, EDIS/Caritasek Europako metodo originala aplikatzean azaldutakoaren ildotik. Hori dela eta, Pobreziari eta gizarte desberdintasunei buruzko inkestan pobrezia larriaren adierazle espezifikoago bat erabili izan ohi da, *oinarrizko beharrizanak asetzeko behar den gutxieneko diru-sarreraz* etxeetan dagoen perzeptzioari lotua. Pobrezia erlatiboaren eta pobrezia larriaren atalaseak lortzeko SPL metodoa zorrozki aplikatu ondoren, atalase hauek lortu dira, 2008. urterako:

4. TAULA

**Pobrezia larriaren eta pobrezia erlatiboaren atalaseak, SPL metodoaren arabera. 2008**

(Datuak eurotan)

| Etxearen tamaina | Pobrezia larria | Pobrezia erlatiboa |
|---|---|---|
| Pertsona 1 | 605,65 | 785,52 |
| 2 pertsona | 791,44 | 1.034,47 |
| 3 pertsona | 925,52 | 1.215,23 |
| 4 pertsona | 1.034,21 | 1.362,32 |
| 5 pertsona | 1.127,23 | 1.488,57 |

*Iturria:* Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta, 2008.

Hurbilketa honetan, SPL metodoaren abantailetako bat da ikerlariak ez duela aldez aurretik zehazten pobrezia-atalase desberdinen maila —metodo estatistikoan bezala—; aztertutako herritarrek beren beharrizanez duten pertzepzioaren funtzio batean datza, kasu honetan, maila hori. Aldi berean, metodotik eratortzen diren pobrezia-atalaseak eta herritarrek adierazteko beharrizanak ez dira automatikoki baliokideak; aitzitik, matematikoki lortzen dira, benetako diru-sarreren eta jasotako gutxienekoen arteko erregresio loglinearren emaitzetatik abiatuta. Beraz, SPL metodoak pobrezia-atalaseak zehazteko prozedura objektibo bat eskaintzen du, aztergai diren herritarren beharrizanen pertzepzio subjektibotik abiatuta.

Metodo horren beste deribazio positibo da aukera ematen duela baliokidetasun-eskalak ezartzeko herritarren pertzepziotik beretik abiatuta, adituek aldez aurretik zehaztutako eskala batera jotzeko inolako beharrik gabe.

## 2.3. **PGDI metodoa**

Teoria erakargarria izan arren, SPL metodoak ez du lortu Europako ikerketa-praktikan sendotzerik. Horren arrazoi nagusia da metodoak ez duela aukerarik ere eman denboran eta espazioan fidagarritasunez erkatzeko moduko adierazle estatistikoak zedarritzeko. Bere bertsio estandarrean, pobrezia erlatiboaren neurketari lotua, metodoak pobrezia-maila handiegiak zehazten zituen, politikoki ez sinesgarriak, batez ere Europako hegoaldeko herrialdeetan.

Pobreziaren eta prekarietatearen azterketan Leydengo eskolak markatutako bidetik sakontzeko ahaleginak, berriz, PGDI metodoaren ikusmoldea ezaugarritzen du. LPL/SPL metodoaren oinarri teorikoak EAEko mantentze-pobreziari eta mantentze-prekarietari buruzko azterketaren beraren oinarriak dira berez. Egia da, metodoa Euskadin eraginkorra izateko, PGDBI metodoak SPL hurbilketa hobetzeko beharrari aurre egin behar izan diola, denboran egonkor irauteko moduko eta beste lurralde batzuetakoekin erkatzeko moduko adierazleak eraikitzeko. Baina ukaezina da, halaber, PGDIn aurrera eramandako metodoa Leydengo eskolak formulatutako ikuspegi orokorraren egokitzapen berezi bat baino ez dela.

Beste proposamen guztien aurrean, SPL-Leyden eta ESSDEren formulazio originala barne, PGDIren metodoak oinarrizko aldaketa bat proposatzen du. Pobrezia erlatiboaren azterketarako hurbilketan oinarrituako ikusmoldea baztertzen du, hala nola pobrezia larriko egoerak zedarritzeko barne-mailakatzea. PGDIk, berriz, pobrezia eta ongizate-gabezia kontzeptuak bereizten ditu mantentze-prekarietateari buruzko egoeren azterketan. Berrikuntza horren arrazoiak zuzen ulertzeko, ikusi beharra dago zenbateraino laguntzen digun SPL-Leyden metodoak pobrezia-errealitateak hobeto ulertzen.

A priori, Leydengo metodo subjektiboak pobrezia objektiboaren eta subjektiboaren arteko desorekak murrizteko egiten duen ekarpena eskas samarra gertatzen da, desoreka-maila oso handia baita oraindik. Hala, SPL metodoak pobretzat definitutako taldeen %68,5-ek ez du bere burua pobretzat jotzen. Bestalde, beren burua gutxienez pobre samartzat jo arren, metodoa aplikatzerakoan ez-pobretzat sailkatzen diren etxeen ehunekoa handiagoa da, %54,5 hain zuzen. Arrisku-egoeran dauden biztanleentzat, desoreka-maila kasuen %77,1ean agertzen da, Eurostaten metodoa aplikatzean ikusitako ia maila berean.

Beraz, ikuspegi teorikotik begiratuta, SPL metodoak planteamendu estatistiko tradizionala hobetzen badu ere, ez du inolako aurrerabiderik bermatzen pobreziaren errealitate objektiboen eta berorien pertzepzio subjektiboaren arteko desorekaren minimizazio-prozesuan, apriorismo zientifikoetan ez baizik eta herritarren pertzepzioan oinarritutako atalaseak eta baliokidetasun-eskalak finkatzean.

Kontu horretan sakonduz, ikusten da kontraesan horrek ez duela zerikusirik SPL metodoan pobrezia neurtzeko egindako planteamendu metodologiko oker batekin. Arazoa metodo horretan pobrezia den gertaera sozialarekin lotzen den gutxienekoen ebaluazioaren galdera da batez ere, hilaren amaierara iristeko beharrezko gutxieneko diru-sarreren pertzepzioa gizarteak errealitate sozial horretaz duen noziotik hurbilena delako hipotesian oinarritua.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan behintzat, hilabetera iristeko beharrezko gutxieneko bat dagoelako ideia ez da, baina, pobreziarekin lotzen, gure gizarteak ezarria duen ongizate-mailara iristearekin edo ez iristearekin baizik. PGDIk era horretan onartzen du badela pobrezia- eta ongizate-egoeren artean erdi mailako gune bat, gizarteak ezarritako ongizate-mailarik ezak definitua, baina pobreziarekin inola ere lotu ezin dena. Pobrezia eta ongizate-gabezia bi errealitate sozial desberdin dira. Bereizketa hori badela onartuta askoz hobeto zehatz daiteke biztanleek pobreziaren eta prekarietatearen errealitateak antzemateko eta interpretatzeko duten modua.

Euskadin aurrera eramandako ikerketak erakusten duenez, beraz, pobrezia ez datza gure gizarteak ezarritako gutxieneko ongizate-mailara iristeko ezintasunean. Pobrezia, ezer izatekotan, herritarrek beren oinarrizko beharrizanak diren horiek asetzeko ezintasunarekin lotua dagoen gizarte gertaera bat da; hau da, elikadura, etxebizitza eta jantziarekin zerikusia duten beharrizanak asetzearekin lotua dagoen errealitate bat; orobat dago lotua zerbitzu publiko handiek (hezkuntzak, osasunak edo zerbitzu sozialek) asetzen dituzten beharrizanekin. Hala, euskal gizartea bezalako gizarte batean, behintzat, pobrezia ez da hainbeste gizarteak ezarritako nolabaiteko ongizate-maila baten absentzia orokorra, benetako oinarrizko beharrizanei aurre egiteko ezintasun-egoera espezifikoa baizik. Erronka handia, beraz, Townsend-ek pobreziaz egindako definizio klasikoarentzat, erreferentzia-gizartean esperotako ongizate-mailara iristearekin lotua baitzegoen hura[16].

---

[16] Townsend-en ikuspegitik begiratuta, gizartean ohikoak edo gutxienez gomendarriak diren dieta-mota lortzeko, edo jardueretan parte hartzeko, edota bizi baldintzak izateko beharrezko baliabideak ez dituzten gizabanakoak, familiak eta taldeak dira pobrezia-egoeran daudenak. Baliabiderik eza dela eta, behartsu horiek gizarte horietan ohikoak diren patroi, ohitura eta jardueretatik kanpo geratzen dira (Townsend, 1979).

Beraz, PGDIn, pobrezia-atalasea zehazteko, kontuan hartzen da *oinarrizko beharrizanak asetzeko beharrezko gutxieneko diru-sarreren* pertzepzioa; *hil aren amaierara iristeko beharrezko gutxieneko diru-sarreraren* pertzepzioa, berriz, ongizate-ezari buruzko kontzeptuarekin lotzen da. PGDIk dagokien aldagaiei aplikatzen die LPL-SPL erregresio-eredua, eta bi aldagai osagarri zehazten ditu horrela: pobreziarena, zentzu hertsian, eta ongizate-gabeziarena.

Beste hurbilketa batzuetatik bereizten duen ezaugarri hori alde batera utzita, PGDIren metodoa oinarrizko beste hiru kontsideraziotatik abiatuta garatzen da; LPL/SPL metodoa EAEn aplikatzetik ateratzen diren datuen azterketa enpirikotik lortzen dira oinarrizko kontsiderazio horiek:

1. Lehenik eta behin, egiaztatua geratzen da gutxiengoei buruzko adierazleek lotura estuagoa dutela gastuen aldagaiarekin, dirusarreren aldagaiarekin baino. Izan ere, eskura ditugun datuek erakusten digutenez, korrelazio handia baitago *ymin*-en eta *g* gastuen aldagaiaren artean, *ymin*-en eta *y* dirusarreren aldagaiaren artean baino. Hori dela eta, PGDIren hurbilketaren garabidean, Leyden-SPL metodoaren bertsio egokitua aplikatzen da, diru-sarreren aldagaiaren ordez gastuen aldagaia jarrita.

   Horrela, metodoaren garabidean, *g* gastuaren adierazlea erabiltzen da SPL erregresioekuazioan. Ekuazioak honako aldagaiak erabiltzen ditu (logaritmo nepertarretan kalkulatuak):

   $$Y^{*}min = \hat{a}0 + \hat{a}1\,fs + \hat{a}2g$$

   *Y*min* atalasea datorren *ymin* aldagaia elkarrizketatutako etxeek honako galdera hauei emandako erantzunetatik lortzen da:

   — Zure etxearen egungo egoeran, *zein da hilaren amaierara iristeko benetako beharrezko gutxieneko diru-sarrera?* (ongizate-gabeziaren atalasea kalkulatzeko);
   — Zure etxearen egungo egoeran, *zein da oinarrizko beharrizanak asetzeko benetako beharrezko gutxieneko diru-sarrera?* (pobreziaren atalasea kalkulatzeko).

   Erabilitako g aldagaia, berriz, etxeek honako galdera honi emandako erantzunei dagokio: *zenbatekoak dira familia honen hileko batez besteko gastuak?*

   Beraz, erabilitako gastuaren adierazlea ez dagokio hainbeste hilabete jakin batean benetan egindako gastuari, epe ertainera ohikotzat hartzen den gastu-mailari baizik. Fa-

milia-unitateek hilean ustez dituzten gastuei egiten dio erreferentzia adierazle horrek. Oinarrizko beharrizanak asetzeko beharrezko gutxieneko diru-sarrerei buruzko galderari familiek emandako erantzunekin korrelaziorik handiena duelako erabiltzen da adierazle hori. Hori da, halaber, egokitze-maila handiena erakusten duen adierazlea, koefizientearen bitartez neurtua, SPL erregresio-eredua aplikatzerakoan (Sanzo, 2001). SPL metodoaren aplikazioan bezala, Fs aldagaia etxearen edo familia-unitatearen tamainari dagokio.

2. Bigarrenik, alde handiak ikusten dira beharrezko gutxienekoak zehazteko orduan, oinarrizko aldagai soziologiko jakin batzuen arabera. Horretan, adina adierazlea guztiz erabakigarria da. Herritarren bizi-zikloaren une desberdinen adierazle nagusi izanik, bizitzeko modu eta kontsumo-prozesu espefizikoekin lotzen da adina, pobrezia eta prekarietatea neurtzeko garrantzitsuak diren inplikazio sozial eta ekonomikoak dituela.

   Kontuan harturik aipaturiko errealitatea, PGDIren metodoak pobrezia gainditzeko edo, norberaren bizi-zikloaren unearen arabera, ongizate-maila nahikora iristeko beharrizan-atalase desberdinetara jotzen du. Ondorio praktikoetarako, bizi-zikloa etxeko pertsona nagusiaren adinetik aurrera neurtzen da. Etxean bizi den pertsona nagusiaren adina kontuan hartuta, hiru etxe mota bereizten dira: 45 urtetik beherakoak, 45 urtetik 64 urtera bitartekoak, eta 65 urtetik gorakoak.

3. Azkenik, orobat egiaztatu denez, diru-sarreren talde desberdinen pisu erlatiboek ekuazioaren balioak baldintzatzen dituzte. Ongizate-egoeran dagoen taldea jendetsuena den neurrian (euskal gizartean gertatzen den bezala), *y*min* eskuinaldera higi daiteke artifizialki.

Hori kontuan harturik, 2000. urtea arte pobreziaren atalasea eta ongizate-gabeziaren atalasea bi etapatan kalkulatzen zen, lehen etaparen ostean aztertutako egoerak (pobrezia eta ongizate-gabezia) bizitzetik urrunen zeuden taldeak alde batera utzi ondoren. Hala ere, PGDIk historian zehar izandako aplikazioetan garbi geratu zenez, metodoaren bertsio bat (etapa bakarrekoa) edo bestea (bi etapatakoa) erabili, emaitzak antzekoak ziren. Metodoaren lehen bertsiora jotzeak askoz erregistro gehiagorekin lan egiteko aukera ematen duenez, pobreziaren eta prekarietatearen atalaseak kalkulatzeko unean, 2004. urtean bi etapako metodoa alde batera uztea erabaki zen.

PGDIren metodoaren garapena nabarmen laburtzen da erabaki eragile horrekin, eta SPL hurbilketaren oinarrizko jatorrizko planteamendura hurbiltzen da, hurbilketa ho-

rrek pobrezia-atalaseak zedarritzeko oharpen guztiak hartzen baititu kontuan[17]. Horrekin, pobreziaren eta ongizate-gabeziaren arteko bereizketa sendotzeaz gainera[18], delako metodoari buruzko aldaketa praktikoak bitara mugatzen dira, funtsean: diru-sarreren aldagaiaren ordez gastuen aldagaia erabiltzera, batetik, eta atalaseak etxeko pertsona nagusiaren adinaren arabera kalkulatzera, bestetik.

Laburpen gisa esan daiteke PGDIren metodoak bi ezaugarri nagusi dituela: batetik, SPL ekuazioa bereiz aplikatzen dela adin-talde jakin bateko pertsonak buru dituzten etxeetan (45 urtetik beherakoak, 45-64 urte bitartekoak, eta 65 urtetik gorakoak); bestetik, gastuen aldagaia erabiltzen dela, diru-sarreren aldagaiaren ordez. Ikusi dugun bezala, gastuen aldagaia ez dagokio hainbeste etxeen egungo gastuari, etxeen ohiko gastuari baizik. Bestalde, y*min*-erako bi erreferentzia erabiltzeak aukera ematen du pobrezia-atalaseak eta ongizate-gabeziaren atalaseak bereizteko.

Hala, beraz, PGDIren metodoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleak hiru taldetan bereizten dira, pobrezia/ongizate eskalan (mantentze-dimentsioan) zer toki hartzen duen kontuan izanda:

- *Pobrezia*

Epe laburrean oinarrizko beharrizanak (batez ere janaria, etxebizitza, jantzia eta oinetakoak) asetzeko adina baliabide ekonomikorik ez duten pertsonak, familiak edo etxeak hartzen ditu barne. Erreferentzia-aldi horretan oinarrizko beharrizan horiei aurre egiteko aipaturiko atalaseak baino diru-sarrera txikiagoak dituzten pertsonak, familiak edo etxeak aurkitzen dira pobrezia larriaren arriskupean.

---

[17] SPL-ren metodo estandarrean, erantzun guztiak dira beharrezkoak pobreziaren lerroa zehazteko orduan. Goedharten arabera, hau da horren arrazoia: hasiera batean ezinezkoa dela atalasearen balioa ezagutzea, eta erregistro guztiak hartu behar direla kontuan, hurbilketa fidagarria izango bada.

[18] PGDI eta SPL metodoetan pobreziaren eta ongizate-gabeziaren arteko bereizketa garbia bada ere, Leyden-SPL metodoaren diseinatzaileek maila desberdinak ezarrri zizuten ongizatearen eskalan. Neurri batean, beraz, PGDIn egiten den bereizketa ongizate-eskalaren edukia eta pobreziaren eta ongizate-gabeziaren egoeren arteko bereizketa hobeto zehaztu izanaren ondorioa da, berrikuntza koalitatibo baten ondorio baino gehiago.

• *Ongizate-gabezia*

Gizarte jakin batean, gutxieneko ongizate eta erosotasun-mailei eusteko beharrezkotzat jotzen diren ohiko gastuei epe laburrean aurre egiteko adina ekonomia baliabide ez duten pertsonak, familiak edo etxeak hartzen ditu barne. Praktikan, gizarte jakin horretako ohiko bizimodu, ohitura eta jarduuretan, baldintza minimoetan bada ere, parte hartzeko aukera ematen duten gastuak dira. Erreferentzia-aldi jakin batean, bizi diren gizartean espero izatekoa den ongizate-mailara iristeko behar baino diru-sarrera txikiagoak dituzten pertsonak, familiak edo etxeak daude ongizate-gabezian erortzeko arriskuan.

• *Ongizatea*

Gainerako pertsona, familia eta etxeak hartzen ditu barne; hau da, epe laburrean, ez oinarrizko beharrizanak asetzeko, ez ongizate-egoera iristeko beharrezko gastu minimoei aurre egiteko baliabide gabezia egoeran ez dauden guztiak.

2008. urtean, metodoaren aplikaziotik honako atalase hauek deribatzen dira, dagozkien baliokidetasun-eskalekin batera.

5. TAULA

**Mantentze pobreziaren atalasea eta ongizate-gabeziaren atalasea PGDIren metodoaren arabera. 2008**

(Datuak eurotan)

| Etxebizitzaren tamaina | 45 urtez azpikoak | | 45-64 urte bitartekoak | | 65 urtez gorakoak | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Pobrezia** | **Ongizate-gabezia** | **Pobreza** | **Ongizate-gabezia** | **Pobrezia** | **Ongizate-gabezia** |
| Pertsona 1 | 947,24 | 1.231,41 | 792,75 | 1.187,90 | 560,07 | 786,19 |
| 2 pertsona | 1.136,56 | 1.527,22 | 968,42 | 1.470,73 | 770,13 | 1.061,53 |
| 3 pertsona | 1.264,39 | 1.732,19 | 1.088,71 | 1.666,44 | 927,85 | 1.265,36 |
| 4 pertsona | 1.363,71 | 1.894,10 | 1.183,02 | 1.820,89 | 1.058,98 | 1.433,29 |
| 5 pertsona | 1.446,09 | 2.030,03 | 1.261,76 | 1.950,49 | 1.173,33 | 1.578,76 |

*Iturria:* PGDI 2008.

6. TAULA

**Ongizate gabeziaren atalaseari eta mantentze pobreziaren atalaseari dagozkien baliokidetasun-eskalak PGDIren metodoaren arabera. 2008**

| Etxebizitzaren tamaina | 45 urtez azpikoak | | 45-64 urte bitartekoak | | 65 urtez gorakoak | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Pobrezia | Ongizate-gabezia | Pobreza | Ongizate-gabezia | Pobrezia | Ongizate-gabezia |
| Pertsona 1 | 1,00 | 1,00 | 1,00 | 1,00 | 1,00 | 1,00 |
| 2 pertsona | 1,20 | 1,24 | 1,22 | 1,24 | 1,38 | 1,35 |
| 3 pertsona | 1,33 | 1,41 | 1,37 | 1,40 | 1,66 | 1,61 |
| 4 pertsona | 1,44 | 1,54 | 1,49 | 1,53 | 1,89 | 1,82 |
| 5 pertsona | 1,53 | 1,65 | 1,59 | 1,64 | 2,09 | 2,01 |

*Iturria:* PGDI 2008.

Atalase-mailetan antzematen diren adinaren araberako gorabeherak, hala premia-mailetan nola baliokidetasun-eskaletan, agerian uzten dituzte bai bizitza-zikloaren egoera desberdinak bai adin-talde bakoitzean nagusi den familia-egitura eta familia-osaera desberdina, aldagaiaren arabera desagertutako datuekin lan egiteko beharra justifikatuz. Horrekin, gainera, egungo demografia-prozesuekin lotutako distortsioak saihesten dira. Izan ere, gazteak bizitza independentera iristeko adinaren atzerapena dela-eta, batetik, eta biztanleriaren zahartze-prozesu bizkorra, bestetik, 65 urtez gorako pertsonak buru dituzten etxeen pisu erlatiboa asko handitu da. Aldaketa horiek demografia-egituretan izan zuten eragin handia zalantzan jartzen dute biztanle guztientzat pobrezia-lerro eta baliokidetasun-eskala bakarra erabiliz egindako azterketaren erabilgarritasun praktikoa.

Sailkapen objektiboa eta subjektiboa egokitzeko PGDIren metodoaren erabilgarritasuna kontuan hartuta, garbi ikusten da adierazle objektiboren eta subjektiboen arteko distortsio-maila askoz txikiagoa dela. Hala, pobretzat sailkatutako etxeen artean, beren burua pobretzat ez daukatenen proportzioa %58,5era jaisten da, eta sailkapenaren arabera ongizate-gabezian daudenen artean, berriz, %14,1ak baino ez du bere burua egoera erosoan ikusten. Denera hartuta, PGDIren metodoaren arabera pobretzat sailkatu diren edo ongizate-gabezian dauden guztien %25,7ari baino ez diote eragiten distortsioek. Beren burua pobre samartzat jotzen duten etxeen kasuan, berriz, pobrezia-egoeran edo ongizate-gabeziako egoeran sailkatuta ez daudenen proportzioa %38,5 da.

Arrisku-egoeran dauden taldeak kontuan harturik, desoreka minoritarioa da orain: kontuan hartutako etxebizitzen %35,9 baino ez. Era horretan, pertzepzio subjektiboaren eta

errealitate objektiboaren arteko emaitzetan antzekotasun handi samarrak eskaintzen dituen hurbilketa metodo bati buruz hitz egin dezakegu lehen aldiz.

7. TAULA

**Sailkapen objektiboaren eta pertzepzio subjektiboaren arteko desoreka maila PGDIren metodoa: pobrezia eta ongizate-gabezia. 2008**

(Arazo horien eraginpean dauden etxeen kopurua ehunekotan)

| **Desoreka mota** | **PGDI metodoa** |
|---|---|
| Beren burua pobretzat jo ez arren, pobretzat sailkatuta dauden etxeak | 58,5 |
| Ongizate-gabeziako egoeran sailkatutako etxeak, batez besteko mailen azpitik ez egonda ere | 14,1 |
| Pobretzat edo ongizate-gabeziako egoeran sailkatutako etxebizitzak pertzepzio subjektibo ez-koherentearekin | 25,7 |
| Beren burua pobre samartzat jotzen duten etxeak, ongizate egoeran sailkatuak | 38,5 |
| Desorekak dituzten etxeak, aurreko hiru ataletan aintzat hartutako etxebizitza guztiak kontuan hartuta | 35,9 |

*Iturria:* PGDI 2008.

Puntu honetan esan beharra dago Eurostaten metodoak, hasiera batean, bere egiten zituela, neurri batean, PGDIn defendatutako aurrekontuak, diru-sarrera txikiez hitz egiten baitzuen batez ere, eta ez hainbeste pobreziaz, medianaren %60ko adierazleari dagokionez. Hori PGDIren ongizate-gabeziaren kontzeptuarekin pareka liteke. Premisa hori aintzat hartuta, eta pobrezia-atalasea batez besteko errentaren %40n finkatuz, azken desoreka arrisku-egoeran dauden etxeen %31,3-an ezarriko litzateke batez beste 1996-2008 denboraldi osorako: PGDIk denboraldi bererako lortzen duen %29tik ez oso urrun, alegia.

Horrek erakusten digunez, Europako estatistika-metodoa oso erabilgarria izan liteke pobreziaren eta ongizate-gabeziaren inguruko arazoen azterketa baten hurbilketa egiteko, hura burutzea hain erraza izanik. Euskal errealitatean oinarrituz, aintzat hartu behar dira honako printzipio hauek: pobrezia eta ongizate-gabezia argi eta garbi bereiztea; bakarrik dauden pertsonen premiak estatistika-metodoan gutxiestearen arazoa saihestea; eta egun erabiltzen den baliokidetasun-eskalaren baliagarritasuna ebaluatzea (OCDE zuzendua).

Konponbide horrek, ordea, arazoak sortzen jarraituko luke, PGDIren adierazleetarako sarbidearekin batera etorriko ez balitz. Estatistika-metodoan atalasea finkatzeko iriz-

pideak batez ere diru-sarreren mugimenduekin lotzen direnez, eta ez hainbeste pobrezia gainditzeko edo ongizatera iristeko premia errealekin, ez da guztiz baztertzekoa Eurostaten metodoaren gabeziak gainditzeko proposatzen den konponbidea aleatorioa izatea azkenean, eta epe labur edo ertainean baino ez izatea baliagarria.

Hori dela eta, ezinbestekoa da PGDIren metodoa lantzen jarraitzea —paraleloan, besterik ez bada ere—, metodo horrek etxeek beren egoeraz duten pertzepzioarekin lotzen baititu pobrezia-atalasea eta ongizate-gabeziaren atalasea —bai eta dagozkien baliokidetasun-eskalak ere— kalkulatzeko irizpideak.

Lehenago azaldutako arrazoiak hobeto uler daitezke kontuan hartutako metodo bat edo besteak erabiltzeak berekin dituen ondorioak aztertzerakoan, bai arazoen benetako tamaina neurtzean, bai arazoa duten pertsona eta etxeen ezaugarriak zehaztean. Hori bereziki aipagarria da PGDI eta Eurostaten metodoak aplikatzean sortzen diren gorabeherak balioztatzean.

## 2.4. **Metodo desberdinak erabiltzearen ondorioak**

Lehenago esan den bezala, PGDIk Europan aplikatutako ikerketan erabiltzen diren mantentze-pobreziaren eta mantentze-prekarietatearen adierazleei dagozkien emaitzak lortzeko bidea errazten du, haiekin lotutako larritasun-mailak bereiziz.

Hona hemen, orain, PGDIn jendearen esku jarritako metodo bat edo bestea erabiltzearen ondorioei buruzko datu erlatibo batzuk. Datuek erakusten dutenez, norberak pobreziaz eta prekarietateaz duen ikuspegia zehazten dute lehentasun metodologikoek. Hori dela eta, metodo bat edo bestea erabiltzeak berezitasun potentzialki garrantzitsuak erants ditzake, eta berezitasun horiek eragina izan dezakete bai pobreziaren eta prekarietatearen fenomenoen inpaktua neurtzeko orduan, bai arriskuegoera desberdinetan erortzeko arrisku gehien duten taldeak zein diren zehazteko orduan.

### 2.4.1. Arazoaren eraginari buruzko desberdintasunak

Honako taula honetan aurkezten da 2008ko PGDIn agertzen diren mantentze-pobreziaren eta mantentze-prekarietatearen adierazle nagusien laburpena.

8. TAULA

**Pobreziaren eta/edo ongizate-gabeziaren arrisku-adierazleak (mantentzea)[19] 2008**

Etxeak eta familia-etxebizitzetan bizi direnak (Datu absolutuak eta eragin-mailan ehunekotan)

| Adierazleak | Etxeak | Eragina ehunekotan | Biztanleak | Eragina ehunekotan |
|---|---|---|---|---|
| **Europako metodo originala** | | | | |
| Pobrezia erlatiboa | 69.134 | 8,7 | 205.986 | 9,6 |
| Pobrezia larria | 3.148 | 0,4 | 11.689 | 0,5 |
| **Eurostat/EB metodoa** | | | | |
| Pobrezia erlatiboa/Diru-sarrera txikiak %60 | 137.007 | 17,2 | 318.161 | 14,8 |
| Pobrezia %40 | 23.753 | 3,0 | 66.540 | 3,1 |
| Pobrezia larria %30 | 6.221 | 0,8 | 19.521 | 0,9 |
| **SPL-Leyden metodoa** | | | | |
| Pobrezia erlatiboa | 83.833 | 10,5 | 156.631 | 7,3 |
| Pobrezia larria | 21.732 | 2,7 | 43.067 | 2,0 |
| **PGDIren metodoa** | | | | |
| Ongizate-gabezia | 141.605 | 17,8 | 313.215 | 14,6 |
| Pobrezia | 36.955 | 4,6 | 88.643 | 4,1 |
| **PGDIren metodoa etxebizitza gastuak kenduta** | | | | |
| Ongizate-gabezia | 136.163 | 17,1 | 294.038 | 13,7 |
| Pobrezia | 34.041 | 4,3 | 79.907 | 3,7 |

*Iturria:* PGDI 2008.

Aurreko taulan ikus daitekeenez, PGDIren pobreziaren zifrak Europako estatistika-metodotik eratortzen diren pobrezia larriarenak baino handiagoak dira, estatistika-metodo horren bertsio tradizionala edo Eurostaten hurbilketari aplikatutako egokitzea —hau da, medianaren %30ean oinarritutako bertsioa— kontuan hartuta ere (%4,1

[19] Europan oraindik ez da erabat zabaldu egotzitako alokairua aintzat hartzen duten Eurostaten adierazleak lortzeko ohitura, eta hori dela eta, txosten honetan ez da kontuan hartzen Eurostaten adierazleak lortzeko planteamendu berria erabiltzetik eratortzen den diferentzialari lotutako arazoa. Adierazle horiei dagozkien emaitzak ere ez dira eskaintzen, PGDIn eskuragarri egon arren. Hala ere, egotzitako alokairuaren arabera doitutako Eurostaten metodo berriari buruzko xehetasun batzuk aipatzen dira, beste metodoek pobreziaren eta prekarietatearen gizarte-pertzepziora egokitzeko duten ahalmenari buruzko atalean.

kasu batean, eta %0,5 eta biztanlegoaren %0,9aren aurrean). Oinarrizko beharrizanei aurre egiteko beharrezko gutxieneko diru-sarrerari buruzko galderari Leuden-SPL metodoa aplikatzean lortuko litzatekeen zifra (%2,0) baino handiagoak ere badira. Aitzitik, zifra hori eta Eurostatek pobreziaren azterketarako zehaztutako bitartearen azpiko atalasetik eratortzen dena (medianaren %40) oso antzekok dira, eta hori da, azken batean, Europako esparruan ofizial den bakarra. Kasu horretan pobreziaren tasa %3,1ekoa da.

PGDIren pobrezia-tasak, berriz, bai europar metodoak, bai SPL-Lyden metodoak (hilaren amaierara iristeko gutxieneko diru-sarrerarekin loturiko bertsioan) zehaztutako pobrezia erlatiboaren mailak baino askoz txikiagoak dira. Tartea bereziki handia da Eurostaten metodoa (medianaren %60ean oinarritutako bertsioa) aplikatzetik eratortzen den pobreziamailarekin konparatuta. Aitzitik, adierazle hori diru-sarrera txikien arabera kalkulatuz gero, PGDIren metodoaren ongizate-gabeziaren adierazlearekiko aldea oso txikia da (%16,6, kasu batean; %14,8, bestean).

Izan ere, Eurostaten metodoaren eta PGDIren metodoaren emaitzen arteko diferentzia nagusia hau da: PGDIren metodoan, pobreziaren eta diru-sarrera txikien edo ongizate-gabeziaren arteko bereizketa zehatz-mehatz ezartzen da. Espainian eta Europan aplikatutako prozedura desberdinetan dimentsio horiek pobrezia erlatiboaren kontzeptu zabalaren barruan geratzen diren bitartean, PGDIk argi eta garbi bereizten ditu kontzeptu biak, kualitatiboki desberdinak, *ongizate-gabezia* ezin baitaiteke inola ere *pobreziaren* kontzeptuaren barruan geratu.

Azken batean, Europan zehaztutako pobreziaadierazle desberdinen eta PGDIn erabilitakoaren arteko diferentzia nagusia hau da: PGDIren pobreziaren kuantifikazioan zentratzen da, pobrezia beste prekarietate-egoera batzuetatik bereizten den gertaera sozial eta ekonomikoa gisa ulerturik, eta beste adierazle guztiak (ongizate-gabeziaren errealitateak, adibidez) prekarietate-errealitate zabalagoak mailakatzeko saioak dira; errealitate horren barne, pobrezia erlatiboaren kontzeptuaren azpian, sartzen dira bai ongizate-gabeziaren arrisku-egoerak, bai pobrezia-egoerak berak, zentzu hertsian.

### 2.4.2. Arazoa duten pertsonen ezaugarrien araberako desberdintasunak

Pobrezia eta prekarietatea neurtzeko metodo bat edo beste erabiltzeak emaitza desberdinak ematen ditu haien eragina neurtzeko orduan; erantzun desberdinak ere eskaintzen

ditu, arazoak gehien erasaten dituen taldeak zein diren ezagutzeko unean. Baieztapen hori hobeto azaltzeko, interesgarria izan daiteke PGDIren metodoaren eta Eurostaten metodoaren artean konparazio labur bat egitea, aldez aurretik, Eurostaten metodoa dirusarrera txikien pobrezia edo ongizate-gabezia bereizteko egokituz. Horretarako, medianaren %40aren eta %60aren adierazleak erabili dira, hurrenez hurren.

Itxura batean, eskura ditugun datueen arabera, pobrezia-adierazleari dagokionez, gorabehera garrantzitsu batzuk atzemanten dira, hobeto azaldu beharrekoak. Biztanleria osoari buruzko datuetan jarriz gero arreta, eta etxebizitzaren edo bertan bizi den pertsona nagusiaren ezaugarriak harturik erreferentzia gisa, honako hauek dira desberdintasunik deigarrienak:

1. Lehenik eta behin, Eurostaten metodoak pobrezia-arriskuen egoeren eragin erlatibo txikiagoa erakusten du bakarrik bizi diren pertsonen edo guraso bakarreko familien artean. Horrek eragina du kolektibo pobreen banaketa kuantitatiboan: PGDIren metodoan, bakarrik bizi diren pertsonak edo guraso bakarreko familiak dira pobreen %41,1; Eurostaten metodoaren kasuan, berriz, %32,9ra jaisten da proportzio hori.
2. Bigarrenik, Eurostaten metodoak erakusten duenez, pobreziaren eta prekarietatearen eragin diferentziala handiagoa da 65 urtez gorakoen artean (%3,5, pobreziaren adierazleari dagokionez Eurostaten metodoaren arabera; PGDIren metodoaren arabera, berriz, %2,3). Aitzitik, PGDIri dagokionez, metodo horrek gutxietsi egiten du pertsona gazteak buru dituzten familien artean pobreziak eta prekarietateak duen eragina. Hala, nahiz eta 45 urtez azpikoen artean batez bestekoak baino pobrezia-tasa handiagoak erakutsi, kasu horretan Eurostaten metodoaren tasak PGDIren metodoarenak baino nabarmenki txikiagoak dira, batez ere 25 eta 44 urte bitarteko pertsonak buru dituzten familien artean (%4,7 eta %9 hurrenez hurren, 25-34 urte bitartekoen artean; %3,1 eta %6,1, berriz, 35-44 urte bitartekoetan). Hala, PGDIren pobreziaarriskuen egoeren %58,2 45 urtez azpikoak buru dituzten etxeetan bizi diren pertsonei dagokien bitartean, Eurostaten metodoan pertsona horiek pobreen %41,9 baino ez dira.
3. Hirugarrenik, pobrezia-tasei dagokienez, gizon-emakumeen arteko diferentziala txikiagoa da Eurostaten metodoan (4,8 Eurostaten metodoan eta 8,2 PDGIan). Horrek esan nahi du, pobrezia-arriskuan dauden pertsonen artean, emakumeak buru dituzten etxeen pisu erlatiboa txikiagoa dela (%25,2 Eurostaten metodoan; %32, berriz, PGDIren metodoan).

Era berean, 2008an, Eurostaten metodoa erabiliz 14 urtez beherakoren bat duten familien pobrezia-tasa txikiago bat lortzen da (%3,8 Eurostaten metodoan; %6, berriz, PGDIren metodoan).

Atzemandako desberdintasunen jatorriak zerikusia du PGDIren metodotik eratortzen den pobrezia-atalaseen sistema bereizten duten bi ezaugarrirekin. Batetik, Eurostaten metodoari dagokionez, hurbilketa honetan garbi ikusten denez, pobrezia-atalaseak askoz handiagoak dira bakarrik bizi diren pertsonen kasuan; aitzitik, baliokidetasun-eskala ez da hain gorabeheratsua, eta atalaseak ez dira hainbeste handitzen, etxeko kideen kopurua handitu ahala.

Bestetik, Eurostaten metodoak ez bezala, metodo horrek pobreziaren edo ongizate-gabeziaren atalase bakarra bereizten baitu, PGDIren metodoak hiru atalase bereizten ditu, etxean buru egiten duen pertsonaren adina kontuan harturik. Gauzak horrela, hau da PGDIren metodoaren oinarrizko ezaugarrietako bat: adinak gora egin ahala, baliabide ekonomiko gutxiago behar izatea pobrezia gainditzeko eta ongizate-maila nahikora iristeko.

Aldagai metodologiko horien argitara hobeto uler daitezke hemen aurkeztutako emaitzak. Azpimarratu beharra dago etxeko pertsona nagusiaren adinaren eta familia motaren araberako pobrezia-egoeren eraginean ikusitako diferentziak elkarrekin loturik daudela. Zentzu horretan, Eurostaten metodoak pobreziatik kanpo uzten ditu 45 urtez azpiko pertsonak bizi diren etxeak, guraso bakarreko familiak edo pertsona bakarreko etxeak izanik; aitzitik, arazo gehiago atzematen ditu 45 urtez gorako pertsonen artean, hau da, batez ere pertsona ezkonduak edo alargunak direnen artean.

Ez da zuzena, ordea, pobrezia-atalase berdinak aplikatzea oso gastu-premia desberdinak dituzten etxeetan. Hori dela eta, 45 urtez gorako pertsonen etxeetako premiak askoz urriagoak dira, batez ere etxebizitzako gastuei dagokienez, eta nahiz eta beste alor batzuetan (osasunean, adibidez) gastu gehiago izan, hau ez da 45 urtez azpiko pertsonen adinakoa izatera iristen. Eurostaten adierazle-sistema bakarrak balio gutxiegi ematen die, beraz, gazteenen premiei, eta gehiegi, berriz, adin gehiagoko pertsonenei. Hori dela eta, Eurostaten metodoaren aplikaziotik eratortzen diren emaitzak urrun samar daude EAEn diru-sarrerak bermatzeko zerbitzuak (Oinarrizko Errenta eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzak) jasotzen dituzten pertsonen profiletik, zerbitzu horiek pobrezia-egoeran dauden pertsonei zuzendurik baitaude espezifikoki. Pertsona horien profila, ordea, bat dator PGDIren metodoak aurkezten digun pertsona pobreen kolektiboaren oinarrizko ezaugarriekin.

### 2.4.3. PGDIren ahalmena disfuntzioak minimizatzeko

Eskura ditugun datuek erakusten dutenez, PGDIren hurbilketa da pobreziaren eta prekarietatearen neurketara hobekien egokitzen dena. Horren haritik, 9. taulan garbi ikus daitekeenez, PGDIren metodoa da mantentze-pobreziari eta mantentze-prekarietateari buruzko adierazle objektiboen eta arazoa dutenek berek beren egoeraz duten pertzepzioaren artean egokitasunik handiena eskaintzen duen metodoa.

PGDIren adierazleak gainerako metodo guztiak baino egokiagoak dira garrantzi handiko puntu batzuetan. Lehenik eta behin, beren burua *pobre samartzat* jotzen duten baina ez pobretzat sailkatuta dauden etxebizitzen proportzioa minimizatzen da: %38,5 PGDIren metodoan, %41,7 egungo Eurostaten metodoan, eta %66,6 *egotzitako alokairuaren* kontzeptuaren arabera doitutako Eurostaten metodoan. Bigarrenik, PGDIren metodoan ere txikiagoa da beren burua gutxienez pobre samartzat jo ez arren pobretzat sailkatuta dauden etxebizitzen proportzioa: %58,5 PGDIren metodoan, eta %75 inguruko zifrak, berriz, Eurostaten metodoan.

Gainera, ikusiko dugun bezala, *metatze-pobrezia* kontzeptua sartzean, zentzua hartzen du PGDIren hurbilketan ere mantentze-pobreziaren barnean sailkatutako etxe gehienek beren burua pobretzat jo ez izanak. Horren haritik, litekeena da metatze dimentsioan dagoen ongizate-egoera batek mantentze-dimentsioan dagoen prekarietate-errealitate bat orekatzea, itxurako paradoxa gainditu\u00adz.

Azpimarratu beharra dago ere, bizi-zikloarekin lotutako premia-maila eta kontsumo-egitura desberdinak kontuan hartzean, PGDIren adierazle orokorrek eskaintzen dituzten emaitzak (pixka bat hobeak, etxebizitza lortzeko gastuak neutralizatuz gero) antzekoak direla neutralizazio horri ekin baino lehen eta ondoren. Era horretan, etxebizitza lortzeko gastuak neutralizatuz lortzen diren adierazleei dagokienez, PGDIren adierazle orokorrek berme nahikoak eskaintzen dituzte pobrezia-atalasea eta ongizate-gabeziaren atalasea lortzeko bide soilagoak erabiltzen diren testuinguru batean. Dena dela, egotzitako alokairuaren mekanismoa erabilita ere ez da lortzen Eurostaten metodoaren mugak gainditzea. Europako metodo originalarekin lortzen ziren emaitzetara hurbiltzea lortzen da, gehienez ere.

Aipaturiko desberdintasunen jatorrian sakontzen jarraituz, PGDIren metodoaren aplikaziotik lortzen diren emaitzak Eurostaten metodoaren aplikaziotik lortzen direnekin konparatzeko orduan batez ere, azken metodo horrekin lotutako distortsioak

bi alderditan oinarritzen direla ikusten da 10. taulan. Lehenik eta behin, Eurostatek erabilitako atalaseak, medianaren %60an kokatuak, *hilaren amaierara iristeko gutxieneko diru-sarreraren* kontzeptuarekin lotzen dira, baina kontzeptu horrek zerikusi handiagoa du ongizate-gabeziako egoerekin pobreziarekin baino. Bigarrenik, metodo horrek ez ditu haintzat hartzen adinari eta bizitza zikloari dagozkion behar izan mailaren aldaketa.

Medianaren %60aren Eurostaten adierazleak ez du pobrezia neurtzen, ongizate-gabeziako egoerak baizik. Eurostaten hurbilketan, pobrezia neurtzeko perspektibari gehien hurbiltzen zaion adierazlea, *oinarrizko premiak asetzeko* pertzepzio subjektiboarekin lotua dagoen errealitatea, medianaren %40aren adierazlea da. %30aren adierazleak garrantzi gutxiegi ematen die pobreziarekin lotuta dauden premiei; %50aren adierazleak, berriz, garrantzi gehiago eman ohi die, 45 urtez gorako pertsonak buru dituzten etxebizitzen kasuan behintzat.

9. TAULA

**Adierazle objektiboen eta pertzepzio subjektiboaren arteko egokitasunari buruzko adierazleak. 2008**

(Datuak ehunekotan)

| Adierazlea | Europako metodo originala | Eurostat metodoa | Eurostaten Egotzitako alokairua | Leyden metodoa | PGDI metodoa | PGDI Etxebizitza gasturik gabe |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Beren burua pobretzat («pobre samartzat» behintzat) jo ez arren pobretzat sailkatutako etxebizitzak | 72,5 | 75,3 | 73,1 | 68,5 | 58,5 | 53,4 |
| 2. Beren burua pobretzat edo oso pobretzat jo arren ez-pobretzat sailkatutako etxebizitzak | 1,6 | 1,2 | 1,7 | 1,4 | 1,0 | 0,7 |
| 3. Beren burua pobretzat («pobre samartzat» behintzat) jo arren ez-pobretzat sailkatutako etxebizitzak | 67,3 | 41,7 | 66,6 | 54,5 | 38,5 | 36,8 |
| 4. Beren burua pobretzat («pobre samartzat» behintzat) jotzen ez duten etxebizitzak | 6,8 | 14,0 | 7,1 | 7,8 | 2,9 | 2,5 |
| 5. 1 + 2 distortsioen pisua arriskuan dauden etxe guztietan (pobretzat sailkatutako etxebizitzak edo beren burua gutxienez pobretzat jotzen duten etxebizitzak) | 57,0 | 68,7 | 58,7 | 58,2 | 35,5 | 30,3 |
| 6. 3 + 4 distortsioen pisua etxebizitza guztietan | 11,2 | 16,0 | 11,5 | 11,2 | 5,5 | 5,0 |

*Iturria:* PGDI 2008.

*Oharra:* PGDIren metodoaren kasuan, ongizate-egoeratzat definitutako egoerak ez-pobretzat sailkatutakoen barruan sartzen dira.

10. TAULA

**Pobreziaren eta ongizate-gabeziaren atalase objektiboen eta adierazle subjektibo jakin batzuen arteko konparazioa. 2008**

Datuak unitate baliokideetan, dagokion baliokidetasun-eskala aplikatuta, eta biztanleria osoa kontuan hartuta (Datuak eurotan)

| | 45 urtez azpikoak | 45-64 urte bitartekoak | 65 urtez gorakoak | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| **Adierazle orokorrak** | | | | |
| 5. kintila | 2.000,00 | 2.037,00 | 1.653,33 | 1.938,89 |
| Mediana | 1.373,02 | 1.477,56 | 1.139,78 | 1.364,00 |
| Medianaren %60 | 823,81 | 886,53 | 683,87 | 818,40 |
| **Eurostaten adierazleak** | | | | |
| Diru-sarreren medianaren %30 | 411,90 | 443,27 | 341,94 | 409,20 |
| Diru-sarreren medianaren %40 | 549,21 | 591,02 | 455,91 | 545,60 |
| Diru-sarreren medianaren %50 | 686,51 | 738,78 | 569,89 | 682,00 |
| Diru-sarreren medianaren %60 | 823,81 | 886,53 | 683,87 | 818,40 |
| Diru-sarreren medianaren %70 | 961,11 | 1034,29 | 797,85 | 954,80 |
| **PGDIren adierazleak (Eurostat-en baliokideak erabiliz)** | | | | |
| Pobrezia | 669,04 | 534,06 | 490,54 | 568,51 |
| Ongizate-gabezia | 918,53 | 818,01 | 674,70 | 817,05 |
| **Adierazle subjektiboak (mediana)** | | | | |
| «Hilaren amaierara iristeko gutxieneko diru-sarreren» mediana | 904,76 | 800,00 | 650,00 | 800,00 |
| «Hilaren amaierara iristeko gutxieneko diru- sarreren» mediana (diru-sarreren azken kintila izan ezik) | 857,14 | 739,13 | 600,00 | 722,22 |
| «Hilaren amaierara iristeko gutxieneko diru-sarreren» mediana (diru-sarrerak mediana baino txikiagoak direnean bakarrik) | 750,00 | 666,67 | 600,00 | 666,67 |
| «Hilaren amaierara iristeko gutxieneko diru-sarreren» mediana (diru-sarrerak medianaren %60 baino txikiagoak direnean bakarrik) | 608,70 | 571,43 | 500,00 | 576,92 |
| «Oinarrizko premiak asetzeko gutxieneko diru-sarreren» mediana | 761,90 | 650,00 | 533,33 | 652,17 |
| «Oinarrizko premiak asetzeko gutxieneko diru-sarreren» mediana (diru-sarreren azken kintila izan ezik) | 714,29 | 600,00 | 533,33 | 600,00 |
| «Oinarrizko premiak asetzeko gutxieneko diru-sarreren» mediana (diru-sarrerak mediana baino txikiagoak direnean bakarrik) | 619,05 | 550,00 | 500,00 | 571,43 |
| «Oinarrizko premiak asetzeko gutxieneko diru-sarreren» mediana (diru-sarrerak medianaren %60 baino txikiagoak direnean bakarrik) | 523,81 | 500,00 | 420,00 | 500,00 |
| **Adierazle subjektiboak (batez bestekoa)** | | | | |
| «Hilaren amaierara iristeko gutxieneko diru-sarreren» batez bestekoa | 973,70 | 863,83 | 703,39 | 861,87 |
| «Hilaren amaierara iristeko gutxieneko diru-sarreren» batez bestekoa (diru-sarreren azken kintila izan ezik) | 879,06 | 778,20 | 659,78 | 773,12 |
| «Hilaren amaierara iristeko gutxieneko diru-sarreren» batez bestekoa (diru-sarrerak mediana baino txikiagoak direnean bakarrik) | 762,33 | 715,18 | 633,62 | 703,91 |
| «Hilaren amaierara iristeko gutxieneko diru-sarreren» batez bestekoa (diru-sarrerak medianaren %60 baino txikiagoak direnean bakarrik) | 622,47 | 588,85 | 539,88 | 592,47 |
| «Oinarrizko premiak asetzeko gutxieneko diru-sarreren» batez bestekoa | 815,31 | 699,58 | 589,53 | 711,66 |
| «Oinarrizko premiak asetzeko gutxieneko diru-sarreren» batez bestekoa (diru-sarreren azken kintila izan ezik) | 744,28 | 646,29 | 556,70 | 648,89 |
| «Oinarrizko premiak asetzeko gutxieneko diru-sarreren» batez bestekoa (diru-sarrerak mediana baino txikiagoak direnean bakarrik) | 655,73 | 596,41 | 530,85 | 597,47 |
| «Oinarrizko premiak asetzeko gutxieneko diru-sarreren» batez bestekoa (diru-sarrerak medianaren %60 baino txikiagoak direnean bakarrik) | 536,20 | 509,72 | 462,12 | 508,88 |

*Iturria:* PGDI 2008.

*Oharra:* PGDIren adierazleak batez besteko balioei dagozkie, Eurostaten baliokideak erabiliz. Praktikan, zifrak pertsona bakar baten premien atalasei dagozkie.

## 3. GABEZIA-ADIERAZLEAK MANTENTZE-DIMENTSIOAN

Aurreko puntuan aurkeztutako pobrezia-adierazleaz eta ongizate-gabeziaren adierazleaz gainera, PGDIk gabezia-adierazle batzuk ere eskaintzen ditu mantentze-dimentsioan. Kasu horretan, adierazle espezifikoak eta adierazle sintetikoak bereiz daitezke.

Adierazle horien interesa, PGDIn, bi alderdi nagusitan oinarritzen da. Lehenik eta behin, pobrezia-egoeraren eta ongizate-gabeziaren egoeren ezaugarriak zehazteko aukera ematen dute, prekarietate-egoera mota bakoitzaren ezaugarriak ezagutzeko informazio garrantzitsua emanez. Bigarrenik, informazio zehatzagoa ematen dute, arriskuan dauden taldeek pobreziaren eta prekarietatearen aurkako borrokaren alderdi garrantzitsu batzuen aurrean duten jarrera dela eta, elikadurasegurtasunaren gutxieneko maila bermatzeko orduan, adibidez. Oro har, adierazle horiek prekarietate-egoerak hobeto ezagutzen laguntzen dute.

### 3.1. Adierazle espezifikoak

PGDIn garatutako gabezia-adierazle espezifikoen sistemak pobrezia-adierazleak eta prekarietate-adierazleak ematen duten informazioa osatu nahi du. Hauek dira helburu nagusiak:

1. Oinarrizko premiak asetzearekin zerikusia duten arazoak zehaztea, batez ere elikadura lortzeko arazoei dagokienez, eta etxebizitza lortzeko egin beharreko ahaleginak berekin dakartzan inplikazioei dagokienez.
2. Ongizate-egoerak lortzearekin zerikusia duten beste arazo batzuk zehaztea, aisialdiaren premiak asetzearekin eta astialdiaz gozatzeko aukerak betetzearekin zerikusia dutenak bereziki.
3. Premia-egoeren eta laguntzetara, aurrezkietara eta kredituetara jotzeko beharraren arteko lotura ezartzea, zorrak egiteko arrisku-egoeretarako hurbilketa barne.

Ondoko tauletan modu sintetikoan aurkezten da adierazle-sistema[20]:

[20] Lehen eranskinean adierazle espezifiko bakoitzaren ezaugarri zehatzak azter daitezke. Aplika daitezkeen definizioak eta kalkulu-metodoak zehazten dira bertan, kontuan hartutako adierazle bakoitzarentzat. Pobreziaren eta ongizate-gabeziaren adierazleei buruzko informazioa ere laburtzen da eranskinean.

11. TAULA

**Ongizaterik ezaren adierazle espezifikoak (Mantentzea)**

| OINARRIZKO PREMIEN ESTALDURA | |
|---|---|
| **OINARRIZKO PREMIEN ESTALDURA** | |
| **Oinarrizko gastuen egungo estaldura** | Bizitzeko oinarrizko gastuei aurre egin ezin dieten etxeak (edo etxapean bizi diren pertsonak). |
| **Azken 12 hilabeteetako ohiko betebeharren eta gastuen estaldura** | Azkeneko 12 hilabetetan ohiko diru-sarrerekin hirugarrenekiko betebeharrei edo ohiko gastu-premiei aurre egiteko zailtasunak izan dituzten etxeak (edo etxepean bizi diren pertsonak).<br>Ohiko betebehar eta gastuei aurre egiteko arazoak izanik, azkeneko 12 hilabeteetan beste arazo hauei aurre egin behar izan dioten etxeak (edo etxapean bizi diren pertsonak):<br>—Oinarrizko gastuak (jantzia, elikagaia edo etxebizitza) murriztu beharra.<br>—Ordaindu beharrekoak ordaindu gabe utzi beharra, edo alokairu edo kredituen ordainketa atzeratzea.<br>—Argia, ura, telefonoa etetea.<br>—Ondasunak bahitzea.<br>—Jabetzak saldu beharra, etxebizitza aldatu beharra, edo seme-alabak beste ikastetxe batera era man beharra. |
| **Ustekabeko gastuei aurre egiteko ahalmena** | Ustekabeko gastuei aurreko egiteko ahalmenik ez duten etxeak (edo etxapean bizi diren pertsonak). |
| **ELI KAGAIAK LORTZEKO ARAZOAK** | |
| **USDA adierazleak (FSS)** | Azken 12 hilabeteetan elikagaiak lortzeko oso arazo handiak izan dituzten etxeak (edo etxapean bizi diren pertsonak).<br>Azken 12 hilabeteetan elikagaiak lortzeko arazo handiak izan dituzten etxeak (edo etxapean bizi diren pertsonak).<br>Elikadura-segurtasunik ez duten etxeak. |
| **EU-SILC adierazlea** | Azkeneko 12 hilabeteetan, bi egunez behin gutxienez, proteinaz aberatsa den otordurik egin ezin izan duten etxeak (edo etxapean bizi diren pertsonak). |
| **OINARRIZKO PREMIAK ASETZEKO BESTE ARAZO BATZUK** | |
| **Jantzia eta oinetakoak** | Arazo ekonomiak direla eta, bigarren eskuko jantziz eta oinetakoz hornitzen diren etxeak (edo etxapean bizi diren pertsonak). |
| **Berokuntza** | Berokuntza-sistemarik ez izateagatik, edo desegokia izateagatik, hotza pasa duten etxeak (edo etxapea bizi diren pertsonak). |
| **ETXEBIZITZA LORTZEKO AHALEGINA** | |
| **Etxebizitza lortzeko ahalegina** | Etxebizitza-gastuak diru-sarrera eskuragarrien %30 baino handiagoak dituzten etxeak (edo etxapean bizi diren pertsonak). |

12. TAULA

**Ongizaterik ezaren adierazle espezifikoak (Mantentzea)**

| | |
|---|---|
| **AISIALDI BEHARREN ETA ASTIALDIAZ GOZATZEKO PREMIEN ESTALDURA** | |
| **AISIALDIA IZATEKO ETA ASTIALDIAZ GOZATZEKO AUKERA IZATEKO ARAZO OROKORRAK** | |
| **Aisia-beharren egungo estaldura** | Beren aisia-beharrak inola ere betetzen ez dituzten etxeak (edo etxapean bizi diren pertsonak).<br><br>Beren aisia-beharrak beteko badituzte, bizimodua ahalik eta gehien doitu behar duten etxeak (edo etxapean bizi diren pertsonak).<br><br>Aisia-arazoak guztira: Beren aisia-beharrak inola ere betetzen ez dituzten edo bizimodua ahalik eta gehien doituz baino betetzen ez dituzten etxeak (edo etxapean bizi diren pertsonak). |
| **Ohiko betebehar eta gastuen estaldura azken 12 hilabeteetan** | Ohiko betebeharrak betetzeko eta gastuak estaltzeko arazoak direla eta, azken 12 hilabeteetan honako arazo hauei aurre egin behar izan dioten etxeak (edo etxapean bizi diren pertsonak):<br><br>— Aisialdirako eta astialdirako gastuak murriztu beharra. |
| **AISIALDIA IZATEKO ETA ASTIALDIAZ GOZATZEKO AUKERA IZATEKO BESTE ARAZO BATZUK** | |
| **Aisialdiko ateraldiak** | Arrazoi ekonomikoak direla eta, azkeneko 15 egunetan, goiz batez, arratsalde batez edo gau batez aisialdiko ateraldirik egin ez duten etxeak (edo etxapean bizi diren pertsonak). |
| **Oporrak** | Arrazoi ekonomikoak direla eta, azkeneko 12 hilabeteetan ohiko etxebizitzatik kanpo astebeteko oporraldia gutxienez egin ez duten etxeak (edo etxapean bizi diren pertsonak). |

13. TAULA

**Ongizaterik ezaren adierazle espezifikoak (Mantentzea)**

| | |
|---|---|
| **LAGUNTZA, AURREZKI ETA KREDITUETARA JOTZEA** | |
| **LAGUNTZA ESKATZEA, AURREZKIETARA JOTZEA, KREDITUAK ESKATZEA** | |
| **Hirugarreni laguntza eskatzea** | Ohiko betebeharrak betetzeko eta ohiko gastuei aurre egiteko ezintasunaren ondorioz, azkeneko 12 hilabeteetan honako arazo hauetako bati aurre egin behar izan dioten etxeak (edo etxapean bizi diren pertsonak):<br>—Lagun, auzo edo ahaideei laguntza eskatu beharra.<br>—Erakunde publiko edo pribatuei laguntza eskatu beharra.<br>—Laguntza eskatu beharra (aurreko bi taldeen batura). |
| **Aurrezkietara jotzea** | Ohiko betebeharrak betetzeko eta ohiko gastuei aurre egiteko ezintasunaren ondorioz, azkeneko 12 hilabeteetan honako arazo hauetako bati aurre egin behar izan dioten etxeak (edo etxapean bizi diren pertsonak):<br>—Norberaren aurrezkietara jo eta haietako zati handi bat erabili behar izatea. |
| **Kredituak eskatzea** | Ohiko betebeharrak betetzeko eta ohiko gastuei aurre egiteko ezintasunaren ondorioz, azkeneko 12 hilabeteetan honako arazo hauetako bati aurre egin behar izan dioten etxeak (edo etxapean bizi diren pertsonak):<br>—Kreditu bereziak eskatu beharra. |
| **ZORRAK EGITEKO ARRISKUA** | |
| **Zorduntzea** | Erabilgarri dituzten aurrezkiak kontuan hartuta, eta beren diru-sarreren eta gastuaren maila ikusita, zorrak egiteko arriskuan dauden etxeak (edo etxapean bizi diren pertsonak). |

## 3.2. **Adierazle sintetikoa**

PGDIk ongizate-gabeziaren adierazle sintetiko bat ere eskaintzen du, bere mantentze dimentsioan. Adierazle hori hemen ikusitako ongizate-gabeziako egoera espezifiko guztiak aintzat hartuko dituen hurbilketa bat eskaintzen saiatzen da. PGDIk eskaintzen duena bezalako informazio ekonomikorik ezean, eta egokitzapen batzuk eginda, adierazle sintetiko horrek pobreziaren eta prekarietatearen adierazleen jarraipena egiteko balio dezake, PGDIren beste metodo batzuetatik bereizten duen galdera-sorta konplexura jo beharrik izan gabe (Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila, 2007).

Aipatu adierazlea eraikitzeko, ongizate-gabeziako egoera ezaugarritzen duten alderdi hauek hartzen dira kontuan etxean:

14. TAULA

**Ongizate-gabeziaren adierazle sintetikoan aintzat hartzen diren arazoak**

| **Arazo orokorra** | **Aintzat hartutako adierazle espezifikoak** |
|---|---|
| **Oinarrizko gastuen egungo estaldura** | Egun ezin diete aurre egin bizitzeko oinarrizko gastuei. |
| **Janaria, jantzia eta oinetakoak lortzeko aukera eta bero nahikoa izatea** | —Elikadura-arazoak, eta gose izateko arriskua; bestelako elikadura-arazoak, elikadura orekatua eta askotarikoa lortzeko aukerarekin zerikusia duten zailtasunak ikusten diren bakoitzean.<br>—Azkeneko hamabi hilabeteetan familia bigarren eskuko jantziz eta oinetakoz hornitzea,arazo ekonomikoek eta ez bestek hartara bultzaturik.<br>—Azken neguan, hotza pasatu dute etxean, egun batzuetan behintzat, berokuntza-sistemarik ez dagoelako, edo dagoena nahikoa ez delako.<br>Arazoen adierazlea aipaturiko hiru arazo moten baturan oinarritzen da, eta adierazleak 0 eta 3 arteko balioa har dezake. |

14. TAULA *(jarraipena)*

**Ongizate-gabeziaren adierazle sintetikoan aintzat hartzen diren arazoak**

| Arazo orokorra | Aintzat hartutako adierazle espezifikoak |
|---|---|
| **Ohiko betebeharren eta gastuen estaldura azkeneko 12 hilabeteetan** | Ohiko betebeharrak betetzeko eta ohiko gastuei aurre egiteko ezintasunaren ondorioz, azkeneko 12 hilabeteetan honako arazo hauei aurre egin behar izan diete:<br>— Ordaindu beharrekoak ordaindu gabe utzi beharra, edo alokairu edo kredituen ordainketa atzeratzea.<br>— Argia, ura, telefonoa etetea.<br>— Ondasunak bahitzea.<br>— Oinarrizko jantzi, janari edo etxebizitza-gastuak murriztu beharra.<br>— Jabetzak saldu beharra,etxebizitza aldatu beharra, edo seme-alabak beste ikastetxe batera eraman beharra.<br>— Lagun, auzo edo ahaideei laguntza ekonomikoa eskatu beharra.<br>— Erakunde sozial publiko edo pribatuei laguntza ekonomikoa eskatu behar izatea.<br>— Norberaren aurrezkietara jo eta zati handi bat erabili behar izatea.<br>— Kreditu bereziak eskatu behar izatea.<br>Arazoen adierazlea aipaturiko bederatzi arazo moten baturan oinarritzen da, eta adierazleak 0 eta 9 arteko balioa har dezake. |
| **Aisialdia eta astialdia izatea** | — Ezin dituzte inola ere estali aisialdi-gastuak.<br>— Ohiko betebeharrak eta gastuak estaltzeko arazoak direla eta, aisialdi eta astialdiko gastuak murriztu behar izan dituzte.<br>— Arrazoi ekonomikoak direla eta, azkeneko 12 hilabeteetan ez du astebeteko oporrik ere izan ohiko bizilekutik kanpo.<br>— Arrazoi ekonomikoak direla eta, azkeneko hamabost egunetan ez du aisialdiko ateraldi bat ere egin eguerdi batez, arratsalde batez edo gau batez.<br>Arazoen adierazlea aipaturiko lau arazo moten baturan oinarritzen da, eta adierazleak 0 eta 4 bitarteko balioa har dezake. |

Aipaturiko eduki desberdinentzat lortutako emaitzetatik abiatuta, honako sailkapen hau egin daiteke, gabezia/ez gabeziaren eskalan:

- *Guztiz prekarioa*

Honako arazo hauetakoren bat duten etxeetan bizi diren pertsonak hartzen ditu barne:

— Oinarrizko premiak betetzeko arazo orokorrak.
— Hiru arazo-adierazle edo gehiago betebeharren estalduran (edota oinarrizko pre-mien estalduraren eta betebeharren estalduraren baturan).
— Etxeak adierazten duenez, egun ezinezkoa zaie bizitzeko oinarrizko gastuei aurre egitea.

- *Prekarioa (oinarri-oinarrizko alderdiak)*

Betebeharren estalduran (edo oinarrizko pre-mien estalduraren eta betebeharren estalduraren arteko baturan) bi arazo-adierazle edo gehiago dituzten etxeetako pertsonak hartzen ditu barne, aurreko taldean sartuta ez badaude.

- *Prekarioa (ez hain oinarrizko alderdiak)*

Oinarrizko premiak eta betebeharrak estaltzeko orduan arazo-adierazlerik ez izan arren, aisialdi-beharrak asetzeko orduan bi arazoadierazle edo gehiago dituzten etxeetako pertsonak hartzen ditu barne, aurreko taldeetan sartuta ez badaude.

- *Ez hain prekarioa (ahalik eta gehien doitzea)*

Honako arazo hauetako batzuk dituzten etxeetako pertsonak hartzen ditu barne, aurreko taldeetan sartuta ez badaude:

— Elikadura-arazoak, gose izateko arriskurik gabe, eta elikadura orekatua eta askotarikoa lortzeko aukerarekin zerikusirik duten zailtasunik gabe.
— Ahalik eta gehien doitzeko beharra, aisialdi beharrak aseko badira.

- *Ez prekarioa*

Oinarrizko premiak asetzeko eta betebeharrak betetzeko arazorik ez izateaz gainera, beren aisia-beharrak betetzen ere ongi moldatzen diren etxeetako pertsonak hartzen ditu barne.

«Guztiz prekarioa» taldeak mantentze-pobreziaren egoeren presentziarekin du zerikusia. «Ez hain prekarioa» eta «Ez prekarioa» taldeek, berriz, ongizate-egoerak edo ia-ia ongizate-egoerak erakusten dituzte.

# II. atala.

# Metatze-pobrezia eta metatze-prekarietatea

## 1. METATZE-DIMENTSIOARI BURUZKO HURBILKETA BATEN BEHARRA

PGDIk metatze-dimentsioan garatutako pobrezia, prekarietate eta ongizate-gabeziaren adierazleak aurkeztu baino lehen, zerbait gehiago esan beharra dago pobreziaren eta prekarietatearen azterketan adierazle horietara jo izanaren arrazoiak direla eta.

2.3 eta 2.4 ataletan aipatutakoa berriz hartuz, kontuan izan behar genuke datu deigarri bat: erabiltzen den metodoa erabiltzen dela, kasu guzti-guztietan, PGDIren metodoan barne, mantentze-pobre gisa sailkatutako etxebizitzen %50k baino gehiagok ez pobretzat jotzen dute beren burua. Kasurik gehienetan beren diru-sarrerak gizartearen batez bestekoarenak baino askoz txikiagoak direla onartzen duten kolektiboak izan arren, datua aipagarria da eta nabarmendu beharra dago.

Aipaturiko distortsioaren jatorria ezin zaio leporatu, hala ere, PGDIren metodoaren barne-gabeziei. Batetik, kontuan izan behar da errealitatearen norberaren ikuskera baldintzatua dagoela, diru-sarrera errealak behera egin ahala ongizatea lortzeko norberaren eskakizun-mailak ere behera egiten duelako. Horren haritik, bizitzen jarraitzeko edo hilaren amaierara iristeko behar denari buruzko pertzepzioa sistematikoki murrizten da norberak ongizate-mailan behera egin ahala. Oinarrizko premiak betetzeko gutxieneko diru-sarreraren kasuan, adibidez, batez besteko kopurua 1.011,15 €-koa da mantentze dimentsioan ongizate-egoeran dauden etxeetako pertsonentzat, 708,40 €-koa, berriz, ongizate-gabeziaren egoeran daudenentzat, eta 644,18 €-koa, azkenik, pobrezia-egoeran bizi direnentzat. Neurri handi batean, goiko hurrengo taldean gutxieneko pobreziatzat hartzen dena, gutxieneko ongizate gisa ikusi ohi da beheko hurrengo taldean.

Baina, gainera, bakoitzak pobreziaz eta ongizateaz duen pertzepzioa errealitate sozial horien izaera multidimentsioanalak baldintzatua dago. Hori dela eta, atzemandako distortsioa lotua dago, baita ere, beste egitate honekin: diru-sarreren urritasunak ez dakar ezinbestean pobrezia-egoeran edo prekarietate-egoeran bizitzea. Baliabide-urritasun hori zenbait bitarteko erabiliz ordez daiteke denboraldi batez. Errenta gabezia erabatekoa izanda ere, etxeek zenbait neurri har ditzakete beren premiei aurre egin ahal izateko, denboraldi batez behintzat: aurrezkietara jo dezakete, kasu batzuetan kredituak eska ditzakete, ondasunak sal ditzakete, edo hirugarrenen laguntza jaso dezakete.

15. TAULA

**Gutxieneko diru-sarreren adierazle ekonomikoak mantentze-pobreziarekiko kokapen objektiboaren arabera. PGDIren baliokidetasuna. 2008**

Familia-etxebizitzetan bizi den biztanleria (Biztanle bakoitzeko, eurotan)

| **Diru-sarreren adierazleak** | **Pobrezia** | **Ez pobreak-Ongizate-gabezia** | **Ongizate-egoera** | **Guztira** |
|---|---|---|---|---|
| Batez besteko diru-sarrera erreala | 656,33 | 942,88 | 2.223,98 | 2.025,70 |
| Oinarria: Ongizatea = 100 | 29,5 | 42,4 | 100 | 91,1 |
| Oinarrizko premiei aurre egiteko gutxieneko beharrezko diru-sarrera | 644,18 | 708,40 | 1.011,15 | 964,44 |
| Oinarria: Ongizatea = 100 | 63,7 | 70,1 | 100 | 95,4 |
| Hilaren amaierara iristeko gutxieneko beharrezko diru-sarrera | 723,84 | 834,63 | 1.232,21 | 1.169,77 |
| Oinarria: Ongizatea = 100 | 58,7 | 67,7 | 100 | 94,9 |

*Iturria:* PGDI 2008.

Etxeak kapitalen bat edo baliabide materialak eskuragarri izatea oso garrantzitsua izan daiteke egoera horretan. Kontuan hartutako etxeen oinarri patrimonialaren garrantzia argi eta garbi ikusten da haien barne-ezaugarriak aztertzean. Hala, ikus dezakegunez, bere burua pobretzat jo ez arren PGDIren metodoak pobreen artean sailkatu dituen etxeen %57,3, adibidez, gure gizartean normaltzat edo are handitzat har daitekeen ondare baten jabe da. Ondasun horrek nolabait konpentsatzen ditu diru-sarrera nahikoa lortzeko arazo koiunturalak, eta hori dela eta, etxe horiek ez duten beren egoera ekonomikoa pobrezia terminoetan atzematen.

Hala eta guztiz ere, etxe horiek beroriek beren egoera prekarioaren jakitun izateak (%79,6k adierazten du ez duela ustekabeko gastuei aurre egiteko ahalmenik, eta %76,7k dio arazo handiak dituela aisialdi-beharrei aurre egiteko) garbi uzten du definitutako mantentze-atalaseak benetan eraginkorrak direla ongizate-gabeziaren adierazle gisa erabiltzeko. Emaitza horiek ordea ezin dira automatikoki interpretatu pobrezia terminoetan edo benetako ongizate-gabeziako terminoetan; bai, ordea, arrisku terminoetan. Are gehiago, egoerak luzaro iraunez gero arriskua ezingo dela gainditu ohartarazten dute. Mantentze-dimentsioan, bai pobrezia-arazoek bai prekarietate-arazoek arrisku-arazoak eragiten dituzte batzuetan, baina denboran gehiegi luzatuz gero baino ez dute ekartzen benetako pobrezia edo benetako ongizate-gabezia.

Azaldutako arrazoiak direla eta, mantentzearazoak aztertzean, PGDIk arrisku terminoetan definitzen ditu pobreziaren eta ongizate-gabeziaren adierazleak, eta ez pobreziaren bizipen automatikoak definitutako egoera absolutuen terminoetan. Horrek esan nahi du une jakin batean pobrezia-atalasearen edo ongizate-atalasearen azpiko diru-sarrerak izateak ez duela nahitaez berekin ekartzen pobreziaren edo bestelako prekarietate-egoeren esperientzia zuzena.

Orain arte aztertutako distortsioaz gainera, bada garrantzizko beste distortsio bat: beren burua pobre samartzat jotzen duten etxeen %38,5 ez daude pobrezia-egoeran edo ongizate-gabeziaren egoeran erortzeko arriskuan, PGDIren metodoaren arabera. Etxe horiekiko hurbilketa zehatz batek agerian uzten duenez, familia horietako gehienak (%81,3) beren oinarrizko premiak betetzen ari dira gaur egun. Hala ere, unean uneko mantentze-premiak estalita egotearen errealitate hori bateragarria da garrantzizko beste arazo batzuekin, ondare-baliabide eskuragarrien eta bizi-baldintzen terminoetan. Hala, etxe horien %42,6k ondare ekonomiko txikia edo oso txikia daukate, eta %62,2k du etxebizitzaren egoerari eta ekipamenduei loturiko gabeziaren bat. Etxe guztien %72 aurkitzen da aipaturiko egoeretakoren batean.

Neurri handian, distortsio horien eragile nagusia da pobrezia, fenomeno sozio-ekonomiko gisa, ez dela diru-sarrera erregular eskuragarriekin soilik loturiko errealitatea, baizik eta baita ere metatutako ondare-mailarekin, metatutako kapital-mailarekin, eta existentzia-baldintza orokorrekin loturikoa. Horregatik, PGDIren diseinu metodologikoan, ondare-baliabideei eta epe ertain eta luzeko bizi-baldintzei loturiko pobrezia-mota bat hartzen da kontuan, metatze-pobrezia, aurreko kapituluan deskribatutako mantentze-pobreziaz guztiz bestelakoa.

## 2. **HURBILKETA KONTZEPTUALA**

Gorago esan den bezala, mantentze-pobreziaren azterketak ez du bere baitan hartzen pobrezia kontzeptuak berekin dakarren problematika ekonomiko guztia. Pobrezia gainditzeko, ohiko kontsumo-premiei erregulartasunez aurre egiteaz gainera, herritarrek gauza izan behar dute, baita ere, bizi-baldintza egokiak bermatuko dituen bizi-ingurune egokia finkatzeko epe ertain eta luzean. PGDIk kontuan hartzen duen pobreziaren bigarren dimentsioa epe ertain eta luzeko kontsumo moduei loturik dauden prekarietate-egoera jakin batzuen azterketan zentratzen da horregatik: mantentze-egoerak ez bezala, dauden

egoeratik nahiko bermez ateratzeko etxeen egoeraren aldaketa koiunturalen mende egoten ez diren prekarietate-egoeren azterketan, hain zuzen.

Pobrezia-mota hori, *metatze pobrezia* deiturikoa, epe ertain eta luzean bizi-maila egokiari eusteko (hau da, behar bezalako etxebizitza bat, gutxieneko biziegokitasun-arauak betetzen dituena izateko) behar diren kontsumoondasun iraunkorrak lortzeko ezintasunarekin lotzen da. Epe ertain eta luzeko prekarietate-egoera baten eszenatoki gisa, metatze-pobreziak zerikusia du, baita ere, bizitza normalizatu bat aurrera eramateko gutxienez behar diren ondare-baliabideak pilatzeko etxeek dituzten eragozpenekin[21].

Metatze-pobreziak prekarietate-egoera diferentziala dakar berekin (egoera global bat, ez espezifikoa), beharrezko kontsumo-ondasun iraunkorrak lortzeko orduan, eta ondare-baliabide eskuragarrien mailan: horrek esan nahi du egoera horretan dagoenaren bizi-baldintzak ez direla aski bizimodu duin bat aurrera eramateko. Pobrezia-mota hori honako hone-tan nabarmentzen da batez ere: batetik, ondare-baliabideen maila oso-oso txikia izatean; eta, bestetik, bizi-baldintzetan gabezia nabarmenak egotean, hala kualitatiboki nola kuantitatiboki. Gabezia horiek ohiko etxebizitzaren ezaugarriekin dute batez zerikusia (biziegokitasuna, erabilgarri dituen instalazioak, eta ekipamendu-maila), baina baita gizarte modernoan bizitzeko garrantzizkoak diren bestelako kontsumo-ondasun iraunkorrak lortzeko ahalmenarekin ere (automobila, adibidez, edo premia horiei aurre egitea ezinbestekoa denean premia horiek berak beteko dituen beste ibilgailu-mota bat).

Oro har, metatze-pobreziak gure gizartean onuragarriak diren minimoen azpitik dauden bizi-baldintzak erakusten ditu, epe luzeko gizarte-maila baten adierazgarri diren oinarrizko aldagaiei dagokienez behintzat (etxebizitza, adibidez). Hori dela eta, pobrezia-mota horrek mantentze-pobreziak baino dimentsio estrukturalagoa izaten du, mantentze-pobreziak izaera koiunturala izaten baitu, funtsean.

Mantentze-dimentsioan gertatzen zen bezala, metatze-dimentsioaren barruan ere, prekarietate-egoera batzuk ez daitezke automatiko parekatu pobrezia-errealitateekin, pobrezia zentzu hertsian hartuta. Euskal gizartean bezalako batean herritarrek izatea espero duten

---

[21] Hasieran, Townsend eta Mack eta Lansely-ren metodologiaren azterketak eragin handia izan zuen hurbilketa honetan.

ongizate-maila ez izatearen forma partikularrak erakusten dituzte batez ere problematika horiek.

## 3. POBREZIAREN ETA PREKARIETATEAREN PGDIREN ADIERAZLEAK METATZE-DIMENTSIOAN

### 3.1. Esperientziarik eza Europako testuinguruan

Metatze pobreziaren azterketa ez da erraza, ez baitago PGDIk zehaztutako ikerketa-helburuetan islatutako asmoetara behar beste egokitutako erreferente teoriko-praktikorik. Egun, Ez da Europan estatistikaren praktika gida dezaketen metatze-pobreziaren eta metatze-prekarietatearen adierazleen erreferenterik. Kontua ez da, mantentze-pobreziaren kasuan bezala, nolabaiteko kontsentsu falta dagoela, erabili beharreko prozedura dela eta. Kontua da metatze-pobreziaren eta metatze-prekarietatearen adierazle horiek ez direla existitzen, ezta EU-SILC ezarri eta martxan jarri zenez geroztik ere.

Egia da gabezia kontzeptuaren inguruko azterketak egin direla Euroan (metatze-pobreziaren antzeko kontzeptua da, neurri batean). Baina azterketa horietan ez da behar beste hausnartu pobreziaren dimentsioetan sakontzeko premiaz. Izan ere, gabeziaren azterketarekiko hurbilketa gehienetan ez da mantentze-adierazleen eta metatze-adierazleen arteko bereizketa kualitatiboa egiten. Aitzitik, modu bateratuan aztertzen dira adierazle horiek, elkarrengandik argi eta garbi bereizten diren dimentsioak badirela erakusten duten elementu diferentzialak aintzat hartu ere egin gabe.

### 3.2. PGDIren adierazlea

Mantentze-pobrezia neurtzeko PGDIren metodoa ere originala izan arren —ez izanik, ez Europan ez Espainian, behar beste sendotutako kanpo erreferentziarik— metatze-pobreziaren azterketarekiko hurbilketan PGDIren berrikuntza-graduak askoz handiagoa izan behar izan du.

PGDIn, metatze-pobreziaren azterketa egiteko orduan, etxeen egoera hartzen da kontuan, bizi-kalitatearen adierazle batzuekin alderatuta. Adierazle horiek bi alderdi nagusi hauetan zentratzen dira: etxebizitzaren instalazio eta ekipamenduetan, batetik, eta etxeen on-

darebaliabideetan (norberaren etxebizitza, beste ondare-ondasun batzuk, aurrezkiak, eta hamar uzte baino gutxiagoko ibilgailuak), bestetik.

Metatze-pobreziaren azterketarekin zerikusia duten arazoak tratatzeko orduan, ESSDEk fenomenoari buruzko hasierako hurbilketa bat eskain zuen. Egindako azterketa pilotuaren emaitzetatik abiatuta, metatze-pobreziaren eta metatze-prekarietatearen egoera desberdinak zedarriztatzeko item adierazgarrienak ezarri ziren. Prozesu horretan, alde batera utzi ziren alboko itemak, ahalmen bereizle mugatua zutelako, edota metatze-pobrezia eta metatze-prekarietatea behar bezala kalkulatzeko egindako neurketekin zuzeneko loturarik ez zuten beste adierazle batzuekin zerikusi handiagoa zutelako.

1996. urtean, ESSDEk aurreko operazioan aurreratutakoa antolatu zuen PGDIk. Honako taula honetan, metatze-pobreziaren eta metatze-prekarietateren adierazlea eraikitzeko orduan handik aurrera aintzat hartu ziren dimentsioak aurkezten dira, haien garapena bermatzeko aldagai espezifikoekin batera:

16. TAULA

**Pobrezia-adierazleak eta prekarietate-adierazleak eraikitzeko orduan aintzat hartuko dimentsioak**

| AINTZAT HARTUTAKO DIMENTSIOAK | |
|---|---|
| **Dimentsio mota** | **Garapenerako aldagai espezifikoak** |
| **Etxebizitzaren biziegokitasun-baldintza orokorrak** | |
| **Etxebizitzaren erosotasuna** | —Etxebizitzaren erosotasun-maila ez da inola ere nahikoa, ez eta etxearen kanpoko zein barneko kontserbazio-egoera eta dekorazio-maila ere.<br>—Hemen aipaturiko elementuak aintzat hartuta, behar bezain egokia ez den beste edozein etxebizitza mota. |
| **Etxebizitzaren oinarrizko instalazioak** | —Ur beroko instalaziorik gabeko etxebizitza.<br>—Instalazio elektrikorik gabeko etxebizitza.<br>—Komunik gabeko etxebizitza.<br>—Bainuontzi edo dutxarik gabeko etxebizitza. |

16. TAULA *(jarraipena)*

**Pobrezia-adierazleak eta prekarietate-adierazleak eraikitzeko orduan aintzat hartuko dimentsioak**

| AINTZAT HARTUTAKO DIMENTSIOAK | |
|---|---|
| **Dimentsio mota** | **Garapenerako aldagai espezifikoak** |
| **Biziegokitasun-baldintzak** | —Hezetasun-arazoak dituen etxebizitza: itoginak; hezetasuna jotako hormak, zoruak, zimenduak; usteltasunak jota dauden leiho-markoak, zoruak.<br>—Pertsonako 20 metro koadro baino gutxiagoko azalera erabilgarria duen etxebizitza.<br>—Kanpoko zarata eta kutsadura iristen den etxebizitza.<br>—Etxebizitza ilunegia, ez du argi nahikorik. |
| **Etxebizitzaren ekipamendua** | Oinarrizkoak:<br>—Hozkailurik gabeko etxebizitza.<br>—Sukalderik gabeko etxebizitza (etxetresna).<br>—Arropa-garbigailurik gabeko etxebizitza.<br>—Laberik edo mikrouhin laberik gabeko etxebizitza.<br>—TB koloredunik gabeko etxebizitza.<br>—Telefonorik gabeko etxebizitza (finkoa edo mugikorra).<br>Ez hain oinarrizkoak:<br>—Ontzi-garbigailurik gabeko etxebizitza.<br>—Bideorik gabeko etxebizitza.<br>—HIFI/konpaktu/musika katerik gabeko etxebizitza.<br>—Ordenagailurik gabeko etxebizitza. |
| **Ondare-baliabideak** | |
| **Ondasun eskuragarriak** | —Norberaren etxebizitza.<br>—Aurrezkiak.<br>—Ondare-ondasunak: bigarren egoitza, beste etxebizitza bat, lurrak, sotoak, funtsak, etc.<br>—Hamar urte baino gutxiagoko antzinatasuna duen ibilgailua, edo hamar urte baino gehiagokoa, egoera horrek ekonomia-arazoekin zerikusirik ez badu. |

Gorago aipatu den bezala, aldagai horien garrantzi-maila, metatze-errealitate desberdinekiko elementu diskriminatzaile gisa, 1985. urtean egin zen azterketa pilotuan eta 1986ko estatistika-eragiketan bertan (ESSDE) analizatu zen. 2004. urtean, 1996ko PGDIn zehazturiko adierazle-multzoa egokitu egin zen apur bat, azken urteetan euskal gizartean izandako modernizazio-prozesuarekin loturiko adierazle berrietako batzuk (telefono mugikorra, ordenagailua) sartzearekin batera[22].

PGDIn diseinaturiko hurbilketaren helburua euskal etxeen batez besteko ondasun eta kapital maila zedarritzea da. Maila hori kontuan hartuta, gabezia erlatiboko egoera batzuk zehatz daitezke, eta metatze pobreziaren edota metatze-ongizatearen eskalan kokatu etxeak.

Etxebizitza-arazoak edo ondasun-gabeziak ote dauden zehaztu ondoren, metatze-pobreziaren edota metatze-ongizatearen eskalan kokatu behar da etxe bakoitza. Honako hauek dira PGDIn erabilitako kategoriak:

1. *Pobrezia* (prekarietate handia).
   Egoera honetan daudenak oso etxebizitzaarazo larriak dituzte, eta, *aldi berean,* oso ondasun-maila txikia.

2. *Prekarietatea* (batez bestekoa baino askoz txikiagoa).
   Honako egoera hauek hartzen ditu:

   — Etxebizitza-arazo oso larriak, eta ondasunmaila txikia edo normala.
   — Etxebizitza-arazo larriak, eta ondasun-maila txikia edo oso txikia.
   — Etxebizitza-arazo ez hain larriak, eta oso ondasun-maila txikia.

3. *Nolabaiteko prekarietatea, baina ongizate-gabeziaren ezaugarri nabarmenik gabe* (ongizatea ia-ia).
   Honako egoera hauek hartzen ditu:

   — Etxebizitza-arazo larriak eta ondasun-maila normala.
   — Etxebizitza-arazo ez hain larriak, eta ondasun-maila txikia.
   — Etxebizitza-arazorik ez, baina ondasunmaila txikia edo oso txikia.

---

[22] Esan beharra dago, ordea, metatze-pobreziaren neurketarekiko hurbilketak ez direla guztiz berdinak PGDIn eta ESSDEn.

4. *Ongizate-egoera.*
Etxebizitza-arazorik ez duten (edo arazo ez hain larriak dituzten) eta ondasun-maila normala duten etxeak hartzen ditu.

Etxe batek metatze-ongizatearen eskalan hartzen duen tokiaren eta etxe horrek pobreziaz duen pertzepzioaren artean dagoen loturari buruz 1996. urtean egindako azterketan agerian gelditu zenez, pobreziaren presentziari buruzko pertzepzioa guk pobre gisa definitu dugun kategoriarekin lotzen zen neurri handia batean, hau da, azterketan sartutako metatze-aldagaiei dagokienez prekarietate handia erakusteagatik bereizten den kategoriarekin. Aurrerago, egoera hori metatze-pobrezia gisa definitu zen, epe luzean pobreziaren presentziaren pertzepzio maioritarioa erakusten duen bakarra izateagatik, EAEn arazo hau duten etxeen artean.

Erabaki horrek indarrean jarraitzen du 2008. urtean. Horren haritik, behatutako errealitatearen eta pobreziaren bizipenaren arteko asoziazioa erreferentzia taldean baino ez da nagusi. Kasu horretan, prekarietate handiko arrisku-egoeran (*pobrezia* egoeran, PGDIren arabera, metatze terminoetan) dagoen taldearen %65,6k pobretzat jotzen du egiaz bere burua. Pertzepzio hori handiagoa da mantentze-ongizateko egoeran ez dauden etxeetan, mantentze-ongizateko egoerak meatze-pobreziako arazoak berdintzen baititu. Mantentze-dimentsioaren barruko ongizate-gabeziako egoeran dauden etxeen kasuan, metatze-dimentsioaren barruko muturreko prekarietate-egoera horrek jota dauden etxeen %78,2k pobretzat dauka bere burua. Mantentze-ongizateko egoeran dauden taldeen artean, pobreziaren pertzepzioa %27,4-eraino jaisten da. Horrek garbi erakusten du ongizate-egoerak pobreziaren azterketan aintzat hartutako bi dimentsioetako batean sartzen duen konpentsazio-faktorea[23].

Metatze-pobreziaren eta metatze-ongizatearen eskalak mugaturiko beste hiru kategorietan, berriz, herritar gehienek ez dute beren burua pobreziako egoera baten barruan ikusten, nahiz eta batzuetan egoera zailean bizi. Beren metatze-baliabideak EAEko batez bestekoak baino txikiagoak diren etxeen kasuan ere, ego-era jakin horrekin loturiko pobreziaren pertzepzioak etxeen %25,3-ri baino ez dio eragiten; portzentaje hori %14-ra jaisten da, ordea, mantentze-dimentsioaren barruko ongizate-gabeziako arriskuaren terminoetan arazorik ez duten etxeen artean. Baina are, mantentze-pobrezian, ongizate-gabeziako arrisku-egoeran dauden etxeen kasuan ere, pobreziaren pertzepzioak minoritarioa izaten jarraitzen du (%43,3) .

---

[23] 1996-2008 denboraldi osorako, batez besteko proportzioa %40,2-ra iristen da, goreneko puntua (%70,3) 1996-an ezagutu zuelarik.

17. TAULA

**Beren burua pobretzat jotzen duten etxeen ehunekoa(1) metatze-pobreziaren eta mantentze-pobreziako arrisku-egoeren adierazleen arabera. 2008**

(Datuak ehunekoetan)

| **Metatze-prekarietateari buruzko adierazleak** | **Guztira** | **Ongizate-gabeziako egoeran erortzeko arriskuan mantentze dimentsioan** | **Mantentze-prekarietateko egoeran erortzeko arriskurik ez** |
|---|---|---|---|
| Prekarietate handia | 65,6 | 78,2 | 27,4 |
| Batez bestekoa baino askoz handiagoa | 25,3 | 43,3 | 14,0 |
| Arazoren bat | 11,3 | 29,4 | 5,9 |
| Ongizate-egoeran | 3,8 | 15,5 | 1,9 |
| Guztira | 7,3 | 25,2 | 3,4 |

*Iturria:* PGDI 2008.

(1) Beren burua oso pobretzat, pobretzat edo pobre samartzat jotzen dutenak sartzen dira.

Ongizate-gabeziako adierazleak pobreen kolektiboa hartzen du.

Metatze-pobreziaren PGDIren adierazlearen ezaugarriak hobeto zehaztuz, azpimarratu beharra dago aintzat hartutako pobrezia-egoerak honako zirkunstantzia hauetako batekin loturik daudela ezinbestean:

*a)* EAEko etxeen batez besteko ondarearen %25etik azpiko ondarea, hamar urte baino gutxiagoko ibilgailua eduki edo ez.

*b)* Batez besteko ondarearen % 50etik azpiko ondarea, baldin eta arrazoi ekonomikoak direla medio hamar urte baino gutxiagoko ibilgailurik ez badu.

*c)* Etxebizitza muturreko egoeran egotea, hau da, ur berorik edo instalazio elektrikorik ez izatea, edo bat ere erosotasunik ez izatea.

*d)* Etxebizitzaren instalazio edo ekipamenduen maila oso eskasa dela adierazten duten bestelako egoerak, honako hauek, esaterako:

— Komun-ontzirik eta bainu-ontzirik edo dutxarik ez izatea.

— Instalazioen gabeziak nabarmen metatzea, eta horren ondorioz etxebizitzaren erosotasun-maila eskasa izatea.

— Arrazoi ekonomikoak direla-eta, oinarrizko ekipamenduei dagozkien gabeziak nabarmen metatzea: hozkailua, sukaldea, garbigailua edo koloretako telebista. Azken

hori oinarrizkoa ez izanagatik ere, arrazoi ekonomikoak direla medio halakorik ez izateak gabezia-egoera larria adierazten du.

Ikus daitekeenez, beraz, metatze-pobreziak honako gabezi hauetako bat, edo bat baino gehiago dagoela adierazten du du:

— Etxebizitzan oinarrizkoak diren instalazioen gabeziak (ur korrontea, komun-ontzia, dutxa, eta abar).
— Gabezia adierazgarriak eta metatuak, etxebizitzako ekipamenduak direla eta.
— Ustekabeko arazo ekonomikoei aurre egin ahal izateko gutxieneko ondare baten gabezia.

Hala ere, esan beharra dago metatze-pobreziaren egoerak aipatutako ondare-arazoetako bat ez ezik, oso etxebizitza-arazo larriak ere badaudela adierazten duela. Metatze-dimentsioan bi arazo motak batera agertzea ezinbesteko baldintza da pobrezia-mota hori badagoela esateko.

## 4. GABEZIA-ADIERAZLEAK METATZE-DIMENTSIOAN

Metatze-pobreziaren eta metatze-prekarietatearen azterketan ikusi dugun bezala, PGDIk instituzionalki finkatutako adierazle bakarra hartzen du kontuan, PGDIren metodoaren aplikaziotik bertatik eratortzen dena. Hala ere, estatistikak gabezia material eta desabantailei buruzko beste adierazle batzuk eskaintzen ditu metatze dimentsioan. Mantentzearazoen kasuan gertatzen zen bezala, pobrezia-egoeren eta prekarietate-egoeren barne-ezaugarriak hobeto ezagutzeko eta zehazteko balio dute adierazle horiek.

### 4.1. Adierazle espezifikoak

PGDIn aintzat hartzen diren metatze-adierazle espezifikoak pobrezia-adierazleen eta prekarietate-adierazleen eraikuntzan aintzat hartutako dimentsio desberdinen garapen-aldagaiak eratzen dituztenak dira praktikan. Etxebizitzaren biziegokitasun-baldintzekin zerikusia duten alderdi guztiak hartzen dituzte barne: instalazioak, ekipamenduak eta erosotasun-maila; baita ondare-baliabideen sistema eratzen dituzten elementu guztiak ere.

## 4.2. **Adierazle sintetikoak**

Gabeziari buruzko bi adierazle sintetiko proposatzen dira PGDIn. Horietako lehenak instalazio eta ekipamendu eskasak dituzten etxebizitzen arazoari egiten dio erreferentzia; bigarrenak, berriz, ondare-ondasunak lortzearekin du zerikusia. Adierazle horiek funtsezkoak dira PGDIn, estatistikan erabiltzen den metatze-pobreziaren eta metatze-prekarietatearen adierazlea mugatzeko bitartekoak diren neurrian.

### 4.2.1. Etxebizitza-arazoen adierazle sintetikoa

Etxebizitzaren instalazio eta ekipamenduekin zerikusia duten garapen-aldagai espezifikoen tratamendutik abiatuta, eta etxebizitzaren baldintza eta egoera orokorrak kontuan harturik, honako sailkapen hau egiten PGDIn, etxebizitzako biziegokitasun-baldintzei dagokienez:

• *Etxebizitza-arazo oso larriak*

Egoera hauetako edozein hartzen du barne:

— Ur beroko instalaziorik ez izatea.
— Instalazio elektrikorik ez izatea.
— Komun-ontzirik eta bainu-ontzirik edo dutxarik ez izatea.
— Bi gabezia edo gehiago izatea oinarrizko ekipamenduetan.
— «Ez, inoiz ere ez» erantzutea honako galdera honi: zure etxebizitzaren maila eta erosotasuna nahikoak eta haren kontserbazio-egoera, dekorazio-maila eta barneko txukuntasuna egokiak direla esango zenuke? (Etxebizitzaren erosotasunari buruzko galdera).
— Etxebizitzaren instalazioetan bi gabezia edo gehiago daudenean etxebizitza nahikoa erosoa ote den galderari «Ez, ez da nahikoa erosoa» erantzutea.

• *Etxebizitza-arazo larriak*

Aurreko kasuak gertatzen ez direlarik, kategoria honek kasu hauetako edozein hartzen du barne:

— Etxebizitzaren instalazioetan gabezia bakarra dagoenean etxebizitza nahikoa eroso ote den galderari «Ez, ez da nahikoa erosoa» erantzutea.
— Oinarrizko ekipamenduetan gabeziaren bat izatea.
— Hezetasunak, jende-pilaketak, zaratak edota kutsadurak sortzen dituzten arazoekin zerikusia duten bi gabezia edo gehiago.
— Hain oinarrizkoak ez diren ekipamenduetan hiru gabezia edo gehiago izatea.

• *Hain larriak ez diren etxebizitza-arazoak*

Aurreko kasuak gertatzen ez direlarik, kategoria honek kasu hauetako edozein hartzen du barne:

— Etxebizitzaren instalazioetan inolako gabeziarik ageri ez denean, etxebizitza nahikoa erosoa ote den galderari «Ez, ez da nahikoa erosoa» erantzutea.
— Hezetasunak, jende-pilaketak, zaratak edo kutsadurak sortzen dituzten arazoekin zerikusia duen gabezia bat.
— Gabezia bat edo gehiago hain oinarrizkoak ez diren ekipamenduetan.

• *Etxebizitza-arazorik ez*

Aurreko hiru kategorietan aipaturiko gabezietako bat ere ez duten kolektiboak.

4.2.2. Ondare-baliabideen adierazle sintetikoa

Etxeen ondare-egoerarekiko hurbilketa biztanle bakoitzeko ondarearen balioaren estimazio batean oinarrituta egiten da. Ondare-ondasun erabilgarriak eta haien balio estimatua kontuan harturik, honako kategorietan sailkatzen dira ondare-baliabideen lortze-mailarekin zerikusia duten egoerak:

• *Oso ondare-maila txikia*

Kategoria honek honako bi egoera hauetako edozein hartzen du barne:

— Batez besteko ondarearen %25etik azpiko per capita ondarea.

— Batez besteko ondarearen %50etik azpiko per capita ondarea, arrazoi ekonomikoak direla eta hamar urte baino gutxiagoko ibilgailurik ez badu.

• *Ondare-maila txikia*

Aurreko egoerak gertatzen ez direlarik, talde honek egoera hauetako edozein hartzen du barne:

— Batez besteko ondarearen %50etik azpiko per capita ondarea.
— Batez besteko ondarearen %100etik azpiko per capita ondarea, arrazoi ekonomikoak direla eta hamar urte baino gutxiagoko ibilgailurik ez badu.

• *Ondare-maila normala*

Aurreko kasuetan aintzat hartu ez diren ondare-egoera guztiak hartzen ditu barne.

## 5. **ERABAKITZEKO DAUDEN ARAZOAK**

Nabarmendu beharra dago mantentze-pobreziaren eta mantentze-prekarietatearen adierazlea ez bezala, metatze-pobreziaren eta metatze-prekarietatearen adierazlea gabezia-adierazle sintetikoa dela gehienbat. Adierazle sintetikoa aurreko atalean aintzat hartutako bi gabezia-adierazleak —etxebizitza-arazoena eta ondare-baliabideena— elkarrekin konbinatzean lortzen da. Ondare-baliabideen azterketarekiko hurbilketa, berriz, estatistika-hurbilketa erlatibo batean oinarritzen da, Eurostatek mantentze-pobrezia aztertzeko erabiltzen duenaren antzeko batean. Hori dela eta, txosten honetan bertan egindako kritiketako baten mende egon daiteke.

Ez dugu ahaztu behar, ordea, metatze dimentsioan metodologia zehatz bat sendotzeko ahalegina Europan gai honetan dagoen ikerketa-faltak erabat baldintzatua egon dela. Hori dela eta, PGDIk ez du metatze-pobreziaren eta metatze-prekarietatearen azterketara hurbiltzeko prozesuan aurre egitea beste asmorik izan, eta epe ertain eta luzeko ohiko ondarea eta kontsumo-ondasunak lortzearekin zerikusia duten dimentsioei dagozkien gabezia erlatiboaren azterketan zentratu da, etxebizitzari dagokion guztian batez ere. Pobrezia eta prekarietate mota desberdinen barne-mailaketaren erabilgarritasuna frogatzea

eta gertaera sozial hauen azterketan aintzat hartu beharreko dimentsioen errealitatea bera erakustea da hemen egindako proposamenaren helburu nagusia.

Gogoeta hauen asmoa ez da metatze-pobreziaren eta metatze-prekarietatearen PGDIren adierazleen balioa erlatibizatzea. Aitzitik, onartu beharra dago PGDIn sartutako metodoak izaera eragilea duela eta metatze-pobreziaren azterketa egiteko aurrera eramandako ikuspegian koherentzia-elementu nahikoak daudela. Hori dela eta, batetik, metodoak uko egiten die adierazle subjektibo hutsei, errealitate objketibagarrietan oinarritutako adierazleekin lan egitea hobetsiz; bestetik, kontsentsu bidez ezartzen ditu pobrezia-mailak, eta pobreziaren pertzepzioa erabat nagusi denean baino ez ditu sailkatzen herritarrak pobretzat. Metatze-pobreziarekiko hurbilketan berez Europako estatistika-metodoari dagozkion printzipioak erabiltzearen arrazoia da estatistika-hurbilketa erlatiboak, behar bezala doitua, emaitza egokiak eskain ditzakeela pobrezia eta prekarietate neurtzeko prozesuetan, mantentze-pobrezia eta mantentze-prekarietatearekiko hurbilketari buruzko arazoak aztertzean iradoki zen bezala.

Guztiarekin ere, metatze-pobreziarekiko eta metatze-prekarietatearekiko hurbilketaren metodologiaren garapena hobeki egokitu beharko litzateke etorkizunean PGDIren metodoak inspiratzen dituen printzipio orokorretara, koherentzia-printzipioak hala eskatzen duenez. Helburu horretarako, honako zeregin hauei ekin beharko litzaieke hurrengo urteetan:

*a)* Pobrezia-adierazleak eta prekarietate-adierazleak lortzeko aintzat hartu beharreko itemak era berri eta sakon batean ebaluatzea.
*b)* Herritarrek beharrezkotzat jotzen dituzten ondasun eta kapitalen azterketa sakona. Horretarako, ondo ezagutu behar dira beharrezko ondasunak ez ezik, ondasun horiek bete beharreko ezaugarri espezifikoak edo kalitate-eskakizunak ere (estandarrak, bizidenborak, eta abar).
*c)* Beharrezko ondasunen kuantifikazioa bat, termino ekonomikoetan.
*d)* Ondasun benetan erabilgarrien kuantifikazio bat, termino ekonomikoetan.

Begien bistakoa da asmo horiek betetzeko metodoaren garapenean sakontzeko aukera emango luketen beste ikerketa batzuk egin beharko liratekeela, egun PGDIn aintzat hartzen den item-multzoa eguneratzeko eta, behar izanez gero, zabaltzeko.

# III. atala.
# Benetako pobrezia

## 1. MANTENTZE-ARAZOEN ETA METATZE-ARAZOEN ARTEKO HARREMANA

Orain arte ikusitakoaren arabera, mantentze-pobreziaren eta metatze-pobreziaren PGDI-ren adierazleak oso ongi egokitzen dira pobreziaren fenomenoaren neurketara eta herritarrek fenomeno horretaz duten pertzepziora. Adierazle horiek aztertzean, ordea, kontuan izan behar da hor aurrean ditugunak arrisku-egoera objektiboak direla, kasuetako bakoitzean erabat finkatutako pobrezia-errealitateak baino gehiago. Garbi frogatuta geratu da, gainera, pobreziaren bi dimentsioak estuki erlazionatuta daudela elkarrekin, eta fenomeno bat eta bakarraren parte direla biak.

Egia esan, metatze-pobreziaren eta mantentze-pobreziaren errealitate biak batera kontuan hartzea lagungarria gertatzen da oso, ongizate kontuetan, errealitate objektiboen eta pertzepzio subjektiboen arteko harremana ulertzeko eta, horren bitartez, pobreziak eta prekarietateak gure gizarteetan duten esanahi errealaz jabetzeko. Zentzu horretan, herritarrez pobrezia-egoerez edo ongizate-gabeziako egoerez duten pertzepzio handiago edo txikiagoarekin estuki erlazionatzen diren gabezi handiago edo txikiagoko egoeren mailaketa ezar daiteke.

Helburu horretarako, hona hemen, mantentze eta metatze dimentsio biak kontuan hartuta, pobreziaren/ongizatearen eskalan etxeek duten lekuarekiko pertzepzio subjektiboa eta egoera objektiboak elkarrekin erlazionatzen dituen laburpen-koadro bat.

18. TAULA

**Pobrezia-egoeren pertzepzio subjektiboa, bai mantentze-egoera bai metatze- egoera kontuan hartzen dituen errealitate objektiboen arabera. 1996-2008 denboraldirako batez bestekoa**

(Talde bakoitzean arazoa duten etxe-kopurua ehunekotan)

| **Egoera objektibo mota (mantentzea eta metatzea)** | **Pertzepzio subjektiboa** | | **Etxe-kopurua ehunekotan** |
|---|---|---|---|
| | **Gutxienez pobre samarra** | **Erosotasuna** | |
| Metatze-pobrezia/mantentze-ongizaterik eza | **74,7** | 0,0 | 1,0 |
| Mantentze-pobrezia/< metatze-batez bestekoa | **60,6** | 0,0 | 1,4 |
| Metatze-pobrezia/mantentze-ongizatea | 40,2 | 5,9 | 0,5 |
| Mantentze-pobrezia/metatze-ongizatea | 31,4 | 7,2 | 3,0 |
| Mantentze-ongizaterik eza/< metatze-batez bestekoa | 30,3 | 2,8 | 3,5 |
| Mantentze-ongizaterik eza/metatze-ongizatea | 13,3 | 17,6 | 16,2 |
| Mantentze-ongizatea/< metatze-batez bestekoa | 13,3 | 19,9 | 5,7 |
| Ongizatea edo ia ongizatea bi dimentsioetan | 1,9 | **58,0** | 68,7 |

*Iturria:* PGDI 1996-2008.

Nabarmendu beharreko funtsezko ondorioa da etxeek mantentze eta metatze aldagaiekiko duten posizioa modu bateratutan kontuan hartzeak aukera ematen duela haiek objektiboki sailkatzeko gabezia-maila handienetik txikienerainoko eskala batean. Mailaketa hori, gainera, estuki erlazionatuta dago pobreziaren bizipenaren pertzepzio-maila subjektibo handiago edo txikiago batekin.

Maila honetan, hiru egoera bereiz daitezke, zein baino zein desberdinagoak. Lehenik eta behin, pobreziaren pertzepzio subjektibo maioritario batekin lotutako errealitateak fenomenoaren bi dimentsioetakoren baten presentzia objektiboarekin elkartzen dira, baldin eta beste dimentsioan pobrezia-egoera edo ongizate-gabeziako egoera bat ere ematen bada. Beste muturrean ongizate-eskalako goiko mailetan dauden etxeak kokatzen dira, bai metatze-dimentsioan bai mantentze-dimentsioan. Kasu horietan erosotasunaren eta bizimodu erosoaren pertzepzioa gailentzen da beste guztien gainetik.

Sailkapen-eskala objektiboaren erdiko egoerak beren posizionamendu subjektiboarengatik nabarmentzen dira, sailkapeneko bi muturretatik urrun baitaude. Tarteko egoera horietan artean, batez bestekoaren azpitik dagoen taldea da nagusi. Taldeak ez du zeriku-

sirik ez pobrezia nagusi den egoera subjektiboekin ez erosotasun edo ongizate osoko egoerekin.

Aurreko biak baino heterogeneoagoa da ordea talde hau, eta pobreziaren pertzepzioa duten etxeen kopurua askoz handiagoa da bertan. Pertzepzio hori hiru zirkunstantzia jakinetan ematen da:

— Mantentze-ongizaterik ezako egoera bat batez bestekoaren azpitik nabarmen dagoen metatze-posizio batekin elkartzen denean (etxeen %30,3-k pobretzat jotzen dute beren burua).
— Metatze-ongizateko egoera bat mantentze-pobreziako errealitate bati lotzen zaionean (etxeen % 31,4-k pobretzat jotzen dute beren burua).
— Mantentze-ongizateko egoera bat metatze-pobreziako errealitate bati lotzen zaionean (etxeen %40,2-k pobretzat jotzen dute bere burua).

Dena dela, bi gauza nabarmendu behar dira. Batetik, ongizate-egoerak aintzat hartutako dimentsio horietakoren batean presentzia izateak garbi erakusten duenez, gehiengoak ez duela pobrezian bizi izanaren pertzepzioa; bestetik, ongizate-egoerara bere dimentsio guztietan iristeak —hau da, ongizate osoko egoeretara iristeak— eta ez beste ezerk dakarrela erosotasunaren eta bizimodu erosoaren pertzepzioa nagusi izatea.

## 2. **BENETAKO POBREZIAREN PGDIREN ADIERAZLEAK**

Orain arte aipatutako datuetatik ondorioztatzen denez, pobreziaren eta prekarietatearen azterketari ekiteko unean, kontuan izan behar da badirela konpentsazio-elementu batzuk pobrezia-dimentsio bateko edo besteko arrisku-egoera bat benetako pobrezia-egoeraren mendeko errealitate bihurtzea eragozten dutenak. PGDIren datuek erakusten dutenez, fenomenoaren bi dimentsioetako bateko ongizate-egoera batek pobrezia-arriskuko egoera baten presentzia berdin dezake beste dimentsioan, gutxieneko ongizate-mailara iristeko terminoetan. Hori mantentze-pobreziako arrisku-egoeretan gertatzen da batez ere, pobrezia-mota horren osagai koiuntural nabarmena dela eta. Kasu horretan, ez da ahaztu behar badirela baliabide batzuk oinarrizko premien estaldurari aurre egiteko ohiko dirusarreren ordez erabil daitezkeenak, denboraldi batez behintzat.

Hori dela eta, arrisku-adierazleak ez ezik —Europan ikerketa aplikatuan gehien erabiltzen direnak dira— *benetako pobrezia* gisa defini genitzakeen adierazle erlatiboak iza-

tea ere komeni da, hau da, oinarrizko premiak behar bezala estalita ez dituzten egoera errealekin —eta ez soilik arrisku-egoerekin— zerikusia dutenak. *Benetako pobreziak* zirkunstantzia jakin batzuk adierazten ditu. Zirkunstantzia horietan, hain zuzen, pobreziaren dimentsio batean edo bestean agertzen diren oinarrizko premiek behar bezalako estaldura izateko arrisku-egoerak ez dira behar bezala konpentsatu herritarren eguneroko bizitzan.

Horretarako, kontuan izan behar da pobreziaren bizipena kasu espezifiko batzuetan baino ez dela izaten herritar gehiengoaren bizipena. Hori hala gertatzen da pobrezia bi dimentsioetan agertzen denean —bai mantentze-dimentsioan bai metatze-dimentsioan—, edo, bakar batean agerturik, horren dimentsio osagarrian ongizate osoko egoera batek konpentsatzen ez badu.

Orain arte aipaturiko aspektuak kontuan harturik, PGDIk benetako pobreziaren bi adierazle mota eskaintzen ditu: bata, erabat objektiboa; bestean, informazio objektiboak kontuan hartzen ditu, egoera jakin batzuetan, interesatuek beraiek egoeraz duten pertzepzioa.

## 2.1. **Benetako pobreziaren adierazle objektiboa**

Perspektiba historiko batean, posible da zehaztea bai zein diren pobreziaren eta prekarietatearen bi dimentsioen (mantentzea eta metatzea) gurutzaketaren ondoriozko egoera espezifikoak, bai egoera horietatik zeinetan nagusituko den, epe luzean, egoera horiek pobreziaren benetako bizipena dakartelako iritziari buruzko akordio maioritarioa. Helburu horretarako, mantentze-pobreziaren/ongizatearen eskalako hiru posizioak (pobrezia, ongizaterik eza, ongizatea) eta metatze-pobreziaren/ongizatearen eskalako lau posizioak (pobrezia, batez bestekoaren azpitik nabarmen, ongizatea ia-ia eta ongizatea) parez pare jartzen dira. Ondoren, gehienen pobrezia-pertzepzio subjektiboak konbinazio posible guztietatik zeinetan irauten duen epe luzera aztertuko da, eraginpean hartutako etxeen artean.

Premisa horietatik abiatuta, PGDIk adierazle hertsiki objektibo bat aurkezten du, zeinak, arrisku-egoerez haratago, erkidegoan diren benetako pobrezia-egoeren inpaktuaren kalkulura hurbiltzeko aukera ematen baitigu. Honela definitzen da PGDIn benetako pobreziaren adierazle objektiboa:

> «metatze-pobreziak jota dauden etxeen ehunekoa, edo mantentze-pobreziako arazoak dituztenena, metatze-dimentsioan ongizate edo ia ongizateko egoera batek konpentsatuta ez baldin badaude».

Kasu horretan *benetako pobre* gisa hartzen dira metatze-pobreziak jota dauden pertsona guztiak, eta baita mantentze-pobreziako arrisku-egoeran bizi diren pertsonak ere, arriskuegoera hori metatze-dimentsioaren ongizate edo ia ongizate-egoera bati lotzen ez baldin bazaio. Egiaztatuta dago egoera horietan —eta horietan baino ez— nagusitzen dela, epe luzean, pobreziak markatutako bizitza baten pertzepzioa.

## 2.2. **Benetako pobrezia objektiboaren adierazlea, zirkunstantzia berezietara egokitua**

PGDIk benetako pobreziaren adierazle alternatibo bat eskaintzen du. Adierazle horrek kontuan izaten ditu, zirkunstantzia berezietan, aintzat hartutako etxeen pertzepzio subjektiboak. Hala, beraz, benetako pobrezia objektiboaren adierazlea pertzepzio subjektiboen arabera egokitzen da sailkapen objektiboaren beraren eta etxeak pobrezia/ongizatearen eskalako posizioaz duen pertzepzioaren artean kontraesan nabarmena dagoela iradoki lezaketen zirkunstantzietan.

Horretarako, egokitu egin behar da *benetako pobrezia* objektiboaren adierazlea, sailkapen objektiboaren eta pertzepzio subjektiboaren arteko distortsioak asignazio objektiboaren ontasuna zalantzan jartzen dituen egoerak ere kontuan hartuak izan ahal daitezen. Hauek dira egokitzapena egiteko kontuan hartzen diren elementuak:

— Ez pobretzat jotzen dira metatze-pobreziaren egoera baten eraginpean egonik, egun mantentze-pobreziaren ongizate-baldintzetan bizi direna, etxe horretako egoera ekonomikoa erosoa dela erabakitzen bada.

— Pobretzat jotzen dira mantentze-pobreziaren egoera baten eraginpean dauden lagunak, metatze-pobreziaren arabera ongizateko edo ia-ia ongizateko egoeran egonagatik ere, baldin eta beren burua pobretzat edo oso pobretzat jotzen badute, edo, beren burua nahiko pobretzat jo arren, oinarrizko premiei aurre egiteko beharrezkotzat jotzen duten gutxienekoa baino diru-sarrera txikiagoak badituzte.

— Pobretzat jotzen dira, halaber, mantentze-pobreziari dagokionez ongizaterik ez duten lagunak —baina pobreak ez direnak—, edo metatze-pobreziari dagokionez estutasunegoera garbian daudenak —baina pobreak ez direnak—, baldin eta beren burua

pobretzat jotzen badute eta eskura dituzten diru-sarrerak oinarrizko premiei aurre egiteko gutxienekotzat jotzen dutena baino txikiagoak badira.

Errealitatean, adierazle honek eskaintzen dituen datuak adierazle hertsiki objektiboak eskaintzen dituenaren antzekoak dira. Adierazle objektibo egokituak badu ordea abantaila bat: informazio objektiboaren eta pertzepzio subjektiboaren arteko distortsioak direla eta, baliabide erabilgarriak gutxietsiak izan direla (datuak ezkutatu direlako, edo beste edozein egoera berezirengatik) adieraz litzaketen zirkunstantzia batzuk ezabatzen ditu pobreziaren eraginpean bizi diren taldeetatik. Aitzitik, zenbait momentutan adierazle objektiboek antzeman ez ditzaketen eta bereziki larriak diren zenbait egoera ikusteko aukera ematen du.

# IV. atala.
# Ezkutuko pobrezia eta prekarietatea

## 1. ALDERDI OROKORRAK

Pobreziari buruzko azterketak osatutako etxeetan zentratzen dira gehienbat. Dena dela, ekonomia-baliabide nahikorik ez duten pertsona, talde, edo kolektibo sozial batzuen pobrezia-arazoek eta prekarietate-arazoek bizitza independentea lortzeko zailtasunekin dute zerikusia. 1980 eta 2000 urte bitarteko testuinguru sozioekonomikoan —garai horretan, familia edo etxebizitza mantentzeko erantzukizunik ez zuten pertsonei erasaten zien batez ere langabezi masiboak— eskukotasun ekonomikoa lortzeko arazo horiek azterketarako erreferentzia-elementu garrantzitsuak izan ziren Euskadiko pobreziari buruzko azterketen eta estatistiken hasierafasean. Problematika hori aintzat hartu izan ez balitz, ezinezkoa izango zatekeen pobreziaren benetako eragina neurtzea. Horregatik guztiagatik, PGDIk arreta berezia eskaintzen dio ezkutuko pobrezia delakoaren azterketari.

Metodologiari dagokionez, aipaturiko arazo horren kezkak ezkutuko pobrezia-arazoen neurketa zuzena egiteko beharra ekarri zuen berekin. 1986an, ESSDEren berrikuntzetako bat *ezkutuko pobrezia-moduak* deritzenen azterketa bultzatzea izan zen, hain zuzen. Helburu horretarako, galdetegi espezifiko bat prestatu zen unitate eta pertsona potentzialki independenteentzat, informazioa biltzeko prozedura bat, PGDIk gerora ere erabili izan duena.

Bere garaian, ESSDEk honela definitu zituen ezkutuko pobrezia arazoak: familia-unitate potentzialki independenteei familia independente bat eratzea erabakiz gero pobreziaren bizipena ekarriko lieketen zirkunstantziak.

Bere ondorioetan, azterketak iradokitzen zuen nolabaiteko lotura egon zitekeela ezkutuko pobreziaren eta krisi demografikoaren artean, krisi demografikoa ezkontza-tasa txikiak eragina izan, edo ugalkortasun-tasa txikiak eragina izan. Hori dela eta, gazteen artean benetako pobrezia kontrolatzeko hiru mekanismo azpimarratzen zituen, kontuan hartzeko moduko ondorioak zituztenak prozesu demografikoetan: ezkongabetasunaren luzapena, gurasoen etxetik irteteko adinaren atzerapena, are ezkondutako gazte batzuen kasuan ere, eta jaiotza-kontrola.

1996ko PGDIn, arazo horiei buruzko azterketa gehiago egitea erabaki zen, etxe independente bat izateko nahia badagoela kontua hartuta, horretarako behar adina baliabide ekonomiko ez izateak nahia gauzatzea eragozten badu ere. 1996ko ikerketak agerian utzi

zuen berriro arazoak bere hartan jarraitzen zuela, bai pobreziari dagokionez bai gainerako prekarietate-egoerei dagokienez. Hori dela eta, 2000, 2004 eta 2008 urteetako ikerketetan, PGDIk berrio sakondu zuen gai horren azterketan.

2004. urtetik aurrera, ordea, zabaldu egin zen ezkutuko pobreziaren eta prekarietatearen azterketarekiko hurbilketaren ikuspegia. Hauek dira azterketan sartutako bi ikerketalerro berriak: batetik, etxeko baliabideen barne-banaketa, eta, bestetik, pertsona bakoitzari dagozkion batez besteko diru-sarrerekin loturiko bai pobrezia-arrisku potentziala bai prekarietate-arrisku potentziala.

Laburbilduz, PGDIko ezkutuko pobreziaren azterketarekiko azken hurbilketan, hau izan da helburu nagusia berriro: egun bizi diren etxetik independizatzeko prozesua aurrera eramanez gero, pobrezia-egoeren eta prekarietate-egoeren eraginpean biziko ziren pertsonak detektatzea. Dena dela, helburu horren osagarri, adierazle berri batzuk sartu dira: mantentze-pobreziaren banakako adierazleak, batetik, eta etxeko baliabide erabilgarrien bidezko banaketarik ezarekin lotutako adierazleak, bestetik.

## 2. EZKUTUKO POBREZIAREN ETA PREKARIETATEAREN PGDIREN ADIERAZLEAK

PGDIk ezkutuko pobreziaren eta prekarietatearen azterketarekin lotuta dauden hiru adierazle-mota eskaintzen ditu egun.

### 2.1. Mantentze-pobreziaren eta ongizate-gabeziaren adierazle indibiduala

Zenbait autorek iradoki dute ikuspegi indibidual huts batetik hurbiltzea pobreziaren eta prekarietate ekonomikoaren azterketara, eta, horretarako, pertsona bakoitzaren diru-sarrera pertsonalen arabera neurtzea pobreziaongizate eskalan pertsona horri legokiokeen posizioa, etxeko gainerako kideen diru-sarrerak alde batera utzita.

Hori dela eta, PGDIn, mantentze-pobreziaren eta ongizate-gabeziaren arrisku-egoera indibidualen presentzia zehazteko, hurbilketa metodologiko orokorrean bakarrik bizi diren pertsonei dagozkien pobreziaren eta ongizate-gabeziaren atalaseak aplikatzen zaizkio bizilekua EAEn duen pertsona bakoitzari, diru-sarrerak pertsonalak soilik kontuan hartu-

rik. Hurbilketa horretan bezala, kontuan hartzen da erreferentzia-pertsonaren adin-taldea (45 urtez azpikoak, 45 -64 urte bitartekoak, eta 65 urtez gorakoak)[24].

Zentzu hertsian, 25 urtez gorako edo ikasleak ez diren 25 urtez azpiko EAEko herritarrentzat bizimodu independente batera bakarrik iristeak dakarren arrisku-maila indibiduala erakusten du adierazleak. Arriskua mantentze-pobrezia potentzialaren eta/edo mantentze-pobrezia potentzialik ezaren terminoetan neurtzen da.

Adierazlea interesgarria da pertsona bakoitzak pobrezia/ongizate eskalan hartzen duen posizioa neurtzeko, etxebizitza berez den konpentsatzio-elementua —edo zama-elementua— alde batera utzita. Hori dela eta, normalean erabiltzen den ikuspegi indibidualetik eratortzen dena baino hurbilketa zuzenagoa eskaintzen die arrisku-talde indibidualei. Arrisku-talde indibidualetan, etxeko diru-sarrera erabilgarriak proportzionalki banatzen dira —hartutako baliokidetasun-ereduaren arabera— bertan bizi diren kideen artean. Horrek, errealitatean, pertsona bakoitzari bera bizi den etxeko pobrezia/ongizate eskalan dagokion posizio orokorra izendatzea dakar.

Hala ere, esan beharra dago ez zaiola inola ere balio absoluturik eman behar adierazle horri, balio orientagarria eta konparatiboa baizik. Ez da ahaztu behar produkzio-sisteman sartzeko moduei eta diru-sarrerak lortzeko mekanismoetara iristeko bideei eragiten dieten erabaki indibidualetako asko zentzuzkoak bihurtzen direla erabaki partekatuen testuinguru batean. Elkarrekin bizitzeko erabakia, berriz, ezin dudatuzko errealitatea da kasurik gehienetan, ez zirkunstantziek ezarria, eta hori dela eta, hemen proposatutako ikuspegitik eratortzen diren arrisku-egoera indibidualak ariketa teoriko hutsa dira, azken batean. Horregatik guztiagatik, adierazleak eskaintzen dituen datuek ez dituzte, zentzu hertsian, ez pobrezia edo prekarietate potentzialeko errealitateak, ez ezkutuko pobrezia-errealitateak edo prekarietate-errealitateak islatzen beti. Erreferentzia-adierazleak erakutsi nahi duena da, batez ere, zein diren abiapuntu-egoera potentzialki prekarioagoan dauden taldeak.

---

[24] Prozedura hori koherentea da PGDIren hurbilketari dagokionez. Hala ere, adineko pertsonen kasuan, hau da, adin-taldekako pobreziaren eta ongizate-gabeziaren atalaseek etxebizitza-gastuen garrantziaen gutxitzea islatzen duten kasuetan, litekeena da adin-taldekako atalase-sistemaren aplikazioak aztertutako pobrezia indibidualaren eragina gutxiestea modu batean edo bestean. Atalase bakarrak aplikatzeak, ordea, ez luke, ezta ere, arazoa konponduko. Izan ere, gastuen murrizketak zerikusi handia du adin batekoen eta bestekoen bizimoduan dauden desberdintasunekin.

## 2.2. **Desoreka-adierazlea baliabideen barnebanaketan**

Pobrezia eta prekarietatearen azterketarekiko hurbilketa estatistikoek ez dituzte kontuan hartzen etxeen barruko baliabideen banaketan sor daitezkeen genero-desberdintasunak, edo beste aldagai batzuekin lotutako gorabeherak. Gabezia hori neurri batean konpontzen saiatzeko, galdera bat egiten da lehen aldiz 2004ko PGDIn, baliabideetara modu ez-partekatuan iristeak sortzen dituen arazoen eraginaren estimaziora hurbiltzeko.

Berrikuntza emakumearen problematikan zentratzen da. Gaiari heltzean, bikotekidearekin bizi diren emakumeei buruzko erantzunak hartzen diren kontuan. Emakume horiek etxeko talde nagusiari atxikita daude, eta informatzaile zuzenak dira galdeketa prozesuan. Kasu horietan, interesatuei galdetzen zaie ea beren bikoteak erabiltzen dituzten baldintza berdinetan erabil ditzaketen beraiek etxeko baliabideak.

## 2.3. **Independizazio-arazoen adierazleak**

PGDIko ezkutuko pobreziaren eta prekarietatearen azterketarako ikuspuntu originala independizazio-arazoekin loturik dago. Kasu horretan, ezkutuko pobreziak eta prekarietateak independizazio-prozesuen blokeoaren ondorioz estalita geratzen diren pobreziako eta ongizate-gabeziako errealitate potentzialei egiten die erreferentzia, blokeo horren helburuetako bat pobrezia edo ongizate gabeziako egoeren bizipenak saihestea delarik, hain zuzen.

Ezkutuko pobrezia eta prekarietate mota horrekiko hurbilketa egiteko, PGDIk azken galdera bat sartzen du, eta galdetzen du ea etxeko norbaitek etxe independente batean bizi nahiko lukeen, eta ea ezin duen horrela bizitzea lortu baliabide ekonomiko nahikorik ez duelako. Erreferentzia-taldeari galdetegi osagarri bat aplikatzen zaio orduan, detektatutako arazoarekin zerikusia duten zirkunstantziak neurtzera zuzendua[25].

Nahiz eta independizazioari buruzko galdetegiak detektatutako egoerak modu zabalago batean aztertzeko aukera eskaini, ezkutuko pobreziaren eta prekarietatearen adierazleen tratamendua, errealitatean, etxe independentea sortzeko behar adinako diru-sarrerarik ez

[25] Independizazio-arazoak neurtzeko galdetegia 18-38 urte bitarteko pertsona-lagin batez osatutako kontrol-talde bati ere aplikatzen zaio. Pertsona horiek inkesta orokorrean etxekoek potentzialki independente gisa definitu ez dituzten pertsona landunak behar duten izan.

dutela dioten pertsonengan zentratzen da, horretarako beharrezkoak diren baliabide ekonomiko pertsonalak izanez gero, urtebeteko epean etxe propioa sortuko luketela (ziur asko edo erabat ziur) diotenengan batez ere. Kasu horretan, etxe berria sortzeko ahalmena izan dezaketen pertsonen diru-sarrera erabilgarrien arabera neurtzen da pobrezia-egoera edo ongizate-gabeziako egoera baten presentzia. Hala, PGDIren metodoaren arabera orokorki finkatutako atalase-sisteman oinarritu hartuta kalkulatutako mantentze-adierazleak eskaintzen dira.

Gainera, osagarri moduan, metatze-dimentsioarekin zerikusia duten adierazleak eskaintzen dira, batez ere etxebizitza propioa lortzeko arazoari dagokionez, ekipamendu-maila eta aurrezkiak erabiltzeko aukera kontuan harturik, hala behar izanez gero.

Bigarren zatia.

# POBRETASUN ETA PREKARIETATE ADIERAZLEEN BILAKAERA

# Atariko gogoetak

Azterketaren lehen zatian, PGDI bereizten duten ezaugarri metodologikoak aurkezten dira, pobretasunaren eta prekarietatearen azterketaren hurbilketari dagokionez. Txostenaren ardatz nagusia den bigarren zati hone-tan, berriz, PGDI metodoaren aplikaziotik eratortzen diren emaitza nagusiak aztertuko dira, Eurostaten metodoari dagozkion emaitzekin konparatuz, hala behar denean. EAEko pobretasunak eta prekarietateak azken urteotan izan duten bilakaeraren azterketara bideratua bereziki, ikerketaren zati hau era hone-tan garatuko da:

1. Lehen kapituluan, PGDIren emaitzei buruzko aurkezpen orokor baten aurrerapena egiten da, bi puntu nabarmenduz bereziki: 2008ko egoera, batetik, eta azkeneko hogei urtean zenbait adierazlek izan duten bilakaera, bestetik. Ikerketak gabeziaren adierazle nagusiak ez ezik, pobretasunaren eta prekarietatearen adierazleak ere aztertzen ditu, bere bi dimentsioetan: hau da, mantentze-dimentsioan eta metatze-dimentsioan. Bestalde, benetako pobretasunaren adierazleei buruzko informazio sintetikoa ere sartu da.
2. Bigarren kapituluan, pobretasunaren eta prekarietatearen arrisku-egoerei buruzko azterketa zehatza eskaintzen da, eta aintzat hartzen dira, halaber, gertaera horien barnebanaketarekin zerikusia duten alderdiak. Arrisku-taldeak zehatz-mehatz ezaugarritzeko, aldagai demografiko desberdinak hartzen dira kontuan, bai etxebizitzaren ezaugarri orokorrekin zerikusia dutenak (familia-talde mota, etxean adingabeko seme-alabarik izan edo ez), bai etxeko pertsona nagusiarekin zerikusia dutenak (sexua, adina, nazionalitatea). Orobat aztertzen dira lanarekin zerikusia duten alderdi batzuk, hala nola ikasketa-maila eta lanbidearen ezaugarriak. Testuinguru horren barruan, etxeko pertsona nagusiari eta biztanleria okupatuaren ezaugarri orokorrei buruzko alderdiak hartzen dira kontuan. Jarduera, okupazio eta langabeziari buruzko informazio guztia kontuan izan nahi duen hurbilketa labur bat ere sartzen da.

   Aipaturiko aldagai demografiko eta okupazionaletik abiatuta, aldagai soziodemografiko batzuk taxutzen dira, pobretasun-arriskuaren eta prekarietate-arriskuaren aurrean biztanleriak bizi duen egoerari buruzko erabateko ikuspegia eskaintzeko. Kapitulu horretan orobat hartzen dira kontuan pobretasunaren eta prekarietatearen inplikazio territorialak, eta, gainera, EAEko lurralde historiko eta eskualde guztiei buruzko datuak eskaintzen dira.

Aurrekoan bezala, 2008ko egoera ez ezik bilakaera-alderdi aipagarrienak ere aztertzen dira bigarren kapitulu honetan.

3. Hirugarren kapituluan pobretasunaren eta prekarietatearen determinante ekonomiko nagusiei buruzko datuak eskaintzen dira. Horretarako, diru-sarreren iturriei, transferentzia sozialen eraginari, eta etxebizitza eskuratzeko eta mantentzeko arazoei buruzko alderdiak hartzen dira kontuan.
4. Laugarren kapituluak, berriz, ezkutuko pobretasunaren azterketarekin lotuta dauden alderdi batzuei heltzen die. Mantentze-pobretasunaren arrisku-mailari buruzko datuak aurkezten dira, pobretasun-mota horrek honako gai hauekin zerikusia duen kasuetarako: diru-sarrera pertsonalak, baliabide horien barne-banaketan dauden desorekak, eta bizimodu independentea izateko behar adinako diru-sarrerarik ez dutela adierazten duten taldeetan antzemandako independizazio-arazoak.
5. Txostenaren bigarren zatia Euskadik egun Europako testuinguruan duen egoerari buruzko kapitulu batekin amaitzen da. Kapitulu hori txostenaren azken zatiaren aurrean dago, eta azken zatia txostenak eskainitako emaitza nagusiei buruzko eztabaidan zentratua dago.

Esan beharra dago ikerketaren bigarren zati honetan aurkezten den informazioa 2008. urtean zeuden pobretasunaren eta prekarietatearen atalaseei egokitutako datuei dagokiela. Hartutako ikuspuntuaren izaera ebolutiboa dela eta, oinarri-oinarrizkoa da ahalik eta informaziorik homogeneoa erabiltzea. Homogeneizazio-premia begien bistakoa da honako bi arrazoi hauengatik. Lehenik eta behin, PGDIren aplikazioan zehar, emaitzei eragin dieten, arin bada ere, doikuntza metodologikoak sartu dira. Errealitate honek PGDIren lehen operazioetan atalasea bi alditan kalkulatzeko prozesua baztertu izanari egiten dio erreferentzia batez ere. Bestalde, 1996ko ESSDEren bilakaera, PGDIren antzeko premisetan oinarrituta badago ere, funtsezko desberdintasun batzuengatik nabarmentzen da, hala atalaseen kalkuluan aintzat hartu beharreko adin-taldeen definizioan, nola metatze-pobretasunaren azterketari hurbiltzeko moduan.

Bigarrenik, nahiz eta datuek agerian ipini epe ertain eta luzeko pobretasun-atalasearen eta prekarietate-atalaseen izaera batez ere egonkorra, erkagarriak diren errealitateekin erlazionatuz, beraz, badira pertzepzio sozialetan eragina duten izaera koiunturaleko prozesu puntual batzuk aintzat hartu beharrekoak. Honako eragile koiuntural hauek aipa daitezke, adibide gisa: 1996ko krisi ekonomikoarekin lotutakoak, 2004an euroaren sarrerarekin lotutakoak, eta 2008an hazkundearen mantsotzearekin eta norberaren jabetzako etxebizitzarako sarbidea lortzeko —edo etxebizitzarako sarbidea berritzeko— prozesu masiboarekin lotutakoak.

Epe luzeko hurbilketa erkatu batean beharbeharrezkoa da aipatutako baldintzak gainditzea. Abian jarritako doikuntza-prozesua 2008ko mantentze-pobretasunaren eta mantentze-prekarietatearen atalaseak PGDI eta ESSDEren aurreko operazioei aplikatzean oinarritu da. Honako bi aldagai hartu dira kontuan doikuntza-faktore gisa: ongizate-maila orokorra lortzeko batez besteko kostuan izan diren aldaketak, batetik, eta alokairukostu diferentzialak eta, okupatutako etxebizitzan, amortizazio-kostuak izateak edo ez izateak ongizate-maila horietan duen eragina, bestetik. Doikuntza horrek kontuan izan du, halaber, 1986ko ES SDEren metatze-pobretasunaren adierazleen estimazioaren egokitzapen-mekanismo bat sartzeko beharra, PGDIren hurbilketarekin erkatu ahal izateko. Doikuntza-adierazleak lortzeko erabilitako metodoa zehatz-mehatz deskribatzen da bigarren eranskinean.

Esan beharra dago, azkenik, txostenaren zati honetan egiten den azterketa ebolutiboa PGDI aplikatutako aldian oinarritzen dela batez ere, hau da, 1996-2008 bitarteko aldian. Hala ere, beharrezkoa zela pentsatu denean, eta ahal izan bada behintzat, kontuan hartu dira, baita ere, 1986ko ESSDEren emaitzak.

# I. atala.

# Pobretasunaren eta prekarietatearen eragina

## 1. ARAZOAK MANTENTZE-DIMENTSIOAN

### 1.1. Gabezia-adierazleak

2008. urtean, euskal herritarren zati handi batek, biztanleriaren %20-30ak, arazoak ditu ongizatea lortzearekin zerikusia duten baldintzei behar bezala aurre egiteko.

Arazo horiek zerikusia dute, alde batetik, herritarren aisialdia eta astialdia gure gizartean espero den modukoa izatearekin. Herritarren %33a behar horiei aurre egiteko zailtasunak dituzten etxeetan bizi da: horietatik %22,9k ahalik eta gehien neurtuz asetzen ditu behar horiek, eta gainerako %10,1ek ez ditu inola ere asetzen. Arrazoi ekonomikoak direla eta, azkeneko hamabost egunetan aisialdiko ateraldi bat ere egin ez duten etxeetako biztanleak %15,3a dira, eta arrazoi berorrengatik astebeteko oporraldirik ere egin ez dutenak %20,3a.

Gabezia horiek, bestalde, ustekabeko gastu handi samarrak izateko posibilitateak sortzen duen segurtasunik ezarekin dute zerikusia. Horiek horrela, herritarren %34,8a gastu horiei aurreko egiteko behar adinako baliabiderik ez dutela adierazten duten etxeetan bizi da.

Aipagarria da, baita ere, nahiz eta kopuruz aurrekoak baino askoz gutxiago izan, herritarren %11,4a beren ohiko betebehar eta gastuei behar bezala aurre egiteko zailtasunak dituzten etxeetan bizi dela. Aisialdirako gastuak murriztu behar izan dituzten etxeetako pertsona-kopurua ere antzekoa da: biztanleria osoaren %10,2a. Herritarren %8,1ek oinarrizko gastuak murriztu behar izan ditu azkeneko urtean.

Kontuan hartzekoa da ere oinarrizko premiak asetzeko arazo larriak izaten jarraitzen duen euskal herritarren kopurua, biztanleria osoaren %3aren eta %5aren artean baitago. Hauek dira arazo nagusiak:

— Elikadura-arazo larriek edo oso larriek era-gin handia izaten jarraitzen dute. Euskal herritarren %5,7ak FSS eskalan zehaztuta dauden elikadura-segurtasunik ezaren inguruko arazoetako bat izan du azkeneko hamabi hilabeteetan.
— Euskal herritarren %3,7a arazo ekonomikoak direla-eta azkeneko hamabi hilabetetan bigarren eskuko jantziz hornitu direla adierazi duten etxeetan bizi da.

19. TAULA

**Mantentze-dimentsioko gabezia-adierazle espezifiko batzuen bilakaera. 1986-2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren lagunak (arazo horren eraginpean dagoen pertsona-kopurua ehunekotan)

| Gabezia-adierazle espezifikoak | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Ohiko betebeharrak betetzeko eta ohiko gastuei aurreko egiteko zailtasunak** | — | 9,3 | 9,2 | 13,1 | 11,4 |
| **Oinarrizko gastuak murriztu beharra** | 28,8 | 7,0 | 6,3 | 9,1 | 8,1 |
| **Egun ezin aurre egin oinarrizko gastuei** | — | 3,6 | 6,9 | 5,4 | 3,1 |
| **Elikagaiak eskuratzeko arazoak (azkeneko 12 hilabeteetan)** | | | | | |
| ***FSS adierazleak*** | | | | | |
| Elikadura-arazo larriak | — | ND | 2,4 | 2,5 | 3,5 |
| Elikadura-arazo oso larriak | — | ND | 1,1 | 2,7 | 2,1 |
| FSS segurtasun-gabeziaren arazoak guztira | — | ND | 3,5 | 5,2 | 5,7 |
| ***EU-SILC adierazleak*** | | | | | |
| Gutxienez bi egunean behin proteinarik jateko aukerarik ez | — | ND | ND | 3,4 | 2,3 |
| **Arazo larriak: Ohiko betebehar eta gastuen estaldura** | | | | | |
| Ordaindu gabeko ordainketak edo ordainketa-atzerapenak | 2,6 | 2,0 | 2,3 | 2,7 | 2,9 |
| Argi-hornidura, ur-hornidura edota telefonoa etetea | 2,6 | 0,8 | 1,1 | 1,1 | 1,6 |
| Ondasun-bahimendua | — | 0,2 | 0,6 | 0,3 | 0,3 |
| Jabegoak saldu eta etxez edo eskolaz aldatu beharra | 3,4 | 0,6 | 0,6 | 0,5 | 0,3 |
| **Iraupeneko bizi-mailarekin lotutako beste arazo batzuk** | | | | | |
| Bigarren eskuko arropak erabiltzera jo beharra (azkeneko 12 hilabeteetan) | — | 5,1 | 3,7 | 5,8 | 3,7 |
| Azken neguan egun batzuetan hotzak egotea | — | 4,2 | 5,3 | 5,5 | 4,1 |
| **Aisialdia izateko arazoak** | | | | | |
| Aisia-beharrak asetzeko ezintasuna | — | 8,3 | 8,4 | 10,5 | 10,1 |
| Ahalik eta gehien neurtu beharra, beharrok aseko badituzte | — | 23,4 | 18,4 | 20,6 | 22,9 |
| Aisialdia izateko arazoak guztira | — | 31,7 | 26,8 | 31,0 | 33,0 |
| Arazo ekonomikoak direla-eta oporrik ez hartzea | — | 27,8 | 19,4 | 19,7 | 20,3 |
| Arazo ekonomikoak direla-eta aisialdiko ateraldirik ez egitea | — | 20,8 | 11,2 | 9,9 | 15,3 |
| Aisia eta astialdiko gastuak murriztea | 27,0 | 8,3 | 7,8 | 11,3 | 10,2 |
| Ustekabeko gastuei aurre egiteko ahalmena | — | ND | ND | 39,5 | 34,8 |
| Laguntza eskaera | 11,6 | 4,3 | 4,6 | 7,1 | 6,4 |
| Laguntza eskatzea lagun, auzo edo ahaideei | — | 3,3 | 3,7 | 4,7 | 5,1 |
| Laguntza eskatzea erakunde publiko edo pribatuei | — | 2,1 | 2,2 | 4,0 | 3,5 |
| Norberaren aurrezkien zati handi bat erabili behar izatea | — | 3,3 | 3,8 | 5,4 | 4,7 |
| Ohiz kanpoko kredituetara jo beharra | — | 0,9 | 1,6 | 2,5 | 3,2 |
| **Zorrak izateko arriskua** | — | 1,6 | 1,1 | 1,3 | 1,4 |

— Arrazoi beroriengatik, euskal herritarren 4,1ek azkeneko neguan, egun batzuetan, hotzak egon dela adierazi du.
— Oro har, egun oinarrizko gastuei aurre egin ezin diotela adierazi duten etxeetan bizi diren herritarrak biztanleria osoaren %3,1a dira.

Aipatutako arazoei dagokionez, esan beharra dago herritarren %6,4a hirugarrengoei laguntza ekonomikoa eskatu behar izan dieten etxeetan bizi dela. Horietatik %5,1ek lagun, auzo edo ahaideengana jo du laguntza eske, eta %3,5ek, berriz, instituzio publiko edo pribatuetara. Beste %4,7ak bere aurrezkien zati handi bat erabili behar izan du eta %3,2ak ohiz kanpoko kredituak eskatu behar izan ditu.

Datuok erakusten dituzten zailtasunak gorabehera, prekarietatearen eta pobretasuna ekonomikoaren ondorio larrien eraginpean dagoen biztanle-portzentajea askoz txikiagoa da 2008. urtean:

— Elikadura-arazorik larrienek, gosearen pertzepzioarekin lotutakoek, biztanleriaren %2,1ean bakarrik izan zuten eragina aurreko hamabi hilabeteetan; proportzio hori guztiz koherentea da EU-SILC-en prekarietate-adierazlearen mailan: biztanleria egoiliarraren %2,3a.
— Ordaindu gabeko ordainketek edo ordainketa-atzerapenek biztanleriaren %2,9an izan zuten eragina denbora-bitarte horretan, eta ur, argi, telefono eta abarren hornidura-etenekin zerikusia duten gertakariak, berriz, biztanleen %1,6an. Ez ohiko neurriak hartu behar izan dituzten etxeetako pertsonen proportzioa (jabetzak saldu, etxebizitzaz edo eskolaz aldatu) %0,3ra mugatzen da. Ondasunak bahitu dizkietenen proportzioa ere %0,3koa da.

Orain arte aintzat hartutako adierazle espezifikoetan islatutako joerak orokortuz, PGDIk erabiltzen duen gabezia-adierazle sintetikoaren datuen arabera, 2008. urtean euskal herritarren %2,5a prekarietaterik larrieneko egoeran bizi da, %12,4a prekarietate-egoeran oinarrizko alderdietan, eta %6,7a prekarietate-egoeran hain oinarrizkoak ez diren alderdietan. Guztira, herritarren %21,6a prekarietate-mota baten eraginpean dago, mantentze-dimentsioari dagokionez, eta biztanleen %20,1a hain egoera prekarioan bizi ez bada ere, goian aipatutako zailtasun batzuk ditu oraindik ere.

Bilakaera datuek erakusten dutenez, gabeziaadierazle espezifikoek hobera egin zuten nabarmen 1986-2000 bitarteko urteetan, behera egin baitzuen gastuak murrizteko beharra zuten etxeetako pertsonen proportzioa. Egoera horretan zegoen biztanleriaren ehunekoak

%28,8tik %6,3ra egin zuen behera oinarrizko gastuei dagokienez, eta %27tik %7,8ra, berriz, aisiaz eta astialdiaz gozatzeko gastuei dagokienez.

20. TAULA

**Mantentze-dimentsioko gabezia-adierazleen bilakaera. 1996-2008. Gabezia-adierazle sintetikoa**

Familia-etxebizitzetan bizi diren lagunak (Ehuneko bertikalak)

| Gabezia-mailak | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 |
|---|---|---|---|---|
| Oso prekarioa | 1,5 | 1,5 | 2,6 | 2,5 |
| Prekarioa (oinarrizko alorretan) | 15,3 | 11,9 | 14,8 | 12,4 |
| Prekarioa (hain oinarrizkoak ez diren alorretan) | 10,6 | 5,7 | 3,2 | 6,7 |
| Ez hain prekarioa | 22,9 | 17,9 | 20,1 | 20,1 |
| Ez prekarioa | 49,7 | 63,0 | 59,2 | 58,3 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 |

Denbora-bitarte horretan behera egin zuen nabarmen mantentze-dimentsioko arazo larrien eraginpean zeuden etxeetako pertsonen ehunekoa. Argi, ur edo telefonoaren hornilduran etenak pairatu zituzten pertsonen ehunekoak, adibidez, %2,6tik %1,1ra egin zuen behera 1986-2000 bitartean, eta jabetzak salduz, etxez aldatuz edo seme-alabak eskolaz aldatuz desmetatze-prozesuak pairatu zituztenen ehunekoak, berriz, %3,4tik %0,6ra. Asko murriztu zen, baita ere, laguntza eske beste pertsona batzuengana edo erakundeetara jo behar izan zuten etxeen ehunekoa ere: %11,6tik %4,6ra, hain zuzen. Zorrak izateko arriskuak ere behera egin zuen, 1996ko %1,6tik 2000ko %1,1era.

Aurrerabidea 1986-1996 bitarteko hamarraldian gertatu zen batez ere. 1996-2000 bitartean, berriz, hobekuntzak ez ziren hain nabarmenak izan; are gehiago, adierazle batzuen mailak hobera beharrean okerrera egin zuen, gutxi bada ere. 2000-2000 bitarteko urteetan, berriz, egoerak okerrera egin zuen nabarmen: oinarrizko premiak asetzeko arazoak zituzten etxeetako pertsonen ehunekoak gora egin zuen, eta, gainera, 1996-200 bitartean aurreikusi ziren joera negatiboetako batzuk indartu antzemandako arazoak egin ziren orduan.

Izan ere, 2000 eta 2004 bitarteko urteetan %9,2tik %13,1era handitu zen ohiko beharrei eta gastuei aurre egiteko arazoak zituzten pertsonen proportzioa. Halaber, %6,3tik

%9,1era handitu zen oinarrizko gastuak murriztu behar izan zituzten etxeetako pertsonen proportzioa, eta%7,8tik %11,3ra, berriz, aisia izateko eta astialdiaz gozatzeko aukerarekin zerikusia zuten gastuak murriztu behar izan zituztenena.

Ongizate osoa lortzearekin zerikusi zuzena duten adierazleetako batzuek okerrera egin zuten, halaber, urte horietan. Aisia-beharrei aurre egiteko arazoak zituen biztanleriaren zatia %26,8tik %31ra handitu zen, eta behar horiek erabat ase gabe zeudela adierazten duen adierazlea, berriz, %10,5era iritsi zen 2004an, %8,5a inguru izanik 1996an eta 2000an. Hala ere, adierazle espezifiko batzuek bere hartan gelditzeko edo behera egiteko joera erakutsi zuten 200-2004 bitarteko urteetan, aurreko urteetan agerian ipinitako joera positiboa indartuz edo areagotuz. Horren haritik, hobera egiten dute nabarmen oporrak gozatzearekin eta aisialdiko ateraldiak egitearekin zerikusia duten adierazleek: arrazoi ekonomikoak direla eta oporrik hartzen ez duten pertsonen ehunekoa %27,8koa da 1996an, %19ko 2000an eta %20ko 2004an, eta aisialdiko ateraldirik egiten ez dutenena, berriz, %20,8koa 1996an eta %9,9koa 2004an.

Ongizatearekin lotutako adierazleen bilakaera ona hain nabaria izan ez zen bezala, oinarrizko premiak asetzearekin zerikusia duten adierazleen joera negatiboa oso nabarmena izan zen. Elikadura-arazoek, adibidez, goranzko joera nabarmena erakutsi zuten 2000-2004 bitartean. Inkesta egin aurreko hamabi hilabeteetan, herritarren %5,2ak egin behar izan zion aurre elikadura eskuratzeko segurtasungabeziako arazoren bati, 2000an (%3,5) baino askoz gehiagok, alegia. Gorakadarik handiena, gainera, elikadura eskuratzeko arazo oso larriak zituztenen artean eman zen: egoitza EAEn duten herritarren %1,1a izatetik %2,7a izatera igaro baitziren.

Beste adierazle batzuek oinarrizko premien estaldura-mailak 2000-2004 bitartean izan zuen gainbehera erakusten dute. Hala, gora egin zuen bigarren eskuko jantziak erabiltzeko joerak (%3,7tik %5,8ra), eta gora egin zuen, halaber, hotzaren pertzepzioak, arazo ekonomikoak direla eta (%5,3tik %5,5ra, 1996ko %4,2aren gainetik). Nahiz eta oso gorakada deigarria ez izan, zorrak egiteko arriskuak ere gora egin zuen: %1,1etik %1,3ra, hain zuzen.

Hala ere, nahiz eta egoerak, oro har, okerrera egin, hornidura-etenak edo ondasunen bahimendua pairatu zuten pertsonen ehunekoak, edota desmetatze-prozesuetara jo behar izan zutenenak ez zuzen gora egin. Dena dela, 1996 eta 2004 bitartean, ordaindu gabeko ordainketei edo ordainketa-atzerapenei aurre egin beharrean direnen ehunekoak gora egin zuen: %2tik %2,7ra, hain zuen.

Egoeraren gainbeheraren ezaugarrietako bat dirua eskuratzeko ez ohiko bideetara jotzeko beharra da. Hala, 1996 eta 200 bitartean, %3,3tik %5,4ra egin zuen gora beren aurrezkien zati handi bat baliatu behar izan zuten etxeetako pertsonen ehunekoak; %0,9tik %2,5era, kreditu berezietara jo behar izan zutenenak; eta %4,3tik %7,1era, berriz, hirugarrengoen laguntza eskatu behar izan zutenenak. Gorakadarik nabarmenena laguntza eske erakundeetara jo zutenen artean eman zen ordea: herritarren %2,1a baitzen 1996an, eta %4a, berriz, 2004an. Laguntza eske lagun, auzo edo ahaideengana jo zutenak, berriz, herritarren %3,3a ziren 1996n, eta %4,7a, berriz, 2004an. Gorakadarik handiena 2000 eta 2004 bitarteko lau urteetan izan zen, baina okerrerako joera hori 1996 eta 2000 bitarteko urteetan nabarmendu zen jada.

Aintzat hartutako doikuntza-neurrien ondorio positiboa deigarria da, kontuan izanez gero, adierazle ia guztien bilakaera negatiboa gorabehera, oinarrizko premiak asetzeko ezintasuna adierazi zuten etxeetako pertsonen ehunekoak behera egin zuela 2000 eta 2004 bitartean: %6,9tik %5,4ra, hain zuzen. Hala ere, datuok gorakada nabarmena erakuste dute, 1996. urteko %3,6rekin alderatuz gero.

2004. urteko okerragotzearekin gorena iritsi zuen bilakaeraren ilun-argiak 2004-2008 bitarteko lau urteetan aienatuko ziren, neurri batean. Bitarte horretan indartu ziren, adibidez, aurreko urteetan antzemandako arazoak, aisialdi-baliabideak eskuratzeko orduan. Bere aisialdi-beharrak betetzen ez dituzten, edo ahalik eta gehien neurtuz baino betetzen ez dituzten etxeetako herritarren ehunekoak gorena jo zuen 2008. urtean (%33), eta aise gainditu zituen 2000ko eta 2004ko mailak, gabezia ekonomikoak direla eta oporrez edo asteko ateraldiez gozatzeko ezintasunaren inguruko arazoei dagokienez (herritarren %20,3a eta %15,3a, hurrenez hurren).

Nahiz eta 2004. urteko mailara iritsi ez, kanpoko laguntzetara eta aurrezkietara jo beharrean suertatu ziren pertsonen ehunekoa 1996-2000 bitartekoa baino askoz handiagoa izan zen: arazo horren eraginpean zeuden herritarren %6,4a eta %4,7a. Kreditu berezietara jotzeko beharrak 2008. urtean jo zuen goiena: herritarren %3,2ari eragiten baitzion, zorrak izateko arriskupean zeudenak %1,4a zirela. Ordaindu gabeen ehunekoak ere gorena jo zuen urte horretan bertan: %2,9.

Hala ere, kanpoko laguntzei, aurrezkiei, edota zorduntzeari esker, neurri batean behintzat, oinarrizko premien estaldurarekin zerikusia zuten adierazle gehienek hobera egin zuten denbora-bitarte horretan. 1996-2000 bitarteko aldiarekin konparatuta ehunekoak handiagoak badira ere, 2004. urtearekin alderatuta behera egiten du oinarrizko betebeha-

rrei eta ohiko gastuei aurreko egiteko zailtasunak dituzten etxeetako pertsonen kopurua, edota oinarrizko edo aisialdiko gastuak murrizteko beharra dutenena ere: %13,1etik %11,4ra; %9,1etik %8,1era; eta %11,3tik %10,2ra, hurrenez hurren. Hobekuntza hori are nabarmenagoa da adierazlerik oinarrizkoenak hartuz gero kontuan, 2008koak baitira 1986-2008 bitarteko aldiko daturik kaskarrenak. Oinarrizko gastuei aurre egin ezin dieten etxeetako pertsonen ehunekoa, adibidez, 1996-2000 bitartean %3,6tik %6,9ra handitu eta 2004an %5,4an eutsi ondoren, 2008. urtean %3,1eraino murriztu zen. Elikadura eskuratzeko segurtasun-gabeziak baizik ez ditu gezurtatzen premia oinarrizkoenekin zerikusia duten zailtasunen euste hori: FSS adierazlea %3,5ekoa baitzen 2000an, %5,2koa 2004an eta %5,7koa 20008an. Hala ere, segurtasungabezia mota larrienek behera egiten dute, 2004an ikusitakoarekin alderatuta behintzat.

Gabezia-adierazle sintetikoaren bilakaerak adierazle espezifikoek erakusten dituzten joera guztiak berresten ditu, 2000-2004 bitartean egoera orokorrak izan zuen gainbehera nabarmena bereziki. Hala, oso egoera prekarioan bizi zen biztanleriaren ehunekoa, 1996 eta 2000 bitartean %1,5 inguruko mailetan eutsi ondoren, %2,6raino handitu zen 2004an. Oinarrizko gauzetan prekarietate-arazoak zituzten etxeetako pertsonen ehunekoak ere, 1996-2000 bitartean %16,8tik %13,5era murriztu ondoren, gora egin zuen 2004an, %17,4ra iritsi zen. 2008. urtean oinarrizko arazoen eraginpean dauden pertsonen garrantzia %14,9ra murriztu bazen ere, zifra 2000. urteko %13,5a baino handiagoa da oraindik ere. Gainera, oso egoera prekarioan bizi diren herritarren ehunekoak ere bere hartan jarraitzen du (%2,5), hamarren bat baino ez baita murriztu 2004. urteaz geroztik. Ongizateari dagokionez, berriz, 2008. urtean asko murrizten da etxebizitza ez prekarioetan bizi diren herritarren garrantzia, 2000-2004 bitartean aurreikusitako beheranzko joerari eutsiz. Hala, egoera horretan bizi direnen proportzioa 2000ko %63tik eta 2004ko %59,2tik 2008ko %58,3raino murriztuz joan da.

## 1.2. **Pobretasunaren eta ongizate-gabeziaren adierazle orokorrak**

### 1.2.1. Pobretasunaren eta ongizate-gabeziaren tasak

Pobretasunaren eta prekarietatearen adierazleak sakonki aztertuz, biztanleria osoa erreferentziatzat harturik, PGDIren metodotik eratorritako datuek erakusten dute mantentze-pobretasunaren arriskuak %4,1eko eragina izan zuela 2008. urtean. Arriskua %14,6raino handitzen da, ongizate-gabeziako arazoei dagokienez. Zifra hori medianaren %60an oinarritzen den Eurostat metodoaren adierazleak ematen duenaren oso antzekoa da:

%14,8. Aldiz, %40aren adierazlea erabiliz gero, zifra %3,1era jaisten da, PGDI adierazlea baino puntu bat beherago, baina gainerako neurketa-metodoek eskaintzen dituzten emaitzekin nolabaiteko konbergentzia erakusten duen norabidean.

21. TAULA

**Mantentze-dimentsioko pobretasunean eta/edo ongizate-gabezian erortzeko arriskuaren adierazleak. 2008**

Etxeak eta familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (Datu absolutuak eta eragin-mailak ehunekotan)

| **Adierazleak** | **Etxeak** | **Eragina (%)** | **Biztanleria** | **Eragina (%)** |
|---|---|---|---|---|
| **PGDIren metodoa** | | | | |
| Ongizate-gabezia | 141.605 | 17,8 | 313.215 | 14,6 |
| Pobretasuna | 36.955 | 4,6 | 88.643 | 4,1 |
| **Eurostat/EB metodoa** | | | | |
| Pobretasuna erlatiboa/ Diru-sarrera txikiak %60 | 137.007 | 17,2 | 318.161 | 14,8 |
| Pobretasuna %40 | 23.753 | 3,0 | 66.540 | 3,1 |

*Oharra:* Pobretasuna erlatiboaren eta/edo ongizate-gabeziaren adierazleek pobreen kolektiboa hartzen dute barne.

Ongizatearekin zerikusia duten gabezia-adierazleek erakusten dituzten epe luzerako bilakaera-joerak berretsita geratzen dira, oro har, mantentze-dimentsioko ongizate-gabeziaren adierazleen bilakaera kontuan hartzean. Ongizate-gabeziaren arrisku-tasak asko beheratu dira 1986 eta 1996 bitartean: %43,8tik %35,4ra, hain zuzen. Beheraldi handiena 1996-2000 bitarteko lau urteetan gertatu zen. Azken urte horretan, arrisku-tasa %24,5ekoa zen. 2004. urtean %24,3an egonkortu ondoren, arrisku-tasa murrizteko prozesua abian jarri zen berriro azken lau urteko epean. Hala, mantentze-dimentsioko ongizate-gabeziaren tasa %14,6raino murriztu zen 2008an.

PGDI adierazle doituak orobat adierazten du pobretasun-tasen beheratze nabarmen eta etengabea 1996 eta 20008 artean. Tasa doitua, %9,3koa 1996an, %6,3ra murriztu zen 2000an, %6,1era 2004an, eta %4,1era 2008an. Datuek erakusten dutenez, baina, 1986 eta 1996 bitartean mantentze-pobretasunaren eragina ez zen murriztu, nabarmen handitu baizik: %5,7tik %9,3ra. Aipatutako bilakaerak, gainera, ezin du ezkutatu 2004 eta 2008

bitartean, doitu gabeko terminoetan, izan den gorakada txikia, %3,5etik %4,1era handitu baita arrisku-maila.

Bereziki pobretasun-adierazleei dagokienez, aipatutako bilakaera hori gabezia-adierazleen bilakaerak berak gezurtatzen du neurri bate-an. Alde batetik, eskura ditugun gabezia-adierazle espezifikoek adierazten dutenez, 1986- 1996 bitartean egoerak hobera egin zuen, eta horrek esplikatuko luke zergatik den 1996ko doitu gabeko pobretasun-tasa doitutakoa baino askoz txikiagoa (%4a eta %9,3a, hurrenez hurren), nahiz eta, aurrerago ikusiko dugun bezala, hobekuntza hori hamarraldi horretan izandako bilakaera positiboarekin lotuta egon, neurri handi batean. Bestetik, 2000-2004 aldiko pobretasunari buruzko datuak erakusten dutenez, urte horietan egoerak okerrera egin arren, herritarrek lehen aipatutako konpentsazio-mekanismo horiek eskuratzeko aukera izan zuten —aurrezkia, familiaren laguntza, instituzioen laguntza—, eta horrek, praktikan, indargabetu egin zuen gainbeheraldia, pobretasun-tasen mailaren beheranzko joera indartuz.

2004 eta 2008 artean, azkenik, oinarrizko gabezien neurketarekin lotutako gabezia-adierazleen hobekuntzak lehenago esandakoarekin kontraesanean zegoela emango luke, doitu gabeko pobretasun-tasak izandako hazkundea ikusita. Doitutako adierazleak kontuan hartzean berretsita geratu da, ordea, pobretasun-adierazleen aldeko bilakaera azken aldian.

22. TAULA

**Pobretasunaren eta/edo ongizate-gabeziaren arrisku-adierazleen bilakaera. PGDI adierazleak. 1986-2008**

2008. urteko atalaseei doitutako datu orokorrak. Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (eragina ehunekoetan)

| | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Doitu gabeko adierazle orokorrak** | | | | | |
| PGDIren metodoa (ongizate-gabezia) | 31,5 | 28,3 | 20,9 | 19,8 | 14,6 |
| PGDIren metodoa (pobretasuna) | 4,5 | 4,0 | 3,6 | 3,5 | 4,1 |
| **Doitutako adierazle orokorrak** | | | | | |
| PGDIren metodoa (ongizate-gabezia) | 43,8 | 35,4 | 24,5 | 24,3 | 14,6 |
| PGDIren metodoa (pobretasuna) | 5,7 | 9,3 | 6,3 | 6,1 | 4,1 |

*Oharrak:* Diru-sarrera txikien, pobretasuna erlatiboaren eta/edo ongizate-gabeziaren adierazleek pobreak hartzen dituzte barne. Doitu gabeko datuak berriro kalkulatu dira 1986-2000 aldirako, 2004tik aurrera sartutako aldaketetara doitzeko.

Oro har, datuek erakusten dutenez, epe luzeko bilakaera oso positiboa da, bai pobretasunaren tasari dagokionez, bai ongizate-gabeziaren tasari dagokienez. Ongizate-gabeziaren adierazlearen kasuan, ordea, gainbehera askoz nabarmenagoa izango zen. Izan ere, 1996-2000 eta 2004-2008 bitarteko urteetan ongizate-gabeziako arazoek behera egin zuten nabarmen, baina gainbehera horrek zerikusia du, baita ere, 1986 eta 1996 bitartean eta, neurri txikiagoan, 2000 eta 2008 bitartean pobretasun-arriskuak izandako goranzko presioarekin.

PGDIk erakusten duen ongizate-gabeziaren tasen epe luzeko beheranzko joeraren aurrean, Eurostaten metodoek, berriz, zifren halako egonkortze bat erakusten dute ia aldi horretan guztian. Ongizate-gabezia edo diru-sarrera txikien adierazlea puntu eta erdi

2. GRAFIKOA

**Mantentze-prekarietatea: 1986-2008 bitarteko pobretasun-arriskuaren eta ongizate-gabeziaren adierazle orokorren bilakaera. PGDI eta Eurostaten adierazleak**

(Familia-etxebizitzetan bizi diren lagunengan izandako eragina ehunekotan)




*Oharra:* PGDI adierazle doituak.

handitu zen 1986 eta 2000 bitartean: %15,6a (1986), %16,7a (1996) eta %17,1a (2000). Goranzko joera hori hautsi egin zen aurrerago, eta tasa horiek %16,5era eta %14,8ra jaitsi ziren —2004 eta 2008. urteetan, hurrenez hurren—, 1986ko maila baino zortzi hamarren gutxiago. Oro har, baina, diru-sarrera txikien tasak %15aren eta %17aren artean kokatutako tarte baten inguruan eutsi zion modu egonkor batean.

Eurostaten %40aren adierazleak joera hori bera erakusten du. Gauzak horrela, tasak %3,3tik %4,8ra igaro ziren 1986 eta 2000 urte bitartean, %3,7raino murriztu ziren 2004an, eta %3,1eraino 2004an. Horrenbestez, 1996. urtekoaren antzeko zifra batean gelditu ziren.

23. TAULA

**Pobretasun-arriskuaren eta ongizate-gabeziaren adierazle orokorren bilakaera. Eurostaten adierazleak 1986-2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren lagunak (Eragin-mailak ehunekotan)

| **Adierazleak** | **1986** | **1996** | **2000** | **2004** | **2008** |
|---|---|---|---|---|---|
| Eurostat/EB metodoa (diru-sarrera txikiak) | 15,6 | 16,7 | 17,1 | 16,5 | 14,8 |
| Eurostat/EB metodoa (pobretasuna) | 3,3 | 3,9 | 4,8 | 3,7 | 3,1 |

*Oharra:* Diru-sarrera txikien, pobretasun erlatiboaren eta/edo ongizate-gabeziaren adierazleek pobreen kolektiboa hartzen dute barnean.

### 1.2.2. Distantziaren eta desberdintasunaren adierazleak

Aurreko atalean aurkeztutako emaitzek aukera ematen digute oro har aztertzeko pobretasunaren eta ongizate-gabeziaren tasen bilakaera. Mantentze-prekarietatearen azterketa ez da mugatzen fenomenoaren eragin orokorra aintzat hartzera. Horretaz gainera, kontuan hartu behar ditu beste adierazle batzuk ere, diru-sarrera erabilgarrien eta pobretasunaren eta ongizate-gabeziaren adierazleen artean dagoen distantzia neurtzen dituztenak bereziki. Atal honetan aurkezten diren koadroetan, aintzat hartutako egoera desberdinen eragintasari dagozkion emaitza zehatzak eskaintzen dira —mantentze-dimentsioko pobretasuna eta ongizate-gabezia—, eta baita baliabide erabilgarrien eta ezarritako pobretasun eta ongizate-gabeziaren atalaseen artean dagoen distantziari dagozkionak ere —Sen adierazlea—. Orobat eskaintzen dira arrisku-taldeen arteko barne-gorabeherak neurtzen dituzten

adierazle konplexuagoen emaitzak, hala nola FGT edo Hagenaars adierazleek neurtzen dituztenak. Bereziki interesgarria da FGT (2) adierazlea. Adierazle horrek aukera ematen du kalkulatzeko nolako eragina izango luketen biztanleria osoan pobretasun eta ongizate-gabeziako egoera-arriskuan erortzeko dauden pertsonek, baldin eta oinarrizko premien inguruan egun dagoen desoreka diru-sarrerarik gabeko pertsona baliokideen terminoetan kalkulatuko balitz.

Prekarietate-egoeran dauden etxebizitzen errenta erabilgarriaren eta pobretasunaren eta ongizate-gabeziaren atalaseen artean dagoen diferentzia neurtzen du Sen adierazleak. Pobretasun-arriskuan erortzeko dauden kolektiboen kasuan, diru-sarrera erabilgarriek %19,9ko distantzia erakusten dute, pobretasun-atalaseari dagokionez (%43,6koa, berriz, ongizate-gabeziaren atalaseari dagokionez). Pobretasun-arriskuan erortzeko dauden etxebizitzek pobretasun-arriskua gainditzeko behar diren diru-sarreren %80,1a dute, eta gure gizartean espero izatekoa den gutxieneko ongizate-mailara hurbiltzeko behar direnen %56,4a. Ongizate-atalaseari dagokionez, pobreak ez diren baina ongizate-gabeziako egoeran erortzeko arriskuan dauden etxeei eragiten dien desoreka %22,4ra iristen da.

24. TAULA

**Prekarietate-egoera desberdinen intentsitatearen eta barne-desorekaren adierazleak. Sen, FGT eta Hagenaars adierazleak. 2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren lagunak (Datuak ehunekoetan)

| PGDIren adierazleak | PGDI metodoa | |
|---|---|---|
| | **Pobretasun arriskua** | **Ongizate-gabeziako arriskua** |
| H = Tasa orokorra q/n | 4,1 | 14,6 |
| I = Sen adierazlea (income poverty gap) | 19,89 | 22,44 |
| FGT (2) HI | 0,82 | 3,27 |
| FGT (3) HI | 0,36 | 1,36 |
| FGT (4) HI | 0,26 | 0,88 |
| Hagenaarsen adierazlea | 0,20 | 0,57 |

FGT edo Hagenaars adierazleek, berriz, oso maila txikia erakusten dute 2008. urtean. Horrek esan nahi du EAEn, pobretasun-atalaserainoko tartea erlatiboki txiki dela arazo horren eraginpean bizi diren etxe eta pertsona gehienentzat, eta barne-desoreka erlati-

boki txiki bat dagoela arrisku-taldeen artean. FGT (2) adierazlea erreferentzia-adierazle nagusitzat harturik, EAEko egoera hau da: metatzepobretasunak biztanleria osoan duen intzidentzia %0,82koa baino ez da, 2004. urtean termino ez-doituetan zegoena (%0,94) baino txikiagoa.

Epe erdi eta luzera, FGT (2) adierazlearen beheranzko joera nabarmentzen da batez ere. Pobretasunaren adierazleari dagokionez, adierazle doitua 1996ko %2,25etik, 2000ko %1,62ra, 2004ko %1,51era eta 2008ko %0,82ra jaitsi zen. Azken balio hori 1986an erregistratutako maila (%1,52) baino nabarmen txikiagoa da lehen aldiz.

Ongizate-gabeziako adierazleei dagokienez, beherakada nabarmena izan da FGT (2) adi erazleetan, 1986tik aurrera. Izan ere, adierazlea azken urte horretako %11,80tik, 1996ko %10,07ra, 2000 eta 2004ko %6,50 ingurura eta 2008ko %3,27ra jaitsi da.

Bilakaera horretan zehar datu bereziki adi erazgarria da Sen adierazleek 2008. urtean izandako beherakada nabarmena. Izan ere, beherakada horrek haustura nabarmena adi erazten du 1996-2004 bitarteko zifrekiko, urte horietako zifrak beren egonkortasunagatik bereizi baitziren batez ere. Nabarmendu beharreko beste datu bat da FGT (2) adierazleak nabarmen beheratu zirela 2004-2008 bitarteko aldi an, eta aldi horretan baino ez, berritik eratutako etxe edo famili en kopuruak gorakada nabarmena egin zuen garai batean. 1986 eta 1996 bitartean, berritik eratutako etxe edo familien kopuruak gorakada pobretasun-adierazleak izandako gorakada nabarmenari lotzen zaio; ongizate-gabeziaren adierazlea izan zen beheranzko joerari eutsi zion adierazle bakarra. Etxe-kopuruari dagokionez, 1996 eta 2000 urte bitartean izan zen egonkortzearen ondoren, 2000 eta 2004 bitartean nabarmen gora egin zuen berriro kopuru horrek. Kasu horretan, hazkunde demografikoa FGT (2) adierazleen egonkortze nabarmenari lotzen zaio, hala pobretasunari dagokionez nola ongizate-gabeziari dagokionez.

Beraz, nahiz eta 1986-1996 bitarteko hamarraldian eta 2000-2004 bitarteko laurtekoan arrisku-mailek goranzko joera erakutsi, eta nahiz eta, aldi berean, etxe berrien kopuru handi bat eratu, bi aldi horietako lehenengoan pobretasun-adierazleak gora egin zuen nabarmen —kontuan izan behar da garai horretan langabezia-tasa ere handia zela—; bigarren aldian, berriz, bertan behera gelditu ziren 1996-2000 bitartean egindako aurrerapenak —kontuan izan behar da garai hori etxebizitzak lortzeko zailtasunengatik nabarmendu zela batez ere—. 2004 eta 2008 bitartean bakarrik izan zen posible herritarrek bizitza independentea lortzeko prozesuan aurrera egitea eta, aldi berean, FGT (2) eta ongizate-gabeziako adierazleak nabarmen erortzea.

25. TAULA

**Mantentze-pobretasunaren eraginarekin lotutako estatistika-adierazleak. 1986-2008**

Pobretasun-tasa, Sen adierazlea, FGT (2) adierazlea eta pobretasun-atalasera iristeko baliabiderik ez duten pertsona baliokideak

| Urtea | Pobretasun-tasa | Atalasera iristeko distantzia Sen adierazlea | FGT (2) HI adierazlea | Baliabiderik ez duten pertsona baliokideak | Etxeen oinarria |
|---|---|---|---|---|---|
| 1986 | 5,7 | 26,4 | 1,52 | 32.312 | 594.550 |
| 1996 | 9,3 | 24,2 | 2,25 | 47.837 | 674.954 |
| 2000 | 6,3 | 25,7 | 1,62 | 33.504 | 688.227 |
| 2004 | 6,1 | 24,8 | 1,51 | 31.382 | 742.753 |
| 2008 | 4,1 | 19,9 | 0,82 | 17.627 | 797.372 |

*Oharra:* Doitutako adierazleak.

26. TAULA

**Mantentze-dimentsioko ongizate-gabeziako egoeren eraginarekin lotutako estatistika-adierazleak. 1986-2008**

Ongizate-gabeziako tasa, Sen adierazlea, FGT (2) adierazlea eta ongizate-atalasera iristeko baliabiderik ez duten pertsona baliokideak

| Urtea | Ongizate-gabeziako tasa | Atalaserako tartea Sen adierazlea | FGT (2) HI adierazlea | Baliabiderik ez duten pertsona baliokideak | Etxe-oinarria |
|---|---|---|---|---|---|
| 1986 | 43,8 | 26,9 | 11,80 | 251.254 | 594.550 |
| 1996 | 35,4 | 28,4 | 10,07 | 213.543 | 674.954 |
| 2000 | 24,5 | 26,7 | 6,54 | 135.304 | 688.227 |
| 2004 | 24,3 | 26,9 | 6,53 | 136.060 | 742.753 |
| 2008 | 14,6 | 22,4 | 3,27 | 70.271 | 797.372 |

*Oharra:* Doitutako adierazleak.

## 2. ARAZOAK METATZE-DIMENTSIOAN

### 2.1. Gabezia-adierazleak

#### 2.1.1. Ondare-baliabideak lortzeko zailtasunak

Hona euskal biztanleriaren ezaugarri deigarrienetako bat da: etxebizitza alde batera utzita, ondare-baliabideak lortzeko zailtasunak dituela oraindik ere.

Hauek dira horri buruzko daturik deitagarrienak:

— Biztanleen %73,4a ondare-baliabide osagarririk ez duten etxeetan bizi da; hau da, ez bigarren egoitzarik, ez beste etxebizitzarik, ez lurrik eta abarrik ez duten etxeetan.
— Biztanleen %51,9ak ez du aurrezki handirik (1986. urteko 250.000 pezeten baliokidea), eta biztanleen %28,5ek ez du aurrezkirik batere.
— Nahiz eta etxebizitza jabetzan dutenak izan nagusi, biztanleen %41,7ak ez du hipoteka ordaintzea bukatu, edo aldizkako ordainketak egin behar ditu errentan hartua duen etxebizitzagatik edo egoera horrekin parekatuta dauden beste egoera batzuengatik.
— Biztanleen %14,8a arrazoi ekonomikoak direla-eta hamar urte baino gutxiagoko ibilgailua ez duten etxeetan bizi da.

Datu horiek ikusita, ez da hain harrigarria gertatzen egiaztatzea biztanleen %12,9a oso ondare-maila txikia duten etxeetan bizi dela eta biztanleen beste %13,3a ondare maila txikia duten etxeetan. Gainerako %73,9ak ondare-maila normala edo normala baino handi agoa du, EAE barruan.

Bilakaeraren datuek guk hemen egindako gogoetetako batzuk osatzeko aukera ematen dute. 1986 eta 1996 bitartean, ondare-gabeziaren adierazle batzuek behera egin zuten nabarmen. Hori dela eta, gutxienez ibilgailu bat ere ez duten etxebizitzen ehunekoak ere behera egin zuen nabarmen: %51,9tik %37,2ra. Behera egin zuen, halaber, bizi diren etxebizitzagatik errenta ordaindu behar duten edo, etxebizitza jabetzan izanda, hipoteka erabat ordainduta ez duten etxeen ehunekoak: %31,2tik %23,5era, hain zuzen. Dena dela, urte horietan, aldeko prozesu hori desmetatze-prozesuetara lotua dago, familia-aurrezki terminoetan. Hala, beren aurrezkiak 1986ko 250.000 pezetaren baliokide izatera iristen ez diren etxeetako pertsonen ehunekoak gora egin zuen 1986 eta 1996 artean: %59,7tik %46,7ra.

27. TAULA

**Gabezia-adierazle espezifiko batzuen bilakaera (metatzea).**
**Ondare-balia-bideak lortzeko zailtasunak. 1986-2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (arazo hori duen pertsona-kopurua ehunekotan)

| Gabezia-adierazleak | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Adierazle espezifikoak** | | | | | |
| Erabat ordaindu gabeko jabetza, errenta, eta horien parekoak | 31,2 | 23,5 | 26,7 | 34,0 | 41,7 |
| 1986ko 250.000 pezetaren baliokidea dena baino gehiagoko aurrezkirik gabe (1) | 46,7 | 59,7 | 45,9 | 52,8 | 51,9 |
| Aurrezkirik gabe | ND | 42,7 | 29,8 | 33,8 | 28,5 |
| Hamar urte baino gutxiagoko ibilgailurik gabe | 51,9 | 37,2 | 39,3 | 38,8 | 38,7 |
| Hamar urte baino gutxiagoko ibilgailurik gabe (arrazoi ekonomikoak direla eta) | ND | 16,2 | 14,8 | 14,5 | 14,8 |
| Bestelako ondare-baliabiderik gabe | ND | 78,6 | 71,7 | 77,5 | 73,4 |
| **Adierazle sintetikoa** | | | | | |
| Oso ondare txikia | ND | 12,3 | 13,5 | 15,3 | 12,9 |
| Ondare txikia | ND | 11,2 | 14,9 | 12,1 | 13,3 |
| Ondare normala edo normala baino handiagoa | ND | 76,5 | 71,6 | 72,7 | 73,9 |

(1) Erreferentzia-urte bakoitzeko aurrezki baliokidearen datua mantentze-pobretasunari buruzko datuen estandarizazioan erabilitako doikuntza-adierazle orokorretatik abiatuta kalkulatzen da (ikus 2. eranskina).

1996 eta 2000 bitartean, ordea, behera egin zuen nabarmen aurrezkirik gabeko eta 1986. urteko 250.000 pezetaren baliokidea baino gutxiagoko aurrezkiak zituzten etxeen ehunekoa: %42,7tik %29,8ra eta %59,7tik %45,9ra, hurrenez hurren. Behera egin zuen, halaber, ondare-ondasun osagarririk batere gabeko etxeen ehunekoa, %78,6tik %71,7ra. Beherakada txikiagoa izan zuen, aldiz, 10 urte baino gutxiagoko ibilgailu bat gutxienez ez izatearen arrazoia arrazoi ekonomikoa zela adierazten zuten etxeen ehunekoak: %16,2tik %14,8ra. Aldi horretan gora egin zuen adi erazle bakarra, gorakada txikia izan bazen ere, errenta, amortizazioak edo interesak ordaintzen ari ziren etxeen ehunekoa izan zen: %23,5etik %26,7ra.

1996-200 bitarteko laurtekoaren bilakaera positiboaren aurrean, 2000-2004 bitarteko bilakaerak ondarearen adierazleen gainbehera erlatiboki orokorra erakusten du. Alde batetik, gora egiten zuen nabarmen errenta eta hipoteka ordaindu beharra zuten etxeetako pertsonen ehunekoak, %34ko mailara iritsi arte. Nabarmen gora egiten zuen, halaber, aurrezkirik gabeko etxeetako pertsonen ehunekoa, eta baita 1986. urteko 250.000 pezetaren baliokidea baino gutxiagoko aurrezkiak zituztenena ere: %29,8tik %33,8ra eta %45,9tik %52,8ra, hurrenez hurren. Ibilgailua eskuratzeko kasuan bakarrik erakusten dute zifrek adierazleen egonkortze bat, are hobekuntza txiki bat ere: Arrazoi ekono-

mikoak direla eta 10 urte baino gutxiagoko ibilgailua ez duten etxeetako pertsonen ehunekoak %14,8tik %14,5era egin zuen behera lau urteko epean.

2004-2008 bitarteko aldirako eskura ditugun datuek ez dute halako hobekuntza nabarmenik erakusten euskal etxeen ondare-mailan. Adibidez, gora egiten jarraitu zuen beren etxebizitza ordaintzen bukatu ez zuten edota etxebizitzagatik errenta ordaindu behar zuten etxeetako pertsonen ehunekoak: 2004ko %34tik 2008ko %41,7ra, hain zuzen (1986-2008 bitarteko aldiko ehunekorik handiena). Hala ere, behera egin zuen, gutxi bada ere, beste ondare-ondasunik ez zuten etxeetako pertsonen ehunekoak (%73,4tik %77,5era), eta baita, pixka bat gehiago, aurrezkirik gabeko etxeetako pertsonen ehunekoak. Kasu horretan, 2008ko %28,5a 1996-2008 bitarteko aldiko gutxieneko historikotzat har daiteke.

Ondare-arazoen adierazle sintetikoaren lehen datuak 1996koak dira. Daturik deigarriena oso maila txikiko ondare-egoeren etengabeko hazkundea da. Oso ondasun gutxi dituzten etxeetan bizi diren herritarren ehunekoa 1996ko %12,3tik 2000ko %13,5era eta 2004ko %15,3ra igaro zen. 1996 eta 2000 bitartean, gora egin zuen, halaber, ondasun gutxi edo oso gutxi dituzten etxeen mende bizi diren pertsonenen ehunekoa, %23,5etik %28,4ra, hain zuzen. 2004-2008 bitarteko aldian, adierazle biek egin zuten hobera: %26,1ra jaitsi zen ondasun gutxi edo oso gutxi zituzten etxeetako pertsonen ehunekoak, eta %12,9ra oso ondasun gutxi zituzten etxeetan bizi zirenena. Zifra horiek urte jakin batean baino ez ziren hobetu: 1996an, hain zuzen. Ondareegoera apal edo oso apalen kasuan, 2004an hasi zen hobekuntza antzematen, %28,4tik %27,3ra jaitsi zelarik tasa.

Nolanahi ere, zifra horiek garbi erakusten dute biztanleriaren zati handi batek ondasun-maila txikia edo oso txikia duela. Horrek azaltzen du zergatik den hain handia oraindik balizko ustekabeko gastuei aurre egin behar izanez gero segurtasun-gabezia erakusten duen etxe-kopurua.

### 2.1.2. Etxebizitzako instalazioak, biziegokitasun-baldintzak eta ekipamendua

Ondasunen alorrean gertatzen denaren aldean, etxebizitzetarako instalazio, ekipamendu eta biziegokitasun-baldintza egokiak eskuratzeko orduan euskal herritarren gabeziak ez dira hain deigarriak. Hauek dira horri buruzko daturik aipagarrienak:

— Etxebizitza batean dauden instalazioak kontua harturik, oinarrizko instalazioen gabeziak —ur beroko instalazioa, instalazio elektrikoa, komun-ontzia edo o bainu-ontzia eta du-

txa— EAEko biztanleriaren %0,5ari edo gutxiagori eragiten die. Biztanleriaren %5,5 eta %7,5 arteko batek, berriz, hezetasunarekin edo argiztapen-faltarekin zerikusia duten arazoak ditu etxebizitzan. Gainera, biztanleriaren %11k zaratak edo kutsadurak eragindako arazoak ditu. Gehien zabalduta dagoen gabeziak etxebizitzaren azalera urriari egiten dio erreferentzia: 20 metro koadro erabilgarri baino gutxiago pertsona bakoitzeko. Kasu horretan, arazoak euskal herritarren %15ari eragiten dio. Oro har, biztanleriaren %6,5a biziegokitasun-arazo nabarmenak dituzten etxebizitzetan bizi da.

— Ekipamenduak direla eta, arazo ekonomikoetan oinarritutako gabeziek biztanleriaren %1ari edo gutxiagori eragiten diete oinarrizko ekipamenduak eskuratzeko orduan, hau da, hozkailua, sukaldea, garbigailua, labea/mikrouhin labea edo koloretako telebista eskuratzeko orduan.

Gabezia-maila deigarriagoa da hain oinarrizkoak ez diren ekipamenduak eskuratzeari dagokionez. Arazo ekonomikoei lepora dakizkiekeen gabeziek biztanleriaren %3ari eragiten diote, bideoa eskuratzeko ahalmenari dagokionez, %4,1ari, musika-katearen kasuan, eta %5,7ari, ordenagailuaren kasuan. Biztanleriaren %8ak ez du ontzi-garbigailurik, arazo ekonomikoak direla eta. Hori da mailarik goiena, aintzat hartutako adierazleen artean.

Etxebizitzako instalazio eta ekipamendu-arazoen adierazle sintetikoaren arabera, etxebizitzako arazo larriek biztanleria osoaren %1,5ari eragiten diote, eta pertsonen %9,5ak oso arazo larriak dituzte. Biztanleen %89ak ez du etxebizitza-arazorik, edota, baldin baditu, ez dira hain arazo larriak.

Aintzat hartutako adierazleen bilakaera aztertzerakoan, aipatu beharreko lehen gauza da hobekuntza nabarmen eta orokorra atzeman dela 1986 eta 1996 bitartean, instalazioen kalitate-adierazleetan eta etxebizitzen biziegokitasun-baldintzetan. Hain nabarmena ez izanik ere, behar baino txikiagoak diren etxebizitzetan bizi den herritarren ehunekoak ere behera egin du: %44,1etik %32,5era.

Geroko bilakaerak indartu egin zuen, oro har, oso egoera larrien geldialdia, eta, hori dela eta, 2004tik 2008ra bitarteko lau urteetan aurrerapen nabarmenak egin ziren. Hala, gutxieneko biziegokitasun-baldintzak betetzen ez dituzten edo behar bezala betetzen ez dituzten etxebizitzen adierazleak 1996 eta 2004 bitartean %3aren eta %4aren artean mantendu ziren bitartean, handik aurrera behera egin zuen nabarmen, egungo %1,1eraino. Oro har, biziegokitasun-arazoak dituzten etxebizitzetan bizi diren pertsonen ehunekoa behera eginez joan da 1996 eta 2008 bitartean: %14koa izan zen 1996an eta 2000an, %10,9koa 2004an, eta %6,5ekoa 2008an. Behera egin du, halaber, bertan bizi direnek

28. TAULA

**Gabezia-adierazle espezifiko batzuen bilakaera (metatzea). Etxebizitzako instalazioak, biziegokitasun-baldintzak eta ekipamendua 1986-2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren lagunak (arazo horien eraginpean dauden pertsonen proportzioa ehunekotan)

| Gabezia-adierazleak | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Etxebizitzaren biziegokitasun-baldintza orokorrak** | | | | | |
| ***Euskadiko pobretasunari buruzko 25 urteko ikerketa*** | | | | | |
| Ur beroko instalaziorik gabe | 3,6 | 0,6 | 0,3 | 0,9 | 0,1 |
| Instalazio elektrikorik gabe | — | 0,0 | 0,0 | 0,2 | 0,0 |
| Bainu-ontzi edo dutxarik gabe | 4,7 | 0,4 | 0,3 | 0,9 | 0,4 |
| Komun-ontzi edo bainu-ontzi/dutxarik gabe | — | 0,4 | 0,3 | 0,9 | 0,4 |
| ***Biziegokitasun-baldintzak*** | | | | | |
| Hezetasun-arazoak dituzten etxebizitzak | 29,9 | 5,1 | 8,9 | 9,6 | 7,7 |
| 20 metro koadro baino gutxiagoko azalera pertsona bakoitzeko | 44,1 | 32,5 | 28,5 | 21,3 | 15,0 |
| Zaratak/kutsadura jasateko arriskua | — | 20,2 | 20,2 | 16,0 | 11,0 |
| Argiztatu gabe, argi nahikorik gabe | — | — | — | 8,8 | 5,7 |
| ***Adierazle sintetikoak*** | | | | | |
| Etxebizitzak ez ditu gutxieneko baldintzak betetzen edo ez behar bezala eta bi gabezia ditu instalazioetan | — | 3,4 | 3,9 | 2,9 | 1,1 |
| Etxebizitzak ez ditu behar bezala betetzen baldintzak eta gabezia bat du oinarrizko instalazioetan | — | 3,5 | 2,2 | 2,2 | 1,5 |
| Etxebizitzak gutxieneko baldintzak betetzen ditu baina bi gabezia edo gehiago ditu instalazioetan | — | 7,5 | 8,1 | 5,7 | 3,9 |
| Biziegokitasun-arazo nabarmenak dituzten etxebizitza guztiak | — | 14,4 | 14,2 | 10,9 | 6,5 |
| **Etxebizitzaren ekipamenduak** | | | | | |
| ***Adierazle espezifikoak (oinarrizko ekipamenduak)*** | | | | | |
| Hozkailua | 59,2 | 0,1 | 0,1 | 0,8 (0,8) | 0,1 (0,1) |
| Sukaldea | 5,8 | 0,1 | 0,1 | 0,0 (0,0) | 0,0 (0,0) |
| Arropa-garbigailua | 6,0 | 0,6 | 0,3 | 0,3 (0,2) | 0,1 (0,1) |
| Labea/mikrouhin-labea | — | 4,6 | 5,2 | 5,1 (2,1) | 1,8 (0,7) |
| Koloretako TB | 26,4 | 0,7 | 0,4 | 1,2 (0,8) | 0,4 (0,1) |
| ***Adierazle espezifikoak (haina oinarrizko ez diren ekipamenduak)*** | | | | | |
| Ontzi-garbigailua | 86,9 | 76,8 | 69,7 | 55,4 (11,5) | 47,6 (8,0) |
| Bideoa | — | 31,2 | 21,2 | 16,6 (4,3) | 14,1 (3,0) |
| HIFI/Musika-katea | 81,3 | 31,7 | 26,1 | 22,9 (7,1) | 25,0 (4,1) |
| Ordenagailua | — | — | — | 41,1 (9,7) | 33,1 (5,7) |
| ***Adierazle sintetikoak*** | | | | | |
| Bi gabezia edo gehiago oinarrizko instalazioetan | — | 0,4 | 0,2 | 0,9 | 0,1 |
| Gabezia bat oinarrizko instalazioetan | — | 2,2 | 1,7 | 2,1 | 1,1 |
| Hiru gabezia edo gehiago hain oinarrizkoak ez diren instalazioetan | — | 12,9 | 6,5 | 9,4 | 5,0 |
| Arazo nabarmenak dituzten etxebizitza guztiak | — | 15,4 | 8,4 | 12,4 | 6,2 |
| **Etxebizitza-arazoen adierazle sintetikoa** | | | | | |
| Oso larriak | — | 3,7 | 4,2 | 3,5 | 1,5 |
| Larriak | — | 16,1 | 12,5 | 14,7 | 9,5 |
| Ez hain larriak | — | 38,2 | 36,3 | 31,0 | 25,8 |
| Arazorik gabe | — | 42,0 | 47,0 | 50,9 | 63,3 |

*Oharra:* Arrazoi ekonomikoekin lotutako ekipamendu-gabeziei buruzko datuak eskaintzen dira (parentesi artean) 2000 eta 2008 urteetarako.

behar baino txikiagotzat jotzen dituzten etxebizitzen ehunekoa, 2008ko %15era iristeraino. Behera egin duen bezala, nabarmen, zarata eta kutsadura jasateko arriskua duten pertsonen ehunekoak: %20,2a 1996an eta 2000an, %16a 2004an, eta %11a 2008an. Hezetasun-arazoak dituzten etxebizitzetan bizi diren pertsonen kopuruak urte askoan gora egin bazuen ere, 2008an behera egiten hasi zen: %5,1 (1996), %8,9 (2000), %9,6 (2004), %7,7 (2008).

Ekipamenduei buruzko datuen bilakaera ere 1986 eta 1996 bitartean atzemandako aurrerapen kualitatiboagatik nabarmentzen da, behera egin baitzuten oinarrizko ekipamenduak eskuratzeko gabezia-adierazleek, nabarmen behera, gainera. Hozkailuaren[26] kasua alde batera utzirik, 1986 eta 1996 artean %26,4tik %0,7ra jaitsi zen koloretako TBrik gabeko etxeetako pertsonen ehunekoa. Sukaldeko etxetresna elektrikorik eta arropa-garbigailurik gabeko etxebizitzen ehunekoa, berriz, %6 ingurutik %0,5 ingurura jaitsi zen. Hain oinarrizkoak ez diren ekipamenduei dagokienez ere beherakada nabaria izan da: musika-katerik gabeko etxebizitzetan bizi diren pertsonen ehunekoak, adibidez, %81,3tik %31,7ra jaitsi zen aintzat hartuko denbora-tarte horretan.

1996-2004 bitarteko aldiko joerek hain oinarrizkoak ez diren ekipamenduekin lotuta dauden gabezia-mailen beherakada progresiboa erakutsi zuten. Honako hau da gabeziaren bat zuten etxebizitzetan bizi ziren pertsonen ehunekoen urte horietako bilakaera: ontzigarbigailurik ez zutenak %76,8tik %55,4ra jaitsi ziren, bideorik ez zutenak %31,2tik %16,6ra, eta musika-katerik ez zutenak %31,7tik %22,9ra. Oinarrizko alderdien adierazleei dagokienez, zifrek 1996an lortutako maila txikiak berretsi zituzten. Hala ere, deigarria izan zen 2000-2004 bitartean oinarrizko ekipamenduetan gabeziak zituzten herritarren ehunekoaren gorakada, txikia bada ere: %2tik %3ra igo baitzen gutxienez oinarrizko gabezia bat zuten etxebizitzen ehunekoa. Lau urte horietan zehar gora egin zuen, halaber, hain oinarrizkoak ez diren ekipamenduetan hiru gabezia edo gehiago zituzten etxebizitzen ehunekoa: %6,5etik %9,4ra, hain zuzen.

Azkeneko urte hauetan ere aurrerapen nabariak izan dira. Hala, 2004 eta 2008. urteen artean %0,9tik %0,1era jaitsi da oinarrizko ekipamenduetan bi gabezia edo gehiago dituzten etxebizitzetan bizi diren pertsonen ehunekoa, eta %2,1etik %1,1era, berriz, ekipamendu mota horiek eskuratzeko gabezia-arazoak dituztenena. Oinarrizko ekipamenduei buruzko gabezia-arazoak %1etik behera jaitsi dira kasu guztietan, eta hain oinarrizkoak ez diren ekipamenduei buruzkoak ere minimo historikoetara iristen dira.

---

[26] Kasu honetan, datuak ez dira konparagarriak, hertsi-hertsian. 1986an, datu-bilketak gero erlatibizatu egin zen kalitate-maila jakin batera egiten zion erreferentzia.

1996tik aurrera PGDIk etxebizitza-arazoei buruzko adierazle sintetiko bat eskaini zuen, eta horrek aukera eman zuen behar bezalako etxebizitza eskuratzearekin zerikusia duten gabezia-adierazle espezifikoak modu globalean aztertzeko. Gabezia-adierazleei dagokienez 1986an atzemandako hobekuntzaren ondoren, arazo oso larrien adierazlea %3,7ra jaitsi zen 1996an. Adierazle hori %4,3raino igo zen 2000an, %3,5era jaitsi 2004an, eta %1,5era 2008an. Azkeneko hori da, aztertutako aldian, adierazle honek erakutsitako mailarik txikiena.

Arazo larriak eta oso larriak elkarrekin kontuan harturik, adierazle bateratua %19,7tik %16,7ra jaitsi zen 1996 eta 2000. urteen artean, baina 2000. urtean gora egiten hasi zen berriro, 2004an %18,1era iristeraino. 2004 eta 2008 bitartean, ordea, egoerak hobera egin zuen nabarmen, eta adierazlea minimo historiko batera iritsi zen: %11. Eskalako beste muturrean, berriz, inolako etxebizitza-arazorik ez zuten etxeetako pertsonen ehunekoak gora egin zuen modu jarraikian. Ehuneko hori 1996ko %42tik 2004ko %50,9ra eta 2008ko %63,3ra igaro zen. Beraz, euskal herritarren biziegokitasun-baldintzen hobekuntza 2008an atzemandako egoeraren ezaugarri bereizgarria da.

## 2.2. **Pobretasunaren eta prekarietatearen adierazle orokorrak**

Lehen esan dugun bezala, PGDI metodoak lau posizio bereizten ditu pobretasun/ongizatearen eskalan, metatze-dimentsioaren barruan. Lehen posizioa muturreko prekarietate diferentzial batekin dago lotua, eta 14.3 95 pertsonei eragiten die egun; hau da, biztanleria osoaren %0,7ari. Hori da pobretasun-egoeran erortzeko arriskuan dagoen kolektiboa, zentzu hertsian hartuta.

Bigarren taldean prekarietate-egoerak hain deigarriak ez diren etxeak daude. Dena dela, etxe horien metatze-maila euskal etxeen batez bestekoa baino askoz txikiagoa da. Guztira, 216.769 pertsona daude egoera horretan. Hau da, biztanleria osoaren %10,1a.

Hirugarren taldean atzemandako prekarietate-zantzuak ez dira hain nabarmenak. Nahiz eta euskal etxe gehienetan dutena baino metatze-maila txikiagoa izan, edo, gutxienez, elementu problematiko bat edo beste izan metatze-dimentsioan, egoera ia ongizateko egoera da; EAEko biztanleriaren %20,3a dago egoera horretan. Ongizate-egoeraz bere zentzurik hertsienean gozatzen duten biztanleria (%69) gehituta, egoera horretan dagoen biztanle-kopuruak Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria osoaren %89,3a hartzen du.

29. TAULA

**Metatze-dimentsioko pobretasunean eta/edo ongizate-gabezian erortzeko arriskuaren adierazleak. 2008**

Etxeak eta familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (Datu absolutuak eta eragin-mailak ehunekotan)

| **Adierazleak** | **Etxeak** | **Eragina (%)** | **Biztanleria** | **Eragina (%)** |
|---|---|---|---|---|
| Pobrea | 4.126 | 0,5 | 14.395 | 0,7 |
| Batez bestekoa baino askoz txikiagoa | 67.749 | 8,5 | 216.769 | 10,1 |
| Nolabaiteko prekarietatea, ia ongizatea | 144.480 | 18,1 | 436.202 | 20,3 |
| Ongizate-egoeran | 581.018 | 72,9 | 1.484.419 | 69,0 |
| Guztira | 797.372 | 100 | 2.151.785 | 100 |

Metatze-dimentsioko pobretasunaren eta prekarietatearen datuen bilakaerak erabat berresten du 1986 eta 1996 bitartean izandako aldaketa, gabezia-adierazle batzuek eta besteek aurreratua. Aldaketa horrek bi ondorio nagusi izan zituen: batetik, pobretasun-egoeran erortzeko arriskuak behera egin zuen nabarmen, %5,6tik %1,8ra igaro baitzen denbora bitarte horretan; bestetik, batez bestekoa baino askoz txikiagoko metatze-mailek ezaugarritutako egoerek ere behera egin zuten. Pobreen kolektiboa barne hartuta, tasa %17,8tik %15,3ra jaitsi zen hamar urteko bitarte horretan. Pobretasunaren jarraipenari dagokionez bereziki, atzemandako aldaketa hori oinarrizkoa da. Metatze-dimentsioaren egoeran izandako hobekuntzak gabeziaren presentziaren pertzepzio sozialak behera egitea ekarri zuen ondorioz, are etxe eratu berrien kopuruaren goranzko joerak mantentze-pobretasunaren arrisku diferentzialen hazkunde objektiboa ekarri zuen testuinguru batean ere.

1986 eta 1996 bitartean abiatutako prozesuaren bigarren adierazpena —prekarietaterik handieneko errealitateek behera egitearekin eta ia ongizateko egoerak sortzearekin lotua— ongizate osoko egoeran zeuden etxeen hazkunde deigarria izan zen: 1986ko %45,2tik 1996ko %64,1era.

Aitzitik, hurrengo urteetako bilakaeraren ezaugarri nagusia, batez ere 1996 eta 2004 urte artekoa, adierazleen mailaren egonkortasuna izan zen. Hala, batez bestekoa baino askoz metatze-maila txikiagoa izateagatik bereizten ziren egoeren eraginak %15 ingurukoa izaten jarraitu zuen 1996 eta 2000. urteen artean. Pobretasun-egoeren kasuan, 1996 eta 2000. urteen artean tasek gora egin zuten pixka bat: %1,8tik %2,6ra, hain zuzen. Tasak, gero, behera egin zuen apur bat, 2004. urteko %2,2ra iristeraino.

2004 eta 2008. urteen arteko bilakaerak garrantzizko aurrerapenak ekarri zituen pobretasunaren eta prekarietatearen aurkako borrokan. Metatze-dimentsioari dagokionez, prekarietate-tasa %15,4tik %10,7ra jaitsi zen, eta pobretasunarena, berriz, %2,2tik %0,7ra. Hau da, 1986-2008 bitarteko aldiko mailarik txikienera jaitsi zen. Eskalaren goiko aldean, metatze-dimentsioan ongizate osoko egoeran zeuden etxeetako herritarren ehunekoak ere gora egin zuen 1996-2004 aldean: %64 ingurutik 2008ko %69ra.

30. TAULA

**Metatze-prekarietatea: pobretasunaren eta/edo ongizate-gabeziaren arrisku-adierazle orokorren bilakaera. 1986-2008.**

Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (Datu absolutuak eta eragin-mailak ehunekotan)

| **Metatze-pobretasuna** | **1986** | **1996** | **2000** | **2004** | **2008** |
|---|---|---|---|---|---|
| Pobrea | 5,6 | 1,8 | 2,6 | 2,2 | 0,7 |
| Batez bestekoa baino askoz txikiagoa | 12,2 | 13,5 | 12,5 | 13,2 | 10,1 |
| Nolabaiteko prekarietatea, ia ongizatea | 39,7 | 20,6 | 20,4 | 20,2 | 20,3 |
| Ongizate-egoeran | 42,5 | 64,1 | 64,5 | 64,4 | 69,0 |

3. GRAFIKOA

**Metatze-prekarietatea: pobretasunaren eta/edo ongizate-gabeziaren arriskuadierazle orokorren bilakaera. 1986-2008**

(Familia-etxebizitzetan bizi den biztanlerian duen eragina, ehunekotan adierazia)



## 3. POBRETASUN ERREALAREN ERAGINAREKIKO HURBILKETA

### 3.1. Pobretasun-errealitate desberdinen eragin bateratua

Aztertzen ari garen gabezi guztiak batera hartuta, datu hau baieztatzen da: EAEn 39.737 etxe daude aintzat hartutako arrisku-egoera horietako baten eraginpean (mantentze-dimentsioan edo metatze-dimentsioan). Horrek esan nahi du 100.250 pertsona bizi direla arazo horien eraginpean; biztanleria osoaren %4,7.

4. GRAFIKOA

**Mantentze-pobretasunaren eta metatze-pobretasunaren arrisku-egoerek Euskadiko Autonomia Erkidegoan duten eragina. 2008**

(Datuak ehunekoetan)




### 3.2. Pobretasun-arriskua eta prekarietate erreala

Orain arte aintzat hartutako mantentze-pobretasunaren eta metatze-pobretasunaren egoerek pobretasun-errealitate objektiboak eta potentzialak eratzen dituzte inolako zalantzarik gabe. Lehenago esan dugun bezala, ordea, kasu askotan arrisku-egoerak adierazten dituzte. Beraz, aintzat hartu beharra dago arrisku-egoera horiek benetako pobretasunaren arazo bihurtzen diren neurria. Bere garaian esan bezala, ondorio horietarako, txosten honetan benetako

pobretasunaren adierazle objektibo doitua erabiltzen da. Adierazle hori da hobekien egokitzen dena arrisku-egoera guztien baterako eraginaren epe luzerako azterketara[27].

2008. urtean, benetako pobretasunak euskal herritarren %3,2ari eragiten dio. Pobretasunaren bi dimentsioetako baten eragin bateratua baino txikiagoa da (%4,7), beraz, eragin hori. Benetako pobretasunaren tasa, beraz, beren burua pobretzat edo oso pobretzat jotzen duten etxeetako pertsonen ehunekoa (%2,1) baino handiagoa da egun, baina beren burua gutxienez pobretzat jotzen duten etxeena (%6,5) baino askoz txikiagoa.

Pobretasun/ongizatearen eskalako posizioak modu zabalagoan harturik, posible da ere mantentze-dimentsioaren eta metatze-dimentsioaren ikuspuntu bateratutik ongizateko errealitate bat osotara indartu ez den harako egoera haietara hurbiltzea. Kasu horietan ez da ongizate osoko egoerarik sortzen, mantentze-dimentsioko ongizate errealitate gisa edo metatze-dimentsioko ongizate edo ia ongizate-errealitate gisa ulertua, baina ezta benetako pobretasun errealitaterik ere[28].

Hori kontuan izanik, benetako pobretasunaren eraginpean bizi diren pertsonen (%32) beste muturrean, biztanleriaren %78,9 hemen zehaztu den ongizate osoarekin pareka daitekeen egoeran dago ia. Tarteko posizio batean, biztanleriaren %17,9, pobretasuna benetan bizi gabea artean, euskal gizartean espero izatekoak diren ongizate-mailekiko urruntasun gehiago edo gutxiagoko posizioan aurkitzen da.

---

[27] Adierazle zuzenduak abantaila bat du, txosten honen atal metodologikoan adierazten den bezala: alegia, aukera ematen duela sailkapen objektiboaren eta arazoak zuzenean eragiten dion biztanleriak egoeraz duen pertzepzioaren arteko lotura aintzat hartzera behartzen duten egoera berezi batzuetara egokitzeko.

[28] Hemendik aurrera, kolektitbo hori aipatzean, prekarietate-egoeran dagoen biztanleria-talde gisa aipatuko da, hau da, ongizate osoko egoera lortu ezin duen biztanleria-talde gisa. Esan beharra dago, hala ere, oso kolektibo heterogeneoa dela: pertsona batzuk pobretasun errealitateetatik gertu daude eta beste batzuk, berriz, ongizate osoko egoeretatik gertu.

Puntu honetan, esan beharra dago, PGDIk sakon aztertu dituela pobretasun-egoeraren eraginpean bizi den biztanleriaren ezaugarri errealak, baina ez diola hainbeste arreta eskaini ongizate osoko eta ongizate-gabeziako egoeren arteko muga erreala zer puntutan dagoen zehazteari. Europan, metatze-pobretasunaren azterketari buruzko hurbilketa estatistiko egokia egiteko erreferentziarik ia batere ez egoteak dituen mugei zor zaio hori neurri handi batean.

Ongizate osoko egoerara iristen ez den kolektiboari buruzko datuak testuinguru horretan baloratu behar dira, Europan gutxi ezagutu eta aztertu den errealiteate batekiko hurbiltasun-adierazleak islatuz.

31. TAULA

**Benetako pobretasunaren, ongizate-gabeziaren eta ongizatearen adierazleak 2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (Datu absolutuak eta eragin-mailak ehunekotan)

| Adierazleak | % |
|---|---|
| Benetako pobretasuna | 3,2 |
| Ez benetako pobretasuna, ez ongizate osoa | 17,9 |
| Ez benetako pobretasuna, ez ongizate osoa | 21,1 |
| Ongizate osoa | 78,9 |
| Guztira | 100 |

5. GRAFIKOA

**Pobretasunaren benetako eragina Euskadiko Autonomia Erkidegoan. Adierazle orokorra, adierazle zuzenduak eta etxeen auto-pertzepzioa 2008**

Etxeak eta familia-etxebizitzetan bizi diren lagunak (datuak ehunekotan)




Adierazle orokorra: metatze-pobretasunean edo mantentze-pobretasunean erortzeko arriskuan dauden etxeak.

Adierazle zuzendua: metatze-pobretasunaren eraginpean edo, mantentze-pobretasunaren eraginpean izaki, metatze-dimentsioaren ongizateko edo ia ongizateko egoera batengatiko konpentsaziorik ez duten etxeen ehunekoa, pertzepzio subjektiboen arabera doitua.

Pobretasunaren pertzepzioa (–): beren burua pobretzat edo oso pobretzat jotzen duten etxeen ehunekoa.

Pobretasunaren pertzepzioa (+): beren burua gutxienez pobretzat jotzen duten etxeen ehunekoa.

Benetako pobretasunaren bilakaerari buruzko daturik garrantzitsuena, eta, beraz, txosten honetan aurkeztutako bilakaeraren datu multzoari buruzkoa, hau da: benetako pobretasunaren eraginak behera egin du etengabe 1986tik aurrera, hala termino doituetan nola ez doituetan. Mantentze-pobretasunean erortzeko arriskuaren gorakada nabarmena gorabehera, pobretasunaren aurkako borrokan bada une erabakigarri bat, 1986-1996 bitarteko aldia, zeinean tasa doitua %8,3tik %5,8era jaitsi baitzen. Joerak bere horretan jarraitu zuen 1996 eta 2000 bitartean, eta tasa %5,8tik %4,4ra murriztu zen. 2000-2004 bitarteko lau urteetako bilakaera ere ona izan zen arren, gainbeheraren erritmoa nabarmen geldotu zen, %4,2ko maila iristeraino. Handik aurrera, ordea, erritmo hori areagotu egin zen, eta 2008an bere minimo historikora iritsi zen: %3,2.

Benetako pobretasunaren tasaren murrizteprozesuaren azpi an dauden faktoreak aintzat hartzean, garbi ikusten dugu 1986-1996 bitarteko hobekuntza nabarmenak zerikusi handi a izan zuela metatze-pobretasunaren adierazlearen beherakadarekin, %5,6tik %1,8ra jaitsi baitzen, mantentze-pobretasunean erortzeko arriskuak gora egin zuen garai batean, %5,7tik %9,3ra, hain zuzen. 1996 eta 2000 bitartean, berriz, mantentze-pobretasunean erortzeko arrisku-maila murriztu izanak —%9,3tik %6,3ra igaro zen tasa— eragin zuen zifrak erortzen jarraitzea, metatze-dimentsioaren pobretasun-tasa %1,8tik %2,6ra igo zelarik.

2000 eta 2004 bitartean, pobretasun-egoera desberdinen eraginak oso beherakada arina izan zuen; horrek esan nahi du benetako pobretasunaren tasa egonkortu egin zela ia. 2004 eta 2008 bitartean, bi arrazoiri zor izan zitzaion benetako pobretasunaren zifrek berriro behera egin izana: batetik, mantentze-pobretasunean erortzeko arrisku-tasen beherakadaren susperraldiari —%6,1tik %4,1era, termino doituetan—; eta, bestetik, metatzepobretasunaren tasaren beherakada nabarmenari. 1996 eta 2004 bitartean %2aren eta %2,5aren artean iraun ondoren, 2008an %1tik behera jaitsi zen lehen aldiz, %0,7ko mailaraino.

Ongizate osoko errealitate batera iristeko ezintasunagatik ezaugarritutako egoeren multzoari dagokionez, datu doituek garbi uzten dute zifrek beherakada nabarmena egin zutela, 1986ko %48,9tik egungo %21,1eraino. Kasu horretan, beherakadaren zatirik handiena bi aldiri dagokio. 1986rako hasia zen joera indartuz bada ere, prekarietatearen tasa doituak nabarmen behera egin zuen lehen aldia 1996-2000 bitarteko lau urteak izan ziren, zifrak %41,2tik %33,1era jaitsi baitziren. 200-2004 bitarteko aldiaren bilakaerak, ordea, aurreko joera hori hautsi zuen, eta adierazleak %32,7an eutsi zion. 2004 eta 2008 bitartean, egoerak beherako bideari hartu zion berriro. Prekarietate-tasak inoizko beherakadarik handiena egin zuen orduan: %32,7tik %21,1era, hain zuzen.

32. TAULA

**Benetako pobretasunaren tasen bilakaera. Datu errealak eta doituak. 1986-2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (Datu absolutuak eta eragin-mailak ehunekotan)

| | **1986** | **1996** | **2000** | **2004** | **2008** |
|---|---|---|---|---|---|
| **Adierazlea** | | | | | |
| Adierazle orokorra | 7,8 | 3,7 | 3,4 | 3,5 | 3,2 |
| Adierazle doitua: 2008ko atalaseak | 8,3 | 5,8 | 4,4 | 4,2 | 3,2 |
| **Adierazle elkartuak** | | | | | |
| Metatze-pobretasuna | 5,6 | 1,8 | 2,6 | 2,2 | 0,7 |
| Mantentze-pobretasuna (adierazle doitua) | 5,7 | 9,3 | 6,3 | 6,1 | 4,1 |

33. TAULA

**Benetako pobretasunaren, ongizate-gabeziaren eta ongizatearen adierazleak. 1986-2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (Datu absolutuak eta eragin-mailak ehunekotan)

| **Adierazleak** | **1986** | **1996** | **2000** | **2004** | **2008** |
|---|---|---|---|---|---|
| Benetako pobretasuna | 8,3 | 5,8 | 4,4 | 4,2 | 3,2 |
| Ez benetako pobretasuna, ez ongizate osoa | 40,6 | 35,4 | 28,7 | 28,4 | 17,9 |
| Ez ongizate osoa | 48,9 | 41,2 | 33,1 | 32,7 | 21,1 |
| Ongizate osoa | 51,1 | 58,8 | 66,9 | 67,3 | 78,9 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

EAEko biztanleriak azkeneko hogeita bost urteotan ongizate-gizarte bateranzko bidean nabarmen aurrera egin duela begien bistakoa da. Ongizate osoko egoeran bizi diren pertsonak biztanleria osoaren %51,1a ziren 1986an, %58,8a 1996an, %67a inguru 2000an eta 2004an, eta %78,9a 2008an.

Pertzepzio subjektiboko datuen bilakaerak adierazle objektiboek erakutsitako joerak baieztatzen ditu, oro har. Bi gertaera garrantzitsu nabarmentzen dira. Batetik, hautemandako pobretasunaren terminoetan ikusten denez, eten nagusia 1986-1996 aldian gertatu zen. Hala, beren burua pobretzat edo oso pobretzat ikusten duten pertsonen ehunekoa %17,6tik %2,1ra igaro zen hamarraldi horren barruan. Nahiz eta handik aurrera zifrek aurrena gora, 2004. urtean %3,2an kokatzeraino, eta gero behera egin arren, 2008ko %2,1eraino, kontua da adierazlea %2aren eta %3aren artean mantendu zela 1996 eta

6. GRAFIKOA

**Benetako pobretasunaren, ongizate-gabeziaren eta ongizatearen adierazleak (1986-2008)**

Familia-etxebizitzetan bizi diren lagunak (eragin-mailak ehunekotan)




2008 bitartean. 1986 eta 1996 bitarteko pobretasun-adierazleen hobekuntza metatze-dimentsioarekin lotzean, gauza bat nabarmendu beharra dago: alegia, etxeentzat beharrezkoak diren kontsumo-ondasun iraunkor batzuk lortzeko erraztasun handiagoak izateak pobretasunaren aurkako borrokan izan zuen garrantzia, Europako merkatu komunerako sarbidea izandako lehen uneetan.

Nabarmendu beharreko beste elementu ba da hautemandako pobretasun-adierazleak, etxe pobre edo oso pobreetako herritarrei buruzkoak gutxienez, benetako pobretasunaren adierazle objektiboak baino txikiagoak direla 1996tik aurrera, nahiz eta bi adierazleek nolabaiteko konbergentzia izan 2004an.

34. TAULA

**Benetako pobretasunaren adierazleak. Pertzepzio subjektiboa. 1986-2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (Datu absolutuak eta eragin-mailak ehunekotan)

| **Adierazle orokorrak** | **1986** | **1996** | **2000** | **2004** | **2008** |
|---|---|---|---|---|---|
| Pobreak edo oso pobreak | 17,6 | 2,1 | 2,2 | 3,2 | 2,1 |
| Nahiko pobreak gutxienez. | (72,8) | 7,8 | 6,5 | 7,6 | 6,5 |

*Oharra:* Nahiko pobreak gutxienez kolektiborako 1986ko zifra ez da konparagarria era hertsian.

# II. atala.

# Pobretasunaren eta prekarietatearen arriskua eta banaketa

Kapitulu honetan, pobretasunaren eta ongizate-egoeretara iristea eragozten duten beste prekarietate-mota batzuen eraginpean dauden biztanleen ezaugarrietan atzemandako aldaketa historikoak aztertzen dira. Helburu horretarako, pobretasun eta prekarietate mota desberdinek izandako eraginaren eta banaketaren bilakaeraren azterketa egingo da, 2008ko demografia-egiturara eta beharretara doitutako PGDI datuak erabiliz. Bigarren eranskinean zehazten da nolako prozedura aplikatu den doikuntza hori egiteko.

Arrisku taldeei buruzko azterketa pobretasun eta prekarietate tasetan oinarritzen da. Txosten honek eduki batez ere jendarteratzailea duela kontuan izanik, ez da gure asmoa alderdi konplexuetan sakontzea, hala nola FGT (2) edo Hagennaars bezalako epe ertain eta luzeko estatistika-datuen azterketarekin zerikusia dutenetan.

Nahiz eta mantentze- eta metatze-pobretasunean erortzeko arrisku-tasak ere kontuan hartuak izan, azterlanaren elementu zentrala benetako pobretasunaren tasen eta benetako prekarietate-tasen azterka da. Adierazle horiek aztertzean gogoan izan behar dira txostenaren aurreko kapituluetan egindako zehaztapenak. Hori bereziki garrantzitsua da prekarietate-adierazleari dagokionez. Adierazle horrek errealitate sozial ezberdinei egiten die erreferentzia, eta geroagoko garapena eta zehaztapena beharko ditu, pobretasunaren eta metatze-prekarietatearen azterketari ekingo dioten metodoak Europan behin indartu ondoren.

Horiek dira kapitulu honetan aztertuko diren gaiak, etxeen eta haien osagarrien aldagai demografiko nagusiak kontuan harturik. Ondorio horretarako, bi bloke tematiko nagusiren inguruan antolatuko da kapitulua. Lehen blokea alderdi demografikoetan zentratuko da, eta etxeko pertsona nagusiaren ezaugarri pertsonalen arabera aztertuko dira alderdi horiek. Aldagai hauek hartuko dira kontuan: familia-taldearen mota, etxean adingabeak egotea edo ez egotea, eta etxeko pertsona nagusiaren ezaugarri espezifiko batzuk, hala nola sexua, adina edo herritartasuna.

Bigarren blokean, berriz, lanbidearekin zerikusia duten alderdiak aztertuko dira. Baita hezkuntzarekin zerikusia dutenak ere, hala nola pertsona nagusiaren ikasketa-maila, edota jarduerarekin duen harremana. Etxeko pertsona nagusiaren lanbide-egoeraz gainera, biz-

tanleria landunaren ezaugarriei buruzko alderdiak ere hartuko dira kontuan. Jardueraren eta etxeko beste kide guztien lanbidearen aurrean hartutako posizioarekiko hurbilketa bat ere egingo da.

Bi bloke horien osagarri, hurbilketa tipologiko bat egingo da, etxeen demografia- eta lanbideezaugarri nagusiak sintetizatzeko asmoz, haien arrisku-maila eta pobretasun-eta prekarietate-arazoen banaketan duten parte hartzea kontrastatzeko.

Azkenean, benetako pobretasunaren eta prekarietatearen eragina aztertuko da, Lurralde Historikoaren ikuspuntutik ez ezik EAEko eskualde desberdinenetik ere begiratuta.

## 1. ALDERDI DEMOGRAFIKOAK

### 1.1. Familia-taldearen mota

#### 1.1.1. Pobretasun- eta prekarietate-arazoen eragina

Familia-taldea zer motatakoa den, bi arriskutalde nagusi bereizten dira EAEn. Lehenak etxeko ezein familia-taldetan sartzen ez diren pertsonei egiten dio erreferentzia. Kolektibo hori pobretasun-tasa eta prekarietate-tasa handiengatik nabarmendu da tradizionalki. 2008an, pertsona horien %38,4k ez zuen oraindik ongizate osoko mailetara iristerik izan. Benetako pobretasunaren tasa (%4,2), baina, ez da gehiegi urruntzen batez besteko mailetatik, eta 2004. urtean iritsitako harako %8,8 hura baino askoz txikiagoa da dagoeneko.

Bigarren arrisku-maila gurasobakarreko familietan bizi diren pertsonek osatzen dutena da. Nahiz eta prekarietate—tasa etxean familia-talderik ez duten pertsonei dagokiena baino txikiagoa izan (%34,4), kolektibo horren benetako pobretasunaren tasa oso handia da oraindik ere, eta %10eko mailatik gora dago oraindik ere (%10,1). Lagun bakarreko etxeetan bezala, gurasobakarreko familietako pertsonek ere parte hartu zuten, hala ere, tasen beherakadaren prozesuan, 2004-2008 bitarteko lau urteetan zehar, %16,4tik %10,era jaitsi baitziren, adibidez, benetako pobretasunaren mailak. Aintzat harturiko bi talde horietan, prozesu horrek hautsi egin zuen 2004. urtea arte markatutako ibilbidea, pobretasun-tasa eta prekarietate-tasa handikoa, zeina epe luzean erlatiboki egonkorra izatez gainera, goranzko joera nabaria erakutsi baitzuen aldi jakin batzuetan.

Benetako pobretasunaren tasen duela gutxiko beherakada faktore berberekin lotua dago talde bietan, metatze-arazoen murrizketa nabarmenarekin batez ere. Familia gurasobakarren kasuan, 1986 eta 2004 bitartean etengabe handitzen joan ondoren (%3,2 1996an, %4,8 2000an, eta %10,4 2004an), 2008. urtean, bat-batean, behera egin zuen nabarmen, eta ordu arteko tasarik txikienera iritsi zen: %2,6. Familia-talde batean ez dauden pertsonen kasuan, 1996-2004 bitarteko %2- 3ko tasa %0,6ko tasa bihurtu zen 2008an.

Mantentze-pobretasunaren mailetan duela gutxi atzemandako beherakadak handiak badira ere, dimentsio horretako arrisku-tasek marka uzten jarraitzen dute 2008an, azterketan aintzat hartutako pertsonen artean: tasa hori %7,9koa da familia-talderik ez dagoen kasuan, eta %11,9koa familia gurasobakarrekin lotuta dauden pertsonen kasuan.

35. TAULA

**Pobretasun-egoeren eta prekarietate-egoeren eraginaren bilakaera, familia-talde motaren arabera. 1996-2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (ehunekotan)

| Talde-mota | Mantentze-pobretasuna | | | | Metatze-pobretasuna | | | | Benetako pobretasuna | | | | Ez ongizate osoa | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 |
| Talderik ez | 10,8 | 16,7 | 15,5 | 7,9 | 2,3 | 2,8 | 2,1 | 0,6 | 7,2 | 7,0 | 8,8 | 4,2 | 52,2 | 53,8 | 49,5 | 38,4 |
| Bikotea/seme-alabarik ez | 8,7 | 6,1 | 5,1 | 3,3 | 1,5 | 1,7 | 1,1 | 0,3 | 2,9 | 2,9 | 2,4 | 1,5 | 41,4 | 27,2 | 28,7 | 19,3 |
| Bikotea/seme-alabak bai | 7,8 | 4,6 | 3,9 | 2,8 | 1,7 | 2,5 | 1,3 | 0,5 | 5,4 | 3,8 | 2,4 | 2,6 | 39,5 | 31,6 | 29,1 | 17,4 |
| Gurasobakarra | 23,1 | 10,0 | 15,0 | 11,9 | 3,2 | 4,8 | 10,4 | 2,6 | 13,0 | 7,6 | 16,4 | 10,1 | 47,9 | 35,9 | 50,4 | 34,3 |
| Bestelakoa | ND | 14,9 | 3,0 | 4,4 | ND | 0,0 | 1,0 | 0,0 | ND | 9,3 | 2,5 | 4,4 | ND | 35,9 | 26,7 | 24,3 |
| Guztira | 9,3 | 6,3 | 6,1 | 4,1 | 1,8 | 2,6 | 2,2 | 0,7 | 5,8 | 4,4 | 4,2 | 3,2 | 41,2 | 33,1 | 32,7 | 21,1 |

Aintzat hartutako bi arrisku-taldeen aurrean, arazoen eraginak behera egiten du nabarmen bikote baten edo senar-emazte batzuen men-dean bizi diren pertsonen kasuan, familia horretan seme-alabarik izan edo ez. Prekarietate-tasak, kasu horietan, %17aren eta %19aren artean daude, eta benetako pobretasunaren zifrak, berriz, %1,5aren eta %2,5aren artean. Epe luzerako joerek erakusten dutenez, kolektibo horien artean, oro har, pobretasun-tasak eta prekarietate-tasak behera egiten ari dira nabarmen.

### 1.1.2. Pobretasun-arazoen eta prekarietate-arazoen banaketa

EAEko biztanleriaren %17,2a bakarrik osatu arren, familia-talde jakin batean sartzen ez diren edo familia gurasobakarretan bizi diren pertsonek biltzen dute pobretasun-mota desberdinekin zerikusia duten egoeren %40a inguru. Bi familia-talde horiek gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira pobretasun-arazoen banaketan. Benetako pobretasunari egiten dioten ekarpena handituz joan da etengabe: %25a 1996an, %27,5a 2000an, eta %38,4a 2008an. Hala ere, talde horiek garrantzia galtzen ari dira azken urteotan, kolektibo pobreen artean. Benetako pobretasunari egindako ekarpena %53,1ekoa izatera iritsi zen 2004an.

Guraso bakarreko familietako eta familiaoinarririk gabeko taldeetako benetako pobretasunaren beherakada nabariagatik markatutako testuinguru batean, 2004 eta 2008 bitartean seme-alabak dituzten bikoteen artean benetako pobretasunaren tasa egonkortu izanak benetako pobretasun egoeren buruan kokatu ditu berriro familia-mota horiek: %51,9 2008an, nahiz eta 1996an eta 2000an zifra horiek %60tik gorakoak izan. 1996ko %70,4tik etengabe behera eginez joan bada ere, prekarietate-arazoak dituzten pertsona gehienak seme-alabak dituzten bikoteak dira: %52,9, 2008an.

36. TAULA

**Pobretasun-egoeren eta prekarietate-egoeren banaketaren bilakaera, familia-motaren arabera. 1996-2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (Ehuneko bertikalak)

| Talde-mota | Mantentze-pobretasuna | | | | Metatze-pobretasuna | | | | Benetako pobretasuna | | | | Ez ongizate osoa | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 |
| Ez taldea | 6,7 | 18,9 | 19,9 | 17,0 | 7,3 | 7,7 | 7,2 | 8,3 | 7,2 | 11,4 | 16,3 | 11,7 | 7,4 | 11,6 | 11,9 | 16,0 |
| Bikotea/seme-alabarik ez | 11,7 | 12,7 | 13,7 | 14,1 | 10,2 | 8,7 | 8,0 | 7,1 | 6,3 | 8,7 | 9,1 | 8,1 | 12,7 | 10,8 | 14,2 | 16,0 |
| Bikotea/seme-alabak bai | 61,2 | 49,8 | 42,0 | 43,5 | 68,1 | 65,9 | 39,4 | 51,6 | 68,0 | 60,3 | 36,8 | 51,9 | 70,4 | 65,7 | 57,9 | 52,9 |
| Gurasobakarra | 20,4 | 15,0 | 23,5 | 24,1 | 14,4 | 17,7 | 44,6 | 33,0 | 18,4 | 16,4 | 36,8 | 26,7 | 9,5 | 10,3 | 14,7 | 13,6 |
| Bestelakoa | ND | 3,6 | 0,8 | 1,3 | ND | 0,0 | 0,8 | 0,0 | ND | 3,3 | 1,0 | 1,7 | ND | 1,7 | 1,3 | 1,4 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

Bai pobretasun-egoeretan bai prekarietate-egoeretan, seme-alabak dituzten familiak nagusi izatea da eman dezakegun daturik esanguratsuena. Hala, seme-alabak dituzten biko-

teek eta familia gurasobakarrek biltzen dituzte benetako pobretasun kasuen %78,6, eta ongizate-gabezia edo prekarietate kasuen %66,5.

## 1.2. **Adingabeen presentzia**

### 1.2.1. Pobretasun-arazoen eta prekarietate-arazoen eragina

Familia gurasobakarren pobretasun-arrisku diferentzial handiagoa dela eta, baina baita, batzuetan, seme-alabak dituzten bikoteetan arazoak duen eragin erlatibo handiagoaren ondorioz ere (benetako pobretasuna %2,6koa da kasu horretan, baina %1,5ekoa baino ez, seme-alabarik ez dituzten bikoteetan), 2008ko datuek pobretasun eta prekarietate-arazoen eragin handiagoa erakusten jarraitzen dute 14 urtetik beherakoak bizi diren etxeetan. Hala, adingabeko seme-alabarik ez duten etxeetan bizi diren pertsonen artean zifra horiek %17,6koak diren bitartean, prekarietate-arazoen eragina %27,6ra igotzen da 14 urtetik beherako seme bat edo gehiago dituzten etxeetan. Benetako pobretasunaren tasa ere askoz handiagoa da adingabeko semealaba bat edo bat baino gehiago dituzten etxeetan (%5,7), adingabeko seme-alabarik ez dutenetan baino (%1,8).

2008ko datuek, baina, hobekuntza nabaria erakusten dute, 2004. urtea arte ikusitakoren aldean. Gauzak horrela, seme-alabak dituzten etxeetan bizi den biztanleriaren prekarietate-tasak %40-45aren inguruan iraun zuen 2004. urtea arte, eta benetako pobretasunarenak %7-8aren inguruan, adingabeko seme-alabarik gabeko etxeetako tasen beheranzko joera nabaria zen bitartean 2004 eta 2008 bitartean, berriz, beherakada nabaria izan da adingabeak dituzten etxeetan: prekarietate-tasa %41,4tik %27,6ra jaitsi da, eta benetako pobretasunarena %7,1etik %5,7ra.

Pertsona adingabeak dauden etxeetan bizi diren pertsonen benetako pobretasunaren beherakada ez da nahikoa, ordea. Are gehiago, adingabekoak ez dituzten etxeetan bizi diren pertsonena baino erlatiboki txikixeagoa da: azken horietan %3tik %1,8ra jaitsi da azkeneko lau urteetan. Zirkunstantzia hori ezin zaio egotzi metatze-pobretasunaren bilakaerari. Izan ere, adierazle horrek %1,3ko tasa eman du, 2000 eta 2004. urteetan %4,5 ingurura jasoarazi zuen gorakadaren ondoren. 1996ko %12,6ko mailatik izandako bilakaera positiboa alde batera utzirik, mantentze-pobretasunaren zifra erlatiboki altuetan (%6koak 2008an) bilatu beharko litzateke 14 urtetik beherakoak dauden etxeetan bizi diren pertsonen benetako pobretasun diferentzialaren sorburua.

37. TAULA

**Pobretasun-egoeren eta prekarietate-egoeren eraginaren bilakaera, etxean dauden 14. urtetik beherakoen kopuruaren arabera. 1996-2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (ehunekotan)

| 14 urtetik beherakoen kopurua | Mantentze-pobretasuna | | | | Metatze-pobretasuna | | | | Benetako pobretasuna | | | | Ez ongizate osoa | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 |
| Bat ere ez | 7,8 | 5,4 | 5,1 | 3,1 | 1,4 | 1,8 | 1,3 | 0,3 | 4,6 | 3,1 | 3,0 | 1,8 | 39,4 | 30,2 | 29,0 | 17,6 |
| Bat edo gehiago | 12,6 | 8,5 | 8,4 | 6,0 | 2,8 | 4,5 | 4,4 | 1,3 | 8,3 | 7,5 | 7,1 | 5,7 | 44,9 | 40,3 | 41,4 | 27,6 |
| Guztira | 9,3 | 6,3 | 6,1 | 4,1 | 1,8 | 2,6 | 2,2 | 0,7 | 5,8 | 4,4 | 4,2 | 3,2 | 41,2 | 33,1 | 32,7 | 21,1 |

7. GRAFIKOA

**Benetako pobretasun egoeren eraginaren bilakaera, etxean dauden 14 urtetik beherakoen kopuruaren arabera. 1996-2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren lagunak (eragin-mailak ehunekotan)




1.2.2. Pobretasun-arazoen eta prekarietate-arazoen banaketa

Orain arte azaldutakoaren kaltetan izan gabe, EAEko oraintsuko demografia-egituran adingabeko seme-alabarik ez dituzten familien nagusitasuna ikusita, pobretasun-egoeran eta prekarietate-egoeran dauden pertsona gehiengehienak adingabeko seme-alabarik ez dagoen etxeetan bizi izan dira tradizionalki.

Hala ere, prekarietate diferentzial batek markatuta dagoen testuinguru batean, eta zeinean seme-alabak dituzten etxeen garrantziak gorantz egin baitu azkeneko urteetan, etxe horietan bizi diren pertsonen garrantziak gora egin du etengabe pobretasun-arazoen eta prekarietate-arazoen eraginpean bizi diren taldeen barruan. Azken kasu horretan, ongizategabeziaren egoeran daudenen ehunekoa 1996 eta 2008 bitartetan %34,7tik %37,8ra igo ondoren, proportzio hori %45,5eraino igo zen 2008an.

Hala ere, benetako pobretasuna egoeren kasuan da inon baino deigarriagoa goranzko joera hori. 1996an %45,8 inguruan zeuden mailetatik abiatuta, 14 urtetik beherakoak zeuden etxeetan bizi ziren pertsonen ekarpenak gehiengoa lortu zuen 2004. urtean, eta bere goren mailara iritsi zen 2008an: %63,2.

38. TAULA

**Pobretasun-egoeren eta prekarietate-egoeren banaketaren bilakaera, etxean dauden 14. urtetik beherakoen kopuruaren arabera. 1996-2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (ehunekotan)

| 14 urtetik beherako adingabeen kopurua | Mantentze-pobretasuna | | | | Metatze-pobretasuna | | | | Benetako pobretasuna | | | | Ez ongizate osoa | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 |
| Bat ere ez | 56,8 | 61,5 | 58,9 | 49,5 | 52,4 | 50,5 | 40,2 | 30,5 | 54,2 | 51,0 | 49,8 | 36,8 | 65,3 | 65,4 | 62,2 | 54,5 |
| Bat edo gehiago | 43,2 | 38,5 | 41,1 | 50,5 | 47,6 | 49,5 | 59,8 | 69,5 | 45,8 | 49,0 | 50,2 | 63,2 | 34,7 | 34,6 | 37,8 | 45,5 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

Bilakaera hori bereziki deigarria da metatzepobretasuneko arazoei dagokionez, horietako gehienak seme-alabak dituzten etxeetan biltzen baitira, %50 baino txikiagoko zifrekin 2000. urtea arte, baina zeinak %59,8ra iris-ten baitira 2004an, eta %69,5era 2008an. Mantentze-pobretasuneko egoeretan dauden seme-alabak dituzten etxeen parte hartzeak ere goranzko joera erakusten du, hala eta guztiz ere, eta 2008an %50 maila gainditu du lehenengoz.

### 1.2.3. Haur-pobretasuna

Pobretasuna eta prekarietateak 14 urtetik beherakoak dauden etxeetan eragin handiagoa izateak adin horretatik behera daudenen multzoan arrisku-egoera handiagoa

izatea dakar. Ongizatera iristeko zailtasunak zituzten hamalau urteko edo gehiagoko pertsonak biztanleriaren %20,1a baziren, 2008an ehuneko hori %27,5era igo zen 14 urtetik beherakoen artean. Ildo horretan, 14 urtetik beherakoen benetako pobretasunaren tasa gainerako biztanleriari dagokiona halako bi da ia-ia: %5,4a, batzuentzat, eta %2,8a, besteentzat.

Epe luzera begira joera beheranzkoa bada ere, diferentzialik handiena mantentze-pobretasunari dagokio: %6,1ekoa haurren artean, eta %3,8koa hamalau urtetik gorakoen artean. Aldea askoz txikiagoa da, ordea, metatzepobretasunari dagokionez: %1ekoa eta %0,6koa, hurrenez hurren. Azken urteetan atzemandako prozesu positiboenetako batek zerikusia du, hain zuzen, metatze-pobretasunak haurren artean egindako beherakadarekin. 1996 eta 2004 bitartean %2,8tik %4,9ra etengabe handitu ondoren, tasa hori %1era murriztu zen 2008. urtean.

2004 eta 2008 bitartean atzemandako joeraaldaketa berdin atzeman zen prekarietatezifretan ere. 1996 eta 2004 bitartean %40 inguruan eutsi ondoren, tasa hori %41,5etik %27,5era jaitsi zen erreferentziako lau urte horietan, hamalau urtetik gorako biztanleen artean erregistratutakoa baino intentsitate askoz handiagoarekin. Azken kasu horretan, baina, 2004 eta 2008 bitartean erregistratutako beherakada, %31,5etik %20,1era, 1996ko %40,8tik hasitakoaren jarraipena baino ez zen.

Azken joerek garbi erakusten dutenez, 2004 eta 2008 bitartean haurrek indarrez heldu diote EAEko gainerako biztanleek urte batzuk lehenagotik hasitako bilakaera positiboari.

39. TAULA

**Pobretasun-egoeren eta prekarietate-egoeren eraginaren bilakaera, etxean dauden 14. urtetik beherakoen artean. 1996-2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (ehunekotan)

| **Egoera** | **14 urtetik beherakoak** | | | | **14 urtetik gorakoak** | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **1996** | **2000** | **2004** | **2008** | **1996** | **2000** | **2004** | **2008** |
| Mantentze-pobretasuna | 14,2 | 9,1 | 8,9 | 6,1 | 8,7 | 6,0 | 5,7 | 3,8 |
| Metatze-pobretasuna | 2,8 | 4,6 | 4,9 | 1,0 | 1,7 | 2,3 | 1,9 | 0,6 |
| Benetako pobretasuna | 9,1 | 7,6 | 8,0 | 5,4 | 5,4 | 4,0 | 3,8 | 2,8 |
| Ez ongizate osoa | 43,9 | 39,6 | 41,5 | 27,5 | 40,8 | 32,4 | 31,5 | 20,1 |

8. GRAFIKOA

**Haur-pobretasuna: benetako pobretasunaren tasen bilakaera hamalau urtetik beherako eta gorako biztanleen artean. 1996-2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren lagunak (eragin-mailak ehunekotan)




## 1.3. **Pertsona nagusiaren sexua**

### 1.3.1. Pobretasun-arazoen eta prekarietate-arazoen eragina

Emakume bat buru duten etxeetako pobretasun-egoeren eta prekarietate-egoeren eragin diferentziala aipatu beharreko elementu garrantzitsua da oraindik ere 2008. urtean. Ildo horretan, emakumea buru duten etxeetako pertsonen prekarietate-tasa eta pobretasunta-sa pertsona nagusia gizona duten etxeetako pertsonena halako bi da, gutxi gorabehera: %34,7koa eta %18,5ekoa, kasu batean, eta %6,4koa eta %2,5ekoa, bestean.

Hala ere, datu horiek ez digute ahaztarazi behar azkeneko lau urtean izandako joera-al-daketa. Ordu arte, gizonen eta emakumeen etxeen arteko diferentzialak gora egin zuen etengabe, 2004. urtean erregistratutako maila-desberdintasunera iritsi arte: pobretasun-tasa eta prekarietate-tasa %14,2koa eta %50,9koa ziren emakumea buru zuten etxeetan, eta %2,6koa eta %29,6koa baino ez gizon baten mendeko pertsonen artean. Hala, 1996 eta 2004 bitartean gizona buru zuten etxeetan tasek izandako beherakada etengabe eta naba-

riaren aldean, zifrek apenas islatzen zuten aurrerapenik bi urte horien artean emakumea buru zuten etxeen kasuan.

2004 eta 2008 bitartean emakumea buru duten etxeetan bizi diren pertsonen egoerak izandako hobekuntza garrantzitsua nabaria da bai mantentze-dimentsioko pobretasuntasetan bai metatze-dimentsioko pobretasuntasetan: mantentze-pobretasunean erortzeko arriskua %16,2tik %8,2ra jaitsi zen, eta metatze-arazoen eragina, berriz, %7,5etik %1,4ra. Aldaketa horrek hautsi egin zuen ordu arteko bilakaera negatiboa. Bilakaera horrek bi ezaugarri nagusi zituen. Lehena 1986 eta 1996 bitartean mantentze-pobretasunean erortzeko arriskuak izandako hazkundeak eta ondorengo beherakada apalak (neurri handi batean 2000 eta 2004 bitartean erregistratutako goranzko joerari egotzi dakiokeena) emakume baten mendeko pertsonetan izandako era-gin diferentzialarekin lotzen da. Horren ondorioz, gizonen kasuan 2004ko arriskutasa 1986koa baino txikiagoa zen bitartean (%4,4koa eta %5ekoa, hurrenez hurren), emakumeena handiagoa zen (%16,2koa eta %13,6koa).

40. TAULA

**Pobretasun-egoeren eta prekarietate-egoeren eraginaren bilakaera, pertsona nagusiaren sexuaren arabera. 1986-2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (ehunekotan)

| Sexua | Mantentze-pobretasuna | | | | | Metatze-pobretasuna | | | | | Benetako pobretasuna | | | | | Ez ongizate osoa | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 |
| Gizonezkoa | 5,0 | 8,0 | 4,9 | 4,4 | 3,3 | 5,1 | 1,7 | 2,2 | 1,3 | 0,5 | 7,5 | 5,1 | 3,7 | 2,6 | 2,5 | 48,3 | 39,7 | 30,9 | 29,6 | 18,5 |
| Emakumezkoa | 13,6 | 19,1 | 14,2 | 16,2 | 8,2 | 10,7 | 2,9 | 4,5 | 7,5 | 1,4 | 16,5 | 11,0 | 8,0 | 14,2 | 6,4 | 55,2 | 52,0 | 45,3 | 50,9 | 34,7 |
| Guztira | 5,7 | 9,3 | 6,3 | 6,1 | 4,1 | 5,6 | 1,8 | 2,6 | 2,2 | 0,7 | 8,3 | 5,8 | 4,4 | 4,2 | 3,2 | 48,9 | 41,2 | 33,1 | 32,7 | 21,1 |

Bigarren elementua hau da: 1996tik aurrera metatze-pobretasunaren tasek izan zuten goranzko joera 2004an indartu zela emakumeen artean, %2,9tik %7,5era igaroz. Aitzitik, gizonen mendeko etxeen kasuan, 2000 eta 2004 bitartean tasak behera egin eta %1,3an kokatu zen, 1986tik erregistratutako mailarik apalenean.

9. GRAFIKOA

**Benetako pobretasun egoeren eraginaren bilakaera, etxeko pertsona nagusiaren sexuaren arabera. 1986-2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren lagunak (eragin-mailak ehunekotan)




1.3.2. Pobretasun-arazoen eta prekarietate-arazoen banaketa

Emakumea buru duten etxeen garrantziak gora egin zuen 1986ko %8,3tik 1996ko %11,9ra aurrean, eta 2000 eta 2004 bitarteko %14-15 ingurura gero. Horrek etxe horien pobretasun-diferentziala areagotu eta nabarmen handitzen du haien parte hartzea pobretasun-egoeretan 2004 arte. Emakumezkoak buru ziren etxeen ehunekoa %16,5ekoa zen 1986an eta %47,8koa 2004an. Hazkunde hori guztiz nabaria da bai mantentze-dimentsioan (%19,5etik %38,2ra) bai metatze-dimentsioan (%15,8tik %48,4ra).

Emakumea buru zuten etxeen presentzia biztanleria osoaren %16,1eraino handitzen jarraitu arren, 2004 eta 2008 bitartean gertatutako aldaketak (emakumea buru zuten etxeen pobretasun-tasak behera egin zuen eta gizona buru zuten etxeena apur bat egonkortu) hautsi egin zuen 2004 arte hain nabaria izan zen prozesu hori. Pobretasun-egoeretan emakume baten mendean zeuden pertsonen parte hartzea %47,8tik %32,6ra jaitsi zen hala ere, 1986-2000 bitartean baino gehiago.

Hain deigarria izan ez bazen ere, 2004 arte nabaria izan zen prekarietate-arazoetan emakume baten mendean zeuden pertsonen parte hartzearen handitzea: arazo baten era-

ginpean zeuden pertsona guztien %9,3tik %22,2ra. Azken aldiko bilakaerak ez dakar kasu honetan inolako joera-aldaketarik, eta emakume bat buru zuten etxeen mendean zeuden pertsonen parte hartzea %26,4raino handitu zen 2008an.

41. TAULA

**Pobretasun-egoeren eta prekarietate-egoeren banaketaren bilakaera, pertsona nagusiaren sexuaren arabera. 1986-2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (Ehuneko bertikalak)

| Sexua | Mantentze-pobretasuna | | | | | Metatze-pobretasuna | | | | | Benetako pobretasuna | | | | | Ez ongizate osoa | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 |
| Gizonezkoa | 80,5 | 75,6 | 66,3 | 61,8 | 68,0 | 84,2 | 81,4 | 73,7 | 51,6 | 66,7 | 83,5 | 77,4 | 72,6 | 52,2 | 67,4 | 90,7 | 85,0 | 79,5 | 77,8 | 73,6 |
| Emakumezkoa | 19,5 | 24,4 | 33,7 | 38,2 | 32,0 | 15,8 | 18,6 | 26,3 | 48,4 | 33,3 | 16,5 | 22,6 | 27,4 | 47,8 | 32,6 | 9,3 | 15,0 | 20,5 | 22,2 | 26,4 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

## 1.4. **Pertsona nagusiaren adina**

### 1.4.1. Pobretasun-arazoen eta prekarietate-arazoen eragina

2008an, 45 urtetik beherako pertsonak buru dituzten etxeetan bizi diren herritarrek izan dituzte prekarietate-arazo nagusiak. Horietatik %28,5a ez da gizarte honetan espero izatekoak diren ongizate-mailetara iristen. 45 eta 55 urte bitarteko pertsonak buru dituzten etxeetan bizi direnen artean, arazo horren eraginpean daudenen ehunekoa %17,5koa da. Ehunekorik txikiena 55 eta 64 urte bitarteko pertsonak buru dituzten etxeetan bizi direnen artean ematen da: %13,1. Pertsona nagusia 65 urtetik gorakoa den etxeen kasuan, arazoak dituztenen kopuruak gora egiten du batez bestekoaren inguruko zifretaraino: etxe horietan bizi direnen %21,3a prekarietate-egoeran bizi da.

Azaldutako egoerak zeharo kontrastatzen du 1986an ikusitakoarekin. Urte horretan, arazo nagusiak, industriaren birmoldatze prozesuen ondoriozkoak zalantzarik gabe, 45 eta 54 urte bitarteko pertsonen mendeko etxeetan antzematen ziren: biztanleriaren %58,5a ego-era prekarioan bizi zen orduan. Zifra horiek, gainera, %45tik gorakoak ziren 55 eta 64 urte arteko pertsonak buru zituzten etxeetan bizi ziren herritarren artean,

hau da, bai 45 urtetik beherako herritarren artean bai 65 urtetik gorako pertsonak buru zituzten etxeetan bizi ziren herritarren artean erregistratutako zifrak baino zertxobait handiagoak.

Azkeneko hogeita bost urteotan atzemandako aldaketa 45 urtetik gorako pertsonak buru dituzten etxeen tasen beherakada deigarri eta ia jarraitu batekin loturik dago... Aldaketa horrek, gainera, gazteenen posizioaren hondatze erlatibo batekin kontrastatzen du. Herritar horien egoerak okerrera egiteko bidean emandako lehen urratsa 1986 eta 1996 bitartean 35 urtetik beherakoen etxeetan bizi ziren pertsonen artean prekarietate-tasak izandako hazkundea izan zen. Hala ere, 1996an, 35 eta 44 urte bitarteko pertsona baten mendean zeuden herritarren ongizate-gabeziaren tasek 45 eta 64 urte bitartekoen mendean zeudenenak baino txikiagoak izaten jarraitzen zuten, artean ere.

Hurrengo urratsa 2000-2004 bitarteko aldiari dagokio. 1996 eta 2000 arteko tasen hobekuntza orokorra 2000 eta 2004 artean izandako goranzko joerak orekatu zuen orduan 45 urtetik beherakoen kasuan (%41,3tik %42ra 35 urtetik beherakoen etxeetan, eta %35,5tik %41era 35-44 urte bitarteko pertsonen etxeetan). Goranzko joera horrek 45 urtetik gorakoen etxeetan izandako beherakadekin kontrastatzen du.

1966 eta 2004 bitartean gertatutakoa erabakigarria da, nolanahi ere, 2008. urtean 45 urtetik beherakoen eta gorakoen artean dauden alde nabarmenak azaltzeko: denbora-bitarte horretan tasak 15 eta 30 puntu artean erori ziren 45 urtetik gorakoen artean, eta 3-5 bat puntu baino ez adin horretatik beherakoen mendean zeuden pertsonen artean. 2004 eta 2008 artean atzemandako bilakaerak erakusten duenez, egoerak hobera egin zuen 45 urtetik beherakoen mendeko etxeetan bizi ziren herritarren artean, eta tasa hori orduko %41-42tik egungo %28-29ra jaitsi zen.

Benetako pobretasunaren datuek are garbiago erakusten dute 45 urtetik beherako pertsona baten mendeko herritarren egoerak nola egin duen okerrera azkeneko hogeita bost urteotan. 1986an benetako pobretasunaren tasa %6-6,5 ingurukoa bazen —urte horretako batez bestekoa baino txikiagoa, alegia— 2008an tasa hori %9,8koa zen 35 urtetik beherakoen etxeetan, eta %6,1ekoa etxeko pertsona nagusia 35-44 urte bitarteko pertsona bat zenean. Tasa horiek 45 urtetik gorakoen etxeetako %1aren hurbileko zifrekin kontrastatzen dute. Beren pobretasun-tasa gainerako gazteena baino askoz handiagoa izateagatik nabarmentzen ziren etxe horiek 1986an, %8aren eta %10 bitartekoak.

42. TAULA

**Pobretasun-egoeren eta prekarietate-egoeren eraginaren bilakaera pertsona nagusiaren adinaren arabera. 1986-2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (ehunekotan)

| Adina | Mantentze-pobretasuna | | | | | Metatze-pobretasuna | | | | | Benetako pobretasuna | | | | | Ez ongizate osoa | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 |
| 35 urtetik beherakoak | 6,4 | 15,9 | 16,1 | 12,6 | 10,6 | 4,1 | 0,6 | 10,5 | 7,6 | 1,3 | 5,9 | 8,7 | 14,3 | 16,1 | 9,8 | 45,0 | 46,0 | 41,3 | 42,0 | 28,8 |
| 35-44 urte bitartekoak | 6,0 | 13,3 | 7,1 | 10,4 | 6,1 | 2,2 | 2,7 | 1,9 | 3,2 | 1,6 | 6,4 | 8,1 | 4,5 | 5,2 | 6,1 | 46,0 | 38,7 | 35,5 | 41,0 | 27,8 |
| 45-54 urte bitartekoak | 5,9 | 6,9 | 3,6 | 3,1 | 2,6 | 7,0 | 2,2 | 1,7 | 0,7 | 0,2 | 10,1 | 5,7 | 2,5 | 2,2 | 1,1 | 58,5 | 44,8 | 31,2 | 30,6 | 17,5 |
| 55-64 urte bitartekoak | 4,9 | 10,1 | 6,4 | 4,8 | 2,9 | 5,7 | 0,7 | 2,3 | 1,2 | 0,2 | 8,1 | 4,6 | 4,4 | 1,7 | 1,3 | 46,4 | 46,1 | 30,9 | 28,8 | 13,1 |
| 65 urtetik gorakoak | 5,8 | 5,0 | 5,7 | 3,2 | 2,3 | 9,0 | 2,2 | 2,3 | 1,2 | 0,4 | 9,8 | 3,7 | 3,7 | 2,1 | 1,3 | 41,1 | 31,8 | 33,0 | 25,8 | 21,3 |
| Guztira | 5,7 | 9,3 | 6,3 | 6,1 | 4,1 | 5,6 | 1,8 | 2,6 | 2,2 | 0,7 | 8,3 | 5,8 | 4,4 | 4,2 | 3,2 | 48,9 | 41,2 | 33,1 | 32,7 | 21,1 |

35 urtetik beherakoen etxeetako pertsonen egoeraren okerragotzea benetako pobretasunaren tasek 1986tik aurrera izandako hazkunde nabarmen eta jarraitu batekin lotua dago. Hona hemen tasa horien bilakaera: %5,9 1986an, %8,7 199 6an, %14,3 2000an, eta %16,1 2004an. Azken urte horretatik aurrera, ordea, tasak behera egiten hasi ziren, egungo %9,8ra iritsi arte. Pertsona gazteen mendeko etxeek 2004. urtea arte egindako gainbehera ez zen hain nabarmena izan 35 eta 44 urte bitarteko pertsonen mendeko herritarren artean: etxe horietako pobretasun-tasa %5,2koa zen 2004an, 1986ko %6,4 baino apur bat txikiagoa. Gainerako etxeetan ez bezala, ordea, pobretasun-tasak gora egin zuen 2004 eta 2008 artean biztanleria-talde horretan, %5,2tik %6,1era.

Metatze-dimentsioko arazoen gainbehera orokorrak markatutako testuinguru batean, 45 urtetik beherako pertsona baten mende dauden pertsonen pobretasun-tasa handiak 2008an oraindik ere oso handiak diren mantentze-dimentsioko pobretasun-tasekin loturik daude batez ere: %10,6a 35 urtetik beherako pertsonen etxeetan, eta %6,1a 35 eta 44 urte bitarteko pertsonen etxeetan.

### 1.4.2. Pobretasun-arazoen eta prekarietate-arazoen banaketa

Pobretasunaren eragin diferentziala deigarria da gazteak buru dituzten familietan bizi diren pertsonen artean, 1986 eta 2008 artean haien demografia-garrantziak gora egin ez arren. Hala, jabeak 45 urte baino gutxiago dituen etxeetan bizi den biztanleria benetako pobretasun egoeran dauden pertsona guztien %25,9a izatetik %73,9a izatera igaro da 1986 eta 2008 bitartean. Alde nabarmena da mantentze-dimentsioan (%36,7tik %58,2ra), baina are gehiago metatze-dimentsioan: talde horrek pobretasun-egoera guztien %18,1a biltzen zituen 1986an eta %74,4a bildu ditu aurten, 2008an.

45 urtetik beherako pertsonak buru dituzten etxeetan bizi diren pertsonen pisu erlatiboa handitzea orobat atzeman daiteke prekarietate-egoeren multzoan ere. Kasu horretan, kolektibo horren parte hartzea %32,1etik %44,2ra igaro da 1986 eta 2008 bitartean. Hala ere, prekarietate-arazo gehienak 45 urtetik gorako pertsonen mendeko etxeetan bizi diren pertsonetan daude bilduta: %55,8. Dena dela, ehuneko hori 1986-2000 bitartekoa baino txikiagoa da: %68-72.

43. TAULA

**Pobretasun-egoeren eta prekarietate-egoeren banaketaren bilakaera, pertsona nagusiaren adinaren arabera. 1986-2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (Ehuneko bertikalak)

| Adina | Mantentze-pobretasuna | | | | | Metatze-pobretasuna | | | | | Benetako pobretasuna | | | | | Ez ongizate osoa | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 |
| 35 urtetik beherakoak | 14,4 | 12,8 | 15,8 | 22,9 | 21,3 | 9,6 | 2,4 | 25,5 | 37,8 | 15,9 | 9,2 | 11,2 | 20,3 | 41,7 | 25,5 | 11,9 | 8,4 | 7,7 | 14,1 | 11,3 |
| 35-44 urte bitartekoak | 22,4 | 31,0 | 23,4 | 36,7 | 36,9 | 8,5 | 31,5 | 15,3 | 30,6 | 58,5 | 16,7 | 30,4 | 21,2 | 26,1 | 48,4 | 20,2 | 20,3 | 22,2 | 26,7 | 33,0 |
| 45-54 urte bitartekoak | 30,3 | 20,2 | 14,4 | 13,3 | 15,1 | 36,8 | 32,1 | 16,3 | 8,5 | 5,6 | 35,7 | 26,7 | 14,2 | 13,5 | 8,5 | 35,1 | 29,5 | 23,5 | 24,5 | 19,5 |
| 55-64 urte bitartekoak | 18,7 | 24,9 | 23,1 | 15,5 | 13,5 | 22,4 | 8,6 | 20,4 | 10,9 | 6,2 | 21,6 | 18,2 | 23,0 | 7,6 | 7,7 | 20,9 | 25,7 | 21,3 | 17,3 | 12,0 |
| 65 urtetik gorakoak | 14,3 | 11,1 | 23,2 | 11,7 | 13,2 | 22,8 | 25,4 | 22,4 | 12,2 | 13,9 | 16,8 | 13,4 | 21,3 | 11,0 | 9,9 | 11,9 | 16,1 | 25,3 | 17,3 | 24,3 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

10. GRAFIKOA

**Benetako pobretasuna pertsona nagusiaren adinaren arabera: eraginaren bilakaera (familia-etxebizitzetan bizi diren herritarren ehunekoa) eta biztanleria pobrearen banaketaren bilakaera (Ehuneko bertikalak). 1986-2008**






1986. urtearekin alderatuta, 45 urtetik gorakoen etxeetan bizi diren pertsonen artean gora egin du 65 urtetik gorakoen mende dauden herritarren pisu erlatiboaren garrantzia. Horrek biztanleria osoaren %24,3a hartzen zuen 2008an, eta %11,9a baino ez 1986an (45 eta 64 urte bitarteko pertsona bat buru duten etxeetan bizi diren pertsonei dagokienez, zifra horiek %31,5 eta %56 dira, hurrenez hurren). Errealitate hori ez dago hain lotua adinekoenen artean ongizate-gabeziako tasak izandako gainbeherarekin, nola demografia-egituran hartzen ari den garrantzi gero eta handiagoarekin (%14,2koa izan zen 1986an, eta %24koa da gaur egun).

## 1.5. **Pertsona nagusiaren herritartasuna**

### 1.5.1. Pobretasun-arazoen eta prekarietate-arazoen eragina

Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo etorritako immigrazioa erabakigarria gertatu da Euskadiko prekarietate-egoeren bilakaeran. Immigrazio horren eraginez, pobretasun eta prekarietate forma berriak agertu dira, atzerritar biztanleriaren kokapenari lotuak. Hori dela eta, beste herrialde bateko herritartasuna duen pertsona bat buru duten etxeetako pertsonek %70,3ko probabilitatea dute ongizate osoko egoera batera ez iristeko. Autoktonoen kasuan, berriz, probabilitate hori %18,4koa da. Biztanleria nazionalaren kasuan beherakada nabarmena izan da 2000. urteko harako %32,8 hartatik hona, baina pertsona nagusia atzerritarra duten etxeen kasuan tasak gora egin du 2000ko %62,2tik. Hala ere, azkeneko urteotan, tasa horrek apur bat behera egin du, 2004an, %83,8rekin, goia jo zuenez geroztik.

Dena dela, nazionalen eta atzerritarren arteko diferentziarik deigarrienak benetako pobretasun egoeren eragina aztertzean atzeman ditugu: herritar nazionalen artean benetako pobretasunaren tasa %1,9koa baino ez den bitartean, beste estatu batetik etorritako herritar bat buru duten etxeen kasuan proportzioa %25,6raino iristen da.

Atzerritarren artean tasak gora egiteko joera hori, gainera, errealitatea zena 2000 eta 2004 bitartean, indartu egin da 2008. urtean. 2000 eta 2008 bitartean, herritar nazionalen artean, benetako pobretasunaren tasa %4,3tik %1,9ra jaitsi den bitartean, atzerritar bat buru duten etxeetan bizi diren pertsonen artean %15,3tik %25,6ra igo da delako tasa. Dena dela, tasa horrek 2004an jo zuen goiena: %27,1. Egoeraren okertze horrek zerikusi zuzena du mantentze-arazoak gehitzearekin: 2000 eta 2008 bitartean, %19,7tik %26,2ra

handitu zen arazo horien eraginpean bizi ziren pertsonen ehunekoa atzerritarren artean, eta %6,2tik %2,9ra murriztu, berriz, herritar nazionalen artean.

Azken urteotako bilakaera ez da ordea beti negatiboa. Biztanle nazionalen artean gertatzen den bezala, metatze-pobretasuna desagertzen ari da dagoeneko atzerritarren artean ere. Horrek erabateko aldaketa dakar, are gehiago kontuan harturik 2000 eta 2004 bitartean tasa horrek gora egiten jarraitu zuela, %11,8tik %17,1era, hain zuzen.

44. TAULA

**Pobretasun-egoeren eta prekarietate-egoeren eraginaren bilakaera, pertsona nagusiaren herritartasunaren arabera. 2000-2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (ehunekotan)

| Herritartasuna | Mantentze-pobretasuna | | | Metatze-pobretasuna | | | Benetako pobretasuna | | | Ez ongizate osoa | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2000 | 2004 | 2008 | 2000 | 2004 | 2008 | 2000 | 2004 | 2008 | 2000 | 2004 | 2008 |
| Espainiako estatua | 6,2 | 5,5 | 2,9 | 2,5 | 1,8 | 0,7 | 4,3 | 3,6 | 1,9 | 32,8 | 31,1 | 18,4 |
| Beste estatu batzuk | 19,7 | 25,6 | 26,2 | 11,8 | 17,1 | 0,1 | 15,3 | 27,1 | 25,6 | 62,2 | 83,8 | 70,3 |
| Guztira | 6,3 | 6,1 | 4,1 | 2,6 | 2,2 | 0,7 | 4,4 | 4,2 | 3,2 | 33,1 | 32,7 | 21,1 |

### 1.5.2. Pobretasun-arazoen eta prekarietate-arazoen banaketa

Atzerritarren artean benetako pobretasunaren arazoek gora egitean, atzerritarren pisu erlatiboa handitzen eta autoktonoen arrisku-maila, berriz, behera egiten ari den testuinguru batean, handitu egiten da atzerritarrek kolektibo pobreen artean betetzen duten tokiaren garrantzia. Pertsona nagusia atzerritarra den etxeetan bizi diren pertsonak benetako pobretasun egoeran dauden pertsona guztien %3,4 ziren 2000an, eta %41,7 2008an. Nahiz eta 2004an jauzi ikaragarria egin zuen, %18,6koa, benetako pobretasun egoeran dauden herritarren ehunekoaren igoerarik nabarmenena, atzerritarren etxeetan bizi diren biztanleen aldetik, 2004 eta 2008 bitartean gertatu zen.

Era nabarian handitu zen, baita ere, kolektibo horren parte hartzea prekarietate-egoeretan: 2000ko %1,8tik 2008ko %17,1era. Kasu horretan, baina, arazoen eraginpean zeuden pertsonen %80 baino gehiago herritar nazionalak ziren.

11. GRAFIKOA

**Benetako pobretasuna pertsona nagusiaren herritartasunaren arabera: eraginaren bilakaera (familia-etxebizitzetan bizi diren herritarren ehunekoa) eta biztanleria pobrearen banaketaren bilakaera (Ehuneko bertikalak). 2000-2008**

Eraginaren bilakaera




Banaketaren bilakaera



12. GRAFIKOA

**Mantentze-pobretasuna pertsona nagusiaren herritartasunaren arabera: eraginaren bilakaera (familia-etxebizitzetan bizi diren herritarren ehunekoa) eta biztanleria prekarioaren banaketaren bilakaera (Ehuneko bertikalak). 2000-2008**

Eraginaren bilakaera




Banaketaren bilakaera



45. TAULA

**Pobretasun-egoeren eta prekarietate-egoeren banaketaren bilakaera, pertsona nagusiaren herritartasunaren arabera. 2000-2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (Ehuneko bertikalak)

| Herritartasuna | Mantentze-pobretasuna | | | Metatze-pobretasuna | | | Benetako pobretasuna | | | Ez ongizate osoa | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2000 | 2004 | 2008 | 2000 | 2004 | 2008 | 2000 | 2004 | 2008 | 2000 | 2004 | 2008 |
| Espainiako estatua | 97,0 | 87,8 | 67,3 | 95,5 | 77,6 | 99,3 | 96,6 | 81,4 | 58,3 | 98,2 | 92,5 | 82,9 |
| Beste estatu batzuk | 3,0 | 12,2 | 32,7 | 4,5 | 22,4 | 0,7 | 3,4 | 18,6 | 41,7 | 1,8 | 7,5 | 17,1 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

## 2. LANBIDEARI DAGOZKION ALDERDIAK

### 2.1. Pertsona nagusiaren ikasketa-maila

#### 2.1.1. Pobretasun-arazoen eta prekarietate-arazoen eragina

2008an, pobretasunaren eta prekarietatearen eraginak gorantz egiten jarraitzen du, ikasketa-mailak behera egin ahala. Joera hori oso nabaria da prekarietate-arazoei dagokienez. Hala, tasa %11,3koa baino ez da ikasketa kualifikatuak dituen pertsona baten mendean bizi diren herritarren artean; %24,2ra igotzen da bigarren mailako eta LH I mailako ikasketak dituztenen kasuan, eta %25,3ra lehen mailako ikasketak dituztenen kasuan. Tasak goiena jotzen du ikasketarik gabeko pertsona baten mendean bizi diren herritarren artean: %38,1. Benetako pobretasunaren datuek era garbi erakusten dituzte diferentzia horiek: %0,5a ikasketa kualifikatuen kasuan; eta batez bestekoa baino zifra handiagoak lehen edo bigarren mailako ikasketa ez kualifikatuak dituzten pertsonen mendeko etxeetan. Kasu horretan, baina, desoreka batzuk antzematen dira, ikasketa-mailak behera egin ahala arazo-mailak behera egiteko duen joerari dagokionez: alde batetik, zifra %2,5koa baino ez da ikasketarik gabeko tituludun baten kasuan, eta %4,5ekoa lehen mailako ikasketak dituen pertsona baten kasuan; bestalde, zifrarik handiena LH I mailako ikasketak edo bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak dituen tituludun baten mendeko pertsonei dagokie: %4,7.

Azken urteotako bilakaerak beste ezaugarri garrantzitsu bat du: pobretasunean eta prekarietatean erortzeko arriskuaren bilakaera ona izatea alegia ikasketarik gabeko pertsonen etxeetan bizi diren biztanleen artean. Gauzak horrela, prekarietate-tasa %50etik behera jaisten da 2008an lehenengoz, %38,1ean kokatzeraino. Gauza bera gertatu da benetako pobretasunaren kasuan: 2004an goia joa zuenetik, %21,9arekin, 2008ko %2,5eraino jaitsi da. Beherakada bereziki deigarria da metatze-dimentsioari dagokionez, tasa %19,6tik %0,4ra jaitsi baita. Baina garrantzitsua da ere mantentze-dimentsioan, mailarik txikienera iritsi baitzen 2008an: %3,7ra, hain zuzen.

46. TAULA

**Pobretasun-egoeren eta prekarietate-egoeren eraginaren bilakaera, pertsona nagusiaren ikasketa-mailaren arabera. 1986-2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (ehunekotan)

| Ikasketak | Mantentze-pobretasuna | | | | | Metatze-pobretasuna | | | | | Benetako pobretasuna | | | | | Ez ongizate osoa | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 |
| Ikasketarik ez | 8,6 | 18,1 | 10,9 | 6,9 | 3,7 | 10,6 | 7,9 | 5,8 | 19,6 | 0,4 | 15,2 | 18,5 | 13,8 | 21,9 | 2,5 | 64,1 | 62,1 | 49,2 | 56,4 | 38,1 |
| Lehen mailak. | 5,6 | 11,2 | 8,2 | 7,4 | 5,5 | 5,0 | 2,1 | 3,3 | 1,6 | 1,1 | 6,9 | 6,9 | 5,5 | 4,4 | 4,5 | 52,9 | 47,9 | 39,8 | 38,9 | 25,3 |
| Bigarren mailak./LH I. | 4,5 | 7,0 | 4,6 | 7,4 | 5,7 | 2,6 | 0,7 | 2,6 | 1,5 | 0,6 | 4,3 | 2,9 | 4,2 | 4,4 | 4,7 | 35,3 | 38,8 | 32,8 | 33,0 | 24,2 |
| Kualifikatuak | 2,4 | 4,0 | 2,5 | 3,3 | 1,2 | 0,8 | 0,5 | 0,5 | 1,2 | 0,1 | 2,8 | 1,9 | 0,9 | 1,5 | 0,5 | 23,4 | 21,0 | 16,8 | 19,9 | 11,3 |
| Guztira | 5,7 | 9,3 | 6,3 | 6,1 | 4,1 | 5,6 | 1,8 | 2,6 | 2,2 | 0,7 | 8,3 | 5,8 | 4,4 | 4,2 | 3,2 | 48,9 | 41,2 | 33,1 | 32,7 | 21,1 |

Joera hori antzekoa da tituludun kualifikatuen kasuan. Aldiz, hain ikasketa kualifikatuak ez dituzten pertsonen mendeko etxeetan bizi diren biztanleen kasuan, bilakaera ez da hain ona. Lehen mailako ikasketak dituen pertsona nagusi baten kasuan, 2004 eta 2008 bitartean hautsi egin da benetako pobretasunaren mailetan ordu arte atzemandako beheranzko joera, eta tasak %4,5etik hurbil daude. LH I mailako ikasketak edo bigarren mailako ikasketa ez profesionalak dituzten pertsona nagusiei dagokienez, 2008. urtean maximo historiko bat lortu da, %4,7koa, 1996ko %2,9an hasitako goranzko joera leuna baino etengabea burutuz. 1996an hasitako beheranzko joera gorabehera, batez ere lehen mailako ikasketak dituzten tituludunei dagokionez, erregistro horiek 1986koan antzekoak edo apur bat handiagoak dira.

Tarteko ikasketak dituzten tituludunen etxeetan, berriz, 2004-2008 bitarteko aldiak aldaketa positibo batzuk erakusten ditu. Horietako bat prekarietate-tasen beherakada nabaria da, era horretan 2000 eta 2004 bitartean erregistratutako egonkortze-prozesua gaindituz. Beherakada hori bereziki adierazgarria da LH I ikasketa mailak edo bigarren mailako ikasketa ez profesionalak dituzten tituludunen mendeko pertsonen artean. 1986 eta 2004. urteen artean beti %30tik %40ra bitarteko mailari eutsi ondoren, tasa %24,2raino jaitsi da 2008an. Metatze-pobretasunaren tasen beherakadak bere horretan eustea ere beste datu positibo bat da. Beherakada 2000. urtetik aurrera hasi zen, eta %0,6 eta %1,1 arteko zifretara iritsi zen 2008an.

13. GRAFIKOA

**Benetako pobretasun tasen bariazio proportzionala pertsona nagusiaren ikasketa-mailaren arabera**

(Bariazioa ehunekotan 1986 eta 2008 bitartean)




2.1.2. Pobretasun-arazoen eta prekarietate-arazoen banaketa

Pobretasun-egoeren eta prekarietate-egoeren barne-banaketan eragina duten faktoreen artean aipatzekoak da bai gero eta biztanle gehiagok maila handiagoko ikasketak lortzeko prozesua bai erdiko mailako ikasketak dituzten kolektiboen posizioaren okerrago-

tze erlatiboa. Horrek esan nahi du, batetik, ikasketarik gabeko pertsona baten mendeko etxeetan bizi diren herritarrek pisua galdu dutela kolektibo pobre eta prekarioen banaketan. 1986an herritar horiek benetako pobretasunaren eraginpean bizi ziren biztanle guztien %52,9 biltzen bazuten, egun %2,7 baino ez dute biltzen. Kolektibo horren pisuaren beherakada prekarietate-arazoekiko erlazioan ere antzematen da: arazo horien ehunekoa %37,6tik %6,4ra jaitsi da 1986 eta 2008 bitartean. Prozesu horrek 1986 eta 1996 bitartean hartu du parte batez ere, eta oso lotua dago 1986 eta 2008 bitartean ikasketarik gabeko pertsona bat buru duten etxeetan bizi izan diren pertsonen pisu demografikoaren beherakada nabarmenarekin, %28,7tik %5era igaroz.

47. TAULA

**Pobretasun-egoeren eta prekarietate-egoera desberdinen banaketaren bilakaera, pertsona nagusiaren ikasketa-mailaren arabera. 1986-2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (Ehuneko bertikalak)

| Ikasketak | Mantentze-pobretasuna | | | | | Metatze-pobretasuna | | | | | Benetako pobretasuna | | | | | Ez ongizate osoa | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **1986** | **1996** | **2000** | **2004** | **2008** | **1986** | **1996** | **2000** | **2004** | **2008** | **1986** | **1996** | **2000** | **2004** | **2008** | **1986** | **1996** | **2000** | **2004** | **2008** |
| Ikasketarik ez | 42,8 | 9,7 | 6,4 | 4,9 | 3,2 | 54,3 | 21,4 | 8,4 | 38,2 | 1,9 | 52,9 | 16,0 | 11,7 | 22,4 | 2,7 | 37,6 | 7,5 | 5,5 | 7,5 | 6,4 |
| Lehen mailak. | 41,0 | 69,7 | 72,7 | 57,7 | 65,1 | 37,7 | 66,6 | 72,1 | 33,6 | 77,7 | 35,3 | 69,1 | 69,6 | 48,9 | 68,6 | 45,6 | 67,3 | 67,1 | 56,5 | 57,9 |
| Bigarren mailak./LH I. | 9,0 | 10,9 | 10,4 | 20,1 | 22,5 | 5,4 | 5,5 | 14,6 | 11,2 | 14,5 | 5,9 | 7,3 | 13,5 | 17,2 | 24,1 | 8,3 | 13,6 | 14,1 | 16,7 | 18,8 |
| Kualifikatuak | 7,3 | 9,6 | 10,5 | 17,3 | 9,2 | 2,6 | 6,6 | 4,9 | 16,9 | 6,0 | 5,9 | 7,6 | 5,2 | 11,5 | 4,6 | 8,4 | 11,5 | 13,4 | 19,3 | 16,9 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

Garrantzizko bigarren aldaketa da tarteko mailako ikasketak dituzten pertsonek pobretasun-egoeran dauden kolektiboen artean duten pisu gero eta handiagoa. Lehen mailako ikasketak dituen tituludun baten kasuan, benetako pobretasunaren zifrei egiten dien ekarpena 1986ko %35,3tik 2008ko %68,6ra igaro da; LH I mailako ikasketak edo bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak dituen tituludun baten kasuan, prozesua aurrekoa bezain intentsua da erlatiboki, eta haren ekarpena 1986ko %5,9tik 2008ko %24,1era igaro da.

Egoera prekarioan dauden kolektiboak kualifikatzeko prozesu horrek bere baitan hartzen ditu, baita ere, ikasketa kualifikatuak dituen tituludun baten mende dauden pertsonak ere, eta esan beharra dago pertsona horien pisuak gora egin duela nabarmen: 1986ko %5,9tik 2004ko %11,5era, benetako pobretasunari dagokionez, eta %8,4tik %19,3ra, prekarietate-egoerei dagokienez. 2004-2008 bitarteko tasen beherakada nabarmenak ordea murriztu egiten du kolektibo horretan ekarpen hori: %4,6ra, pobretasunaren dimentsioan, eta %16,9ra, prekarietatearen dimentsioan.

## 2.2. **Jarduerari dagozkion alderdiak**

### 2.2.1. Pertsona nagusiaren jarduera

#### 2.2.1.1. *Pobretasun-arazoen eta prekarietate-arazoen eragina*

Pobretasun-arazoak eta prekarietate-arazoak okupazio-ezarekin eta, modu espezifikoagoan, langabeziarekin lotuta dauden errealitateak dira. Hala, landunen etxeetan bizi diren pertsonen %17,6ak arazoak izan ditu 2008an ongizate osoko egoeretara iristeko. Proportzio hori %24,3koa da, pertsona nagusia ez-aktiboa denean, eta %77,4koa pertsona nagusia langabezian dagoenean.

Joera horiek antzekoak dira pobretasun-mailak bakarrik aintzat hartzen direnean, baina kasu horretan gehiago nabarmentzen da lana duen biztanleriaren egoera ona. Hala, landun bat buru duen etxe batean bizi diren pertsonen %1,5a baino ez dago benetako pobretasun-egoeran, baina zifra hori %3,7ra igotzen da pertsona ez-aktibo bat buru duten etxeetan bizi diren pertsonen kasuan, eta %44,8ra pertsona nagusia langabezian dagoen etxe batean bizi diren pertsonen kasuan.

Benetako pobretasunaren mailetan, langabe baten mende dauden pertsonen kalterako dagoen diferentziala mantentze-pobretasunean erortzeko arriskuarekin bakarrik lotzen da 2008an: arrisku-tasa %46,8 da langabetuen etxeetan, %4,6koa ez-aktiboen etxeetan, eta %2,5ekoa landunen etxeetan. Metatze-pobretasunari dagokionez, ez-aktibo baten mendeko pertsonen kasuan bakarrik hurbiltzen da tasa hori %2ra: %1,8. 2000 eta 2008 bitartean, langabetuen etxeen kasuan, metatzepobretasunaren tasetan antzematen den beherakada nabarmenarekin dago lotua errealitate hori. 1996 eta 2000 bitartean tasak gora

egin zuen nabarmen, %13,4tik %22,2ra, baina 2004an behera egin zuen berriro, %6,5eraino, eta 2008an desagertu egin zen ia.

Bilakaeraren ikuspuntutik begiratuta, pobretasun-arazoek eta prekarietate-arazoek duten eraginari dagokionez, desberdintasunak handiak izan arren, 2004. urtea arte bazen ezaugarri komun bat: talde guztietan pobretasuntasak, epe luzera, beheranzko joera erakusten zuela, hain zuzen. Hala, 1986 eta 2004 bitartean, benetako pobretasunaren tasa %5etik %2,1era jaitsi zen landunen etxeetan, %11,2tik %5,7ra ez-aktiboen etxeetan, eta %35,9tik %26,5era langabetuen kasuan. 2004 eta 2008 benetako pobretasunaren beheratze prozesuak indarra hartu zuen berriro: tasak %3,7tik %1,5era jaitsi ziren, 1996 eta 2004 bitartean ia aldaketarik gabe eutsi ondoren. Aitzitik, langabetuen etxeetan arazoak gora egin zuen nabarmen. Benetako pobretasunaren eragina %26,5etik %44,8ra igaro zen 2004 eta 2008 bitartean. Azken urte horretan, aldi osoko maximo historikoa lortu zuen. Arazoak zerikusia du mantentze-arriskuaren goranzko joerarekin: 2004ko %35,1eko gutxienekotik 2008ko %46,8ra igo zen.

48. TAULA

**Pobretasun-egoeren eta prekarietate-egoeren eraginaren bilakaera, pertsona nagusiaren jardueraren arabera. 1986-2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (ehunekotan)

| Ez ongizate osoa | Mantentze-pobretasuna | | | | | Metatze-pobretasuna | | | | | Benetako pobretasuna | | | | | Ez ongizate osoa | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 |
| Landuna | 2,2 | 5,8 | 3,0 | 4,0 | 2,5 | 3,8 | 0,9 | 1,2 | 1,3 | 0,1 | 5,0 | 3,2 | 2,1 | 2,1 | 1,5 | 45,2 | 37,0 | 28,3 | 29,6 | 17,6 |
| Langabetua | 39,5 | 50,4 | 45,1 | 35,1 | 46,8 | 18,4 | 13,4 | 22,2 | 6,5 | 0,0 | 35,9 | 38,2 | 30,3 | 26,5 | 44,8 | 87,9 | 84,0 | 72,7 | 82,2 | 77,4 |
| Ez-aktiboa | 8,1 | 9,3 | 8,2 | 6,6 | 4,6 | 7,7 | 1,7 | 3,1 | 3,4 | 1,8 | 11,2 | 5,4 | 5,7 | 5,7 | 3,7 | 50,6 | 42,0 | 37,2 | 32,7 | 24,3 |
| Guztira | 5,7 | 9,3 | 6,3 | 6,1 | 4,1 | 5,6 | 1,8 | 2,6 | 2,2 | 0,7 | 8,3 | 5,8 | 4,4 | 4,2 | 3,2 | 48,9 | 41,2 | 33,1 | 32,7 | 21,1 |

Langabetuen mende dauden pertsonen egoeraren duela gutxiko bilakaera txarra prekarietate-adierazleetan antzematen da ere. Zifrak %80 hurbilekoak dira oraindik ere 2008an, 1986ko zifrekiko askorik hobetu gabe. Horrek landunen eta ez-aktiboen etxeetako datu one-kin kontrastatzen du. Landunen mendeko pertsonen kasuan, 2004an erregistratutako hazkunde txikia 2008an orekatu da, 1986 eta 2008 bitartean izandako beherakada (%45,2tik %17,6ra) bere horretan mantenduz Ez-aktiboen artean, berriz, be-

herakada jarraitua da: zifrak 1986ko %50,6tik 2008ko %24,3ra jaitsi dira. Beraz, bai pertsona landunen bai ez-aktiboen mendeko etxeetan bizi diren kolektiboak ongizatera iristeko prozesua 1986-2008 bitarteko aldiaren bilakaeraren ezaugarri erabakigarria da. Langabetuen etxeak bakarrik dira 80eko hamarraldiko erdialdeko urteetan nagusi izan zen prekarietate-egoeran egoten jarraitzen dutenak.

### 2.2.1.2. *Pobretasun-arazoen eta prekarietate-arazoen banaketa*

Langabeziaren paperak ez du garrantzi bera 2008an eta 1986an, eta langabetuen etxeetan bizi diren pertsonen pisua orduko %5,6tik egungo %2,1era murriztu da. Etxe ez-aktiboen pisua ordea %25,1etik %33,7ra handitu da. EAEko biztanleriaren zahartze-prozesuaren ondorio bat, eta, zehatzago, etxeko pertsona nagusien zahartze-prozesuaren ondorio bat, ez-aktiboen etxeetan bizi diren pertsonak pobretasun-egoeran dagoen kolektiboan pisu erlatibo gehiago izatea da, hain zuzen. 1986 eta 2000 bitartean proportzioa %34,1etik %51era igo zen, baina 2008an %38,9era jaitsi zen, landunen eta langabeen etxeko pertsonen garrantzia igo ahala: 2000ko %28,1etik 2008ko %31,4era landunen kasuan, eta 2000ko %20,9tik 2008ko %29,7ra, langabeen kasuan. Langabeek —ia %30a— benetako pobretasunaren zifrei egindako ekarpena deigarria, kontuan hartzen badugu langabeen mendeko pertsona-kopurua 2008ko biztanleria osoaren %2a baizik ez dela.

49. TAULA

**Pobretasun-egoeren eta prekarietate-egoeren banaketaren bilakaera, pertsona nagusiaren jardueraren arabera. 1986-2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (Ehuneko bertikalak)

| Jarduera | Mantentze-pobretasuna | | | | | Metatze-pobretasuna | | | | | Benetako pobretasuna | | | | | Ez ongizate osoa | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **1986** | **1996** | **2000** | **2004** | **2008** | **1986** | **1996** | **2000** | **2004** | **2008** | **1986** | **1996** | **2000** | **2004** | **2008** | **1986** | **1996** | **2000** | **2004** | **2008** |
| Landuna | 26,0 | 36,4 | 28,1 | 41,4 | 38,6 | 47,3 | 29,2 | 26,5 | 36,9 | 11,4 | 41,7 | 32,6 | 28,1 | 31,3 | 31,4 | 64,0 | 52,8 | 49,8 | 56,7 | 53,6 |
| Langabetua | 38,5 | 27,6 | 21,6 | 21,8 | 23,8 | 18,3 | 36,9 | 26,1 | 11,1 | 0,1 | 24,2 | 33,6 | 20,9 | 23,6 | 29,7 | 10,1 | 10,4 | 6,6 | 9,5 | 7,7 |
| Ez-aktiboa | 35,5 | 36,0 | 50,3 | 36,8 | 37,6 | 34,4 | 34,0 | 47,4 | 52,0 | 88,5 | 34,1 | 33,8 | 51,0 | 45,1 | 38,9 | 25,9 | 36,8 | 43,6 | 33,8 | 38,7 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

Orain arte azaldutakoaren kaltean izan gabe, kolektibo pobrearen oinarrizko ezaugarria, 2008. urtean oraindik ere, langabeen edo ezaktiboen etxeetan bizi diren herritarren pisu handia da: %68,6a, aurten. Zifra hori ez da inoizko zifrarik handienera iristen (2000. urteko %71,9era), baina aise gainditzen ditu 1986ko %58,3a.

Pobretasunerako azaldutako joerak ongizate osoa lortzen ez deneko egoeretan errepikatzen dira. Berriz ere, 2000 eta 2008 bitartean, ez-aktiboen etxeen pisuak behera egin du, 1986-2000 aldian izandako hazkunde handiaren ondoren. Esan bezala, 1986-2000 bitartean %25,9tik %43,6ra igo ondoren, zifra hori %33,8ra jaitsi zen 2004an, eta %38,7ra igo berriz 2008an. Azken urte horretan, prekarietate-egoera gehienak landunen baten mendeko herritarrei dagozkie. 1986 eta 2000 bitartean %64tik %49,8ra jaitsi ondoren, prekarietateari egindako ekarpena %56,7ra igo zen 2004an, eta %53,6an eutsi zion 2008an.

### 2.2.2. Biztanleria landunaren ezaugarriak

Aurreko atalean aurkeztutako datuek erakusten dutenez, benetako pobretasun-egoeren bi herenak 2008an langabeen eta ez-aktiboen etxeekin lotuta dauden bitartean, landunen etxeetako pertsonek osatzen dute ongizate osoko errealitateetara iristeko zailtasun-egoeren nukleo nagusia. Hori dela eta, garrantzitsua deritzogu egoera ekonomiko prekarioan lanean ari den biztanleriaren ezaugarrietan sakontzeari, aldagai profesional batzuek arrisku-maila desberdinetan izan dezakete eragina aztertuz[29]. Espezifikoki, honako datu hauek hartuko dira kontuan: lanbidea, sektorea, jarduera-adarra, lanbide-egoera, kontratu-mota, eta Gizarte Segurantzaren kotizazioa.

#### 2.2.2.1. *Pobretasun-arazoen eta prekarietate-arazoen eragina*

Lanbide-egoera eta enpresarekiko harreman-mota (kontratua izatea eta Gizarte Segurantzan izena emanda egotea) aintzat harturik, garbi ikusten da egoera irregularrean dauden soldatakoen kasuan bakarrik dela prekarietatearen eta benetako pobretasunaren eragina batez bestekoa baino askoz handiagoa. Kontraturik ez duten landunen kasuan, horietako %42,6 ongizate osoko egoera ez duten etxeetan bizi dira, eta benetako pobretasunaren

---

[29] Aintzat hartutako arrisku-adierazleak ordea etxe osoari dagozkio. Ez dira, beraz, pertsona landunen baliabideetan beraietan oinarritutako adierazleak.

tasa %16,3ko mailara iristen da haien artean. Gizarte Segurantza ordaintzen ez dutenen kasuak aintzat hartzean, oso antzeko zifrak ditugu: %39,7 eta %14,9.

Nahiz eta tasak askoz txikiagoak izan, batez ere benetako pobretasunari dagokionez, enpleguaren behin-behinekotasunak okupazio mugagabearenak baino askoz arrisku handiagoa dakar. Hala, benetako pobretasunaren tasa %0,6koa da mugagabeko kontratua duten landunen artean, eta %2koa, berriz, behin-behineko kontratua duten landunen artean. Zifrak %10etik %20,1eraino igotzen dira ongizate osoko baldintzak lortzeko ezintasunaren adierazleari dagokionez.

Biztanleria landunari dagokionez, bada datu aipagarri bat: lan indar berriaren eskaintzaren urritasunak benetako pobretasunaren eta prekarietatearen tasen beherakada nabarmena eta orokorra ekarri du 2004 eta 2008 bitartean. Pobretasun-tasa %2,2tik %1,3ra jaitsi eta lanbide-talde guztietan %2ko zifren azpitik kokatu bada ere, hobekuntzarik nabarmenena prekarietate-mailei dagokie, %24,7tik %13,9ra jaitsi baitira. Beherakada orokorra da landunen artean: %19,9tik %10era, mugagabeko kontratuak dituzten etxeetan; %30etik %20,1era, behin-behineko kontratuak dituzten etxeetan; eta %67,8tik %42,6ra, kontraturik gabe lan egiten duten pertsonen etxeetan. Beherakada handi horien garrantzia are handiagoa da kontuan hartzen bada zifrak 1996 eta 2004 bitartean bakarrik jaitsi zirela atentzioa deitzeko moduan, mugagabeko kontratuen kasuan, eta %32,5etik %19,9ra baino ez, gainera. Biztanleria landuna alde batera utzita, autonomoek ere onura atera zuten joera horretatik: haien prekarietatearen zifrak %19,4raino jaitsi ziren 2008an, baina kasu honetan kontuan izan behar da zifra horiek etengabe ari zirela jaisten 1996ko %38,3tik.

Jardueraren ikuspuntutik begiratuta, eraikuntzan, ostalaritzan eta etxeko zerbitzuan antzematen dira pobretasun eta prekarietate-arazo gehienak. Azken adar hori estuki lotua dago kontratazio irregularreko moduekin, eta han biltzen diren arazo gehienak: benetako pobretasunaren tasa %12,6koa da, eta %37,4ra iris-ten da prekarietate-arazoak aintzat hartzean, baina 1996-2004 bitarteko %55etik gorako maileetatik urrun beti ere. Landunen talde hori da, beraz, mantentze-pobretasunean erortzeko arriskua %10etik gorako zifretara (%11ra, zehazki) iristen den bakarra.

Ostalaritzan eta eraikuntzan, benetako pobretasunaren tasak apal samarrak dira: %2,5 ingurukoak. Hala ere, eraikuntzako landunen %21,3a eta ostalaritzako landunen %26,6a ez dira ongizate osoko egoeratara iristeko gauza oraindik. Errealitate horrek lehen sektoreko landunak ere bereizten ditu. Haien prekarietate-tasa %23,9koa da, baina kasu horretan

50. TAULA

**Pobretasun-egoeren eta prekarietate-egoeren eraginaren bilakaera, lanaren ezaugarrien arabera. 1996-2008**

| Lanaren ezaugarriak | Mantentze-pobretasuna | | | |
|---|---|---|---|---|
| | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 |
| **Lanbidea** | | | | |
| Zuzendariak eta autonomoak | 2,8 | 3,1 | 4,4 | 1,5 |
| Profesionalak eta teknikoak | 2,1 | 0,4 | 0,6 | 0,3 |
| Administratiboak | 1,9 | 0,5 | 0,3 | 0,8 |
| Zerbitzuetako langileak | 7,4 | 4,6 | 7,2 | 2,8 |
| Industria/eraikuntzako langileak | 4,6 | 2,3 | 2,9 | 1,8 |
| Lehen sektoreko langileak | 3,0 | 8,5 | 0,0 | 0,2 |
| **Jarduera-adarra** | | | | |
| Nekazaritza | 2,7 | 7,6 | 0,0 | 0,2 |
| Energia, kimika | 0,2 | 0,3 | 0,4 | 0,0 |
| Metala | 3,1 | 0,8 | 0,9 | 0,8 |
| Beste industria batzuk | 5,1 | 2,6 | 4,1 | 0,8 |
| Eraikuntza | 6,9 | 3,1 | 4,2 | 4,1 |
| Merkataritza | 2,1 | 2,7 | 3,0 | 0,5 |
| Ostalaritza | 7,2 | 6,8 | 7,4 | 3,0 |
| Garraioa | 5,9 | 2,1 | 2,2 | 0,5 |
| Finantzak, enpresa-zerbitzuak | 1,5 | 0,9 | 2,2 | 1,1 |
| Administrazioa, oinarrizko zerbitzuak | 2,6 | 0,6 | 1,1 | 0,4 |
| Etxeko zerbitzua | 18,2 | 11,5 | 23,3 | 11,0 |
| Beste zerbitzu komertzial batzuk | 6,4 | 2,1 | 2,6 | 2,5 |
| **Lanbide-egoera** | | | | |
| Soldatapekoak dituzten enpresaburuak | 0,5 | 1,6 | 2,4 | 1,6 |
| Autonomoak | 9,2 | 6,2 | 6,3 | 1,5 |
| Familia-laguntza | 10,9 | 2,8 | 0,0 | 0,0 |
| Kooperatibista | 0,0 | 0,4 | 0,0 | 0,0 |
| Administrazioko soldatapekoak | 0,6 | 0,0 | 0,3 | 0,1 |
| Enpresa publikoko soldatapekoak | 3,4 | 0,0 | 2,9 | 0,0 |
| Enpresa pribatuko soldatapekoak | 3,9 | 2,2 | 3,2 | 1,8 |
| Beste egoera bat | 20,9 | 6,4 | 0,0 | 35,2 |
| Guztira | 4,1 | 2,4 | 3,1 | 1,5 |
| **Talde-mota (soldatapekoak)** | | | | |
| Mugagabea | 2,0 | 0,8 | 1,6 | 0,7 |
| Behin-behinekoa | 4,4 | 2,2 | 2,5 | 2,4 |
| Kontraturik gabea | 15,7 | 10,1 | 28,1 | 13,2 |
| **Gizarte Segurantzako kotizazioa (soldatapekoak)** | | | | |
| Bai | | 1,3 | 1,9 | 1,0 |
| Ez | | 9,2 | 23,4 | 16,9 |
| Guztira (soldatapekoak) | 3,3 | 1,8 | 2,8 | 1,5 |

Biztanleria landuna (ehunekotan)

| **Metatze-pobretasuna** | | | | **Benetako pobretasuna** | | | | **Ez ongizate osoa** | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1996** | **2000** | **2004** | **2008** | **1996** | **2000** | **2004** | **2008** | **1996** | **2000** | **2004** | **2008** |
| 0,0 | 0,4 | 0,0 | 0,0 | 0,8 | 0,7 | 0,0 | 0,9 | 28,1 | 16,1 | 24,3 | 12,0 |
| 0,1 | 0,2 | 0,1 | 0,1 | 0,5 | 0,3 | 0,2 | 0,1 | 10,9 | 10,5 | 9,6 | 5,0 |
| 0,4 | 0,3 | 0,0 | 0,0 | 1,0 | 0,3 | 0,0 | 0,6 | 14,2 | 15,1 | 13,2 | 6,8 |
| 1,2 | 4,8 | 2,8 | 0,5 | 4,4 | 5,7 | 5,4 | 2,7 | 35,1 | 34,2 | 37,5 | 21,0 |
| 1,2 | 1,8 | 2,0 | 0,3 | 2,8 | 2,8 | 2,5 | 1,4 | 38,0 | 30,2 | 30,2 | 17,8 |
| 5,5 | 3,4 | 7,4 | 0,9 | 5,9 | 4,5 | 7,4 | 1,1 | 31,5 | 26,6 | 22,0 | 14,7 |
| 4,9 | 3,8 | 7,7 | 0,8 | 5,3 | 4,8 | 7,7 | 0,9 | 29,3 | 30,0 | 17,4 | 23,9 |
| 0,0 | 1,5 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 1,5 | 0,0 | 0,0 | 25,4 | 14,0 | 15,0 | 11,1 |
| 1,2 | 0,8 | 1,4 | 0,4 | 2,1 | 1,5 | 1,4 | 0,8 | 30,4 | 23,3 | 19,4 | 12,0 |
| 0,1 | 1,9 | 0,5 | 0,1 | 2,1 | 3,2 | 3,2 | 0,8 | 30,2 | 21,9 | 30,5 | 16,0 |
| 2,6 | 1,4 | 3,4 | 0,2 | 6,4 | 2,3 | 3,1 | 2,5 | 43,2 | 34,8 | 41,3 | 21,3 |
| 0,3 | 0,9 | 2,9 | 0,1 | 1,1 | 1,5 | 2,3 | 0,3 | 27,7 | 25,5 | 28,9 | 14,7 |
| 1,4 | 7,4 | 3,3 | 0,3 | 4,1 | 8,1 | 3,4 | 2,6 | 42,5 | 34,1 | 40,0 | 26,6 |
| 1,2 | 2,6 | 0,0 | 0,5 | 3,2 | 3,1 | 0,9 | 1,0 | 37,3 | 24,3 | 20,8 | 12,6 |
| 0,0 | 0,7 | 0,3 | 0,0 | 0,9 | 0,7 | 1,2 | 0,3 | 15,3 | 14,1 | 16,1 | 9,9 |
| 0,2 | 0,4 | 0,4 | 0,2 | 0,9 | 0,4 | 1,0 | 0,5 | 12,8 | 14,3 | 14,6 | 5,5 |
| 1,7 | 11,0 | 2,8 | 2,4 | 6,4 | 14,5 | 14,4 | 12,6 | 57,8 | 55,3 | 63,0 | 37,4 |
| 0,7 | 0,9 | 0,2 | 0,0 | 3,2 | 1,5 | 1,6 | 0,1 | 25,9 | 28,4 | 18,1 | 13,0 |
| 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,9 | 1,4 | 15,6 | 10,1 | 15,8 | 9,3 |
| 0,5 | 2,2 | 2,8 | 0,4 | 3,1 | 3,0 | 4,9 | 0,4 | 38,3 | 31,2 | 31,7 | 19,4 |
| 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,3 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 61,0 | 31,5 | 48,3 | 32,0 |
| 0,0 | 0,0 | 1,6 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 1,6 | 0,0 | 12,2 | 12,1 | 15,5 | 12,6 |
| 0,0 | 0,0 | 0,2 | 0,0 | 0,3 | 0,0 | 0,2 | 0,1 | 10,3 | 13,1 | 11,6 | 4,3 |
| 2,6 | 0,0 | 0,9 | 0,0 | 2,6 | 0,0 | 0,9 | 0,0 | 29,7 | 20,7 | 21,7 | 8,5 |
| 1,2 | 2,3 | 1,6 | 0,3 | 2,8 | 3,1 | 2,3 | 1,6 | 30,5 | 25,6 | 26,7 | 15,0 |
| 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 16,1 | 51,9 | 47,2 | 26,4 | 46,0 |
| 0,9 | 1,8 | 1,5 | 0,3 | 2,4 | 2,5 | 2,2 | 1,3 | 28,4 | 24,0 | 24,7 | 13,9 |
| 0,8 | 0,9 | 0,3 | 0,1 | 1,6 | 1,3 | 0,6 | 0,6 | 23,5 | 19,7 | 19,9 | 10,0 |
| 1,4 | 2,2 | 3,6 | 0,4 | 3,2 | 3,1 | 2,7 | 2,0 | 31,0 | 25,2 | 30,0 | 20,1 |
| 2,7 | 10,6 | 5,9 | 3,7 | 8,6 | 13,4 | 21,6 | 16,3 | 57,9 | 54,1 | 67,8 | 42,6 |
| | 1,3 | 1,2 | 0,2 | | 1,9 | 1,2 | 0,9 | | 21,7 | 22,8 | 12,5 |
| | 9,9 | 5,2 | 3,5 | | 12,6 | 18,9 | 14,9 | | 49,8 | 59,4 | 39,7 |
| 1,0 | 1,9 | 1,4 | 0,3 | 2,4 | 2,6 | 2,0 | 1,4 | 27,2 | 23,6 | 24,3 | 13,3 |

benetako pobretasunaren arazoak %1a baino gutxiago dira, 2004. urtetik aurrera tasek izandako beherakada nabarmenari esker.

Lanbideka, hemen aintzat hartutako arazoen eragin nagusia zerbitzuen sektoreko langileei dagokie: prekarietate-tasa %21koa da haien artean, eta benetako pobretasunaren eragina, berriz, %2,7koa. Zifrak %17,8ra eta %1,4era jaisten dira, hurrenez hurren, industriako eta eraikuntzako langileen kasuan. Gainerako lanbide-taldeetan, prekarietatearen eta pobretasunaren tasak nabarmen murriztu dira, eta %1a baino gutxiago izatera iritsi dira kasu askotan, azken dimentsio horretan. Horren haritik, pobretasun/ongizatearen eskalaren alde positiboan, zuzendari eta langile autonomo, profesional, tekniko eta administrarien %90-95 inguru, ongizate osoko egoeretara iritsi dira 2008. urtean.

Aintzat hartutako denbora-bitarte horretan, pobretasunak industriako langileen artean izandako eragina zerbitzuen langileen artean izandakoa baino txikiagoa izan bada ere, 1996an gauzak ez ziren horrela gertatu, prekarietate-adierazleei dagokionez. Egungo diferentziak zerbitzuen sektoreko langileek izandako bilakaera konparatiboki okerrago batekin loturik daude, beraz. Hala, industriako langileen artean 1996 eta 2000 bitartean antzemandako eta 2004an indartutako beherakadaren aurka, zerbitzuetako langileen prekarietate tasak gora egin zuen 2000 eta 2004 bitartean, 1996 eta 2000 bitarteko mailen gainetik egin ere. Hala ere, aipatzekoa da zerbitzuen sektoreko profesionalen egoera nabarmen hobetu zela 2004 eta 2008 bitartean. Hori dela eta, lau urte horietan zehar, zifrak era nabarian murriztu ziren: %5,4tik %2,7ra, benetako pobretasunari dagokionez; %37,5etik %21era, prekarietate-tasari dagokienez.

#### 2.2.2.2. *Pobretasun-arazoen eta prekarietate-arazoen banaketa*

Barne-banaketa dela eta, biztanleria landunaren artean, benetako pobretasuneko egoera gehienak mugagabeko kontraturik ez duten soldatapekoei dagozkie, kontratu motaren bat izan edo ez. Kolektibo horri prekarietate-egoera orokorren %34,8 baino ez badagokio ere, benetako pobretasun egoeren %62,8a biltzen ditu, 1996ko %44,9a baino askoz gehiago.

Egoera irregularrean dauden langileen pisua bereziki nabarmena da, pobretasunaren banaketa aintzat hartzean. Nahiz eta ongizate osoko egoeretara iristen ez direnen %8 baino ez izan langile irregularrak, benetako pobretasun egoeren eraginpean dauden landunen talde handi bat osatzen duten, egoera horien guztien %33,4a biltzen duten neurrian. Behinbehineko langile-taldea ere erabakigarria da. Egun benetako pobretasunaren

esperientzia duten landun guztien %29,4 dira, prekarietate-egoera zabalagoei dagokienez atzemandako %26,9a baino pixka bat gehiago.

Oso tasa txikiak erregistratu arren, mugagabeko kontatuta duten soldatapeko langileek osatzen dute, hala ere, talde nagusia prekarietate-egoera orokorretan: ongizate osoko egoera batera iristen ez diren okupatuen ia erdia —%44,8— mugagabeko kontratua duten langileak dira. Gainera, gero eta pisu hartzen ari dira pobrezia egoeran dauden soldatapeko langileen artean. Horren haritik, 2004-2008 bitarteko daturik deigarriena hau da: 1996 eta 2004 bitartean benetako pobretasunari egindako ekarpena %36tik %16,4ra beheratzen ikusi ondoren, ekarpen hori hazten hasi eta %27ra iritsi dela 2008an. Mugagabeko kontratua duten soldatapeko bilakaera horrek zerikusia du landun pobreen kolektiboko sektore pribatuaren soldatapekoei dagokien zatiaren hazkunde handiarekin: 2004ko gutxieneko %70,8tik egungo %88,7ra igaro baitzen. Kolektibo horrek landunen arteko prekarietate-egoeren %74,7a biltzen du.

Soldatapekoentzat aipatutakoarekin kontrastatuz, autonomoek prekarietate-egora guztien %15,8 baino ez dute biltzen 2008an, 1996ko %19,5etik hasitako beheranzko joerarekin jarraituz. Benetako pobretasunari egindako ekarpena are txikiagoa da: %3,7; hau da, 2004ko %23,7a eta 1996 eta 2000ko %15a eta %19a baino askoz txikiagoa.

Pobretasunean eta/edo prekarietatean erortzeko arrisku gehien duten hiru jarduera-adarrek —eraikuntzak, ostalaritzak eta zerbitzu domestikoak— biltzen dituzte egoera problematiko gehienak: benetako pobretasunaren arazoen %66,5a eta prekarietate-arazoen %35,1a, 2008an. Zerbitzuen gainerako adarrek pobretasun-zifra guztien %18,5a baino ez bildu arren, ongizate osoko egoerara iristen ez direnen %39,4a hartzen dute.

Zerbitzuen sektoreak gero eta toki handiagoa hartzen du, oro har, pobretasunean eta prekarietatean, eta nekazaritzak eta industriak, berriz, gero eta txikiagoa: 1996 eta 2004 bitartean, adibidez, %31,7tik %15era eta %37,7tik %25,1era jaitsi da haien ekarpena, ongizate osoko egoeretara iristeko arazoei dagokienez. Zerbitzuen ekarpena, berriz, etengabe handitu da 1996 eta 2008 bitartean: %46,3tik %65,2ra, benetako pobretasunari dagokionez; %49,9tik %59,6ra, prekarietate-tasari dagokienez. 1996 eta 2000 bitartean %22tik %8,3ra jaitsi ondoren, eraikuntza gero eta toki handiagoa hartzen hasi zen landunen benetako pobretasunaren zifretan: %8,3tik %19,8ra igo zen 2000 eta 2008 bitartean, baina 1996ko %22ra iritsi gabe betiere. Prekarietateari dagokionez ere, 1996 eta 2000 bitartean %12-13ren inguruan mantendu ondoren, zifrak %15,3ra iritsi ziren, 2004ko %17,2ko maximoaren azpitik betiere.

51. TAULA

**Pobretasun-egoeren eta prekarietate-egoeren banaketaren bilakaera, lanaren ezaugarrien arabera. 1996-2008**

| Lanaren ezaugarriak | Mantentze-pobretasuna | | | |
|---|---|---|---|---|
| | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 |
| **Lanbidea** | | | | |
| Zuzendariak eta autonomoak | 5,5 | 10,5 | 8,0 | 5,1 |
| Profesionalak eta teknikoak | 9,8 | 4,4 | 5,1 | 5,5 |
| Administratiboak | 5,6 | 1,7 | 1,0 | 3,7 |
| Zerbitzuetako langileak | 31,7 | 40,1 | 51,2 | 44,4 |
| Industria/eraikuntzako langileak | 45,2 | 37,1 | 34,6 | 41,2 |
| Lehen sektoreko langileak | 2,1 | 6,2 | 0,0 | 0,2 |
| **Jarduera-adarra** | | | | |
| Nekazaritza | 2,1 | 6,2 | 0,0 | 0,2 |
| Energia, kimika | 0,3 | 0,5 | 0,4 | 0,0 |
| Metala | 13,9 | 6,7 | 4,8 | 8,1 |
| Bestelako industriak | 11,6 | 8,3 | 8,1 | 2,6 |
| Eraikuntza | 13,8 | 11,8 | 13,9 | 26,3 |
| Merkataritza | 7,1 | 14,9 | 12,3 | 4,2 |
| Ostalaritza | 6,9 | 15,8 | 14,6 | 10,3 |
| Garraioa | 8,5 | 4,8 | 4,3 | 2,0 |
| Enpresa-zerbitzuak | 2,1 | 3,9 | 8,5 | 8,5 |
| Administrazioa, oinarrizko zerbitzuak | 10,5 | 4,0 | 6,9 | 4,9 |
| Etxeko zerbitzua | 14,4 | 20,0 | 23,1 | 25,6 |
| Beste zerbitzu komertzial batzuk | 8,8 | 3,1 | 3,1 | 7,4 |
| **Lanbide-egoera** | | | | |
| Soldatapekoak dituzten enpresaburuak | 0,3 | 2,2 | 2,6 | 3,6 |
| Autonomoak | 32,5 | 33,6 | 22,0 | 10,8 |
| Familia-laguntza | 1,6 | 0,7 | 0,0 | 0,0 |
| Kooperatibista | 0,0 | 0,4 | 0,0 | 0,0 |
| Administrazioko soldatapekoak | 1,9 | 0,0 | 1,2 | 0,6 |
| Enpresa publikoko soldatapekoak | 2,5 | 0,0 | 3,1 | 0,0 |
| Enpresa pribatuko soldatapekoak | 60,2 | 62,4 | 71,0 | 80,1 |
| Beste egoera bat | 1,0 | 0,7 | 0,0 | 4,8 |
| **Talde-mota (soldatapekoak)** | | | | |
| Mugagabea | 25,4 | 16,7 | 29,6 | 29,9 |
| Behin-behinekoa | 25,9 | 23,2 | 17,9 | 28,6 |
| Kontraturik gabea | 13,4 | 22,6 | 27,9 | 22,2 |
| **Gizarte Segurantzako kotizazioa (soldatapekoak)** | | | | |
| Bai | | 40,5 | 49,4 | 52,4 |
| Ez | | 21,9 | 26,0 | 28,3 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 |

Biztanleria landuna (ehunekotan)

| Metatze-pobretasuna | | | | Benetako pobretasuna | | | | Ez ongizate osoa | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1996** | **2000** | **2004** | **2008** | **1996** | **2000** | **2004** | **2008** | **1996** | **2000** | **2004** | **2008** |
| | | | | | | | | | | | |
| 0,1 | 1,6 | 0,0 | 0,0 | 2,7 | 2,3 | 0,0 | 3,8 | 8,1 | 5,4 | 5,6 | 4,6 |
| 1,6 | 2,7 | 2,2 | 9,3 | 4,2 | 2,8 | 1,8 | 2,0 | 7,3 | 10,1 | 9,6 | 9,8 |
| 5,0 | 1,2 | 0,0 | 0,0 | 5,3 | 0,9 | 0,0 | 3,3 | 6,0 | 5,2 | 5,2 | 3,5 |
| 22,8 | 53,5 | 42,0 | 44,0 | 32,4 | 46,9 | 53,5 | 51,5 | 21,6 | 29,0 | 33,3 | 36,7 |
| 53,0 | 37,8 | 50,2 | 42,4 | 48,1 | 44,0 | 40,9 | 38,3 | 53,8 | 48,4 | 45,3 | 44,0 |
| 17,5 | 3,2 | 5,6 | 4,3 | 7,3 | 3,1 | 3,8 | 1,1 | 3,2 | 1,9 | 1,0 | 1,4 |
| | | | | | | | | | | | |
| 17,5 | 3,9 | 5,6 | 4,3 | 7,3 | 3,7 | 3,8 | 1,1 | 3,3 | 2,4 | 0,8 | 2,6 |
| 0,3 | 3,2 | 0,0 | 0,0 | 0,1 | 2,4 | 0,0 | 0,0 | 4,7 | 2,3 | 1,9 | 2,3 |
| 24,9 | 8,3 | 16,3 | 23,1 | 16,3 | 12,1 | 10,9 | 10,4 | 19,7 | 19,0 | 13,6 | 14,1 |
| 0,7 | 7,6 | 2,1 | 1,3 | 8,1 | 9,6 | 8,6 | 3,5 | 9,9 | 6,7 | 7,4 | 6,1 |
| 23,3 | 6,7 | 23,6 | 8,0 | 22,0 | 8,3 | 14,3 | 19,8 | 12,4 | 12,9 | 17,2 | 15,3 |
| 4,3 | 6,5 | 24,6 | 4,3 | 6,6 | 7,9 | 13,1 | 3,2 | 13,7 | 13,8 | 14,8 | 14,0 |
| 6,2 | 22,3 | 13,4 | 5,7 | 6,9 | 18,0 | 9,2 | 10,9 | 5,9 | 7,8 | 9,8 | 10,1 |
| 8,0 | 7,7 | 0,0 | 10,0 | 8,1 | 6,6 | 2,3 | 4,6 | 7,8 | 5,4 | 5,0 | 5,4 |
| 0,0 | 3,9 | 2,2 | 0,0 | 2,3 | 2,9 | 6,6 | 3,3 | 3,2 | 5,8 | 7,8 | 8,7 |
| 4,1 | 3,4 | 5,8 | 11,1 | 6,1 | 2,5 | 8,9 | 7,1 | 7,5 | 10,1 | 11,4 | 7,5 |
| 6,2 | 24,7 | 5,8 | 32,1 | 8,9 | 24,1 | 19,7 | 35,8 | 6,6 | 9,5 | 7,8 | 9,7 |
| 4,5 | 1,7 | 0,5 | 0,0 | 7,5 | 2,1 | 2,6 | 0,3 | 5,1 | 4,2 | 2,6 | 4,2 |
| | | | | | | | | | | | |
| 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 1,4 | 3,8 | 1,5 | 1,3 | 2,1 | 2,3 |
| 7,9 | 15,4 | 20,5 | 17,3 | 18,9 | 15,3 | 23,7 | 3,7 | 19,5 | 16,7 | 13,8 | 15,8 |
| 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,1 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 1,3 | 0,7 | 0,2 | 0,2 |
| 0,0 | 0,0 | 2,6 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 1,8 | 0,0 | 1,1 | 1,3 | 1,5 | 1,4 |
| 0,0 | 0,0 | 1,4 | 1,4 | 1,8 | 0,0 | 0,9 | 1,1 | 4,6 | 6,5 | 5,5 | 3,5 |
| 8,6 | 0,0 | 2,1 | 0,0 | 3,3 | 0,0 | 1,4 | 0,0 | 3,2 | 1,5 | 2,9 | 1,4 |
| 83,4 | 84,6 | 73,5 | 81,3 | 75,9 | 84,7 | 70,8 | 88,7 | 68,6 | 71,4 | 73,8 | 74,7 |
| 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 2,7 | 0,3 | 0,5 | 0,1 | 0,7 |
| | | | | | | | | | | | |
| 45,1 | 24,2 | 10,5 | 23,9 | 36,0 | 25,7 | 16,4 | 27,0 | 43,1 | 41,5 | 46,7 | 44,8 |
| 36,6 | 29,9 | 54,4 | 24,0 | 32,2 | 30,5 | 27,1 | 29,4 | 26,0 | 26,1 | 27,2 | 26,9 |
| 10,4 | 30,5 | 12,0 | 34,9 | 12,7 | 28,5 | 29,6 | 33,4 | 7,1 | 11,9 | 8,4 | 8,0 |
| | | | | | | | | | | | |
| | 54,1 | 64,9 | 49,3 | | 56,3 | 44,2 | 59,3 | | 67,7 | 74,0 | 72,2 |
| | 30,5 | 12,0 | 33,5 | | 28,5 | 29,0 | 30,4 | | 11,7 | 8,2 | 7,4 |
| 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

### 2.2.3. Lanarekiko, langabeziarekiko eta aktibitaterik ezarekiko harremana etxean

Orain arte aurkeztutako datuek erakusten dutenez, lotura nabarmena dago pobretasun eta prekarietate-egoeren artean, batetik, eta langabeziaren eta lan ez egonkorraren eta/edo irregularraren artean, bestetik. Hurbilketa sintetiko batean, biztanleek aktibitatearekin, lanarekin eta langabeziarekin duten harremanaren arabera sailkatu dira EAEko etxeak, eta lortutako adierazleak pobretasun-adierazleekin eta prekarietate-adierazleekin alderatu dira gero.

#### 2.2.3.1. *Pobretasun-arazoen eta prekarietate-arazoen eragina*

Etxean bizi diren kide aktibo guztiak lanik gabe dauden kasuetan, prekarietate-mailak gorena jotzen du. Kasu horretan, etxe-mota horietan bizi diren pertsonen %75,5a ez da ongizate osoko egoerara iristen, eta zifrak %35era iristen dira, benetako pobretasun egoerak kontuan hartzean.

Mailek nabarmen behera egiten badute ere, pobretasun-arazoak eta prekarietate-arazoak oso tasa handietara iristen dira pertsona landunen bat bizi den etxeetan, lana ezegonkortasun-baldintzetan betetzen baldin badu. Kasu horietan prekarietate-tasa %39,5ekoa da, eta biztanleen %13,7a benetako pobretasun egoeran bizi da. Etxe ez-aktiboen kasuan, prekarietate-tasa aurrekoaren antzekoa da: %33,1. Benetako pobretasunaren tasa, berriz, %3,8ra murrizten da, baina EAEko batez besteko orokorraren gainetik dago oraindik.

Ongizate osoko egoeretara iristeko arazoen eragina asko murrizten da langaberen bat edo landun ez-egonkorren bat baldin badago aktiboen artean, baina baita enplegu egonkorra daukan pertsonaren bat baldin badago ere. Beste egoera batzuetan, prekarietate-tasa %17,4ra jaisten da, eta pobretasunarena %0,7ra, EAEko batez besteko zifren oso azpitik. Gauza bera gertatzen da aktiboen etxeetan bizi diren pertsonei dagokienez, egonkorrak denak. Kasu horretan, zifrarik apalenetako batzuk agertzen dira: %13,3, prekarietate-egoerari dagokionez, eta %0,8, pobretasun-tasari dagokionez.

Benetako pobretasun egoeren eraginpean dauden taldeetan oso estua da egoera horren eta mantentze-pobretasunaren arteko harremana. Hala, dimentsio horretan, arrisku-tasa %7,2ko mailetan kokatzen da ez-aktiboak bizi diren etxeetan, %12,3ra igotzen da aktiboak bizi diren etxeetan, bertan landun ez-egonkor bat dagoen kasuetan, eta %42,1era

aktibo langabeak bizi diren etxeen kasuan. Baina eraginak nabarmen behera egiten badu ere, hiru kolektibo horiek ere batez bestekoaren gainetik kokatzen dira metatze-pobretasunaren adierazleetan: %1,5, ez-aktiboak bizi diren etxeetan, eta %2,5etik %3ra aktibo langabeak edo landun ez egonkorrak bizi diren etxeetan.

2000 eta 2004 bitarteko bilakaeraren datuek erakusten dutenez, egonkortze-prozesu orokorrak gertatzen ari dira, aktiboak bizi diren etxeetan behintzat, eta ongizate osoko egoeretara iristerik ez duten etxeetan bizi diren pertsonen proportzioa ere gora egiten ari da. 2004 eta 2008 bitartean, berriz, prekarietatetasek behera egiten dute talde guztietan, eta minimo historikoak erregistratzen dira haietan guztietan. Beherakadarik deigarrienak, 15-20 puntu artekoak 1986tik, etxean bizi diren guztiak edo haietako batzuk landun egonkorrak diren aktiboen etxeekin lotzen dira, edota ez-aktiboen etxeetan bizi diren pertsonekin.

52. TAULA

**Pobretasun-egoeren eta prekarietate-egoeren eraginaren bilakaera, aktibitatearen, lanaren eta langabeziaren aurrean etxeak bizi duen egoeraren arabera. 1996-2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (ehunekotan)

| Etxearen egoera | Mantentze-pobretasuna | | | | Metatze-pobretasuna | | | | Benetako pobretasuna | | | | Ez ongizate osoa | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 |
| Aktiboak, denak egonkorrak | 4,7 | 2,2 | 3,1 | 1,7 | 0,7 | 0,5 | 1,6 | 0,1 | 2,2 | 1,1 | 2,3 | 0,8 | 31,2 | 23,1 | 24,0 | 13,3 |
| Aktiboak, egonkorren bat | 2,9 | 1,6 | 2,5 | 0,3 | 1,2 | 2,1 | 0,8 | 0,3 | 3,1 | 2,5 | 2,1 | 0,7 | 32,0 | 28,7 | 29,5 | 17,4 |
| Aktiboak, ez-egonkorren bat | 11,6 | 7,8 | 10,2 | 12,3 | 2,1 | 6,6 | 6,7 | 2,9 | 7,4 | 8,8 | 9,2 | 13,7 | 51,3 | 43,9 | 51,7 | 39,5 |
| Aktiboak, langabetuak | 41,9 | 52,5 | 43,0 | 42,1 | 10,2 | 16,7 | 11,0 | 2,4 | 29,6 | 34,0 | 28,7 | 35,0 | 82,7 | 84,3 | 83,9 | 75,7 |
| Ez aktiboak | 13,4 | 13,8 | 12,8 | 7,2 | 1,4 | 1,6 | 2,0 | 1,5 | 5,9 | 5,2 | 6,4 | 3,8 | 54,3 | 46,7 | 42,8 | 33,1 |
| Guztira | 9,3 | 6,3 | 6,1 | 4,1 | 1,8 | 2,6 | 2,2 | 0,7 | 5,8 | 4,4 | 4,2 | 3,2 | 41,2 | 33,1 | 32,7 | 21,1 |

Antzeko testuinguru batean, non benetako pobretasunaren tasak baino ez baitu nabarmen behera egin 2000 eta 2000 bitartean pertsona langabeen kasuan, lan egonkorra duten ez-aktiboen edo aktiboen kolektiboen bilakaera ere oso ona gertatu da azken aldian. 2008ko errealitatea askoz okerragoa zen, ordea, beste kolektibo batzuetan. Langabetuen etxeetan, 2004 eta 2008 bitartean, benetako pobretasunaren tasa %28,7tik %35era igo zen, eta 1996-2008 bitarteko goren mailara iritsi zen. Gauza bera gertatzen da aktiboen etxeetako pertsonen kasuan, gutxienez landun ez-egonkor bat dagoenean. Kasu horretan, gainera,

2008an iritsitako goren mailak, %13,7k, benetako pobretasunaren tasaren etengabeko hazkundea islatzeko berezitasuna du: %7,4 1996an, %8,8 2000an, %9,2 2004an eta, azkenik, %13,7 2008an. Erabakigarria gertatu zen, kasu horretan, 2000 eta 2008 bitartean, mantentze-pobretasunean erortzeko arrisku-mailaren etengabeko hazkundea. Errealitate hori aktibo landunen beste etxe batzuetan errepikatu zen 2000 eta 2004 bitartean, baina egoera zeharo aldatu zen 2004 eta 2008 bitartean, landun egonkorren baten aurrean.

#### 2.2.3.2. Pobretasun-arazoen eta prekarietate-arazoen banaketa

2008an, benetako pobretasunaren arazoak izan dituzten pertsonen %82,5a eta ongizate osoko egoeretara iristen ez zirenen %50a landun egonkor bakar bat ere ez zuten etxeetan bizi ziren. Hala ere, daturik aipagarriena da, gutxienez bat landun egonkorra ez den aktiboen etxeetan daudela bilduta gaur egun arazo gehienak. Etxe horiek pobretasun-egoera benetakoan dauden pertsona guztien %67,7 biltzen dituzte. Gainera, kolektibo nagusia osatzen dute —%42a— ongizate osoko egoerara iristen ez diren etxeen artean (okupatu egonkorrez osatutako aktiboen etxeetan bizi direnen %32,6aren gainetik, eta ez-aktiboen etxeetan bizi direnen %25,4aren gainetik).

Bilakaera-datuei dagokienez, 2004-2008 aldiko goranzko joera alde batera utzita, deigarria izan da aktibo guztiak lanik gabe dauden etxeekin lotuta dagoen benetako pobretasunaren pisuaren gainbehera. Hala, etxe horietan bizi ziren pertsonek benetako pobretasun egoera desberdinei egindako ekarpena %41,2tik %24,3ra jaitsi zen 1996 eta 2008 bitartean. Nahiz eta pobretasunaren dimentsio guztietan izan eragina, beherakada nabarmenagoa izan zen metatze-pobretasunaren arazoei zegokionez. Pertsona horien ekarpena %44,6tik %7,7ra jaitsi zen (%36,3tik %22,4ra, mantentze-pobretasunean erortzeko arriskuari zegokionez). Hori horrela da, neurri handi batean, taldeak garrantzi sozial eta demografikoa galdu duelako biztanleria osoari dagokionez: 1996an biztanleria osoaren %8,1a hartzen zuen eta 2008an %2,2a baino ez.

Pertsona landun bat duten etxeek pobretasunari eta prekarietateari egindako ekarpenak, berriz, gora egin du. Benetako pobretasunari dagokionez, ekarpen hori bereziki deigarria da aktibo landun ez-egonkorrak dituzten etxeen kasuan. Kolektibo horren pisua %16,2tik %38,6ra handitu zen 1996 eta 2008 bitartean. Prozesu hori pobretasunaren dimentsio guztietan agertzen da: %15,9tik %26,7ra igo da mantentze-arazoen kasuan, eta %14,6tik %38,8ra, metatze-pobretasunaren kasuan. Nahiz eta 2004. urtetik aurrera apur bat behera egin, ez-aktiboen etxeek pobretasunean duten pisuak gora egin du, %13,8tik %19,5era,

14. GRAFIKOA

**Benetako pobretasuna, aktibitatearen, lanaren eta langabeziaren aurrean etxeak bizi duen egoeraren arabera: eraginaren bilakaera (familia-etxebizitzetan bizi diren herritarren ehunekoa) eta biztanleria pobrearen banaketaren bilakaera (Ehuneko bertikalak). 1996-2008**






53. TAULA

**Pobretasun-egoeren eta prekarietate-egoeren banaketaren bilakaera, aktibitatearen, lanaren eta langabeziaren aurrean etxeak bizi duen egoeraren arabera. 1996-2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (Ehuneko bertikalak)

| Etxearen egoera | Mantentze-pobretasuna | | | | Metatze-pobretasuna | | | | Benetako pobretasuna | | | | Ez ongizate osoa | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 |
| Aktiboak, denak egonkorrak | 20,6 | 13,0 | 22,9 | 20,7 | 14,9 | 7,7 | 32,3 | 9,7 | 15,4 | 9,7 | 24,7 | 12,7 | 30,8 | 26,2 | 33,2 | 32,6 |
| Aktiboak, egonkorren bat | 7,9 | 8,6 | 11,4 | 1,7 | 16,0 | 26,9 | 9,8 | 8,6 | 13,4 | 18,7 | 13,5 | 4,8 | 19,5 | 28,8 | 25,2 | 17,4 |
| Aktiboak, ez-egonkorren bat | 15,9 | 14,5 | 17,9 | 26,7 | 14,6 | 30,1 | 32,1 | 38,8 | 16,2 | 23,4 | 23,2 | 38,6 | 15,8 | 15,4 | 16,8 | 16,7 |
| Aktiboak, langabetuak | 36,3 | 34,3 | 18,8 | 22,4 | 44,6 | 26,8 | 13,2 | 7,7 | 41,2 | 32,0 | 18,0 | 24,3 | 16,2 | 10,5 | 6,8 | 7,9 |
| Ez aktiboak | 19,4 | 29,8 | 29,0 | 28,4 | 9,9 | 8,5 | 12,5 | 35,2 | 13,8 | 16,2 | 20,6 | 19,5 | 17,8 | 19,1 | 18,0 | 25,4 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

1996 eta 2008 bitartean. Ez-aktiboen etxeetan bizi diren pertsonen kolektiboa da, bestalde, prekarietate-egoeretan pisu gehien hartu duena: 1996an, prekarietate-egoera guztien %17,8a biltzen zuen, eta 2008an %25,4a.

Nahiz eta 2004 eta 2008 bitartean behera egin lehenengoz, gutxienez landun bat duten etxeetan bizi diren pertsonek prekarietateari egindako ekarpena %66,7koa da oraindik ere. Proportzio hori %56,2koa da benetako pobretasunaren kasuan, 1996koa (%45) baino nabarmen handiagoa. Zifra eta joera horiek agerian uzten dutenez, enplegu osorako bidean dauden gizarteetan modu espezifikoan aztertu behar da ezegonkortasun-arazoak eta lansari txikiak dituzten etxeen problematika diferentziala, pobretasun eta prekarietatearen kontrako borrokan.

## 3. ALDAGAI SOZIODEMOGRAFIKOAK

Aldagai demografiko eta okupazionalekin loturiko datuak aztertzeko egindako hurbilketaren bidez, aldagai soziodemografiko adierazgarri batzuk bereizi dira PGDIren aurreko fasetan. Hurbilketa tipologiko horri esker, pobretasun-arazoek eta prekarietate-arazoek EAEn duten eragina eta barne-banaketari buruzko informazio sintetikoagoa eskuratuko dugu. Bestalde, azken urteotan pobretasun-arazoen eta prekarietate-arazoen beherakada

gehien eragin duten faktoreak aztertzeko bidea ere ematen du, 1996-2008 bitarteko aldia batez ere, garai horretako datuak osoak eta homogeneoak izanik.

### 3.1. **Pobretasun-arazoen eta prekarietate-arazoen eragina**

PGDIn definitutako aldagai soziodemografikoen azterketak aukera ematen du 2008ko Euskadin pobretasun-arazoen eta prekarietate-arazoen eraginpean bizi diren pertsonatalde nagusiak zein diren zehazteko. Testuinguru horretan, benetako pobretasunak kolektiboaren %30ari baino gehiago eragiteagatik eta prekarietatearen presentzia kolektiboaren %75ean baino handiagoa izateagatik bereizten diren ereduak nabarmentzen dira batez ere. Eredu horiek bi baino ez dira gaur egun, Europar Batasunetik kanpoko herritar bat buru duten etxeetan bizi diren pertsonei eta familia gurasobakar baten arduradunak diren lan egonkorrik gabeko 45 urtetik beherako emakumeen mendeko pertsonei erreferentzia eginez.

2008an, aintzat hartutako familia gurasobakar horietan bizi diren pertsonak dira EAEko pobretasun-tasarik eta prekarietate-tasarik handienak biltzen dituztenak. Prekarietateak erreferentzia-biztanleriaren %96,9ari eragiten dio. Benetako pobretasunak ere kolektiboaren zati handi bat hartzen du (%54,4a), 2004. urtean baino apur bat gutxiago. Taldea pobretasun-mailarik handienak izateagatik nabarmentzen da, hala metatze-dimentsioan (%27,4) nola mantentze-dimentsioan (%47,1).

Pobretasun-arazoen eta prekarietate-arazoen eragin handiena jasaten duen bigarren kolektiboa Europar Batasunetik kanpoko estatu bateko herritar bat buru duten etxeetan bizi diren pertsonena da. Nahiz eta azkeneko urteotan tasak behera egin, ongizate osoko egoeretara iristen ez diren pertsonen proportzioa %77,3koa da oraindik ere 2008an. Benetako pobretasunaren tasak aldagabe eusten dio 2000. urteaz geroztik, %31ko zifren inguruan. Nahiz eta, talde horretan, metatzepobretasuna ia erabat desagertu, mantentze-pobretasunak hartan duen eragina handia da eta gorantz doa, 2004ko %29,8tik 2008ko %34,3ra.

Nahiz eta aipatu bi taldetakoak baino txikiagoak izan, pobretasunaren eta prekarietatearen tasak handiak dira oraindik honako ezaugarri hauek dituzten pertsonen mendeko etxeetan bizi diren kolektiboen artean: bakarrik dauden pertsonak, etxean inongo familia-taldeko kideak ez direnak, 65 urtetik beherakoak, lanbide egonkorrik gabekoak. Errealitate sozial hori berdin gertatzen da etxeko pertsona nagusia gizona izan edo emakumea izan.

Arazo horien eraginpean dauden ereduetan, prekarietate-tasak %50 ingurukoak dira, baina %70,6ko zifretara ere iristen dira bakarrik dauden 45-64 bitarteko emakumeen artean. Benetako pobretasunaren tasa handia da kasu horretan ere, %22,5era iristen baita. Tasa hori %16,9ra jaisten da, berriz, bakarrik dauden 65tik beherako gizonen kasuan, eta %5,4raino, bakarrik dauden 45 urtetik beherako emakumeen kasuan. Dena dela, tasa horiek EAEko batez bestekoaren gainetik daude. Aztertutako pertsonek elkarrekin duten ezaugarri bat mantentze-pobretasunak haiengan eragin diferentziala handia izatea da: eragin horren zifrak %10aren gainetik daude beti, eta %30-35 bitartera ere irits daitezke batzuetan. Hala eta guztiz ere, batzuetan, bakarrik dauden 65 urtetik beherako gizonen kasuan, adibidez, metatze-pobretasunaren pisua kontuan hartzeko modukoa izan daiteke, pertsona horien %7,7 bere eraginpean hartzeraino. Bakarrik dauden 45 urtetik beherako emakumeen kasuan izan ezik, benetako pobretasunaren tasak gora egin du pertsona-talde horietan, 2004 eta 2008 bitartean.

Bada aipatutako ezaugarri horietako asko dituen beste pertsona-talde bat: lan egonkorrik ez duten 45 urtetik beherako pertsonak buru dituzten familia-taldetan bizi direnak osatutakoa. Prekarietate-tasak handia izaten jarraitzen du talde horretan (%42,5), eta benetako pobretasuna ere oso maila handietara iritsi da (%20), 2004. urteaz geroztik gora egiten ari baita etengabe. Mantentze-pobretasunak %10eko maila gainditu du talde horretan (%10,8), eta metatze-dimentsioko arazoak %7,7ra iristen dira.

Azken pertsona-talde batean benetako pobretasunaren zifrak txikiak dira, oro har, baina prekarietate-mailak %25 eta %30 artekoak dira orai ndik ere. Horrek emakume-mota jakin batzuk buru dituzten etxeetan bizi diren pertsonei egiten dio erreferentzi a: batetik, lan egonkorra duten eta famili a gurasobakar baten arduradunak diren emakumeak, edo familia-talderen erreferentziarik ez duten 65 urtetik beherakoak; bestetik, lan mota hori ez duten eta familia gurasobakar baten arduradunak diren 45-64 urte bitarteko emakumeak, edo familia-talde batekoak ez diren 65 urtetik gorakoak. Familia gurasobakar baten ardura duen gizon baten mende dauden pertsonak ere 2004 eta 2008 bitartean pobretasun-mailetan eta prekarietate-mailetan beherakada nabarmenak izan dituzten etxemota horien ezaugarriak dituzte. Aldagai soziodemografiko horietan, lan egonkorra duten 65 urtetik beherako emakumeen kasuan baizik ez dira gainditzen 2008an benetako pobretasunaren batez besteko mailak: %4. Adineko emakume baten mende dauden pertsonen kasuan ere, pobretasun-tasa %2,1era murrizten da.

Gainerako aldagai soziodemografikoetan, benetako pobretasunaren eragina oso txikia da, %1 ingurukoa edo txikiagoa, eta prekarietate-tasak, berriz, ez du %20tik gora egiten.

54. TAULA

**Pobretasun-egoeren eta prekarietate-egoeren eraginaren bilakaera, etxearen aldagai soziodemografikoaren arabera. 1996-2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (ehunekotan)

| Aldagai soziodemografikoa | Mantentze-pobretasuna | | | | Metatze-pobretasuna | | | | Benetako pobretasuna | | | | Ez ongizate osoa | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 |
| Emak. F. gurasobak. lan ez-egonk. 45 urt. behe | 76,3 | 42,9 | 40,0 | 47,1 | 13,3 | 24,5 | 40,9 | 27,4 | 42,8 | 32,1 | 56,9 | 54,4 | 100,0 | 83,6 | 87,1 | 96,9 |
| Emak. F. gurasobak. lan ez-egonk. 45 urte edo gehi | 26,9 | 10,9 | 12,1 | 7,0 | 3,0 | 1,1 | 4,5 | 0,0 | 15,6 | 3,3 | 7,3 | 0,6 | 66,5 | 37,5 | 59,8 | 31,2 |
| Emak. F. gurasobak. lan egonk | 12,2 | 2,1 | 7,9 | 4,8 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 2,2 | 0,8 | 0,0 | 0,4 | 28,1 | 21,1 | 37,2 | 25,0 |
| Emak. bakarrik. lan ez-egonk. 45 urt. behe | 70,4 | 47,8 | 35,7 | 12,8 | 0,0 | 13,0 | 0,0 | 0,0 | 45,8 | 20,7 | 24,7 | 5,4 | 87,7 | 62,6 | 56,9 | 49,7 |
| Emak. bakarrik. lan ez-egonk. 45 urte edo gehi | 51,3 | 49,3 | 44,9 | 36,8 | 5,5 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 24,4 | 14,2 | 4,7 | 22,5 | 78,9 | 86,6 | 73,8 | 70,6 |
| Emak. bakarrik. lan egonk. 65 urt. behe | 10,5 | 11,7 | 19,4 | 7,8 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 2,1 | 2,9 | 6,8 | 4,0 | 26,3 | 31,0 | 32,0 | 23,9 |
| Gizona. bakarrik. lan egonk. 65 urt. behe | 0,0 | 3,7 | 4,4 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 1,2 | 0,0 | 0,0 | 2,8 | 1,2 | 0,0 | 11,6 | 29,7 | 26,6 | 12,5 |
| Gizona. bakarrik. lan ez-egonk. 65 urt. behe | 22,7 | 26,3 | 25,1 | 30,4 | 9,7 | 16,8 | 0,0 | 7,7 | 23,6 | 19,2 | 10,9 | 16,9 | 76,4 | 70,3 | 66,4 | 51,0 |
| Fam-tald. lan ez-egonk. 45 urt. behe | 32,3 | 27,7 | 16,6 | 10,8 | 7,8 | 11,8 | 6,2 | 7,7 | 21,3 | 24,7 | 13,9 | 20,0 | 60,9 | 58,1 | 46,9 | 42,5 |
| Fam-tald. lan ez-egonk. 45 urt edo gehi | 12,4 | 8,0 | 5,3 | 3,0 | 1,3 | 4,7 | 0,8 | 0,3 | 7,3 | 6,7 | 2,5 | 1,2 | 55,8 | 43,5 | 39,9 | 20,1 |
| Fam-tald. lan egonk. 45 urt. behe | 5,8 | 2,8 | 4,8 | 1,3 | 0,2 | 0,9 | 0,2 | 0,3 | 2,9 | 1,3 | 1,7 | 1,0 | 32,7 | 29,5 | 30,5 | 17,3 |
| Fam-tald. lan egonk. 45 urte edo gehi | 3,5 | 2,1 | 1,1 | 0,8 | 1,4 | 1,0 | 0,7 | 0,0 | 2,7 | 1,8 | 0,8 | 0,0 | 37,3 | 24,0 | 21,6 | 10,4 |
| 65 urtetik gorako gizonak | 4,4 | 3,6 | 3,2 | 2,3 | 2,2 | 1,6 | 0,8 | 0,2 | 3,2 | 2,1 | 1,5 | 0,9 | 27,8 | 26,5 | 21,7 | 15,3 |
| 65 urtetik gorako emakumeak | 6,5 | 10,5 | 3,5 | 2,3 | 2,4 | 3,8 | 1,8 | 0,7 | 5,0 | 7,3 | 3,5 | 2,1 | 42,9 | 47,6 | 37,1 | 33,5 |
| EBetik kanpoko herrialdeak | ND | 41,2 | 29,8 | 34,3 | ND | 23,6 | 19,9 | 0,0 | ND | 31,5 | 31,6 | 31,0 | ND | 85,0 | 93,5 | 77,3 |
| Familia gurasobakarreko gizonak | 37,6 | 0,0 | 0,0 | 13,6 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 13,6 | 0,0 | 0,0 | 0,2 | 68,1 | 21,3 | 39,3 | 23,6 |
| Guztira | 9,3 | 6,3 | 6,1 | 4,1 | 1,8 | 2,6 | 2,2 | 0,7 | 5,8 | 4,4 | 4,2 | 3,2 | 41,2 | 33,1 | 32,7 | 21,1 |

Hauek dira egoera horretan sartzen dira pertsonak: bakarrik dauden eta lan egonkorra duten 65 urtetik beherako gizonen mendekoak, 65 urtetik gorako gizonen mendekoak eta, oro har, familia-talde bateko kideak direnak, familia-taldearen tituluduna Lan egonkorrik gabeko 45 urtetik beherako pertsona den kasuan izan ezik. Eredu demografiko horietan, epe ertain eta luzean, pobretasun eta prekarietate-tasak nabarmen jaisten dira.

Oro har, aldagai soziodemografikoen benetako pobretasunaren tasa, pobretasunak eta prekarietateak eragin txikia dutenean, %0,6koa baino ez da. Hemen aintzat hartutako gainerako ereduetan, berriz, %12,4koa da. Prekarietate-tasa %14,6koa da, pobretasunaren eta/edo prekarietatearen eragin handiagoa duten ereduen %44,8a baino askoz txikiagoa ere.

### 3.2. **Pobretasun-arazoen eta prekarietate-arazoen banaketa**

Nahiz eta biztanleria osoaren %7,7a baino ez bildu, 2008an izandako benetako pobretasunaren arazoen %68,8a honako hiru pertsonamota hauetakoren bat buru zuten etxeekin egon da lotuta: lan egonkorrik gabeko 45 urtetik beherako emakumea, familia gurasobakar baten arduraduna (guztien %10,5a); lan egonkorrik gabeko 45 urtetik beherako pertsona, familia-talde baten arduraduna (%21,1); Europar Batasunetik kanpoko herrialde batetik etorritako atzerritarra (guztien %37,1). Hiru talde horien ekarpena %63,5ekoa da metatzepobretasunaren kasuetan, eta %47,1ekoa, mantentzepobretasunaren kasuetan.

Nahiz eta azterketa honetan aintzat hartutako familia gurasobakarren pisua 2004koa baino txikiagoa izan, 1996 eta 2000 bitartekoa (%5 ingurukoa) baino handiagoa da oraindik ere. Lan egonkorrik ez duten 45 urtetik beherakoen familia-taldeen kasuan, berriz, kontrakoa gertatzen da: 2004tik aurrera gora egiten ari bada ere, bere ekarpena 1996koa (%22a) eta 2000koa (%25ekoa) baino txikixeagoa da. Europar Batasunetik kanpoko herrialde batetik etorritako atzerritar bat buru duten etxeen pisua, berriz, etengabe ari da handitzen: %3,2koa zen 2000an, %18,6koa 2004an, eta %37,1ekoa 2008an. Hiru kolektibo horiek pobretasunean bizi den biztanlerian duten pisua goranzko joeran da, argi eta garbi. 1996an pobretasun-egoera guztien %27,7a bildu zituzten, 2000an %32,6a, 2004an %58,4a, eta 2008an %68,6a.

Hiru aldagai soziodemografiko horiek prekarietate-egoerei egiten dieten ekarpenak ere handia izaten jarraitzen du. Ekarpena handitzen ari da, gainera, urtez urte: 1996an eta

55. TAULA

## Pobretasun-egoeren eta prekarietate-egoeren eraginaren bilakaera, etxearen aldagai soziodemografikoaren arabera. 1996-2008

Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (ehunekotan)

| Aldagai soziodemografikoa | Mantentze-pobretasuna | | | | Metatze-pobretasuna | | | | Benetako pobretasuna | | | | Ez ongizate osoa | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 |
| Emak. F. gurasobak. lan ez-egonk. 45 urt. behe | 6,4 | 4,2 | 12,8 | 7,0 | 5,6 | 5,9 | 35,8 | 25,0 | 5,7 | 4,6 | 26,0 | 10,5 | 1,9 | 1,6 | 5,2 | 2,8 |
| Emak. F. gurasobak. lan ez-egonk. 45 urte edo gehi | 8,4 | 4,7 | 3,9 | 1,9 | 4,8 | 1,2 | 3,9 | 0,0 | 7,9 | 2,1 | 3,4 | 0,2 | 4,7 | 3,1 | 3,6 | 1,6 |
| Emak. F. gurasobak. lan egonk | 1,5 | 0,6 | 2,1 | 1,8 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,5 | 0,3 | 0,0 | 0,2 | 0,8 | 1,1 | 1,8 | 1,8 |
| Emak. bakarrik. lan ez-egonk. 45 urt. behe | 1,3 | 2,3 | 3,3 | 0,6 | 0,0 | 1,6 | 0,0 | 0,0 | 1,4 | 1,5 | 3,3 | 0,4 | 0,4 | 0,6 | 1,0 | 0,5 |
| Emak. bakarrik. lan ez-egonk. 45 urte edo gehi | 2,0 | 5,2 | 4,7 | 6,2 | 1,1 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 1,5 | 2,2 | 0,7 | 4,9 | 0,7 | 1,7 | 1,4 | 2,3 |
| Emak. bakarrik. lan egonk. 65 urt. behe | 0,5 | 0,9 | 1,9 | 1,6 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,2 | 0,3 | 1,0 | 1,1 | 0,3 | 0,5 | 0,6 | 1,0 |
| Gizona. bakarrik. lan egonk. 65 urt. behe | 0,0 | 0,4 | 1,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,8 | 0,0 | 0,0 | 0,4 | 0,4 | 0,0 | 0,2 | 0,6 | 1,1 | 0,8 |
| Gizona. bakarrik. lan ez-egonk. 65 urt. behe | 1,4 | 1,6 | 3,5 | 5,0 | 3,1 | 2,5 | 0,0 | 7,8 | 2,4 | 1,7 | 2,2 | 3,6 | 1,1 | 0,8 | 1,7 | 1,6 |
| Fam-tald. lan ez-egonk. 45 urt. behe | 20,7 | 19,3 | 11,4 | 8,7 | 25,3 | 20,3 | 11,6 | 38,3 | 22,0 | 24,9 | 13,7 | 21,1 | 8,8 | 7,7 | 6,0 | 6,7 |
| Fam-tald. lan ez-egonk. 45 urt edo gehi | 21,5 | 16,6 | 9,5 | 6,4 | 11,4 | 24,0 | 4,1 | 4,0 | 20,3 | 20,0 | 6,5 | 3,4 | 21,8 | 17,1 | 13,3 | 8,5 |
| Fam-tald. lan egonk. 45 urt. behe | 13,1 | 8,9 | 16,7 | 7,6 | 2,2 | 6,7 | 1,5 | 10,9 | 10,6 | 5,7 | 8,2 | 7,4 | 16,7 | 17,6 | 19,7 | 19,5 |
| Fam-tald. lan egonk. 45 urte edo gehi | 10,8 | 9,4 | 5,1 | 5,6 | 21,2 | 11,3 | 9,0 | 0,0 | 13,6 | 11,9 | 5,7 | 0,4 | 26,0 | 20,9 | 19,4 | 14,0 |
| 65 urtetik gorako gizonak | 7,2 | 10,0 | 8,4 | 8,9 | 18,2 | 10,9 | 6,2 | 5,8 | 8,5 | 8,4 | 5,6 | 4,7 | 10,3 | 14,2 | 10,8 | 11,6 |
| 65 urtetik gorako emakumeak | 3,9 | 12,9 | 3,3 | 4,4 | 7,2 | 11,5 | 4,7 | 8,0 | 4,9 | 12,9 | 4,7 | 5,1 | 5,9 | 11,1 | 6,4 | 12,4 |
| EBetik kanpoko herrialdeak | 0,0 | 2,9 | 12,2 | 31,4 | 0,0 | 4,0 | 22,4 | 0,2 | 0,0 | 3,2 | 18,6 | 37,1 | 0,0 | 1,1 | 7,2 | 13,8 |
| Familia gurasobakarreko gizonak | 1,3 | 0,0 | 0,0 | 2,9 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,8 | 0,0 | 0,0 | 0,1 | 0,5 | 0,3 | 0,8 | 1,0 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

15. GRAFIKOA

**Benetako pobretasun egoeren kontzentrazioaren bilakaera, arazoak gehien erasaten duen aldagai soziodemografikoetan. 1996-2008**

(Ehuneko bertikalak)




2000an pobretasun-egoera guztien %10a inguru biltzen zuten eta egun %23,3a. Ez dute, ordea, pobretasunaren alorrean adinako garrantzia. Nahiz eta haien pisua gutxituz joan 199 6an atzemandako %73,4 hartatik hona, prekarietate-arazoek, edo ongizate gabeziako arazoek gehiengoa izaten jarraitzen dute familia-talde desberdinetan: %48,7a 200 8an. Testu inguru horretan, garrantzitsua da, baita ere, 65 urtetik gorako gizon edo emakumeen etxeetako pertsonei dagokien multzoa: 1996ko %16,1etik goranzko joeran, prekarietate-egoeren beste %24a biltzen dute egun.

### 3.3. **Aldaketa faktoreak pobretasunaren eta prekarietatearen eraginean**

2008ko atalaseei doitutako terminoetan, 1996an 122.723 pertsona zeuden benetako pobretasun egoeran. Egun ordea kopuru hori %44,5 txikiagoa da: 68.051 pertsona.

Beherakada horretan lagundu duten faktoreak aldagai soziodemografikoaren arabera aztertuta, bereziki nabarmendu behar da benetako erkidegotik kanpoko immigrazioarekin loturank ez duten biztanleria taldeetan pobretasunaren tasa espezifikoek izandako beherakadaren garrantzia. Beherakada hon dela eta, pobretasunaren hasierako zifrak %48,6

56. TAULA

**1996 eta 2008 bitartean benetako pobretasunaren mailetan izandako aldaketetan erabakigarriak gertatu diren faktoreak**

| **1996AN POBRETASUNEAN BIZI ZEN BIZTANLERIA** | 122.723 | | |
|---|---|---|---|
| **Pobretasunaren zifrak murrizten laguntzen duten faktoreak** | **Absolutuak** | **1996ko biztanleriaren ehunekoa** | **Taldean nagusi den joeraren ehunekoa** |
| ***Pobretasun-tasen beherakadak*** | –59.644 | –48,6 | — |
| Emakumezkoen familia gurasobakarrak/ Familia taldeak. Lan egonkorrik gabeko etxejabea | *–14.568* | *–11,9* | 24,4 |
| Emakumezkoen familia gurasobakarrak/ Familia taldeak. Lan egonkorra duen etxejabea | *–26.955* | *–22,0* | 45,2 |
| Gizonezkoen familia gurasobakarrak | *–2.535* | *–2,1* | 4,3 |
| Bakarrik dauden 65. urtetik beherako pertsonak | *–2.689* | *–2,2* | 4,5 |
| 65. urtetik gorako pertsonak | *–12.897* | *–10,5* | 21,6 |
| ***Demografia-egituren aldaketak*** | –20.252 | –16,5 | — |
| Biztanle-kopuruaren beherakada: Emakumezkoen familia gurasobakarrak/ Familia taldeak. Lan egonkorrik gabeko etxejabea | *–30.090* | *–24,5* | 100 |
| Biztanleria-hazkundea beste aldagai soziodemografiko batzuetan | *9.838* | *8,0* | |
| ***Guztira*** | –79.896 | –65,1 | 100 |
| **Pobretasunaren zifrak murrizten lagundu duten faktoreak** | **Absolutuak** | **1996ko biztanleriaren ehunekoa** | **Taldean nagusi den joeraren ehunekoa** |
| ***EBtik kanpoko immigrazioarekin lotutako pobretasun berria*** | 25.225 | 20,6 | 100 |
| **2008an pobretasunean bizi den biztanleria** | 68.051 | — | — |
| Beherakada 1966ko urtearekiko | — | **–44,5** | — |

txikiagoak dira egun. Benetako pobretasunaren zifren murrizketa horri demografiaren bilakaerak izandako paper positiboa gehitu behar zaio. Demografiaren egituran atzemandako aldaketek %16,5eko beherakada garbia dakarte 1996ko pobretasunaren zifretan.

Familia gurasobakarrek eta lan egonkorrik gabeko pertsona bat buru duten familia-taldeek osatutako arrisku-taldeen bolumenaren murrizketa erabakigarria gertatu zen. Alda-

gai soziodemografiko horien biztanleria-bolumenaren beherakada 1996ko pobretasun-zifren %36,4ko beherakadaren adinako ekarpen bat da berez. %24,5a familia-mota horri dagozkion pertsonen kopuruaren beherakadarekin lotua dago, eta beherakada hon okupazioak Euskadin 90eko hamarraldiaren erdialdean izandako hazkunde nabarmenaren eta enplegu egonkorrak izandako gorakada handiaren ondorioa da. Beste %11,9k pobretasun-tasek familia-mota horietan izandako beherakadarekin du zerikusia.

Testuinguru horretan, aipagarria da, baita ere, pobretasun maila absolutuen murrizketa, tasek 65 urtetik gorako pertsona baten mende dauden pertsonen artean edo lan egonkorra duen pertsona bat buru duten famili a gurasobakarretan edo beste familia-talde mota bate-an integratuta dauden pertsonen artean izandako beherakadari egotz dakiokeena.

16. GRAFIKOA

**1996 eta 2008 bitartean benetako pobretasunaren murrizketa eragin zuten zenbait faktore**




Orain arte aztertu ditugun faktoreak bakarrik sartu izan balira jokoan, hau da, pobretasuntasen bilakaerarekin eta demografia-egituretan gertatzen diren aldaketekin zerikusia duten faktoreak bakarrik, pobretasunaren zifra absolutuak %65,1 txikituko ziratekeen 1996 eta 2008 bitartean. Hala ere, zifra horiek gizentzen lagundu duten faktore batzuek ere hartu dute parte denbora-bitarte horretan. Hazkunde hori, 1996ko zifren %20,6aren baliokidea, faktore bakar bati egotz dakioke oso-osorik: alegia, Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetatik etorritako immigrazioarekin lotua dagoen pobretasun berriari. 2008an, benetako pobretasun egoeren %37,1a jabea erkidegotik kanpoko herritarra den etxeetan bizi den biztanleriari dagokio, hain zuzen.

Benetako pobretasunaren zifren beherakada %44,5ekoa izan zen, eta 1996 eta 2008 bitarteko prekarietate-mailen beherakada, berriz, %48koa. Kasu honetan, berriz ere, prekarietate-egoeran dauden pertsonen bolumenaren beherakadaren oinarrizko zatia tasen beherakadarekin dago lotua, nahiz eta ekarpena —%46,8 ingurukoa— benetako pobretasunaren zifretan atzemandako %48,6a baino txikixeagoa izan. Pixka bat txikiagoa da, baita ere, familia gurasobakarren eta lan egonkorrik gabeko pertsona bat buru duten bes-

57. TAULA

**1996 eta 2008 bitartean benetako prekarietatearen eta ongizate-gabeziaren mailetan izandako aldaketetan erabakigarriak gertatu diren faktoreak**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **1996AN PREKARIETATEAN BIZI ZEN BIZTANLERIA** | 873.890 | | |
| **Prekarietatearen zifrak murrizten lagundu duten faktoreak** | **Absolutuak** | **1996ko biztanleriaren ehunekoa** | **Taldean nagusi den joeraren ehunekoa** |
| ***Pobretasun-tasaren beherakada*** | –409.302 | –46,8 | — |
| Emakumezkoen familia gurasobakarrak/ Familia-taldeak. Lan egonkorrik gabeko etxejabea | *–90.309* | *–10,3* | 22,1 |
| Emakumezkoen familia gurasobakarrak/ Familia-taldeak. Lan egonkorra duen etxejabea | *–244.882* | *–28,0* | 59,8 |
| Gizonezkoen familia gurasobakarrak | *–8.450* | *–1,0* | 2,1 |
| Bakarrik dauden 65. urtetik beherako pertsonak | *–6.795* | *–0,8* | 1,7 |
| 65. urtetik gorako pertsonak | *–58.867* | *–6,7* | 14,4 |
| ***Demografia-egituren aldaketak*** | –73.362 | –8,4 | — |
| Biztanle-kopuruaren beherakada: Emakumezkoen familia gurasobakarrak/ Familia taldeak. Lan egonkorrik gabeko etxejabea | *–146.252* | *–16,7* | 100 |
| Biztanleria-hazkundea beste aldagai soziodemografiko batzuetan | *72.890* | *8,3* | |
| ***Guztira*** | –482.664 | –55,2 | 100 |
| **Pobretasunaren zifrak murrizten lagundu duten faktoreak** | **Absolutuak** | **1996ko biztanleriaren ehunekoa** | **Taldean nagusi den joeraren ehunekoa** |
| ***EBtik kanpoko immigrazioarekin lotutako prekarietate berria*** | 62.862 | 7,2 | 100 |
| **2008an prekarietatean bizi den biztanleria** | 454.089 | — | — |
| Beherakadaren ehunekoa 1996ko urtearekiko | — | **–48,0** | — |

te familiatalde batzuen mende dauden biztanleen bolumenean gertatutako beherakadaren eragin mesedegarria. Prekarietate-zifrak murrizteko ekarpena %8,4ra murrizten da, demografiaegituretan egindako aldaketen kasuan.

Prekarietateari buruzko zifren beherakada handiagoa izateak zerikusi zuzena du immigrazioak ongizate gabeziako arazoen bilakaeran eragin negatibo txikiagoa izan izanarekin. Erkidegotik kanpoko biztanleriaren pisua 2008ko prekarietatearen zifretan %13,8koa baino ez da; pobretasunaren zifrei egindako ekarpena baino askoz txikiagoa, beraz. Immigrazioarekin lotutako prekarietate berriaren ekarpena %7,2koa baino ez da, 1966. urtean erregistratutako zifrekiko.

17. GRAFIKOA

**1996 eta 2008 bitartean ongizate-gabeziaren eta prekarietate-egoeren murrizketa eragin zuten zenbait faktore**




Bada bilakaera horretan aipatzea merezi duen beste alderdi bat. Titularrak lan egonkorra duen familia-taldeetan bizi diren pertsonei dagozkien tasen beherakadak aitortzen zaiona baino garrantzi handiagoa izan zuen prekarietatearen zifren beheranzko bilakaeran: prekarietate-tasa %28 jaitsi zen, eta benetako pobretasuna, berriz, %22. 65 urtetik gorakoen mendean bizi diren pertsonen arteko prekarietate-tasen murrizketari egotzi dagokiokeen beherakada, berriz, %6,7ra murriztu zen. Dena dela, 1996 eta 2008 bitartean prekarietate-tasen hobekuntzak prekarietatearen zifra absolutuetan eragin zuen beherakadaren %74,2a biltzen dute bi kolektibo horiek bien artean; benetako pobretasunaren bilakaeran antzemandako %66,8a baino gehiago, alegia.

## 4. POBRETASUNAREN ETA PREKARIETATEAREN LURRALDE-ERAGINA

Pobretasunaren arazoak lurralde- eta eskualde-ezaugarri bereziak ditu Euskadin. Atal honetan ezaugarri horiek aztertuko ditugu, bai lurralde historikoei dagozkionak, bai haien baitako eskualdeei dagozkienak.

### 4.1. Lurralde Historikoa

#### 4.1.1. Pobretasun-arazoen eta prekarietate-arazoen eragina

2008. urtean Bizkaia izan da berriro ere prekarietate-arazo handienak izan dituen lurralde historikoa. Lurralde horretan, biztanleriaren %22,9a ez da ongizate osoko egoeretara iristen. Araban %20,3a eta Gipuzkoan %18,5a dira egoera horretan daudenak.

Bizkaiaren azken urteotako bilakaera ona da, ordea. Lurraldearen prekarietate-mailak 13,6 puntutan murriztu dira: ongizate osoko mailetara iritsi ezin duten pertsonen ehunekoa %36,5etik %22,9ra jaitsi da 2004 eta 2008 bitartean. Dena dela, halako konbergentzia prozesu bat antzematen da lurraldeen artean, eta 2000ko eta 2004ko tasetan zeuden diferentziak asko murriztu dira. Bizkaiaren eta gainerako lurraldeen artean 2004an zegoen distantzia, 8-9 puntutakoa, 2,5 puntutara murriztu da Arabarekiko, eta 4,5 puntutara Gipuzkoarekiko, 2008an. Konbergentzia prozesu hori guztiz bateragarria da noski Araban eta Gipuzkoan izan den hobekuntza nabarmenarekin. 2004 eta 2008 bitartean hautsi egin zen bi lurralde horietan aurreko lau urteetan izandako joera: prekarietate-tasa %26,7tik 27,6ra igo zen Araban; Gipuzkoan, berriz, %28-29 inguruan egonkortu zen.

2004-2008 bitartean, Bizkaiko benetako pobretasunaren tasak beste lurraldeen tasetara hurbildu ziren. Nahiz eta benetako pobretasunaren eragina Bizkaian handiagoa izan oraindik ere (%3,8), zifra hori ez da hainbeste aldentzen gainerako lurraldeenetik: %2,9a Araban, %2,3a Gipuzkoan.

Egia esan, Bizkaiaren bilakaera ona da, eta benetako pobretasunaren tasa behera eginez joan da 1996tik hona: %7,1a 1996an, %6,6a 2000an, %5,4a 2004an, eta %3,8a 2008an.

Beste bi lurraldeetan, berriz, joera hori ez da hain nabarmena. 1996-2000 bitarteko aldiko beherakada nabariaren ondoren, Bizkaikoa baino askoz handiagoa izan baitzen, 2000 eta 2004 bitartean zifrak gora egiten hasi ziren berriro. Gorakada hori beherakada arina bi-

hurtu zen Gipuzkoan 2004 eta 2008 bitartean, eta, azkenean, benetako pobretasunaren tasa %2,3an kokatu zen, 2000ko %2,1aren apur bat gainetik, baina 2004ko %2,8aren eta 1996ko %3,7aren azpitik. Araban, berriz, goranzko joerak bere horretan dirau. Beraz, 1996 eta 2000 bitartean %5,4tik %0,9ra jaitsi ondoren, benetako pobretasunaren tasa %2,8ra igo zen 2004an, eta %2,9ra 2008an.

Bizkaiko eta Gipuzkoako pobretasunaren bilakaeraren ezaugarrietan sakonduz, lurralde biek elkarrekin duten elementu bat aurkitzen dugu: alegia, mantentze-pobretasun tasak etengabe eta era nabarian egin duela behera 1996. urtetik hona. 1996 eta 2008 bitartean, tasa hori %10,4tik %5era jaitsi da Bizkaian, eta %7,8tik %2,9ra, berriz, Gipuzkoan. Bilakaera horrek benetako pobretasunaren epe luzeko beheranzko joera markatzen du bi lurraldeetan.

Araban, berriz, 1996 eta 2000 bitartean pobretasunaren bi dimentsioek era nabarian hobera egin ondoren, 2000-2008 bitartean egoera okerrera egiten hasi zen. Okerragotze hori ez da oso nabarmena izan termino kuantitatiboetan, baina adierazgarria da denboran hain jarraitua izateagatik. Mantentze-pobretasuna %8,6tik %2,2ra jaitsi zen 1996 eta 2000 bitartean, baina %5,3raino igo zen 2004an, eta %3,7koa da oraindik ere 2008an. Izan ere, Araba da mantentze-pobretasunaren tasek EAEko lurraldean —berau osorik hartuta— eta Bizkaiko eta Gipuzkoako herrialdeetan izan duten epe luzeko beherakada jarraituaren kontrako bilakaera erakutsi duen lurralde bakarra.

Dena dela, hiru lurralde horiek elkarrekin duten beste ezaugarri bat metatze-pobretasunaren atzerakada nabarmena da: izan ere, 2008an, metatze-pobretasuna %1 ingurukoa izan da lurralde guztietan.

58. TAULA

**Pobretasun-egoeren eta prekarietate-egoeren eraginaren bilakaera, Lurralde Historikoaren arabera. 1996-2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (ehunekotan)

| Lurraldea | Mantentze-pobretasuna | | | | Metatze-pobretasuna | | | | Benetako pobretasuna | | | | Ez ongizate osoa | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 |
| Araba | 8,6 | 2,2 | 5,3 | 3,7 | 1,9 | 0,2 | 0,8 | 0,5 | 5,4 | 0,9 | 2,8 | 2,9 | 43,0 | 26,7 | 27,6 | 20,3 |
| Gipuzkoa | 7,8 | 4,2 | 4,1 | 2,9 | 0,8 | 1,4 | 1,8 | 0,2 | 3,7 | 2,1 | 2,8 | 2,3 | 35,4 | 29,3 | 28,3 | 18,5 |
| Bizkaia | 10,4 | 8,6 | 7,4 | 5,0 | 2,4 | 3,8 | 2,8 | 1,0 | 7,1 | 6,6 | 5,4 | 3,8 | 44,1 | 37,0 | 36,5 | 22,9 |
| Guztira | 9,3 | 6,3 | 6,1 | 4,1 | 1,8 | 2,6 | 2,2 | 0,7 | 5,8 | 4,4 | 4,2 | 3,2 | 41,2 | 33,1 | 32,7 | 21,1 |

18. GRAFIKOA

**Pobretasun-egoeren eta prekarietate-egoeren eraginaren bilakaera, Lurralde Historikoaren arabera. 1996-2008**

(Familia-etxebizitzetan bizi den biztanleriaren ehunekoa)



### 4.1.2. Pobretasun-arazoen eta prekarietate-arazoen banaketa

EAEko elkarteko pobretasun-arazo gehienak Bizkaian daude kontzentraturik, hango pobretasun-egoerek eragin eta demografia-pisu are handiagoa dutelako. Lurralde horretan biltzen da benetako pobretasun-arazoen %63,4a, eta metatze-pobretasuna kontuan harturik proportzioa %77,1era iristen da (%64,2ra, mantentze-pobretasunean erortzeko arriskuarekin zerikusia duten egoerak kontuan harturik). Dena dela, Bizkaiaren parte-hartzea murriztuz joan zen 2000. urtetik hona. Izan ere, urte horretan, Bizkaia EAEko benetako pobretasun-egoeren %81,6a biltzera iritsi zen.

59. TAULA

**Pobretasun-egoeren eta prekarietate-egoeren banaketaren bilakaera, Lurralde Historikoaren arabera. 1996-2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (Ehuneko bertikalak)

| Lurraldea | Mantentze-pobretasuna | | | | Metatze-pobretasuna | | | | Benetako pobretasuna | | | | Ez ongizate osoa | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 |
| Araba | 12,4 | 4,9 | 11,9 | 12,7 | 13,7 | 1,2 | 4,9 | 11,3 | 12,6 | 2,7 | 9,0 | 13,1 | 14,1 | 11,2 | 11,7 | 13,7 |
| Gipuzkoa | 26,5 | 21,4 | 21,8 | 23,2 | 14,4 | 17,6 | 26,8 | 11,6 | 20,3 | 15,7 | 21,4 | 23,5 | 27,2 | 28,4 | 27,9 | 28,6 |
| Bizkaia | 61,1 | 73,7 | 66,3 | 64,2 | 71,9 | 81,2 | 68,3 | 77,1 | 67,1 | 81,6 | 69,5 | 63,4 | 58,7 | 60,4 | 60,5 | 57,7 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

Aitzitik, Araba pobretasun-errealitateetan gero eta pisu handiagoa hartzeagatik nabarmentzen den lurraldeetako bat da. Era horretan, pobretasun-errealitateak 2000ko %2,7tik 2008ko %13,1era igo dira zortzi urtean. Nahiz eta Arabak pobretasun-egoeretan izan zuen parte hartzea bere benetako demografia-pisua baino askoz txikiagoa izan 2000 eta 2004 urteetan, eta haren parte hartzea %12,6koa izan 1996an, egoeraren gainbehera erlatiboa begien bistakoa da. Gipuzkoak antzeko prozesua izan du: benetako pobretasunari egin dion ekarpena %15,7tik %23,5era igo da 2000 eta 2008 bitartean, eta 1996ko %20,3ko maila gainditu du. Arabaren kasuan ez bezala, ordea, lurralde horren parte-hartzea bere biztanleria-pisua baino nabarmen txikiagoa da.

Prekarietate-zifrek egonkortasun handiagoa erakusten dute epe luzera begira. Hala ere, Bizkaiaren egoerak ere hobera egin du. Lurralde horrek ongizate-egoeretara iristeko ezintasun-egoeretan izan duen parte-hartzea %60tik %57,7ra jaitsi da 2000 eta 2008 bitartean.

## 4.2. **Eskualdea**

Pobretasunaren eta ongizate-gabeziaren inguruko arazoen eskualdekako azterketak aukera ematen digu prekarietateak Euskadin duen eragin geografikoa garbiago zehazteko, bai eta Lurralde Historikoen barne-errealitateek elkarrekin nolabaiteko heterogeneotasuna gordetzen dutela egiaztatzeko ere.

### 4.2.1. Pobretasun-arazoen eta prekarietate-arazoen eragina

Ongizate osoko egoera batera iristerik izan ez duten etxeetan bizi diren pertsonei buruzko adierazleak aztertu ondoren, argi eta garbi ikusi da 2008an prekarietate-maila handienak, %25etik gorakoak —euskal batez bestetik gorakoak, beraz—, Bilbori eta Ibar Ezkerrari dagozkiola: %28,1a eta %25,3a, hurrenez hurren. Maila horiek prekarietate-tasa handiak agertzen dituzten gainerako eskualdeetatik —Vitoria-Gasteiz, Durangaldea eta Donostialdeatik— urrun daude. Eskualde horien tasak %20aren eta %21aren artean daude, EAEko batez bestekoaren mailan, beraz. Aiara eta Debabarrena aurreko eskualde horien mailara hurbiltzen dira, %17 eta %19 arteko prekarietate-tasekin. Ibar Eskuina, BizkaiaKosta eta Tolosa-Goierriren kasuan, zifrak %13-15eraino jaisten dira. Debagoiena da EAEko tasarik txikiena duen eskualdea: %8,3.

Aldeak alde, 1996-2008 bitartean prekarietate-tasak eskualde guztietan egin zuen behera, nabarmen egin ere: beherakadarik txikiena Donostialdean izan zen (16 puntu) eta handiena, berriz, Ibar Ezkerrean (25,2 puntu). 2004 eta 2008 bitarteko lau urteen bilakaera bereziki ona izan da Bizkaiko eskualdeentzat. Arabako eta Deba ibarreko eskualdeetan ez bezala, 2004 eta 2008 bitarteko urteetako prekarietate-tasen beherakadarik nabarmenenak Bizkaiko eskualdeetan gertatu ziren.

Benetako pobretasunaren adierazleen azterketak agerian uzten du berriro ere Bilboko eskualdearen egoera kaxkarra. Bilboko benetako pobretasunaren tasa %6,1ekoa zen 2008an, EAEko gainerako eskualdeetakoa baino askoz handiagoa, eta Ibar Ezkerrekoa bera (%4,1) baino handiagoa ere. Tasak %2,5-3 ingurukoak dira, EAEkoen batez bestekotik hurbilekoak, Gasteiz, Bizkaia-Kosta eta Donostialdean. Tasa hori %2aren azpitik dago Aiaran eta Debabarrenan, eta are %1aren azpitik ere Ibar Eskuinean, Durangaldean, Tolosa-Goierrin eta Debagoienan.

Dena dela, bai Bilbon bai Ibar Ezkerrean, azken aldiko bilakaera positiboa da. 2000. urtean eskualde horien benetako pobretasunaren tasa %9ra iristen zen oraindik, eta are

%10,5era ere 2004an, Bilbon. 2000-2004 bitartean Ibar Ezkerrean izan zen hobealdi nabarmena ez zen ordea 2004-2008 arte zabaldu Bilbora. Azken laurteko horretan indargabetu zen, azkenik, eskualde horretako metatze-pobretasunaren goranzko joera, eta tasa 2008ko %1,2an kokatu zen. Bai Bilbok bai Ibar Ezkerrak azken urteotan izan duten bilakaera positiboa ez zaio zor soilik mantentze-pobretasunaren tasek 1996tik hona etengabe izan duten beherakadari, baizik eta, bereziki, metatze-pobretasunaren zifrek, 1996-2000 bitartean eta, Bilboren kasuan, 1996-2004 bitartean izandako hazkundearen ondoren (tasa hori %2,7koa zen 1996an eta %5,6koa 2004n), duela gutxi izandako murrizketari.

60. TAULA

**Pobretasun-egoeren eta prekarietate-egoeren eraginaren bilakaera eskualdeka. 1996-2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (ehunekotan)

| Eskualdea | Mantentze-pobretasuna | | | | Metatze-pobretasuna | | | | Benetako pobretasuna | | | | Ez ongizate osoa | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 |
| Gasteiz | 9,1 | 1,9 | 5,9 | 3,8 | 1,8 | 0,1 | 0,8 | 0,4 | 5,5 | 0,5 | 3,1 | 3,1 | 43,2 | 25,8 | 28,5 | 20,6 |
| Araia | 5,7 | 3,8 | 1,5 | 3,0 | 2,5 | 0,8 | 0,5 | 1,1 | 4,8 | 3,2 | 0,6 | 1,9 | 42,0 | 32,0 | 22,7 | 18,8 |
| Ibar Eskuina | 8,3 | 3,3 | 7,0 | 3,0 | 0,0 | 2,1 | 0,0 | 0,0 | 0,8 | 2,9 | 2,7 | 0,6 | 30,6 | 27,1 | 26,9 | 12,7 |
| Bilbo | 12,5 | 11,8 | 10,0 | 8,2 | 2,7 | 4,8 | 5,6 | 1,2 | 8,8 | 9,0 | 10,5 | 6,1 | 47,5 | 40,5 | 40,9 | 28,1 |
| Ibar Ezkerra | 12,4 | 10,7 | 7,3 | 4,0 | 3,5 | 5,8 | 1,7 | 1,2 | 9,7 | 9,1 | 3,5 | 4,1 | 50,5 | 42,4 | 39,9 | 25,3 |
| Bizkaia Kosta | 5,2 | 6,0 | 6,0 | 2,7 | 1,4 | 0,4 | 2,7 | 1,1 | 4,3 | 1,1 | 3,6 | 2,5 | 34,4 | 32,0 | 27,4 | 14,9 |
| Durangaldea | 4,2 | 3,2 | 1,9 | 3,4 | 1,8 | 0,9 | 1,7 | 0,5 | 3,3 | 2,8 | 2,1 | 0,9 | 37,7 | 29,1 | 33,4 | 20,8 |
| Donostialdea | 10,0 | 4,2 | 4,5 | 3,5 | 1,2 | 1,0 | 2,5 | 0,4 | 4,6 | 1,7 | 2,8 | 3,1 | 37,2 | 28,6 | 30,4 | 21,3 |
| Tolosa-Goierri | 2,7 | 5,0 | 4,8 | 1,8 | 0,0 | 2,1 | 0,1 | 0,0 | 1,2 | 2,2 | 3,3 | 0,3 | 30,4 | 30,5 | 29,8 | 13,4 |
| Debagoiena | 2,4 | 2,1 | 1,5 | 0,5 | 0,0 | 1,1 | 1,9 | 0,0 | 0,3 | 2,3 | 2,5 | 0,1 | 30,0 | 31,6 | 17,6 | 8,3 |
| Debabarrena | 5,8 | 5,0 | 2,6 | 2,5 | 0,5 | 3,8 | 0,2 | 0,0 | 5,2 | 5,3 | 2,4 | 1,7 | 36,7 | 29,4 | 19,7 | 16,9 |
| Guztira | 9,3 | 6,3 | 6,1 | 4,1 | 1,8 | 2,6 | 2,2 | 0,7 | 5,8 | 4,4 | 4,2 | 3,2 | 41,2 | 33,1 | 32,7 | 21,1 |

Alde negatiboan, berriz, benetako pobretasunak, 2004 eta 2008 bitartean, eskualde horietan izandako goranzko joera aipatu behar da, %3,5etik %4,1era igaroz. Beste hirialde batzuetan ere antzeko zerbait gertatu da. 1996 eta 2000 bitartean %5,5etik %0,5era jaitsi ondoren, Gasteizko benetako pobretasunaren tasa %3,1era igo zen 2004an, eta maila horretan eutsi dio 2008an ere. Donostialdeako bilakaera ere antzekoa izan da: benetako pobretasunaren tasa %4,6koa zen 1996an, %1,7koa 2000an, %2,8koa

2004an eta %3,1ekoa 2008an. EAEko esparru urbanizatuenean, Bilboko pobretasun-tasak duela gutxi izandako beherakada nabarmena Ibar Eskuinera bakarrik zabaldu da. 2004an %2,7koa izanik, Ibar Eskuineko benetako pobretasunaren tasa %0,6ra iritsi zen 2008an. Euskadin urbanizazio-maila txikiagoko eskualde batzuk bakarrik iristen dira maila horretara.

Benetako pobretasunaren adierazleen azterketak argi eta garbi erakusten digunez, Euskadin polarizazio nabarmena gertatu da gehien eta gutxien urbanizatutako aldeen artean 2008an. Urbanizazio-maila txikieneko eskualdeetan, pobretasun-tasa txikia da, eta %2aren azpitik dago kasurik gehienetan. Hirialdeetan, berriz, pobretasunaren eragina %3tik gorakoa da, eta Bilbon iristen da mailarik gorenera, %6,1era. Eskualde horietan, Ibar Eskuina bakarrik urruntzen da maila horietatik.

19. GRAFIKOA

**Benetako pobretasunaren eragina eskualdeka 2008an**

(Familia-etxebizitzetan bizi den biztanleriaren ehunekoa)



20. GRAFIKOA

**Benetako pobretasunaren aldaketa proportzionala eskualdeka 2004 eta 2005 bitartean**




Ikus daitekeen, beraz, EAEko benetako pobretasunaren zifren bilakaera aztertzean gorabehera handiak antzematen dira leku batzuetatik besteetara: eskualde batzuetako egoerak hobera egin du era nabarian, eta beste batzuetakoak, berriz, nabarmen txarrera, azken urteotan. Bestalde, azken aldian izandako hobekuntzak hobekuntza, Bilboko eskualdea atzeratu samartuta geratu da, EAEko gainerako eskualdeekin alderatuta behintzat.

### 4.2.2. Pobretasun-arazoen eta prekarietate-arazoen banaketa

Benetako pobretasunaren arazoen eraginpean bizi den biztanleriaren banaketan guztiz nabarmena denez, era horretako arazo gehienak hirialdeetan daude bilduta, Bilboko eta Ibar Ezkerreko eskualdeetan gehienbat. Benetako pobretasun egoeren %56a bi eskualde

horietan dago bilduta. Fenomeno horren izaera hiritarra begien bistakoa da. Oro har, Ibar Eskuina, Gasteiz eta Donostialdea barne hartuta, aztertutako egoeren %91a hirialde handietan daude (metatzeen %83,8a eta mantentzeen %86,5a).

2000 eta 2008 bitartean, baina, aldaketa adierazgarri bat gertatu zen pobretasun-egoeren barne-banaketan. Bilboren eta Ibar Ezkerraren pisua 2000ko %71,1etik 2008ko %56ra jaitsi zen, eta Donostialdearena eta Gasteizena, berriz, %9,5etik %33,5era igo, denbora-bitarte horretan bertan.

Eskualde urbanizatuenetan biltzen da ere ongizate osoko egoerara iritsi ez diren pertsonen multzo nagusia: %82,8a. Ehuneko horretatik %42,2a Bilbo eta Ibar Ezkerrari dagokio eta %34,3a Gasteiz eta Donostialdeari. 2000 eta 2008 bitartean Bilbo eta Ibar Ezkerraren pisua bere horretan mantentzen duen bitartean, Gasteiz eta Donostialdearenak gora egiten du, %27,4tik %34,3ra. Prozesu horrek ez du eskualde horiek beren pisu demografikoari egiten dioten ekarpena egokitu baizik egiten, pobretasun-arazoak aintzat hartzean ere gertatzen zen bezala.

61. TAULA

**Pobretasun-egoeren eta prekarietate-egoeren banaketaren bilakaera eskualdeka. 1996-2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (Ehuneko bertikalak)

| Eskualdea | Mantentze-pobretasuna | | | | Metatze-pobretasuna | | | | Benetako pobretasuna | | | | Ez ongizate osoa | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 |
| Gasteiz | 11,1 | 3,7 | 11,5 | 11,2 | 11,0 | 0,6 | 4,5 | 8,2 | 10,9 | 1,3 | 8,8 | 11,9 | 12,0 | 9,3 | 10,3 | 12,0 |
| Araia | 1,3 | 1,2 | 0,5 | 1,4 | 2,8 | 0,6 | 0,4 | 3,1 | 1,7 | 1,5 | 0,3 | 1,2 | 2,1 | 1,9 | 1,3 | 1,8 |
| Ibar Eskuina | 6,5 | 4,1 | 8,6 | 5,3 | 0,0 | 6,5 | 0,0 | 0,1 | 1,0 | 5,3 | 4,8 | 1,4 | 5,4 | 6,5 | 6,2 | 4,4 |
| Bilbo | 23,2 | 29,8 | 28,1 | 32,9 | 25,2 | 29,8 | 43,2 | 29,7 | 26,3 | 32,9 | 42,1 | 31,7 | 19,9 | 19,5 | 21,3 | 22,0 |
| Ibar Ezkerra | 25,9 | 31,2 | 22,5 | 18,0 | 37,4 | 41,7 | 14,1 | 34,2 | 32,8 | 38,2 | 15,4 | 24,3 | 23,9 | 23,5 | 23,0 | 22,2 |
| Bizkaia Kosta | 3,0 | 5,6 | 5,4 | 3,7 | 4,1 | 1,0 | 6,8 | 8,9 | 4,0 | 1,4 | 4,7 | 4,5 | 4,5 | 5,6 | 4,6 | 4,0 |
| Durangaldea | 2,4 | 3,0 | 1,7 | 4,3 | 5,1 | 2,2 | 4,2 | 4,3 | 3,1 | 3,8 | 2,6 | 1,5 | 4,9 | 5,2 | 5,5 | 5,1 |
| Donostialdea | 22,5 | 14,1 | 15,9 | 19,1 | 13,6 | 7,9 | 23,8 | 11,6 | 16,6 | 8,2 | 14,2 | 21,6 | 18,9 | 18,2 | 20,0 | 22,3 |
| Tolosa-Goierri | 1,5 | 4,1 | 4,0 | 2,3 | 0,0 | 4,4 | 0,3 | 0,1 | 1,1 | 2,7 | 4,0 | 0,5 | 3,7 | 4,8 | 4,7 | 3,3 |
| Debagoiena | 0,8 | 1,1 | 0,7 | 0,4 | 0,0 | 1,4 | 2,5 | 0,1 | 0,2 | 1,7 | 1,7 | 0,1 | 2,2 | 3,2 | 1,6 | 1,2 |
| Debabarrena | 1,7 | 2,1 | 1,1 | 1,4 | 0,8 | 3,8 | 0,2 | 0,1 | 2,5 | 3,1 | 1,5 | 1,3 | 2,4 | 2,3 | 1,6 | 1,8 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

21. GRAFIKOA

**Benetako pobretasun egoeren kontzentrazioaren bilakaera hiri-eskualdeetan (Ehuneko bertikalak). 1996-2008**



# III. atala.

# Pobretasunaren eta prekarietatearen determinatzaile ekonomikoak

## 1. PREKARIETATEA ETA DIRU-SARRERA NAGUSI MOTA

### 1.1. Pobretasun-arazoen eta prekarietate-arazoen eragina

Pobretasun-egoeren eta prekarietate-egoeren azterketaren elementu giltzarri bat arazo horien eta etxearen baliabide-iturri nagusiaren arteko harremanaren analisia da. Logikoa denez, diru-sarrera propioak[30] nagusi diren etxeetan bizi diren pertsonen artean ongizate osoko egoerara iristeko probabilitatea handia da oso, 2008an aztertutako biztanleriaren %82,7koa, hain zuzen. Prekarietate-egoeran bizi direnak, beraz, %17,3a dira, eta benetako pobretasunaren eraginpean daudenak, berriz, horien %1,6a baino ez.

Zifrak horiek askoz handiagoak dira dirusarreren iturri nagusia Gizarte Segurantzaren laguntza duten etxeetan bizi diren herritarren artean. Kasu horretan, prekarietate-tasa %26,3raino iristen da, eta benetako pobretasun-tasa %3raino. Hala ere, pobretasun-egoeren eta prekarietate-egoeren eragina guztiz txikia da, aurreko taldean bezala. Gehienbat Gizarte Segurantzaren diru-laguntzen mendean bizi diren pertsonen egoera bestelakoa da. Kasu horretan, pertsona horien %98,3ak arazoak ditu ongizate osoko egoeratara iristeko. Proportzio hori %61,4ra iristen da, benetako pobretasunaren eraginari dagokionez.

Azken urteetako bilakaera dela eta, aldaketa deigarri batzuk geratu dira arrisku handieneko taldeen artean. Alderdi positiboan, prekarietate-tasek eta pobretasun-tasek behera egin dute 1996tik hona, modu etengabe eta jarraituan, Gizarte Segurantzaren diru-sarren mende dauden pertsonen artean. Prekarietatearen eraginak ere behera egin zuen 1996 eta 2004 bitartean, %57tik %40,7ra, eta benetako pobretasunaren tasa, berriz, %9,5etik %5,7ra jaitsi zen. Egoera horrek bere horretan iraun zuen 2004 eta 2008 bitartean: prekarietate-tasak %40,7tik %26,3ra jaitsi ziren, eta benetako pobretasunarenak %5,7rik %3ra. Pobretasun-tasaren hobekuntzak loturik daude, neurri handi batean, mantentze-dimen-

[30] Kontzeptu honek ekonomia-jarduera pertsonal baten diru-sarrerei egiten dio erreferentzia (soldatak, lansariak, lan autonomo edo independenteak, kapital errentak eta abar).

tsioan erortzeko arrisku-mailaren beherakadarekin, arrisku-maila hori etengabe jaitsiz joan baitzen 1996tik hona: 1996ko %16,6tik 2008ko %6,1era, hain zuzen. Hobekuntza horrek, bestalde, metatze-pobretasunaren tasek 2004 eta 2008 bitartean izan zuten hobealdian lagundu zuen. 1996 eta 2004 bitartean %2-2,5 inguruko mailetan eutsi ondoren, tasa hori %0,4ra jaitsi zen 200 8an.

Gizarte Laguntzaren mendean bizi diren pertsonen bilakaera, berriz, ez da hain positiboa. 1996 eta 2000 bitartean %66,2tik %80,3ra igo ondoren, benetako pobretasunaren tasa %48,7ra jaitsi zen 2004an. Lau urte geroago, ordea, gora egin berriro, eta %61,4raino iritsi zen. 2000. urtetik aurrera mantentze-pobretasunaren tasak behera egiten hasi ziren, eta 2004-2008 bitarteko hazkundearen parte handi bat metatze-pobretasunak kolektibo horren barruan izan zuen hazkundearekin dago lotua. Tasa hori %8,7tik %20,5eraino igo zen.

Diru-sarrera propioetatik bizi den biztanleriaren bilakaerari dagokionez, 2008. urtean minimo historikoak erregistratu ziren pobretasunaren dimentsio guztietan: %2,3a mantentze-pobretasunaren kasuan, %0,2a metatze-pobretasunaren kasuan, eta %1,6a benetako pobretasunaren kasuan. Joera aldaketa horrek eraginda, tasek apur bat gora egin zuten 2000 eta 2004 bitartean, eta 1996-2000 bitarteko aldian baino gehiago handitu ere, metatze-pobretasunari dagokionez. Prekarietate-adierazleen bilakaera antzekoa izan zen. 2004ko gorakadaren ondoren, tasa %29,3tik %17,3ra jaitsi zen 2008an.

62. TAULA

**Pobretasun-egoeren eta prekarietate-egoeren eraginaren bilakaera, etxeko diru-sarrera nagusiaren iturriaren arabera. 1996-2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (ehunekotan)

| Iturria | Mantentze-pobretasuna | | | | Metatze-pobretasuna | | | | Benetako pobretasuna | | | | Ez ongizate osoa | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 |
| Diru-sarrera propioak | 5,0 | 2,5 | 3,8 | 2,3 | 1,0 | 1,9 | 2,0 | 0,2 | 3,1 | 2,5 | 3,1 | 1,6 | 34,2 | 28,0 | 29,3 | 17,3 |
| Gizarte Segurantza | 16,6 | 15,7 | 10,8 | 6,1 | 2,1 | 1,8 | 2,6 | 0,4 | 9,5 | 7,0 | 5,7 | 3,0 | 57,0 | 48,2 | 40,7 | 26,3 |
| Gizarte Laguntza | 81,5 | 86,8 | 60,4 | 46,4 | 35,8 | 61,2 | 8,7 | 20,5 | 66,2 | 80,3 | 48,7 | 61,4 | 96,9 | 98,9 | 93,2 | 98,3 |
| Laguntza sozialak (pribatuak) | 40,5 | 16,1 | 30,8 | 38,6 | 6,2 | 38,2 | 14,5 | 0,0 | 20,5 | 42,1 | 23,3 | 22,0 | 99,4 | 53,9 | 81,2 | 79,4 |
| Guztira | 9,3 | 6,3 | 6,1 | 4,1 | 1,8 | 2,6 | 2,2 | 0,7 | 5,8 | 4,4 | 4,2 | 3,2 | 41,2 | 33,1 | 32,7 | 21,1 |

22. GRAFIKOA

**1996-2008 bitartean emandako pobreziaren bariazioa ehunekotan etxeko diru-sarrera nagusiaren iturriaren arabera**




## 1.2. **Pobretasun-arazoen eta prekarietate-arazoen banaketa**

Nahiz eta arazo horietan erortzeko arriskutasak txikiagoak izan, demografia-egituran duten pisu handia dela eta, batez ere diru-sarrera propioen mende dauden etxeetan bizi diren herritarrak gehiengoa dira ongizate osoko egoeretara iristen ez diren pertsonen kolektiboan: %60,6. Oinarrizko gauzetan Gizarte Segurantzaren diru-sarreren mende dauden pertsonak, berriz, %29,7 dira. Beste %9a batez ere Gizarte Laguntzatik datozen diru-sarrerak dituzten pertsonei dagokio, eta zatirik txikiena, %0,7, diru-sarrera nagusiak beste ahaide batzuengandik, gizarte zibiletik edo gobernuz kanpoko erakundeetatik jasotzen dituzten pertsonei.

Diru-sarrera propioak eta Gizarte Segurantzaren diru-sarrerak dituzten etxeetan bizi diren pertsonek osatzen dute pobretasuna egoeran dagoen biztanleriaren zati nagusia: horien %38,1a diru-sarreren iturri nagusia diru-sarrera propioak dituzten pertsonak dira, eta beste %22,9a batez ere Gizarte Segurantzaren dirulaguntzen mende dauden pertsonak. Hala eta guztiz ere, zati handi bat, benetako pobretasun-egoeran dagoen biztanleriaren %37,7a Gizarte Laguntzaren diru-laguntzen mende dauden etxeetan bizi diren pertsonei dagokio, nahiz eta talde horrek EAEn bizi diren herritarren %1,9 baino ez bildu. Gainerako %1,3a transferentzia pribatuen mende dauden etxeetan bizi diren pertsonei dagokie. Azken batean, nahiz eta egia izan pobretasunean erortzeko arriskua askoz handiagoa dela Gizarte

Laguntzaren mende dauden pertsonen artean, egia da ere arazo horren eraginpean dagoen biztanleriaren zatirik handiena diru-sarrera normalizatuen mende dauden pertsonez osatua dagoela (diru-sarrera propioak eta Gizarte Segurantzaren diru-laguntzak).

63. TAULA

**Pobretasun-egoeren eta prekarietate-egoeren banaketaren bilakaera, etxeko diru-sarreren iturri nagusiaren arabera. 1996-2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (Ehuneko bertikalak)

| Iturria | Mantentze-pobretasuna | | | | Metatze-pobretasuna | | | | Benetako pobretasuna | | | | Ez ongizate osoa | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 |
| Diru-sarrera propioak | 39,1 | 30,6 | 48,2 | 40,9 | 39,6 | 56,6 | 68,2 | 25,7 | 39,4 | 43,7 | 55,7 | 38,1 | 60,7 | 65,5 | 69,1 | 60,6 |
| Gizarte Segurantza | 44,0 | 52,7 | 38,1 | 35,5 | 28,1 | 14,7 | 25,3 | 14,8 | 40,7 | 34,0 | 28,5 | 22,9 | 34,1 | 30,7 | 26,7 | 29,7 |
| Gizarte Laguntza | 13,4 | 15,0 | 12,5 | 21,9 | 29,6 | 26,1 | 4,9 | 59,4 | 17,5 | 20,0 | 14,4 | 37,7 | 3,6 | 3,3 | 3,6 | 9,0 |
| Laguntza sozialak (pribatuak) | 2,4 | 0,4 | 1,3 | 1,7 | 1,9 | 2,6 | 1,6 | 0,0 | 2,0 | 1,7 | 1,4 | 1,3 | 1,3 | 0,3 | 0,6 | 0,7 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

Diru-sarrera propioak dituzten etxeetan bizi diren pertsonen pisua askoz handiagoa da mantentze-dimentsioko arazoak dituztenen kasuan (%40,9a), metatze-dimentsioko pobretasun-arazoak dituztenen kasuan baino (%25,7a). Gauza bera gertatzen da batez ere Gizarte Segurantzaren diru-sarreren mende bizi diren pertsonen kasuan: %35,5a eta %14,8a, hurrenez hurren. Aitzitik, Gizarte Laguntzaren mende dauden herritarren artean, metatze-dimentsioko pobretasunean erortzeko arriskuan dauden pertsonak dira nagusi: %59,4a. Mantentze-dimentsioko arazoak dituztenak, berriz, %21,9a dira.

## 2. TRANSFERENTZIA SOZIALEN ERAGINA

### 2.1. Alderdi orokorrak

Arreta berezia merezi duen kontuetako bat transferentzia sozialek pobretasun-arazoei eta prekarietate-arazoei aurrea hartzeko duten eraginari dagokiona da. Datu horien argitan, hobeto uler daiteke transferentzia sozial horiek duten garrantzi erabakigarria ongi-

zate osoko egoeretara iristeko zailtasunekin lotuta dauden pobretasuna eta prekarietatea borrokatzeko garaian.

Transferentzia horiek mantentze-dimentsioan duten eragina aintzat harturik, datu horiek agerian uzten dute pobretasunean eta ongizate-gabezian erortzeko arriskuaren tasak 16 puntu inguru murriztu direla, erretiro-sarien eta biziraupen-pentsioen politikaren ondorio positibo gisa. Beherakada horri 4,5 eta 5,5 punturen arteko beste bat gehitu behar zaio, gizarte-politika osagarrien esparruan (langabeziaren aurkako borroka barne) garatutako transferentzien kudeaketari egotz dakiokeena. Transferentzia sozialen politikak ongizate gabezian erortzeko arriskuaren tasa murrizteko aukera ematen du, diru-sarrera propioak bakarrik izanda erregistratutako litzatekeen %36,9ko tasatik 2008an erregistratutako %14,6ko tasara murrizteko, hain zuzen. Pobretasunean erortzeko arriskua, berriz, %24,7tik %4,1era murrizten da. Oro har, politika sozialei egotz dakiokeen beherakada orokorra 20 eta 22 punturen artekoa da.

Transferentzia sozialen aplikazioak aukera ematen du, beraz, etxeek beren diru-sarrera propioak bakarrik izango lituzketen kasuan izango litzatekeen mantentze-pobretasunaren tasa %83,3a murrizteko. Beherakadaren %65,7a erretiro-sari eta biziraupen-pentsioei dagokie, eta %17,7a, berriz, gainerako transferentzia sozialei. Murrizketa %60,6koa da, ongizate-gabeziaren tasari dagokionez. Kasu horretan, beherakadaren %45,1a erretirosarien sistema orokorrari egotz dakioke, eta %15,5a gainerako laguntza eta prestazio sozialei. Hala kasu batean nola bestean, politika sozialekin lotutako hobekuntzaren hiru laurdenak, gutxi gorabehera, erretiro-sari eta biziraupen-pentsioen transferentzia orokorrei egotz dakizkioke.

64. TAULA

**Mantentze-dimentsioko pobretasunean eta/edo ongizate-gabezian erortzeko arriskuaren adierazleak. Transferentzia sozialen paperaren garrantzia. 2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (Eragin-mailak ehunekotan)

| **Adierazleak** | **Hasierako errenta** | **Tarteko errenta** | **Azken errenta** |
|---|---|---|---|
| Pobretasun-tasa | 24,7 | 8,5 | 4,1 |
| Ongizate-gabeziaren tasa | 36,9 | 20,3 | 14,6 |

*Oharra:* Pobretasun erlatiboaren eta/edo ongizate-gabeziaren adierazleek pobreen kolektiboa hartzen dute barne.

65. TAULA

**Mantentze-dimentsioko prekarietatearen aurkako borrokaren transferentzia-prozesuen eragina. Transferentzia sozialen paperaren garrantzia. 2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (Arrisku-tasen beherakada ehunekotan)

| Adierazleak | Erretiroa eta biziraupena | Beste transferentzia batzuk | Guztira |
|---|---|---|---|
| Pobretasun-tasa | –65,7 | –17,7 | –83,3 |
| Ongizate-gabeziaren tasa | –45,1 | –15,5 | –60,6 |

*Oharra:* Pobretasun erlatiboaren eta/edo ongizate-gabeziaren adierazleek pobreen kolektiboa hartzen dute barne.

23. GRAFIKOA

**Gizarte laguntzek eragindako pobrezia eta ongizate gabeziaren tasen jaitsiera ehunekotan**




## 2.2. **Gizarte Laguntzaren betekizun espezifikoa**

Transferentzia sozialen eraginari buruzko hurbilketan, interes espezifikoa dute prestazio osagarriei dagozkien betekizunek, batez ere Gizarte Laguntzari dagozkionak. Laguntza horien eraginaren azterketa ezin da, inola ere, batez ere diru-iturri horren mende dagoen biztanleriaren %1,9aren egoera kontuan hartzera mugatu.

Gai horretan sakontzeko, ezinbestekoa da kontuan hartzea pobretasun potentzialaren arriskuaren kolektibo gisa defini genezakeena. Kolektibo horretan sartzen dira bai metatze-dimentsioko pobretasun-egoeraren eraginpean dauden pertsonak bai mantentze-dimentsioko pobretasun-egoeran erortzeko arriskuan daudenak. Kolektibo horrek EAEko biztanleria osoaren %8,8a biltzen du 2008an.

Pobretasun potentzialean erortzeko arriskuan dagoen kolektibo horren azterketak erakusten duenez, kolektibo horren %37,7a gauza da pobretasunaren bi dimentsioetako batean dauden gabeziak bere baliabideen bidez berdintzeko, Gizarte Laguntzaren prestazioetara jo beharrik izan jabe. %26,2ak pobretasunetik ateratzea lortzen du, baina, kasu honetan bakarrik, behin Gizarte Laguntzaren prestazioak eta laguntza jaso ondoren. Beste %24,1ek, laguntza jaso arren, ez du benetako pobretasun-egoeratik ateratzea lortzen. Azkenik, %12ak ez du Gizarte Laguntzaren prestaziorik jasotzen eta benetako pobretasun-egoeran gelditzen da.

Benetako pobretasun-egoera baten eraginpean ez dauden pertsonen %3,3a bazterturik, benetako pobretasunaren tasa potentziala %5,5ekoa da, transferentziak baino lehen. Gizarte Laguntzaren prestazioen bidez, benetako pobretasuna %5,5etik EAEn batez beste erregistratutako %3,2ra murriztea lortzen da.

Laguntzen eragina, berriz, aurreko zifrek erakusten dutena baino handiagoa da. Zentzu horretan, Gizarte Laguntzaren prestazioak jasotzen dituzten kolektiboen baliabide erabilgarrietatik pobretasun atalasera dagoen batez besteko distantzia aztertzen badugu, ikusten da prestazio horiek %57,3tik %13,1era murrizten dutela Sen adierazlea. Nahiz eta taldea ez den pobretasunetik erabat ateratzen, gizarte-ekintzak aukera ematen du diru-sarreren eta euskal gizarteak oro har planteatutako premien artean dagoen desorekaren zati handi bat estaltzeko. Begien bistakoa da bere pobretasunaren intentsitatea —eta diru-estutasunik ez duten gizarte-sektoreetatik bereizten dituen distantzia— nabarmenki murrizten dela.

Errealitate hori kontuan harturik, Gizarte Laguntzaren prestazioek aukera ematen dute, bistan denez, EAEko pobretasunaren eragina deusezteko, edota, gutxienez, neurri adierazgarri batean murrizteko. Pobretasun potentzialeko egoeran dauden pertsonei dagokienez, pertsona baliokideen terminoetan pobretasuna %75,7an[31] dago gainditua.

Egia esan, Euskadin, artatu gabe dauden benetako pobretasun-arazo gehienak benetako pobretasun-egoeran egon arren EAEko diru-laguntza sistemara heltzen ez den kolektibo txikiarekin daude lotuta. Artatu gabeko biztanleriaren parte handi-handi bat, %92a, honako pertsona-mota hauen mende dauden etxeekin dago lotuta: Europar Batasune-

[31] Erreferentziazko %75,5a pobretasunetik ateratzeko onuradun potentzial guztiekiko (onuradun errealak gehi pobretasun-egoeran dauden ez-onuradunak) Gizarte Laguntzaren prestazioak baliatzen dituzten pertsona baliokideen ehunekoari dagokio.

tik kanpoko herrialdeetako nazionalak (%25,5), 65 urtetik gorako pertsonak (%23,2), familiatalde baten ardura duten 45 urtetik beherako pertsonak (%17,1), bakarrik dauden 65 urtetik beherako pertsonak (%14,2), eta familia gurasobakarreko emakumeak (%11,9).

Ikus daitekeen bezala, 2008. urtean, Europar Batasunetik kanpoko atzerritarren, bakarrik dauden 65 urtetik beherako pertsonen, eta 65 urtetik gorako pertsonen mende dagoen biztanleriak aintzat hartutako egoeren %63a biltzen du berak bakarrik. Horrek agerian uzten duenez, Gizarte Laguntzaren babesa jasotzen ez duten gehienak atzerritarrak eta adinean sartutako jendea dira[32].

66. TAULA

**Pobre potentzialen kolektiboaren egoera, Gizarte Laguntzako prestazioak eta benetako pobretasun-egoera kontuan hartuta. 2008**

(Ehuneko bertikalak eta biztanle guztiekiko ehunekoa)

| Egoera | Absolutuak | Ehuneko bertikalak | Biztanle guztiekiko ehunekoa | Gizarte Laguntzaren babesa |
|---|---|---|---|---|
| Gizarte Laguntzaren babesaren onuradunak, benetako pobretasuna | 45.438 | 24,1 | 2,1 | 86,9 |
| Gizarte Laguntzaren babesaren onuradunak, ez benetako pobretasuna | 49.445 | 26,2 | 2,3 | 100,0 |
| Gizarte Laguntzaren babesaren ez onuradunak, ez benetako pobretasuna | 71.127 | 37,7 | 3,3 | — |
| Gizarte Laguntzaren babesaren ez onuradunak, benetako pobretasuna | 22.613 | 12,0 | 1,1 | 0,0 |
| Guztira | 188.623 | 100 | 8,8 | 75,7 |

Pobretasun-egoeran dauden pertsonak Gizarte Laguntzaren transferentziak baino lehen eta/edo metatze-dimentsioko pobretasun-arazoak dituztenak.

Gizarte Laguntzaren eragina: Gizarte Laguntzaren bidez pobretasunetik ateratzen diren pertsona baliokideen ehunekoa onuradun potentzial guztiekiko (onuradun errealak eta pobretasun-egoeran dauden ez onuradunak).

[32] Zentzuzkoa da pentsatzea prestazio horiek eskuratu ezin dituzten 65 urtetik gorako pertsonen kopuru handia nabarmen murriztuko dela hurrengo hilabeteetan, pentsiodunei diru-sarreren bermearen prestazioak eskuratzeko aukera emateko EAEn berriki ezarri den erregulazio berriaren ondorioz.

67. TAULA

**Gizarte Laguntzaren prestazioak eskuratu ezin dituzten eta benetako pobretasun-egoeran dauden pertsonak, etxeko pertsona nagusiaren aldagai sozio-demografikoaren arabera. 2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (% bertikalak)

| Mota | % |
|---|---|
| Emakumezkoa, familia gurasobakarra | 11,9 |
| Bakarrik dauden emakumezkoak, 65 urtetik beherakoak | 9,6 |
| Bakarrik dauden gizonezkoak, 65 urtetik beherakoak | 4,7 |
| Familia-taldeak, 45 urtetik beherakoak | 17,1 |
| Familia-taldeak, 45 urtetik gorakoak | 7,8 |
| 65 urtetik gorakoak | 23,2 |
| Europar Batasunetik kanpoko atzerritarrak | 25,5 |
| Beste kasu batzuk | 0,2 |
| Guztira | 100 |

## 3. ETXEBIZITZAREN ARAZOA

Etxebizitzaren merkatuak azkeneko hogeita bost urteotan izan duen bilakaerak agerian utzi duenez, ondasun ekonomiko hori eskuratzeko arazoak areagotu egin dira Euskadiko familia askorentzat. 1986 eta 1996 bitartean %31,2tik %23,5era jaitsi ondoren, 1996tik aurrera etengabe handitu da etxebizitza beharrak estaltzeko alokairuak eta hipotekak ordaindu behar dituzten pertsonen ehunekoa. Proportzio hori %26,7koa zen, oraindik ere, 2000. urtean, eta %34koa 2004an. 2008an iritsi da, ordea, goren mailara: %41,7a. Aldaketa horiek pobretasun- eta prekarietate-egoeretan izan duten eragina ez da neutroa izan. Aintzat hartutako aldaketa-prozesu horrekin lotutako ondorioetako batzuk aztertzea komeni da, beraz. Etxebizitza gastuek etxeak mantentzeko arazoetan dituzten ondorioak aztertu behar dira gehienbat.

Hona nabarmendu beharreko datu bat: etxeek etxebizitzaren kostuari aurre egiteko egin behar duten ahalegin garbiaren tasa arriskumailarik handienean jartzen ditu mantentze-dimentsioko pobretasunaren eta prekarietatearen eraginpean dauden kolektiboak. Ongizate-mailak behera egin ahala, etxebizitza gastuek diru-iturrien gainean egiten duten presioak gora egiten du, edukitze-erregimena edozein izanda ere. Ongizate-egoeran dauden etxeetan, ahalegin-tasa, batez beste, %13,4koa den bitartean, ongizate-gabezian erortzeko

arriskuan dauden etxebizitzetan %22,2koa da, eta mantentze-dimentsioko pobretasunean erortzeko arriskuan daudenetan, berriz, %33,4koa.

Arazoa alokairuak edo erabat ordaindu gabeko jabetza-egoera batek definitutako edukitzeerregimena duten eta arrisku-egoeran dauden etxebizitzen artean iristen da goren-mailara. Ongizate-gabeziako egoeran erortzeko arriskuan dauden etxebizitzen kasuan, batez besteko ahalegin-tasa %40tik gorakoa da (%40,3koa, etxebizitza errentan hartutakoa baldin bada, eta %42,2koa, ordaintzen bukatu gabeko jabetza baldin bada). Baina maila hori %50era hurbiltzen da, edota %50a gainditzen du, pobretasun-arriskuan erortzeko egoeran dauden etxebizitzen kasuan (%57,6a eta %47,7a, hurrenez hurren).

Puntu honetan, bereziki nabarmendu beharrekoak dira azken urteotako joera nagusiak. Aipagarriena alokairuarekin lotuta dagoen presioaren bilakaerari dagokiona da, batez ere ongizatera iristeko arazoak dituzten kolektiboen artekoa. 1996 eta 2008 bitartean, ongizateegoeran zegoen biztanleriaren ahalegin-tasa 8,1 puntu bakarrik hazi zen bitartean (%15,4tik %23,5era), pobretasun-egoeran erortzeko arriskuan zeuden kolektiboen kasuan tasa hori %18,4 hazi zen (%39,2tik %57,6ra), eta ongizate-gabezian erortzeko arriskuan zeuden etxeen kasuan %20,5 (%19,8tik %40,3ra). Alokairuari dagokionez, kolektibo prekarioenek ongizate-egoeran dauden etxeek baino askoz ahalegin handiagoa egin behar dute etxebizitza gastuei aurre egiteko orduan. Gainera, denborarekin, tasa horiek urrunduz doaz ego-era hoberenean dauden etxeen tasetatik.

68. TAULA

**Etxebizitzaren kostuari aurre egiteko ahalegin garbiaren tasaren bilakaera, mantentze-dimentsioko pobretasunaren edo ongizate gabeziaren arrisku-mailaren eta edukitze erregimenaren arabera. 1996-2008 (Mantentze-pobretasuna)**

Etxeak (Datuak ehunekoetan)

| Etxebizitza edukitzea | Pobretasun larria | | | | Ongizate-gabezia | | | | Ongizatea | | | | Guztira | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 |
| Jabetza, ordaindua | 13,2 | 14,4 | 15,9 | 16,0 | 8,3 | 9,0 | 9,9 | 12,3 | 4,6 | 4,6 | 4,9 | 5,5 | 5,5 | 5,3 | 5,6 | 6,0 |
| Jabetza, ordaindu gabea | 45,3 | 43,4 | 48,3 | 47,7 | 31,5 | 29,2 | 32,2 | 42,2 | 21,0 | 18,7 | 21,1 | 24,4 | 22,8 | 20,0 | 22,8 | 25,1 |
| Errenta eta antzekoak | 39,2 | 37,3 | 48,0 | 57,6 | 19,8 | 23,2 | 30,8 | 40,3 | 15,4 | 14,7 | 18,3 | 23,5 | 18,7 | 17,1 | 22,5 | 28,0 |
| Doakoa | 7,5 | 12,1 | 13,1 | 11,4 | 10,3 | 9,5 | 7,4 | 8,8 | 3,8 | 5,4 | 6,2 | 6,3 | 5,8 | 6,3 | 7,6 | 7,2 |
| Guztira | 21,7 | 21,8 | 28,0 | 33,4 | 12,2 | 14,2 | 18,6 | 22,2 | 8,6 | 8,3 | 10,1 | 13,4 | 9,7 | 9,2 | 11,5 | 14,2 |

Ongizatera iristeko faktore murriztailea diren etxebizitza gastuak orobat azter daitezke diru-sarrera guztien %30a baino gehiago etxebizitzarekin zerikusia duten gastuetarako erabiltzen dituzten etxeetan bizi diren biztanleen proportzioaren arabera. Hori dela eta, proportzio hori etxebizitza gastuek baliabide erabilgarrien gainean egiten duten gehiegizko presioaren adierazlea da.

Uste izatekoa denez, arazo hori nabarmen hazten da alokairuen eta jabetza ez ordainduen kasuan. Hala ere, mantentze-dimentsioko ongizate-egoeran dauden etxeetan, erreferentziako proportzioa etxe horietan bizi diren pertsonen %26,6 eta %29,5 artekoa den bitartean, biztanleriaren zatirik handienak pobretasunaren edo ongizate-gabeziaren arriskuan dauden etxeen kasuan egiten dio aurre arazoari. Kasu horretan, zifrak %70 eta %85 artekoak dira, edukitze-erregimenaren eta ongizate-gabeziaren arazoaren larritasunaren arabera. Egiaztatuta geratzen da, beraz, etxebizitza gastuek pobretasunean edo ongizate-gabezian erortzeko arriskuan dauden etxe gehienetan egiten duten presioa, alokairuegoerak edo erabat ordaindu gabeko jabetzaegoerak ematen direnean. Etxe horietan, etxebizitza gastuek gainerako premiei erosotasun handiagoz aurre egiteko posibilitatea baldintzatzen dute, dudarik gabe.

Arazo horren garrantzi soziala handiagoa da, gainera, epe ertain eta luzera. Alokairuaren kasuan, ongizate-gabeziako egoeran dauden etxeetan bizi eta diru-sarreren %30a baino gehiago etxebizitza gastuak ordaintzeko erabiltzen dituzten pertsonen proportzioa %17,6tik %70,6ra igo da 1996 eta 2008 bitartean. Pobretasunean erortzeko arriskuan dauden etxeetan bizi diren pertsonen kasuan, hazkundea %45-50 ingurukoa zen 1996an eta 2000an, eta %84,2koa 2008an.

Erabat ordaindu gabeko jabetzaren kasuan ere bilakaera negatibo bera antzematen da. Pobreenen kasuan, proportzio horrek aldi osoan bere horretan eusten badio ere, aintzat hartutako egoerek —%70 ingurukoak, oro har— izandako eragin handiarekin lotzen da denbora guztian egonkortasun hori. 2004. urtea arte %40-50 inguruko mailari eutsi ondoren, 2004 eta 2008 bitartean maila horrek gora egin zuen nabarmen, ongizate-gabeziako egoeran erortzeko arriskuan zegoen biztanleriaren kasuan. Kasu horretan, bere gastuen %30a baino gehiago etxebizitza ordaintzeko eta interesak amortizatzeko erabiltzen dituzten etxeetan bizi diren pertsonen proportzioa %47,6tik %69,9ra igo zen 2004 eta 2008 bitartean.

Aurkeztutako datuok garbi erakusten dute etxebizitza gastuek egoera okerrean dauden kolektiboetan egiten duten presio diferentziala gero eta handiagoa dela, etxebizitza errentaren bidez eskuratzen duen segmentuari dagokionez batez ere.

69. TAULA

**Etxebizitza gastuak diru-sarreren %30 baino handiagoak diren etxeetan bizi diren pertsonen proportzioaren bilakaera, mantentze-dimentsioko pobretasunaren edo ongizate gabeziaren arrisku-mailaren eta edukitze erregimenaren arabera. 1996-2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (Datuak ehunekoetan)

| Edukitzea | Pobretasun larria | | | | Ongizate-gabezia | | | | Ongizatea | | | | Guztira | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 |
| Jabetza, ordaindua | 4,7 | 5,5 | 6,2 | 4,6 | 0,3 | 0,6 | 0,5 | 1,2 | 0,1 | 0,1 | 0,0 | 0,4 | 0,5 | 0,5 | 0,4 | 0,6 |
| Jabetza, ordaindu gabea | 69,1 | 69,0 | 83,6 | 71,7 | 47,4 | 40,7 | 47,6 | 69,9 | 20,1 | 11,8 | 17,9 | 29,5 | 29,3 | 19,3 | 26,6 | 32,8 |
| Errenta eta antzekoak | 49,9 | 46,1 | 78,2 | 84,2 | 17,6 | 29,8 | 55,7 | 76,0 | 12,5 | 9,4 | 14,6 | 26,6 | 23,4 | 20,2 | 35,5 | 46,2 |
| Doakoa | 0,0 | 7,5 | 0,0 | 0,0 | 7,5 | 0,0 | 1,0 | 0,3 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,8 | 2,5 | 1,0 | 0,3 | 0,6 |
| Guztira | 20,9 | 21,0 | 35,5 | 45,5 | 8,1 | 11,4 | 20,8 | 26,6 | 4,4 | 2,9 | 5,5 | 12,4 | 6,9 | 5,6 | 10,1 | 15,2 |

Argi utzi beharra dago, baina, etxe berriak eratzeko prozesuak, mende berriarekin batera hasitakoak, euskal biztanleria osora zabaldu duela bere presioa, etxebizitza gastuei dagokienez. Gauzak horrela, 1996an %5,5a eta 2000an %7a izatera iritsi ondoren, diru-sarreren %30a baino gehiago etxebizitza eskuratzeko eta mantentzeko erabiltzen dituzten etxeetan bizi diren herritarren proportzioak gora egin du 2004 eta 2008 bitartean, %10,1etik %15,2ra. Azpian dagoen faktore nagusia, baina, norberaren jabetzako etxebizitza eskuratzearekin dago lotua, alokairuarekin baino gehiago: hipoteka ordaintzeko zeukan biztanleriaren ehunekoa %18,6koa zen 2000an, %24,9koa 2004an, eta %32,7koa 2008an.

# IV. atala.
# Ezkutuko pobretasuna

Ezinezkoa litzateke pobretasunaren eta prekarietatearen azterketa sakona egitea kontuan izan gabe ezkutuko pobretasunarekin zerikusia duten arazoak. Hiru ikuspegitatik begiratuta azter daitezke arazook: mantentze-dimentsioko banakako arrisku-adierazleekiko hurbilketa eginez, baliabideen barne-banaketaren desorekak aztertuz, eta, azkenik, bizitza independentea lortu ahal izateko prozesuekin zerikusia duten arazoak modu espezifikoan tratatuz.

## 1. MANTENTZE-POBRETASUNAREN ARRISKUAREKIKO BANAKAKO HURBILKETA

### 1.1. Datu orokorrak

Prekarietateak, baliabide pertsonalen arabera neurtua, mantentze-dimentsioan izan dezakeen eraginari buruzko datuak argigarriak dira. PGDI metodoa abiapuntutzat harturik, egiaztatuta geratzen da 25 urtetik gorako (edo beherako, ikasle ez badira) pertsonen %47,7ak ez dituela ongizate-egoerara iristeko behar beste baliabide, bizimodu independentea —bakarrik— eraman nahiz izanez gero. Pobretasunean erortzeko arriskua, bizimodu independente hori eramanez gero, oso handia izango litzateke oraindik: %29,7koa, hain zuzen[33]. Aipatu adierazleok are handiagoak izango lirateke Eurostat adierazleak aplikatuz gero: %43,2a, pobretasunean erortzeko arriskuari dagokionez, eta %67,7a, ongizate-gabezian erortzeko arriskuari dagokionez.

Emaitza horiek gauzak argitzen dituzte, egungo banako diru-sarreren mailek dituzten inplikazioak direla eta, batetik, eta, pobretasuna gutxitzeko eta ongizate-maila handiagoak lortzeko borrokan, elkarrekin bizitzeko akordioek duten eragin erabakigarria dela eta, bestetik.

---

[33] 2008rako PGDI adierazleak, baina 2004an erregistratutakoak baino nabarmen txikiagoak dira: %54,3, ongizate gabezian erortzeko arriskuari dagokionez, eta %33,4, pobretasunean erortzeko arriskuari dagokionez.

70. TAULA

**Pobretasunean eta ongizate-gabezian erortzeko arriskuaren eragina, banako diru-sarreren arabera. 2008**

18 urtetik gorako biztanleria (18 eta 24 urte bitarteko ikasleak izan ezik) (Ehuneko bertikalak)

| Metodoa | Pobretasuna | Ongizate-gabezia |
|---|---|---|
| PGDIren metodoa | 29,7 | 47,4 |
| Eurostat metodoa | 43,2 | 67,7 |

*Oharrak:* Bakarkako bizimodu independente baten zirkunstantzia teorikoan.
Ongizate-gabeziaren adierazleak pobreen kolektiboa hartzen du barne.

## 1.2. Arrisku-taldeak eta banakako pobretasunaren banaketa

Pobretasun pertsonalaren arrisku-egoeretan jarririk arreta, eta PGDI metodoaren aplikaziotik lortutako emaitzak erabiliz, alderdi garrantzitsu batzuk nabarmen ditzakegu, banakako pobretasun-egoeren banaketa dela eta, batetik, eta aldagai soziodemografiko nagusiekin lotutako arrisku-mailak direla eta, bestetik. Hauek dira nabarmendu beharreko datu nagusiak:

— Daturik aipagarriena emakumezko biztanleriak arriskuan dagoen biztanleriaren artean duen pisu handia da. Emakumezkoak diru-sarrera pertsonalik ez duten pertsona guztien %82,9a dira. Diru-sarrera pertsonalak beharrezkoak dira bakarkako bizimodu independentea eraman nahi izanez gero, pobretasunean erortzeko arriskurik gabe. Pobretasun-arriskuak gizonezkoen %10,7ari eragiten dioen bitartean, proportzio hori %47,1era igotzen da emakumezkoen kasuan. Arrisku-maila, beraz, lau aldiz handiagoa da emakumezkoen artean.

— Espero izatekoa zen bezala, arrisku-talde horietan biztanleriarik gazteena da nagusi. Arrisku-egoeran dauden pertsonen %44,7a 45 urtetik beherakoak dira, %36,9a 45 eta 65 urte bitartekoak, eta %18,5a 65 urtetik gorakoak.

Adinak gora egin ahala, pobretasun pertsonalaren tasak behera egiten du, modu jarraituan egin ere. Hala, tasa hori %45ekoa da 24 urtetik beherakoen artean (%47,6koa, hain zuzen), eta %30 ingurukoa 25 eta 44 urte bitartekoen artean: %30ekoa 25 eta 44 urte bitartekoen artean, eta %29,1ekoa 35 eta 44 urte bitartekoen artean). Arrisku-maila ez da %30era iristen 45 urtetik gorako pertsonen artean, 55 eta 64 urte bitarteko adin-taldearen salbuespena eginda, talde horretan arrisku-maila gazteenen antzekoa

baita: %39,7a. Aitzitik, 45 eta 54 urte bitarteko pertsonen artean %24,7koa da, eta 65 urtetik gorakoen artean %23,5ekoa.

— Arriskuan dauden pertsona gehienak (%59,9a) bigarren edo hirugarren mailako ikasketarik gabeko pertsonak dira. Prestakuntza zenbat eta handiago izan, orduan eta txikiagoa da pobretasunik gabeko bizimodu independentea eramateko baliabiderik ezak baldintzatua egoteko aukera. Gauzak horrela, ikastetik gabeko edo oinarrizko ikasketak dituzten pertsonen artean arrisku-maila %35 ingurukoa den bitartean, tasa hori %32,6ra jaisten da Lanbide Heziketa I edo bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak dituztenen artean, eta %18,7ra, Lanbide Heziketa II edo hirugarren mailako ikasketak egin dituztenen artean. Datuok bi gauza erakusten dizkigute: batetik, tasek hobera egiten dutela ikasketa-mailak hobera egin ahala; eta, bestetik, ikasketa kualifikatuak izateak hobekuntza kualitatiboa dakarrela.

— Bizimodu independentea eraman eta bakarrik bizi nahi izanez gero, pobretasunean erortzeko probabilitatea okupazio egonkorrik ez duten pertsona guztien batez bestekoaren gainetik dago. Okupatu ez-egonkorren artean, banakako pobretasunean erortzeko arriskuan daudenak %32,9a dira. Ehunekoa %46,1era igotzen da biztanleria ez-aktiboaren artean, eta %83,9ra, langabetuen artean. Arrisku-maila %9,4ra jaisten da, ordea, okupazio egonkorra duen biztanleriaren artean. Tasa hori 2004ko %7,8aren gainetik dago, hala ere.

Lan-esperientzia izandako pertsonen artean, oso lotura estua dago lan egindako hilabetekopuruaren eta arrisku-mailaren artean. Azken urtean lanarekin harreman jarraitua izandako pertsonen kasuan, arrisku-tasa apal samarra da, %10,3koa. Mailak gora egiten du nabarmen, batez besteko orokorra gainditzeraino, 9-12 hilabete bitartean lan egiten duten pertsonen artean (%30,1). Arriskua askoz handiagoa da 9 hilabete baino gutxiago lan egiten duten kolektiboen artean: %37,9koa, 6-9 hilabete bitarteko lan-esperientzien kasuan; %55,6koa, 3-6 hilabete bitarteko lan-esperientzia baten kasuan; eta %62,8koa, lanarekiko harremana hiru hilabetekoa baino laburragoa izan den kasuetan.

Pobretasunean erortzeko arriskuan dauden pertsona guztien banaketari dagokionez, norberaren diru-sarrerak bakarrik kontuan harturik, pertsona horien %63,1a pertsona ez-aktiboak dira. Proportzioa %86,1era igotzen da, egoera ez-egonkorrean dagoen biztanleria landuna eta langabea kontuan hartzean (%13,1a eta %10a, hurrenez hurren).

— Azterketa honetan, arriskuan dagoen biztanleriaren %92,3a nazionala bada ere, arrisku-tasarik handienak (%55,6a) Europar Batasunetik kanpoko herrialde bateko herritarrak diren pertsonei dagozkie. Bestalde, Estatu barruko herritarren artean, tasa hori %28,7koa da, eta Europar Batasuneko beste herrialdeetako herritarren artean, %30,5ekoa.

71. TAULA

**Pobretasunaren banaketa eta pobretasunean erortzeko arriskua, banako diru-sarreren arabera. 2008**

18 urtetik gorako biztanleria (18 eta 24 urte bitarteko ikasleak izan ezik) Banaketa eta tasak ehunekotan

| Aldagaiak | Banako pobretasunean erortzeko arriskua | |
|---|---|---|
| | **Banaketa** | **Tasa** |
| **Sexua** | | |
| Gizonezkoak | 17,1 | 10,7 |
| Emakumezkoak | 82,9 | 47,1 |
| **Adina** | | |
| 15-24 urte bitartekoak | 7,0 | 47,6 |
| 25-34 urte bitartekoak | 16,7 | 30,0 |
| 35-44 urte bitartekoak | 21,0 | 29,1 |
| 45-54 urte bitartekoak | 15,0 | 24,7 |
| 55-64 urte bitartekoak | 21,8 | 39,7 |
| 65 urtetik gorakoak | 18,5 | 23,5 |
| **Ezkontza egoera** | | |
| Ezkongabea | 27,7 | 31,0 |
| Ezkondua | 65,8 | 32,3 |
| Alarguna | 3,2 | 10,0 |
| Dibortziatua/Banatua | 3,3 | 27,7 |
| **Herritartasuna** | | |
| Nazionala | 92,3 | 28,7 |
| Europar Batasuneko beste herrialde batzuetakoa | 1,2 | 30,5 |
| Munduko beste herrialde batzuetakoa | 6,5 | 55,6 |
| **Ikasketa-maila** | | |
| Ikasketarik ez | 4,5 | 34,5 |
| Lehen mailakoak | 55,4 | 35,8 |
| Bi.mail. ez-profes/LH I | 19,8 | 32,6 |
| LH II edo Hiru. mailakoak | 20,3 | 18,7 |
| **Jarduerarekiko harremana** | | |
| Landun egonkorra | 13,9 | 9,4 |
| Landun ez-egonkorra | 13,1 | 32,9 |
| Langabea. | 10,0 | 83,9 |
| Ez-aktiboa | 63,1 | 46,1 |
| **Azken urtean lan egindako hilabeteak** | | |
| Urte osoa | 16,3 | 10,3 |
| 9-12 hilabete | 4,1 | 30,1 |
| 6-9 hilabete | 3,8 | 37,9 |
| 3-6 hilabete | 4,1 | 55,6 |
| 3 hilabete | 3,4 | 62,8 |
| Bat ere ez | 68,3 | 48,1 |
| **Guztira** | **100** | **29,7** |

*Oharrak:* Bakarkako bizimodu independente baten zirkunstantzia teorikoan.

— Azkenik, esan beharra dago, ezkontza egoerak ez duela gorabehera handirik eragiten pobretasunean erortzeko arrisku-tasetan, alargun dagoen biztanleria alde batera utzita (kasu horretan, arrisku-maila %10ekoa da). Hala, tasa hori %32,3koa da ezkonduen artean, %31koa ezkongabeen kasuan, eta %27,7koa, azkenik, dibortziatuen eta banan-duen kasuan. Arriskuan dagoen biztanleria guztiaren banaketa kontuan hartuta, biztan-leria horren %65,8a pertsona ezkonduak dira eta %27,7a ezkongabeak.

## 2. DESOREKAK BALIABIDEEN BARNEBANAKETAN

Lehenago esan dugun bezala, 2004tik aurrera, baliabideak modu partekatuan ez eskura-tzearen arazoetako batzuen eraginaren gutxi gorabeherako kalkulua egiteko aukera ema-ten digun galdera bat txertatu zen PGDIn. Informazio hori ustiatzeko orduan, bikoteki-dearekin bizi diren emakumeen erantzunak baliatu dira batez ere. Bikote horiek etxeko talde nagusiari atxikiak daude eta informatzaile zuzenak izan dira inkestaren prozesu guztian.

Bistan da lortutako informazioak ez dituela arazo horiek denak islatzen, eta horietako asko ezkutuan geratu direla, baina adierazgarria da baliabideak modu partekatuan ez eskuratzearen arazoak azterketa honetan aintzat hartutako emakumeen %1,8ari eragiten diola, eta datu hori berdina dela bai 2004an bai 2008an.

Zifra hori errealitatean handiagoa izan daitekeela alde batera utzita, jakingarria da egiaztatzea erreferentzia-adierazlea askoz handiagoa dela pobretasun-arazoak dauden ka-suan. Hala, mantentze-dimentsioari dagokionez, arazo horrek pobretasunean erortzeko arrisku-egoeran bizi diren emakumeen %4,6ari eragiten dio. Proportzio hori %0,4ra jais-ten da ongizate-gabeziaren kasuan, eta %1,8ra igotzen, berriz, ongizate-egoeran dauden etxeen kasuan.

Benetako pobretasun eta prekarietatearen adierazle sintetikoa aintzat harturik, da-tuak adierazgarriak dira, eta garbi islatzen dute pobretasunak berekin dakarren eragin diferentziala. Gauzak horrela, benetako pobretasun-egoeretan, baliabideak modu par-tekatuan eskuratzen ez dituzten emakumeen proportzioa erreferentzia-biztanleriaren %6,5a da, prekarietate-egoeran (baina ez pobretasun-egoeran) eta ongizate-egoeran dauden etxeetan bizi diren emakumeak baino lau aldiz handiagoa (%1,5a eta %1,7a, hurrenez hurren).

72. TAULA

**Baliabideak modu partekatuan eskuratzen ez dituzten emakumeak, mantentze-dimentsioko pobretasunaren eta prekarietatearen arrisku-mailaren arabera. 2008**

Familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrak (Eragin-mailak ehunekotan)

| | Baliabideak modu partekatuan eskuratzen ez dituzten emakumeak ehunekotan |
|---|---|
| **Mantentze-dimentsioaren adierazlea** | |
| Pobretasuna | 4,6 |
| Ongizate-gabezia (ez pobretasuna) | 0,4 |
| Ongizatea | 1,8 |
| **Benetako pobretasunaren edo prekarietatearen adierazlea** | |
| Pobretasuna | 6,5 |
| Prekarietatea (ez pobretasuna) | 1,5 |
| Ongizatea | 1,7 |
| Guztira | 1,8 |

*Oharra:* Informatzailea emakumea da, eta etxeko talde nagusiari atxikia dagoen familia-etxebizitza batean bizi da bere bikotekidearekin.

## 3. INDEPENDIZAZIO-ARAZOAK

### 3.1. Datu orokorrak

2008ko PGDIk erakutsi duenez, etxe independentea eratu nahiko luketen 126.199 pertsona bizi dira EAEn. Horietatik 107.300ek ezin dute etxea eratu behar beste baliabide ekonomikorik ez dutelako. Behar beste baliabide izango balute, 31.437 pertsona urtebeteko epearen barruan independizatuko lirateke, inolako zalantzarik gabe, baina zifra hori 72.238ra igoko litzateke epe horren barruan independizatzeko asmo dutenak ere barne hartuko balira.

2004. urtea arte, daturik aipagarriena arazo horren eraginpean zegoen pertsona-kopuruaren hazkunde progresiboa zen. Urtebeteko epearen barruan independizatzeko gai izango litzatekeen biztanleriari dagokionez, bizimodu independentea lortzeko zailtasunak zituzten pertsonak 42.234 ziren 1996an, 79.619 2000. urtean, eta 94.588 2004. urtean. 18-44 urte

bitarteko biztanleriari dagokionez, arazoaren eragina etengabe zabalduz joan zen: 1996an biztanleria horren %8,4ri eragiten zion, 2000an %15,2ri eta 2004an %21,7ri[34].

73. TAULA

**Etxe independentea eratu nahiko lukeen biztanleria independizatu gabea. 2008**

(Datu absolutuak)

| Etxe independentea eratu nahiko luketen pertsonak | Absolutuak |
|---|---|
| Behar besteko diru-sarrerak | 18.900 |
| Behar besteko diru-sarrerarik ez | 107.300 |
| Epe ertainera independizatzeko asmoa (urte batetik aurrera) | 35.062 |
| Epe laburrera independizatzeko asmoa (urte baten barruan) | 31.437 |
| Epe zehatzik gabe independizatzeko asmoa | 40.801 |
| Guztira | 126.199 |

*Oharra:* Familia-talde potentzialki independentearen kideak ez dira barnean hartzen.

74. TAULA

**Etxe independente bat eratu nahiko lukeen biztanleria independizatu gabearen bilakaera. 1996-2008**

Epe lapurrean independizatzeko aukera (erreala edo posiblea) duten pertsonak (1)
(Datu absolutuak eta erreferentzia-biztanleriarekiko ehunekoa)

| Biztanleria potentzialki independentea | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 |
|---|---|---|---|---|
| Epe laburrean independizatzeko aukera | 42.234 | 79.619 | 94.588 | 72.238 |
| 18-44 urte bitarteko biztanleriarekiko ehunekoa | 8,4 | 15,2 | 21,7 | 21,3 |
| 18-44 urte bitarteko biztanleria ez independizatuarekiko ehunekoa | 505.032 | 524.889 | 436.507 | 338.787 |

(1) Independizatzeko behar besteko diru-sarrerarik ez duen eta urtebeteko epean bizimodu independentea izateko aukera kontuan hartzeko prest dagoen 16-64 urte bitarteko biztanleria.

2008ko emaitzek agerian utzi dutenez, 18-44 urte bitarteko pertsonen artean potentzialki independentea den biztanleriaren pisua mantentzen da, eta urte horretan iristen da

34 Eraginaren adierazlea kalkulatzeko 18-44 urte bitarteko biztanleria hartzen da kontuan, adintalde horretan biltzen baitira atal honetan aztertzen ari garen bizimodu independentea lortu ahal izateko zailtasun gehienak.

mailara: %21,3. Datu horrek, baina, ezkutatu egiten du erreferentzia-biztanleriaren bolumenaren hazkunde progresiboan izandako haustura. 2008. urtean potentzialki independentea den biztanleria 2000. urteko mailaren azpitik jaisten da: 72.238 pertsona, guztira. Zifra erlatiboen gorakadaren arrazoia 18-44 urte bitarteko biztanleria ez independizatuaren bolumenaren beherakada nabarmena izan da: 2000. urtean 524.889 pertsona zeuden egoera horretan, eta 2008. urtean, berriz, 338.787. Dagoeneko errealitate bat da biztanleria gaztea atzeratzen ari dela berriro bizimodu independentea lortzeko prozesuan.

### 3.2. **Arrisku-taldeak eta independizazio arazoen banaketa**

Interesgarria da urtebeteko epearen barruan etxe independente bat eratzeko moduan dauden baina horretarako behar besteko diru-sarrerarik ez duten 72.238 pertsonak ezaugarritzen dituzten bereizgarri soziodemografikoak ezagutzea. Kolektibo horren ezaugarri nagusiek berrikuntza batzuk agertzen dituzte, aurreko urteetako ezaugarrien aldean. Honako hauek dira:

— Kolektibo gaztea da. Talde horretan sartzen diren pertsonen %85,5ek 35 urte baino gutxiago ditu. Pertsona gehienak, %57,4, 25 eta 34 urte bitarteko pertsonak dira. 35 urtetik gorakoen pisua, baina, handitu egiten da epe luzera, %5,8tik %14,5era igaro baita 1996 eta 2008 bitartean.

— 1996. urtetik lehen aldiz, independizazioarazoen eraginpean bizi diren gehienak emakumezkoak dira: 18 eta 44 urte bitarteko pertsona ez-independizatuen %24,4a emakumezkoak dira eta %18,9a gizonezkoak. Hori dela eta, azkeneko urteotan, bizimodua independentea lortu nahi duten pertsonen artean handiagoa da emakumezkoen proportzioa (%50,6) gizonezkoena (%49,4) baino.

— Kolektibo horren beste ezaugarri deigarri bat da aztertutako independizazio-arazo gehienak ikasketa kualifikatuak dituzten pertsonen artean aurkitzen direla. LH II mailako ikasketak eginak dituzten pertsonak antzemandako egoeren %56,3a osatzen dute. Proportzio hori %86,2ra igotzen da, bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak eta LH I mailako ikasketak dituztenak hartuz gero kontuan.

— Aztertutako pertsonen %91,1a ezkongabeak dira. EAEko 18-44 urte bitarteko biztanle ezkongabe ez independizatuen %20,4ak urtebeteko epearen barruan independizatzeko asmoa du. Ezkonduen kasuan proportzio hori %11,6koa da.

75. TAULA

**Urtebeteko epean etxe independente bat eratuko lukeen baina horretarako behar beste baliabide ekonomikorik ez duen biztanleria ez-independizatua, sexu, adin, ezkontza-egoera eta ikasketa-mailaren arabera. 1996-2008**

(18-44 urte bitarteko biztanleria ez independizatuarekiko ehunekoa eta ehuneko bertikalak)

| Ezaugarri soziodemografikoak | 18-44 urte bitarteko biztanleria ez independizatua | | | | % bertikalak | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 |
| **Sexua** | | | | | | | | |
| Gizonezkoa | 9,3 | 16,2 | 23,7 | 18,9 | 61,5 | 60,7 | 60,7 | 49,4 |
| Emakumezkoa | 7,2 | 13,9 | 19,2 | 24,4 | 38,5 | 39,3 | 39,3 | 50,6 |
| **Adina** | | | | | | | | |
| 25 urtetik beherakoak | 3,9 | 10,3 | 13,0 | 13,9 | 24,0 | 31,0 | 26,4 | 28,1 |
| 25-34 urte bitartekoak | 14,2 | 21,1 | 31,6 | 30,6 | 70,2 | 60,6 | 63,5 | 57,4 |
| 35 urte eta gehiagokoak | 7,1 | 11,6 | 17,5 | 18,4 | 5,8 | 8,4 | 10,0 | 14,5 |
| **Ezkontza egoera** | | | | | | | | |
| Ezkongabea | 8,1 | 15,4 | 21,3 | 20,4 | 92,9 | 96,2 | 93,8 | 91,1 |
| Ezkondua | 17,0 | 10,3 | 37,0 | 11,6 | 5,2 | 2,7 | 5,4 | 1,3 |
| Bestea | 13,6 | 11,1 | 12,2 | 66,3 | 1,9 | 1,1 | 0,7 | 7,5 |
| **Ikasketa-maila** | | | | | | | | |
| Ikasketarik gabe | 0,0 | 0,0 | 28,8 | 1,5 | 0,0 | 0,0 | 1,7 | 0,1 |
| Lehen mailakoak | 5,9 | 15,1 | 18,5 | 20,1 | 15,2 | 22,8 | 14,9 | 13,7 |
| Big.ez-prof./LH I | 7,5 | 13,2 | 17,3 | 20,2 | 22,3 | 21,3 | 21,2 | 29,9 |
| Kualifikatuak | 9,9 | 16,2 | 24,6 | 22,8 | 62,5 | 55,9 | 62,1 | 56,3 |
| **Jarduerarekiko harremana** | | | | | | | | |
| Landun egonkorra | 10,8 | 15,4 | 24,4 | 27,5 | 23,0 | 27,4 | 33,5 | 44,7 |
| Landun ez-egonkorra | 15,4 | 21,6 | 32,9 | 28,3 | 41,3 | 44,6 | 38,3 | 35,3 |
| Langabea | 9,3 | 13,8 | 14,5 | 16,3 | 25,0 | 19,5 | 17,2 | 7,3 |
| Ez-aktiboa | 2,4 | 1,4 | 2,2 | 9,3 | 10,7 | 8,5 | 11,0 | 12,8 |
| Guztira | 8,4 | 15,2 | 21,7 | 21,3 | 42.234 | 79.619 | 94.588 | 72.238 |

*Oharra:* Independizatzeko behar besteko diru-sarrerarik ez duen eta urtebeteko epean bizimodu independentea izateko aukera kontuan hartzeko prest dagoen 16-64 urte bitarteko biztanleria hartzen du barne.

— Enpleguari dagokionez, prekarietate-egoerak dira nagusi, aztertutako biztanleriaren artean. %42,5a langabea edo landun ezegonkorra da (%7,3a eta %35,3a, hurrenez hurren). Nolanahi ere, independizazio-arazoak dituzten pertsonen proportzioa handiagoa da orain landun egonkorren artean (%44,7). Guztira, urtebeteko epean bizimodu independentea lortzeko arazoak dituzten pertsonen %80ak landunak dira egun.

  Termino erlatiboetan, erreferentzia-taldeko 18-44 urte bitarteko biztanleria ez-independizatu guztiari dagokionez, arazoak etengabe egin du gora landun egonkorren artean, 1996ko %10,8tik 2008ko %27,5era igaroz. Horrek esan nahi du landun horiek gero eta pisu handiagoa dutela potentzialki independenteak direnen artean: %23a 1996an, %27,4a 2000an, %33,5a 2004an, eta %44,7a 2008an.

Bilakaeraren datuek aldaketa kualitatibo bat erakusten dute, beraz, aztertutako kolektiboan. Aldaketa horren ardatz nagusia emakumezkoek eta landun egonkorrek jokatzen duten paper gero eta garrantzitsuagoa da. Pertsona mota horiek jokatzen duten paper gero eta garrantzitsuagoak agerian uzten duenez, pertsona landuna izateak ez du automatikoki bermatzen prekarietatearekin eta are pobretasunarekin zerikusirik ez duen bizimodu independentea lortzeko aukera.

### 3.3. **Independizazio-arazoen jatorria**

Aipagarria da, baita ere, independizaziorako arazo ekonomikoen jatorria aztertzea, kontuan harturik arazoaren eraginpean bizi diren pertsonen jarduerarekiko harremana. Urtebeteko epearen barruan bizimodu independentea lortu ahal izateko aukeran pentsatzen ari diren pertsonengan zentraturik berriro azterketa, baliabide nahikorik ez izateak jokatzen duen paper erabakigarria nabarmentzen da berriro, 2008. urtean. Aztertutako pertsonen %41,5ek adierazten duenez, oinarrizko premiei aurre egiteko baliabide nahikorik ez izatea da independizazioa atzeratzeko arrazoi nagusia. Arazo hori aztertutako kasuen %84,1ean agertzen da. Gainera, aztertutako pertsonen %4,6ak adierazten du ez duela behar beste baliabide, izan nahi duen bizimodua izateko. Arazo horren pisuak garrantzi handiagoa hartzen du integrazio-mailak handitu ahala. Landun egonkorren %54,8ak eta landun ez-egonkorren %48,7ak arazo nagusitzat daukate.

Oinarri objektiboak daude, zalantzarik gabe, oinarrizko premiak asetzeko zailtasunen paper nagusirako. Hori dela eta, kolektibo horren pobretasun-arriskua %36,6ra igotzen da, eta %69,8 ongizate-gabeziaren arriskupean egongo dira, bizimodu independentea

lortzeko prozesua aurrera eramanez gero. Taldearen oinarri patrimoniala, gainera, mugatua da: aztertutako pertsonen %52,2ak ez du inolako aurrezkirik, eta %82ak inbertsiorik ere ez etxebizitzan.

Aztertutako pertsonen %84,2arentzat etxebizitzarik eza faktore mugatzailea izan arren, horietako %26,6ak baino ez du arrazoi nagusi gisa aipatzen: %31,9ak landun egonkorren artean, eta %22ak landun ez-egonkorren eta langabeen artean.

Azkenik, lanaren ezegonkortasuna edota lanik ezari dagokionez, aztertutako pertsonen beste %19,6ak arrazoi horiek aipatzen ditu arazo nagusi gisa. Proportzio hori %21,3koa da landun ez-egonkorren kasuan, eta %51,8koa langabeen kasuan.

Bizimodu independentea lortzeko zailtasunen azpian dauden arrazoi nagusietan izandako aldaketak kontuan harturik, egiaztatzen da 1996 eta 2000. urteetan lanik eza edo lanezegonkortasuna erabakigarriak zirela, potentzial independenteen %50ak baino gehiagok faktore horiekin lotzen zituztela independizazio-arazoak. 2004an, berriz, proportzioa %30,1era jaitsi zen. Prozesu hori are gehiago nabarmendu zen 2008an: arazo horren eraginpean bizi direnen %19,6ak baino ez ditu kontu horiek aipatu independizaziorako eragozpen nagusi gisa.

Etxebizitzarik eza, 1996 eta 2000 urteetan arazo horren eraginpean zeudenen %22ak eta %23ak eragozpen nagusi gisa aipatua, arazo nagusi bihurtu zen 2004an. Aztertutako pertsona potentzialki independenteen %40,4aren arabera, etxebizitzarik eza zen orduan independizaziorako arazo nagusia. 2008ko errealitatea aurreko mendeko mailetatik hurbilago da: arazo horren eraginpean dauden %26,6ak aipatzen du kontu hori bizimodu independentea lortu ahal izateko arazoaren iturburu nagusi gisa.

2008. urtean, beraz, indartu egin da aurreko urteetan antzematen hasitako prozesua, hau da, arazo nagusi gisa diru-sarrerarik eza aipatzen duten pertsonen gero eta pisu handiagoa. 1996an, interesatuen %13,1ek baino ez zuen aipatu arazo hori independizaziorako eragozpen nagusi gisa, 2000an eta 2004an %21ek inguru, eta 2008an, berriz, arrazoi nagusi bihurtu da, %46,1arekin.

76. TAULA

**Independizazio-arazoen jatorria eta arrisku objetiboak, jarduerarekiko harremanaren arabera. 2008**

Epe lapurrean independizatzeko aukera (erreala edo posiblea) duten pertsonak
(Arazo horren eraginpean dauden pertsonen portzentajea)

| | Landun egonkorrak | Landun ez-egonkorrak | Langabeak | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| **Aipatuta arrazoiak** | | | | |
| Gustura egungo egoeran | 41,0 | 41,8 | 34,5 | 40,0 |
| Lanik eza, diru-sarrerarik eza | 1,1 | 7,3 | 98,4 | 22,8 |
| Lan-ezegonkortasuna, diru-sarrera irregularrak | 19,1 | 68,3 | 38,9 | 40,4 |
| Oinarrizko beharrak asetzeko behar besteko diru-sarrerarik ez | 77,9 | 88,3 | 90,6 | 84,1 |
| Nahi den bizimodua eramateko behar besteko diru-sarrerarik ez | 57,4 | 53,2 | 58,3 | 56,1 |
| Aisia-jarduera mugatua | 47,2 | 62,7 | 34,8 | 50,2 |
| Etxebizitzarik eza | 81,1 | 84,0 | 91,7 | 84,2 |
| Etxebizitza hornitzeko behar besteko diru-sarrerarik ez | 76,9 | 81,6 | 95,0 | 82,2 |
| Nahi den etxebizitza eskuratzeko ezintasuna | 49,0 | 56,7 | 43,4 | 50,6 |
| Bikotekiderik ez | 15,7 | 5,5 | 22,6 | 13,5 |
| Egungo erantzukizun familiarrak | 9,1 | 5,0 | 8,5 | 7,5 |
| Independizatzeko zorian dago | 12,3 | 5,7 | 1,6 | 7,8 |
| Beste batzuk | — | 4,2 | 8,7 | 3,2 |
| **Arrazoi nagusiak** | | | | |
| Gustura egungo egoeran | 2,4 | 4,2 | — | 2,5 |
| Lanik eza, diru-sarrerarik eza | — | 1,8 | 49,0 | 10,4 |
| Lan-ezegonkortasuna, diru-sarrera irregularrak | 3,9 | 19,5 | 2,8 | 9,2 |
| Oinarrizko beharrak asetzeko behar besteko diru-sarrerarik ez | 48,4 | 44,2 | 21,4 | 41,5 |
| Nahi den bizimodua eramateko behar besteko diru-sarrerarik ez | 6,3 | 4,5 | 1,1 | 4,6 |
| Aisia-jarduera mugatua | 0,8 | 2,0 | — | 1,1 |
| Etxebizitzarik eza | 31,9 | 22,4 | 22,2 | 26,6 |
| Etxebizitza hornitzeko behar besteko diru-sarrerarik ez | 1,2 | — | — | 0,6 |
| Nahi den etxebizitza eskuratzeko ezintasuna | 1,2 | 0,6 | — | 0,7 |
| Bikotekiderik ez | — | — | — | — |
| Egungo erantzukizun familiarrak | 1,5 | — | 3,2 | 1,3 |
| Independizatzeko zorian dago | 2,4 | 0,9 | — | 1,4 |
| Beste batzuk | — | — | 0,4 | 0,1 |
| **Antzemandako arrisku objektiboak** | | | | |
| Pobretasun-arriskua | 21,2 | 32,0 | 78,9 | 36,6 |
| Ongizate-gabeziaren arriskua | 62,8 | 70,1 | 84,8 | 69,8 |
| Etxebizitza inbertsiorik eza | 79,0 | 77,6 | 97,4 | 82,2 |
| Aurrezkirik eza | 48,8 | 36,7 | 86,9 | 52,2 |
| Arazo horren eraginpean dauden pertsonak guztira | 32.270 | 25.483 | 14.485 | 72.238 |

77. TAULA

**Epe laburrean independizatzeko aukera duen biztanleria potentzialki independentea. Bizimodu independentea lortzea eragozten duten arrazoiak eta arrisku objektiboak. 1996-2008**

Epe laburrean independizatzeko aukera (erreala edo posiblea) duten pertsonak (Erreferentzia-biztanleriarekiko ehunekoa)

| | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 |
|---|---|---|---|---|
| **Ez independizatzeko aipatutako arrazoiak** | | | | |
| Lan egokirik eza | 36,3 | 28,8 | 31,3 | 22,8 |
| Lan-ezegonkortasuna | 45,0 | 56,5 | 47,1 | 40,4 |
| Diru-sarrera nahikorik ez (oinarrizko beharrak) | 71,4 | 78,4 | 67,9 | 84,1 |
| Diru-sarrera nahikorik ez (ongizatea) | 71,5 | 61,8 | 63,5 | 56,1 |
| Etxebizitzarik eza | 86,7 | 90,8 | 90,3 | 84,2 |
| Etxebizitza hornitzeko baliabiderik eza | 83,3 | 77,2 | 71,7 | 82,2 |
| **Ez independizatzeko aipatutako arrazoi nagusia** | | | | |
| Lan egokirik eza | 34,1 | 19,5 | 16,2 | 10,4 |
| Lan-ezegonkortasuna | 24,7 | 31,2 | 13,8 | 9,2 |
| Diru-sarrera nahikorik ez (oinarrizko beharrak) | 9,5 | 17,7 | 16,4 | 41,5 |
| Diru-sarrera nahikorik ez (ongizatea) | 3,6 | 3,5 | 5,2 | 4,6 |
| Etxebizitzarik eza | 22,8 | 21,7 | 40,4 | 26,6 |
| Etxebizitza hornitzeko baliabiderik eza | 1,0 | 0,4 | 1,3 | 0,6 |
| Beste arrazoi batzuk | 4,3 | 5,9 | 6,6 | 7,1 |
| **Arrisku objektiboak** | | | | |
| Pobretasun larrian erortzeko arriskua | 52,3 | 48,4 | 68,3 | 36,6 |
| Ongizate-gabezian erortzeko arriskua | 74,3 | 76,9 | 88,5 | 69,8 |
| Etxebizitza-inbertsiorik eza | 79,0 | 91,0 | 86,6 | 82,2 |
| Aurrezkirik eza | 51,8 | 51,2 | 59,6 | 52,2 |

*Oharra:* Independizatzeko diru-sarrera nahikorik ez duen eta urtebeteko epean bizimodu independentea lortzeko aukera aintzat hartzeko prest dagoen 16-64 urte bitarteko biztanleria hartzen du barne.

Datu horiek erakusten dutenez, lana lortzea elementu erabakigarri bakarra izateari utzi dio independizazio prozesuan. Etxebizitzarik eza, ongizate-gabeziaren arriskua, eta are pobretasun-arriskua ere gero eta pisu handiagoa hartzen ari dira bizimodu independentea lortzeko aukera mugatzen duten faktore gisa.

Kontsiderazio ekonomikoek garrantzi handiagoa izatea bat dator independizazio-arazoak dituzten kolektiboen deskapitalizazio-mailaz aurreratutako zifrekin, eta bizimodu independentea lortuz gero pobretasunean eta ongizate-gabezian erortzeko arrisku-maila

handiekin. Hala ere, nabarmendu beharra dago egoera ez dela aurreko urteetakoa baino okerragoa, datu objektiboek erakusten dutenez. Aitzitik, arrisku-mailak apur bat behera egin du. Hori dela eta, ongizate-gabeziaren arriskuak behera egin du, %88,5etik %69,8ra, 2004 eta 2008 bitartean. Beherakadarik nabarmenena, baina, pobretasun-arriskuak egin du, %68,3tik %36,6ra jaitsiz. 1996-2008 bitarteko aldi osoko arrisku-mailarik apalenak 2008an erregistratu dira.

Ez gara zifra erlatiboez bakarrik ari. Arriskuan dauden pertsonen datu absolutuak ere nabarmen jaitsi dira, eta bai 2000. urteko datuen bai 2004. urteko datuen azpitik daude. Beherakada bereziki deigarria da bizimodu independentea lortuz gero pobretasun-arriskuan egongo liratekeen pertsonei dagokionez: 2000 eta 2004 bitarteko urteetan 38.496tik 64.629ra igo ondoren, zifra 26.417ra jaitsi zen 2008an, 1996an antzemandako kopuruaren apur bat gainetik (26.417 pertsona).

78. TAULA

**Mantentze-dimentsioko ongizate-gabeziaren eta pobretasunaren adierazleak. 1996-2008**

Independizazio-arazoak dituen biztanleria (Eragin-mailak ehunekotan)

| | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 |
|---|---|---|---|---|
| **Arriskua** | | | | |
| Pobretasuna | 52,3 | 48,4 | 68,3 | 36,6 |
| Ongizate-gabezia | 74,3 | 76,9 | 88,5 | 69,8 |
| **Arazoaren eraginpean dauden pertsonak** | | | | |
| Pobretasuna | 22.098 | 38.496 | 64.629 | 26.417 |
| Ongizate-gabezia | 31.360 | 61.204 | 83.751 | 50.389 |

*Oharra:* Independizatzeko behar besteko diru-sarrerarik ez duen eta urtebeteko epean bizimodu independentea izateko aukera kontuan hartzeko prest dagoen 14-64 urte bitarteko biztanleria hartzen du barne. 2008ko ata laseetara doitutako datuak.

Dena dela, aurkeztutako zifrek erakusten dutenez, EAEko biztanleria gazteari eragiten dion independizazio-defizitak pobretasunaren eta prekarietatearen tasak handitzen jarraitzen dituen elementu bat da oraindik ere. Izan ere, korrelazio nabarmena dago 2000-2008 urteetako 18 eta 44 urte bitarteko independizatu gabeko biztanleriaren bolumenaren beherakada handiaren (524.889 pertsona 2000an, 436.507 2004an eta 209.891 2008an) eta

2004-2008 bitarteko mantentze-pobretasunaren zifren hasierako atxikitzearen eta geroko hazkundearen artean. Egoera ekonomikoaren hobekuntzaren ondorio positiboak, eta ondorioz, jende gazteak independentzia pertsonala lortzeko aukera gehiago izateak adierazle orokorrek okerrera egiteko arrisku objektiboa dakar berekin. Jende gazteenak eratutako etxe berriak pobretasunean eta ongizate-gabezian erortzeko arrisku-maila handiagoak izateagatik nabarmentzen dira, hain zuzen.

Kontu hori bereziki nabarmena zen 2004an. Urte horretan, independizatzeko baliabide nahikorik ez zuen biztanleriaren kopurua ez ezik bizimodu independentea lortuz gero pobretasunean eta ongizate-gabezian erortzeko arriskuaren maila ere inoizko handiena izan zen. Eratutako etxeetako mantentze-pobretasunaren arazoak eta etxe independente berriak eratzea eragozten dituzten ezkutuko pobretasunaren eta prekarietatearen arazoak kontuan hartzean, pobretasunaren zifra orokorrak aurreko urteetakoak baino handiagoak direla ikusten da: arriskuan zegoen pertsonen ehunekoa %9,4koa zen 2004an, eta %8,1ekoa 2000an (adierazle doituak). Ongizate gabeziaren zifrek ere gora egin zuten, %26,4tik %29,5era. Maila horiek nabarmen jaitsi dira 2008an, behin ezkutuko pobretasunaren arazoak kontuan hartuta: %5,3ko pobretasuna eta %16,8ko ongizate-gabezia. Horrek esan nahi du zifrak 4,1 puntu jaitsi di rela 2004 eta 2008 bitartean, mantentze-pobretasunaren arrisku doituetan, eta 12,78 puntu ongizate-gabeziakoetan.

79. TAULA

**Benetako pobretasunaren eta mantentze-dimentsioko ongizate-gabeziaren adierazleak. Adierazle orokor doituak eta ezkutuko pobretasunaren eta ongizate-gabeziaren errealitateak kontuan hartuta dituztenak. 1996-2008**

Familia-etxebizitzetan bizi den biztanleria (Eragin-mailak ehunekoetan)

| | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 |
|---|---|---|---|---|
| **Adierazle orokor doitua** | | | | |
| Benetako pobretasuna | 9,3 | 6,3 | 6,1 | 4,1 |
| Ongizate-gabezia | 35,4 | 24,5 | 24,3 | 14,6 |
| **Ezkutuko behartasuna** | | | | |
| Benetako pobretasuna | 10,4 | 8,1 | 9,4 | 5,3 |
| Ongizate-gabezia | 36,9 | 26,4 | 29,5 | 16,8 |

# V. atala.
# Egoera Europako testuinguruan

Bereziki interesgarria da EAEk egungo Europar Batasunaren kide desberdinen testuinguruan duen posizioa aztertzea. Ahalegin horrek zailtasun deigarri batzuei egin behar die aurre, ordea. Eragozpen nagusia da egun, europar esparruan, ez dagoela datu homogeneo asko. Ezinezkoa da, esaterako, adierazle sintetikoak erabiltzea, metatze-dimentsioarekiko konparazioa egiteko, eta ez dago, ezta ere, PGDIn erabilitako benetako pobretasunaren adierazleetara hurbiltzeko erreferentziarik.

Bestalde, mantentze-dimentsioko pobretasun eta prekarietateari dagokionez, Euskadik Europar Batasuneko estatuen testuinguruan duen egoera aztertzeko, Eurostat adierazleak besterik ez ditugu. Ez da posible Europako herrialdeak konparatzea biztanleriak berak antzemandako beharrak kontuan hartzen dituzten adierazleetatik abiatuta; SPL adierazleetatik abiatuta, adibidez.

Aipatu muga horiei, beste bat gehitu behar zaie: Euskadin lehenago eskura daiteke informazioa, 2008. urteko datuak eta guzti. Europar Batasuneko gainerako herrialdeetan 2006ko datuak —edo lehenagokoak— baino ez daude.

Hala ere, oinarrizko datuen azterketa funtsezkoa da. Txostena pobretasunaren eta prekarietatearen adierazleen azterketan oinarritzen bada ere, desberdintasun-adierazle batzuen azterketarekin osatzen da hurbilketa. Azterketa horrek Euskadik Europako testuinguruan duen tokiaren ikuspegi osoago bat izateko aukera ematen digu, pobretasunari, prekarietateari eta desberdintasunari buruzko gaietan.

## 1. MANTENTZE-POBRETASUNAREN ADIERAZLEAK

Mantentze-pobretasunaren adierazleak aztertzeko orduan, komenigarria gertatzen da kontuan hartzea bai pobretasunaren eta prekarietatearen eraginari buruzko informazioa bai arriskuan dauden kolektiboen diru-sarrerek pobretasunaren eta prekarietatearen atalaseetatik bereizten dituen distantziari buruzko datu batzuk. Azterketaren lehen partean azaldutako arrazoiengatik, pobretasunaren eta prekarietatearen adierazleekiko hurbilketan, medianaren %60a hartzen da diru-sarrera txikiko edo ongizate gabeziako

arrisku-egoera baten adierazle gisa; medianaren %40a, berriz, pobretasun larriaren adierazle gisa erabiltzen da. Gauzak horrela, hori da PGDIren metodoaren aplikaziotik eratorritako pobretasun-adierazlera gehien hurbiltzen den adierazlea.

### 1.1. Pobretasunaren eta prekarietatearen eragina

Eskura ditugun emaitzek erakusten digutenez, Euskadiren egoera ona da, pobretasun-adierazleari dagokionez, bai 2004ko datuekin bai duela gutxiko zifrekin konparatuz gero. EAEko pobretasun-tasak 2004tik aurrera egindako beherakada handia dela eta, —%40koa, Eurostat adierazlearen arabera— Euskadiko pobretasun larriaren maila %3,1era jaitsi da. Euskadiko adierazlea Europar Batasuneko batez bestekoa baino askoz txikiagoa da. Europar Batasunekoa %5 ingurukoa da, bai gune tradizionala kontuan hartuz gero, Hamabosteko Batasuna, bai Batasun zabaldua hartuz gero, hogeita bost kidekoa. Euskadiko adierazlea Espainiakoa baino txikiagoa da, halaber. Espainian egoerak okerra egin baitu 2004 eta 2006 bitartean, tasa %7tik %8ra handitzean.

Egia esan, Euskadiko pobretasunaren eragina Europako txikienetakoa da egun. Europan, egoera onenean dauden herrialdeetako pobretasun larriaren tasa %2-3 ingurukoa da. Herrialde horiek hiru talde handitan bana daitezke: batetik, Austriak, Esloveniak eta Txekiako Errepublikak osatutako triangelua dago (Eslovakia gero eta hurbilago dagoela hirukote horretatik); bestetik, Beneluxeko herrialdeak (hau da, Luxenburgo, Belgika eta Holanda) eta Frantzia daude; eta, azkenik, herrialde eskandinaviar batzuk, hala nola Danimarka edo Finlandia. Azken talde horren barruan, Suediak atzera egin du, 2004 eta 2006 bitartean antzemandako arrisku-mailen gorakadaren ondorioz. Aitzitik, Irlanda egoera onenean dagoen taldean sar daiteke, azkeneko urteotan beherakada handia egin baitute pobretasun-tasek bertan.

Zerrendaren buruan dagoen talde horren kontrako aldean, %6 eta %9 arteko pobretasun-zifrekin, Europako ekialdeko beste herrialde guztiak daude, eta baita Mediterraneo aldeko herrialde gehienak ere, Italia bera barne. Erresuma Batua ere pobretasun-maila handienak dituzten herrialde horien artean sartzen da. Tarteko tokian, %4-5 inguruko pobretasun larriko zifrekin, hegoaldeko herrialde txiki batzuk daude, hala nola Malta edo Txipre, eta baita Suedia edo Alemania bezalako herrialde adierazgarri batzuk ere.

Diru-sarrera txikien edo ongizate-gabeziaren adierazlea aintzat hartuz gero, Euskadiko ego-era pobretasun larriaren adierazleen azterketaren ondoriozkoa baino okerragoa da.

24. GRAFIKOA

**Pobretasun larriaren eragina Europan (medianaren %40a). 2006**




*Iturria:* Eurostat eta PGDI 2008.

Hala, 2004 adierazlea, %16,5 ingurukoa, nabarmen urrun zegoen 2004an egoera onenean zeuden herrialdeen mailetatik: eskandinaviar herrialdeen %11tik, eta Austria, Frantzia edo Luxenburgo bezalako estatuen %12-13tik.

Duela gutxiko bilakaerak, ordea, Euskadiko diru-sarrera txikien edo ongizate-gabeziaren arriskuaren eraginak, medianaren %60ko adierazlearen arabera neurtuak, nabarmen behera egin duela islatzen du. Beherakada hori dela eta, Euskadiko tasa %14,8koa da. Kontraste handia dago eskandinaviar herrialdeetan edo Luxenburgo bezalako estatuetan 2004

eta 2006 bitartean izandako okerragotzearekin. Joera horien ondorioz, 2008ko zifrek diru-sarrera txikien arrisku-tasa Europar Batasuneko batez bestekoa bainoa txikiagoa duten herrialdeen artean utzi dute Euskadi.

Euskadik ez du lortu, ordea, diru-sarrera txikiek eragin txikiagoa duten herrialdeen egoerara hurbiltzea. Herrialde horien zifrak %10 eta %13 artekoak izan ziren 2006an. Talde horretan berriro agertzen dira Austriaren inguruan antolatutako herrialdeak —hau da, Txekiar Errepublika, Eslovakia eta Eslovenia, Austria berataz gainera—, eskandinaviar herrialdeak, Suedia barne, Herrialde Behereak, Frantzia eta, kasu honetan, baita Alemania ere.

Beste herrialde batzuen zifrak %14-16 ingurukoak dira, Euskadikoen antzekoak. Horien artean honako hauek daude: Beneluxeko gainerako herrialdeak —hau da, Belgika eta Luxenburgo—, Txipre, eta Ekialdeko herrialde batzuk, hala nola Bulgaria edo Hungaria. Bestalde, Europako ekialdeko eta hegoaldeko beste herrialde batzuek aise gainditzen dute Europako batez bestekoa. Erresuma Batua edo Irlanda, adibidez, egoera berean aurkitzen dira. Espainia da diru-sarrera txikiek era-gin handiagoa duten herrialdeetako bat, %20ko tasarekin. Grezia eta Letoniak dira hori baino tasa handiagoa duten herrialde bakarrak.

Txostenean zehar adierazitako arrazoiak dire-la eta, hobeto zehaztu beharko lirateke aurkeztutako emaitzak, batez ere Espainiako ego-era eta Europako ekialdeko herrialde askotakoa elkarrekin konparatzean. Eurostat adierazleak desberdintasun-adierazleak dira batez ere, lehenago esan den bezala. Gainera, herrialde bakoitzak bere erreferentzia-adierazleak ditu, eta horien esanahia aldatu egiten da batetik bestera. Hori dela eta, konparazioak zailak dira, ezinezkoak direla ez esateagatik. Beraz, zaila da pentsatzea PGDIn babestutakoa bezalako hurbilketa batek pobretasuntasarik handieneko herrialdeen artean kokatzea Espainia, ez behintzat Eurostat metodoaren aplikaziotik eratortzen dena bezalako intentsitatearekin. Euskadiri dagokionez, berriz, EAEk Europako ongizatearen gizarterako bidean lortu duen egoera onaren adierazgarri garbiak dira Eurostat adierazleak.

### 1.2. **Atalaserako distantzia**

Euskadiko egoera eta Europakoa orobat konpara daitezke diru-sarrera txikien atalaserako distantziari buruzko datuak erabiliz. Datuek erakusten dutenez, kasu horretan, Euskadi Europar Batasunaren batez besteko mailen azpitik dago 2008an, apur bat besterik ez

25. GRAFIKOA

**Diru-sarrera txikien eragina Europan (medianaren %60a). 2006**




*Iturria:* Eurostat eta PGDI 2008.

bada ere: Euskadin desoreka edo tarte hori %21ekoa da eta Europar Batasunean, berriz, %22koa, hala Hamabosteko Batasunean nola Hogeita bostekoan.

Europako batez bestekoarekin konparatuta egoera nahiko ona bada ere, diru-sarrera txikiak dituzten edo ongizate-gabezian erortzeko arriskuan dauden kolektiboen pobretasun-atalaserako distantzia askoz handiagoa da herrialderik aurreratuenarekin konparatzen badugu. Era horretan, desoreka edo tartea Euskadin %21ekoa den bitartean, Europako

80. TAULA

**Etxeko diru-sarreren eta ongizate-gabeziaren edo diru-sarrera txikien atalaseen arteko distantzia Europan. Eurostat Metodoa. 2006**

(Ehunekotan) Eurostat metodoa

| **Estatua** | **Ongizate-gabeziaren atalaserako distantzia** |
|---|---|
| Bulgaria | 17 |
| Errumania | 23 |
| Estonia | 22 |
| Letonia | 25 |
| Lituania | 29 |
| Polonia | 25 |
| Eslovakia | 20 |
| Txekiar Errepublika | 17 |
| Hungaria | 24 |
| Eslovenia | 19 |
| Austria | 15 |
| Alemania | 20 |
| Herrialde Behereak | 17 |
| Belgika | 19 |
| Luxenburgo | 19 |
| Frantzia | 19 |
| Irlanda | 16 |
| Erresuma Batua | 23 |
| Danimarka | 17 |
| Suedia | 22 |
| Finlandia | 14 |
| Txipre | 19 |
| Grezia | 26 |
| Malta | 21 |
| Italia | 24 |
| Espainia | 26 |
| Portugal | 23 |
| **Euskadi** | **21** |
| EB-15 | 22 |
| EB-25 | 22 |

*Iturria:* Eurostat eta PGDI 2008.

estatu askotan %20aren azpitik dago: %15etik hurbil edo azpitik, Austrian, Herrialde Behereetan, Irlandan, Danimarkan eta Finlandian, eta baita ekialdeko herrialde batzuetan ere, hala nola Txekiar Errepublikan edo Bulgarian.

### 1.3. **Gizarte ekintzaren eragin txikiagoa Europarekiko ongizatearentzat**

Gizarte transferentziek prekarietatearen kontrako borrokan izandako eragina ebaluatzeko orduan, Hogeita bosteko Europar Batasuna bere osoan hartuko duten pobretasun-adierazleei buruzko datuak falta zaizkigu. Beraz, ongizate-gabeziaren edo diru-sarrera txikien adierazleetara mugatu behar gara, hau da, diru-sarreren medianaren %60aren metodoaren aplikaziotik eratortzen direnetara.

Mantentze-prekarietatearen dimentsio hori dela eta, erabilgarri dauden datuek erakusten dutenez, ongizate-gabezian erortzeko arriskuari aurre egiteko transferentzia sozialen eragina apur bat handiagoa da Europan Euskadin baino. Hala, transferentzia sozialen aplikazioaren ondorioz, Euskadiko arriskutasen maila %60,1 beheratu zen bitartean, beherakada hori %62,8koa izan zen Hogeita bosteko Europar Batasunaren kasuan. Euskadik nabarmen hobetzen du ordea 2004an erregistratutako %55,6a.

Atentzioa ematen duen bigarren gauza da eragin erlatibo txikiago hori erretiro eta biziraupenari ez lotutako transferentzia-politikarekin lotzen dela. Kasu horretan, Hamabosteko Europar Batasunarekiko tartea handiagoa da, horrekin lotutako tasen-beherakada 15,9koa dela Euskadin, eta %23,3koa Hamabosteko Europar Batasunean. Aitzitik, erretiroarekin eta biziraupenarekin lotutako arrisku-tasen murrizketa handiagoa da Euskadin: izan ere, transferentzia horien aplikazioaren ondorioz, ongizate-gabeziaren tasa %44,2a murriztu zen Euskadin eta %39,5a Hamabosteko Europan.

Datu horien argitan, esan daiteke EAEk ongizate-mailan Europako herrialde aurreratuenen aldean duen atzerapen erlatiboa garbi lotzen dela transferentzia sozial osagarrien politikarekin. Transferentzia horiek langabeziari aurre egiteko eta familia babesteko erabili dira batez ere.

81. TAULA

**Transferentzia sozialek Europan ongizate-gabeziaren edo diru-sarrera txikien arrisku-adierazleetan izandako eragina. 2006**

(Eragin-mailaren eta arrisku-tasen beherakada ehunekotan)

| Estatua | Eragin-maila | | | Arrisku-tasen gainbehera-mailak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Hasierako errenta | Tarteko errenta | Azken errenta | Erretiro eta biziraupena | Beste transferentzia batzuk | Guztira |
| Bulgaria | 41 | 17 | 14 | 58,5 | 7,3 | 65,9 |
| Errumania | 42 | 24 | 19 | 42,9 | 11,9 | 54,8 |
| Estonia | 38 | 25 | | 34,2 | 65,8 | 100,0 |
| Letonia | 40 | 28 | 23 | 30,0 | 12,5 | 42,5 |
| Lituania | 41 | 27 | 20 | 34,1 | 17,1 | 51,2 |
| Polonia | 49 | 29 | 19 | 40,8 | 20,4 | 61,2 |
| Eslovakia | 39 | 20 | 12 | 48,7 | 20,5 | 69,2 |
| Txekiar Errepublika | 39 | 22 | 10 | 43,6 | 30,8 | 74,4 |
| Hungaria | 49 | 30 | 16 | 38,8 | 28,6 | 67,3 |
| Eslovenia | 41 | 24 | 12 | 41,5 | 29,3 | 70,7 |
| Austria | 43 | 25 | 13 | 41,9 | 27,9 | 69,8 |
| Alemania | 46 | 26 | 13 | 43,5 | 28,3 | 71,7 |
| Herrialde Behereak | 36 | 21 | 10 | 41,7 | 30,6 | 72,2 |
| Belgika | 41 | 27 | 15 | 34,1 | 29,3 | 63,4 |
| Luxenburgo | 40 | 24 | 14 | 40,0 | 25,0 | 65,0 |
| Frantzia | 44 | 25 | 13 | 43,2 | 27,3 | 70,5 |
| Irlanda | 40 | 33 | 18 | 17,5 | 37,5 | 55,0 |
| Erresuma Batua | 42 | 30 | 19 | 28,6 | 26,2 | 54,8 |
| Danimarka | 37 | 28 | 12 | 24,3 | 43,2 | 67,6 |
| Suedia | 42 | 29 | 12 | 31,0 | 40,5 | 71,4 |
| Finlandia | 41 | 29 | 13 | 29,3 | 39,0 | 68,3 |
| Txipre | 29 | 22 | 16 | 24,1 | 20,7 | 44,8 |
| Grezia | 40 | 23 | 21 | 42,5 | 5,0 | 47,5 |
| Malta | 34 | 22 | | 35,3 | 64,7 | 100,0 |
| Italia | 43 | 24 | 20 | 44,2 | 9,3 | 53,5 |
| Espainia | 39 | 24 | 20 | 38,5 | 10,3 | 48,7 |
| Portugal | 40 | 25 | 18 | 37,5 | 17,5 | 55,0 |
| **Euskadi** | **37** | **21** | **15** | **44,2** | **15,9** | **60,1** |
| Hamabosteko EB | 43 | 26 | 16 | 39,5 | 23,3 | 62,8 |
| Hogeita bosteko EB | 43 | 26 | 16 | 39,5 | 23,3 | 62,8 |

*Iturria:* Eurostat eta PGDI 2008.

26. GRAFIKOA

**Transferentzia sozialek Europan ongizate-gabeziaren edo diru-sarrera txikien arrisku-adierazleetan izandako eragina. 2006. Arrisku-tasen gainbehera-mailak ehunekotan**




*Iturria:* Eurostat eta PGDI 2008.

## 2. DESBERDINTASUN EGITURA

Diru-sarreren eta errentaren azterketarekiko hurbilketa funtzionala da PGDIn, pobretasunaren eta ongizate-gabeziaren adierazleak lortu ahal izateko. PGDIren datuak, ordea, biztanleriaren eta etxeen artean errenta banaketan dagoen desberdintasuna neurtzeko ere erabil daitezke. Atal honetan, gai horri buruzko adierazle batzuk eskaintzen dira, EAEk Europako testuinguruan betetzen duen tokiaren azterketa konparatiboa osatzeko. Hori dela eta, ez da ahaztu behar kapitulu honetan erabiltzen diren adierazleak, pobretasunaren Eurostat adierazleak barne, errentaren banaketaren adierazle orokorrak direla batez ere[35].

Hemen aipatutako desberdintasunen lehen adierazleak EAEn errenta-maila handieneko pertzentiletan dauden pertsonek pilatutako errentaren eta errenta-mailarik txikiena dutenen artean dagoen harremana neurtzen du.

Hori dela eta, EAEn diru-sarrera gehien dutenen %20aren errenta diru-sarrera gutxien dutenen %20arekin lotuz, garbi geratzen da erreferentziako lehen kintilak 3,9-4,1 bider errenta handiagoa pilatzen duela baliabide gutxieneko kintilak baino. Diru-sarrera gehien dutenen %10aren errenta eta diru-sarrera gutxien dutenen %10aren errenta elkarrekin konparatuz, tartea are handiagoa da: erosoen bizi direnen errenta egoera kaskarrenean daudenena baino 5,2-5,8 bider handiagoa da, zer baliokidetza-eskala mota erabiltzen den.

Adierazle bientzat, Eurostaten baliokidetzaoinarria da kanpoko pertzentilen artean diferentzia-mailarik txikiena erakusten duena, eta PGDI eskala, berriz, distantzia handiena islatzen duena. Biztanleko hurbilketa erdibidean kokatzen da.

82. TAULA

**Errentaren banaketa orokorraren adierazleak. 2008**

Familia-etxebizitzetan bizi den biztanleria

| Adierazleak | Baliokidetza-oinarria | | |
|---|---|---|---|
| | **Biztanleko** | **Eurostat** | **PGDI** |
| S80/20 | 3,94 | 3,64 | 4,05 |
| S90/S10 | 5,75 | 5,24 | 5,76 |

[35] Lehenago adierazi den bezala, pobretasuna eta prekarietatea aztertzeko orduan kontuan har daitekeela egia izanik ere, Eurostaten hurbilketak errentaren banaketan gertatzen diren desberdintasunen adierazle-multzo bat eskaintzen du batez ere.

Desberdintasun-adierazleen mailan antzemandako joerak, erabilitako baliokidetza-mota nolakoa den, berriro agertzen dira Giniren koefizientearen kasuan. Horren haritik, mailarik apalena Eurostaten baliokidetzari dagokio (25,22), eta PGDIren baliokidetza-oinarriei, berriz, mailarik gorena (26,86), pertsona bakoitzeko baliokidetzaren gainetik (26,66). Diferentziak, baina, txikiak dira: 1,6 ehunekoetako punturen gorabehera baino ez.

83. TAULA

**Giniren koefizientea. 2008**

Biztanleria familia-etxebizitzetan (Ehunekotan)

| Adierazlea | Baliokidetza-oinarria | | |
|---|---|---|---|
| | **Pertsona bakoitzeko** | **Eurostat** | **PGDI** |
| Giniren koefizientea | 26,66 | 25,22 | 26,86 |

Egiaztatua geratu den bezala, Europar Batasunaren testuinguruan, Euskal Autonomia Elkartea da errentaren banaketan desberdintasun txikienak dituen herrialdeetako bat. S80/S20 adierazlea kontuan harturik, Eurostat baliokidetzatik abiatuta kalkulatutakoa, EAEren 3,6ko ratioa Europar Batasunaren batez besteko mailaren azpitik dago (4,8, 2006an, Hogeita bosteko Europar Batasunaren kasuan). Euskal Autonomia Erkidegoaren maila Herri Behereetan edo Austrian (3,7-3,8) erregistratutako zifren azpitik dago. Egia esan, Europan erregistratutako minimoen mailetara hurbiltzen da (3,4-3,6). Minimo horiek herrialde eskandinaviarretan eta Europako ekialdeko zenbait herrialdetan (Txekiar Errepublika, Eslovenia eta Bulgaria) erregistratu dira. Espainiaren maila, berriz, handienetako bat da: 5,3. Dena dela, Espainiarena baino are handiagoa da Europako hegoaldeko herrialde garrantzitsuenena, Erresuma Batuarena, eta Europako ekialdeko herrialde gehienena.

Giniren koefizientea ere —Eurostat baliokidetzatik abiatuta neurtua— Europaren batez besteko mailaren azpitik kokatzen da Euskadin (%25,2koa da Euskadin, eta %30ekoa, berriz, Hogeita bosteko Europar Batasunaren kasuan). Estatu bakoitzaren tokia S80/S20 adierazlearentzat definitutakoaren oso antzekoa da. Berriro ere, EAEren eta desberdintasun-maila txikiena duten gainerako estatuen arteko distantzia txikia da: Suedia, Danimarka, Eslovenia eta Bulgaria dira mailarik txikiena dutenak (%24).

27. GRAFIKOA

**Europako errentaren banaketa orokorraren S80/S20 adierazlea. 2006**




*Iturria:* Eurostat eta PGDI 2008.

28. GRAFIKOA

**Giniren koefizienteak Europan. 2006**




*Iturria:* Eurostat eta PGDI 2008.

# EZTABAIDA ETA ONDORIOAK

## 1. **ALDERDI OROKORRAK**

Euskadiko pobretasunak eta prekarietateak azkeneko urteotan izan duten bilakaeraren inguruan eskura ditugun datuak aurkeztea izan da azterketa honen helburu nagusia. Emaitzak horiek 1986tik 2008ra bitarteko aldia hartzen dute, neurri handi batean.

Emaitza horiek kontuan hartzean, pobretasuna eta gainerako prekarietate ekonomikoko egoerak neurtzeko Eurostat adierazleetara mugatuko bagina, ondorio hau atera beharko genuke: 1986tik 2008ra bitartean izandako aldaketa sozialak urri samarrak eta ez oso positiboak izan dira. Diru-sarrera garbi baliokideen medianaren %60aren Eurostat adierazlean

29. GRAFIKOA

**Pobretasunaren/diru-sarrera txikien Eurostat tasa (diru-sarrera garbi baliokideen medianaren %60a) (1986-2008 bitarteko PGDI)**

Biztanleria-familia-etxebizitzan (Ehunekotan)



zentraturik, pobretasunaren edo diru-sarrera txikien tasa puntu eta erdi igo zen 1966tik 2000ra bitartean: %15,6koa izan zen 1986an, %16,7koa 1996an, eta %17,1ekoa 2000an. Goranzko joera hori 2000. urtean hautsi zen, behera egiten hasteko: 2004an %16,5koa izan zen, eta 2008an %14,8koa, 1986an erregistratutakoa baino puntu inguru txikiagoa. Nolanahi ere, pobretasun edo diru-sarrera txikien tasak egonkor eutsi dio bertako biztanleriaren %15-17 inguruko tarte batean.

Pobretasun-egituren jarraitutasunaren irudi horrek Euskadik denbora-bitarte horretan egindako aurrerapen sozial eta ekonomikoaren errealitatearekin kontrastatzen du. 1986tik aurrera garatu zen denboraldi horretan krisi-urteak eta ekonomiaren susperraldi handiko urteak izan dira, Europako integrazio prozesuak determinatutako testuinguru batean. Urte horietan, bestalde, garrantzi handiko neurri sozialak sartu ziren, hala nola Pobretasunaren aurkako borrokarako Plan Integralean bildutakoak. Neurri horiek berriro definitu ziren gero, Legebiltzarrak Oinarrizko Errenta onartu zuenean.

Adierazle batzuek gertatutako aldaketen dimentsio erradikala islatzen dute, langabeziari dagozkionak, esate baterako. 1984an, Eusko Jaurlaritzak pobretasunaren azterketarako hurbilketa bat egitea erabaki zuenean, 70eko eta 80ko urteetako krisi ekonomikoa errealitatea da. 1973tik 1984 urtera bitartean, Euskadiko langabezia-tasa ia hutsaren hurrengoa izatetik 22,5ekoa izatera igaro zen.

Europako erakundeetan sartu ondoren, Euskadiko okupazio-mailak gora egin zuen nabarmen, 1991. urea arte. Langabezia-tasa %16,2ra jaitsi zen 1990ean. 90eko hamarraldiko lehen urteetako krisiaren ondorioz, ordea, langabezia-tasak muga guztiak hautsi zituen. 1994an, lanik gabe zegoen pertsonakopurua 229.900ra iritsi zen, eta langabeziatasa %24,9koa izan zen. 1994tik aurrera, baina, egoerak hobera egin zuen: okupazioa etengabe handitu zen, eta 277.000 lanpostu berri sortu ziren 2007. urtera bitartean. Horrek izugarrizko eragina izan zuen ekonomiaren susperraldian, eta langabezia-tasa %24,9tik %3,3ra jaitsi zen.

EAEk Europako testuinguru ekonomikoan egin zuen hobekuntza ere aldi horretan gertatu zen. Pertsona bakoitzeko BPG aztertzen bada, erosketa-ahalmenaren parekotasunari dagokionez, hogeita zazpiko Europar Batasunaren egoera 100 oinarritzat hartuz, nabarmena da euskal gizarteak egindako jauzia. Gauzak horrela, pertsona bakoitzeko BPG Europako batez bestekoa baino %15,7 handiagoa bazen 1988an, 2007an %37,4 handiagoa zen.

30. GRAFIKOA

**EAEko okupazioaren eta langabeziaren bilakaera 1985etik 2007ra bitartean**






31. GRAFIKOA

**Langabezia-tasaren bilakaera (1985-2007 bitarteko datuak)**




32. GRAFIKOA

**Pertsona bakoitzeko BPGren bilakaera herrialdez herrialde eta urtez urte (27ko EB = 100). Eustatek prestatutako datuak (1998-2007 aldia)**



Pobretasunaren zifrak ia aldaketarik gabe bere horretan mantentzearen irudi horrek (Euskadiko biztanleriaren %15-17 inguru) talka egiten du okupazioaren eta langabeziaren mailetan izandako aldaketen errealitatearekin, eta ez dira koherenteak biztanleriaren beraren pertzepzio subjektiboarekin. Hori dela eta, bere burua pobretzat edo oso pobretzat jotzen duen biztanleriaren zatia %2-3ko tarte batean mugitu da 1996tik 2008ra bitartean. Biztanleria bere burua ongizate-eskalaren polo nahiko pobrean kokatzera behartzen bada ere, ehunekoek ez dute, denbora-bitarte horretan guztian, %6,5-8 arteko tartea gainditzen.

33. GRAFIKOA

**Eurostat pobretasun-tasa eta pobretasunaren pertzepzio subjektiboa**

(PGDI 1996-2008: ehunekotan)




Kontua da kontraesanaren zati bat Eurostat metodoak prekarietate ekonomikoaren errealitateetan gertatzen diren aldaketei jarraitzeko duen ahalmen eskasarekin lotzen dela. Daturik deigarriena da potentzialki arriskuan dauden etxeen —hau da, beren burua gutxienez nahiko pobretzat jotzen duten edo Eurostat pobretasun-atalasearen terminoetan pobretzat definitu diren etxeen— kasuen %79an halako desoreka bat dagoela metodoak eskaintzen duen sailkapen objektiboaren eta EAEko etxeek beren egoeraz duten pertzepzioaren artean.

Eurostat metodoaren gabeziak saihesteko, Euskadiko pobretasunaren eta prekarietatearen azterketaren hurbilketa egiterakoan metodo osagarri bat sartu da Pobretasunari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestan. PGDI metodoa honako hiru berrikuntza hauek ezaugarritzen dute:

1. Metodoak prekarietatean giltzarri diren bi dimentsio bereizten ditu: batetik, eguneroko bizitzaren ohiko beharrei aurre egiteko diru-sarrera nahikoa izatearekin lotura dutenak (diru-sarren dimentsioa edo mantentze-dimentsioa), eta, bestetik, bizibaldintza jakin batzuk eta, epe ertain eta luzean, gutxieneko segurtasun-maila bat bermatzeko gaitasunarekin zerikusia dutenak (kapitalaren dimentsioa, edo metatze-dimentsioa).

   Metodoak, gainera, prekarietatearen dimentsio desberdinen elkarrekiko erlazioa kontuan hartzen duen adierazle-sintetiko bat eskaintzen du. Adierazle horrek arazoen azterketarekiko hurbilketa hobea egiten laguntzen du, garbiago zehazten baitu zer neurritan determinatzen duten arrisku-egoerek benetako pobretasunaren eta prekarietatearen arazoen bizipena.
2. Metodoak, bestalde, bereizketa argia egiten du pobretasunarekin zerikusia duten arazoen eta ongizate-gabeziarekin zerikusia duten arazoen artean. Gauzak horrela, hiru egoera mota bereizten ditu:

   — Pobretasun-egoeran bizi direnak, zentzu hertsian: hau da, biztanleriak oinarrizkotzat dituen beharrak estaltzeko ezintasuna dutenak.
   — Beste muturrean, gizartearentzat espero izatekoa den ongizate-mailara iristen direnak.
   — Batzuen eta besteen artean, ez pobretasun-egoeran bizi direnak ez ongizate osoko errealitate batera iristen direnak.

   Pobretasun eta ongizate-gabezia kontzeptuak egokiagoak dira errealitate soziala ulertzeko, bai Eurostat metodoan oinarritutako azterketetan bai Europako estatistika-metodoen printzipioetan oinarritutako beste hurbilketa batzuetan erabiltzen ziren kontzeptuak baino (pobretasun larria eta moderatua).
3. PGDI metodoak, azkenik, pobretasun-atalaseak finkatzen saiatzen da, biztanleriaren beraren pertzepzioetatik abiatuta, alde batera utzirik apriorismo teknikoak edo politikoak.

Pobretasun eta prekarietatearekiko hurbilketa zehatzago batetik abiatuta, 1986tik 2004ra bitartean Euskadin gertatu zenari buruzko irudi konplexuagoa eskaintzen du PGDIk, pobretasunaren eta prekarietatearen egoeren bilakaerari dagokionez.

Lehenik eta behin, Euskadiko benetako pobretasun-tasetan izandako beherakada handia nabarmendu beharra dago. Tasa doitua jaitsiz joan da 1986ko %8,3tik 1996ko %5,8ra, 2000eko %4,4ra eta 2004ko %4,2ra.

1986-1996 bitarteko hobekuntza nabarmena metatze-pobretasunaren arriskuaren adierazlearen beherakadarekin dago lotua. Tasa hori %5,6tik %1,8ra jaitsi zen denbora-bitarte horretan, kontsumo iraunkorreko ondasun berrietara iristeko aukerak lagunduta, Europako Merkatu Komunarekin bat egin zen garaian. Metatze-pobretasunaren beherakadaren handiak hamarraldi horretan mantentze-pobretasunaren arrisku-tasak izan zuen gorakada deigarria berdintzen du. Gorakada hori baliabide ekonomiko handirik gabeko gazte jende askok bizimodu independentera egindako jauziarekin dago lotuta, neurri handi batean. Tasa hori %5,7tik %9,3ra igaro zen 1986 eta 1996 bitartean.

1996 eta 2004 bitartean, berriz, mantentze-pobretasunean erortzeko arrisku-mailaren murrizketarekin dago batez ere lotua pobretasun-zifren beherakadaren jarraipena. Arriskutasa doitua 1996ko %9,3tik 2000ko %6,3ra, eta 2004ko %6,1era igaro zen, 1986ko %5,7aren gainetik betiere. Denbora-bitarte horretan, mantentze-dimentsioko arriskumailen beherakadak metatze-pobretasunaren adierazleen egonkortasunarekin (%2-2,5 bitarteko oszilazioa, aipatu urteotan) kontrastatzen du. Hala, 1986 eta 2000 artean indarrean egon zenaren kontrako eredua sendotzen da, benetako pobretasunaren zifrak murrizteko. Dena dela, 2000-2004 bitarteko aldian ere hobera egin zuten metatze-pobretasunaren adierazleak, apur bat bada ere.

Baina benetako pobretasunaren adierazleen bilakaera ona izan baldin bada azken 20 urteotan, beherakada kuantitatiboki deigarriagoa da, ongizate-gabeziako adierazleei dagokienez. Gauzak horrela, prekarietate-arazoek edo ongizate-gabeziako arazoek —hau da, gure gizartean espero den ongizate osoko egoerara iristeko ezintasunak— beherakada nabarmena izan zuten 1986tik 2004ra bitartean: %48,9tik %32,7ra, hain zuzen. Beherakada 1986an hasi arren, beherakada horren urterik garrantzitsuenak 19 96-2000 bitarteko lau urteak izan ziren, tasak %41,2tik %33,1era jaitsi baitziren. Kasu horretan, guztiz erabakigarria gertatu zen ongizate-gabeziaren arriskuaren murrizketa, arrisku-tasa hori %35,4tik %24,5era jaitsi baitzen 1996tik 2000ra bitartean.

2000 eta 2004 bitartean, gainbehera ia era-bat gelditu ondoren, gazte asko bizimodu independenteko errealitate batera iritsi izanak eraginda neurri batean, ongizate-gizarte bateranzko aurrerabidea azeleratu egin zen 2004 eta 2008 bitartean. PGDIren azken datuen arabera, mantentze-dimentsioko prekarietate-egoeraren bat daukaten etxeetan bizi

34. GRAFIKOA

**PGDI pobretasun-tasa doituak (PGDI 1986-2008)** (%)




35. GRAFIKOA

**PGDIren prekarietatearen edo ongizate-gabeziaren tasa doituak (PGDI 1986-2008)** (%)



diren pertsonen ehunekoa %24,3tik %14,6ra jaitsi zen, termino doituetan, 2004 eta 2008 bitartean. Prekarietatearen adierazpen larrienen kasuan ere, arazoak gutxitzen ari direla egiaztatzen da. Mantentze pobretasunak biztanleriaren %6,1ari eragin zion 2004an, eta %4,1ari, berriz, 2008an.

Metatze-dimentsioan ere aurrerapen garrantzitsuak egin dira. Prekarietate-arazoak dituzten etxeetan bizi diren pertsonen ehunekoa %15,4tik %10,7ra jaitsi da 2004tik 2008ra bitartean. Pobretasun-tasa, berriz, %2,2tik %0,7ra jaitsi da.

Guztira, benetako pobretasunaren zifrak %4,2tik %3,2ra jaitsi dira 2004 eta 2008 bitartean, hala mantentze-pobretasunaren nola metatze-pobretasunaren beherakadak eraginda. Beherakada hori are nabarmenagoa da benetako prekarietatearen zifrei dagokionez, %32,7tik %21,1era jaitsi baitzen, aipatu lau urteotan, mantentze-arazoen beherakada handiaren eta metatze-dimentsioaren hobekuntza nabariaren eraginez, neurri handi batean.

36. GRAFIKOA

**Pobretasunaren eta prekarietatearen tasa doituak (PGDI 2004-2008)** (%)



Orain arte aurkeztutako datuek agerian uzten dutenez, Euskadin, pobretasun larriko eta ongizate gabeziako arazoak gutxituz joan dira, pixkana-pixkana, azkeneko hogeita bost urteotan. Hori begien bistakoa da ongizate osoko egoeran dauden pertsonen ehunekoaren hazkundea ikusita. Ehuneko hori %51,1etik %78,9ra handitu da 1986tik 2008ra.

Pobretasunaren datuek hobera egiteak aukera eman du desoreka historikoen haustura-prozesua hasteko. Zentzu horretan, funtsezkoak gertatu dira emakumeak buru dituzten etxeen pobretasun-tasen murrizketan, eta, bereziki, haurren pobretasun-tasen murrizketan egindako aurrerapenak. Hala ere, pobretasun-egoera guztiak desagertzea eragozten duten arazo jakin batzuk daude oraindik ere. Gero eta gutxiago badira ere, arazoaren adierazpenik larrienak, hau da, elikadura eskuratzeko segurtasun-gabeziako arazo larriak, eta are gose-arazoak ere, adibidez, ez dira erabat desagertu. Biztanle gehienek horren berririk ez badute ere, lortutako aurrerapenegatik behar baino gehiago ez pozteko balio behar digun ebidentzia bat da hori.

Prekarietate-egoera larri horiek bere horretan irautea eragin duen arazoaren zati handi batek zerikusi zuzena du, zalantzarik gabe, Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetatik etorritako immigrazioak eragindako pobretasun berriarekin. Egungo biztanleriaren %37,1a Europar Batasunetik kanpoko estatu bateko herritar bat buru duen etxeetan bizi da. Kuantitatiboki txikiagoa bada ere, bada biztanleria zati txiki bat —45 urtetik gorako pertsonak dira gehienak— gabezia egoeran dagoena, neurri handi batean, EAEko prestazio sozial osagarrien sistema ezagutzen ez duelako.

Pobretasunaren kontrako ekintzak ez du ahaztu behar ezkutuko pobretasuna ez dela erabat desagertu oraindik ere. Ez dira ahaztu behar, beraz, independizatzeko eta ongizatee-goeran bizitzeko behar besteko diru-sarrerarik ez duten pertsonen arazoak. Gehienetan, lan egonkorrik ez duten edo diru-sarrera txikiak dituzten gazteak dira, eta arazoak dituzte prezio eskuragarriko etxebizitzak lortzeko zailtasunengatik eta pobretasuna gainditzeko eta ongizatera iristeko behar diren ondasun eta zerbitzuen kostuaren hazkundeagatik.

Pobretasun-tasen mailakako beherakada dela eta, honako honek izan behar du euskal gizartearen helburu berria: ongizatea unibertsalizatzeko prozesuan aurrera egin ahal izatea. Euskadiko gizarteak espero dituen ongizate-mailara iristen ez diren pertsonen bolumena murriztea izan daiteke, hemendik aurrera, ekintzarako helburu berria.

Bide horretan aurrera egiteko, baina, komenigarria izan daiteke aldez aurretik ikuspegiz aldatzea. Onartu beharra dago, ezer baino lehen, egun pobretasun-egoeran dagoen

37. GRAFIKOA

**PGDIren pobretasun-tasa ez-doituak (PGDI 1986-2008)** (%)




38. GRAFIKOA

**PGDIren prekarietate/ongizate-gabeziaren tasa ez-doituak (PGDI 1986-2008)** (%)



biztanleriaren gizarte-ezaugarriak ez direla garai batekoak, guztiz desberdinak baizik. Egun, ongizate-gabeziako arazoak dituzten biztanleen artean nagusi dira seme-alabak dituzten familiak, Estatuko herritarrak, eta, batez ere, landunak, are landu egonkorrak ere. Batez ere langabetuen eta inaktiboen aldeko laguntzan saiatu behar zuen pobretasunaren kontrako ekintza batek ez bezala, denontzako ongizatearen promozioak lana sustatzeko politika espezifiko bat eskatzen du, hau da, egoera kaskarrenean dauden EAEko langileen lana sustatzeko politika bat batez ere.

Bide horretan aurrera egitea izango du euskal gizarteak erronka nagusietako bat, gizartea osatzen duten guztien bizi-baldintzak hobetzeko bere apustuan. Hori lortzeko, baina, beharrezko neurriak hartu beharko dira pobretasunaren aurkako borrokan atzera egitea eragozteko. Izan ere, batzuetan iruditzen zaigu eskuaren helmenean dugula pobretasuna erabat desagerrarazteko aukera, eta beste batzuetan, berriz, urrundu egiten dela. Horretarako, aurre egin beharko diegu immigrazioaren egungo arazoei, erne egon beharko dugu Europako eta mundu osoko ziklo ekonomikoen ondorio negatiboen aurrean, eta eraginkortasunez erantzun beharko diegu zahartze demografikoaren prozesuekin lotutako aldaketei. Biztanleria langabetuaren egoeran duela gutxi izandako gainbeherak egungo enplegu-mailen murrizketa nabarmen baten ondorioez gogoeta egitera behartzen gaitu.

Pobretasunaren iraunkortasunak, dena den, gutxietsi beharko ez genukeen beste erronka bat planteatzen digu. Ez dugu ahaztu behar, orain arte egindako aurrerapenak ongizate-gabeziaren adierazle doituetan zein ez-doituen egin diren bitartean, pobretasun-adierazle ez-doituetan ez dela halakorik gertatu. 2008an behera egin dute benetako pobretasunaren eta metatze-pobretasunaren zifrek, baina mantentze-pobretasunaren arriskutasek, berriz, gora egin dute apur bat, batez ere langabetuen etxeetan. Nahiz eta gorakada hori pobretasun-atalasearekiko tartea txikitu izanarekin eztitu daitekeen, eta jende gazte berria bizimodu independentean hasteko prozesuari egotz dakiokeen, zuhur ibili beharra dugu, ezarritako helburuak erabat lortu ditugula pentsatzeko tentazioan erori gabe. Pobretasuna eta prekarietatea gertakari multidimentsionalak eta konplexuegiak dira, betiko kontrolpean edukiko ditugula pentsatzeko.

## 2. GIZARTE POLITIKAREN ERAGINA

Euskadiko Autonomia Erkidegoak eta haren erakundeek erakutsia dute, ordea, prest daudela pobretasunaren adierazpen desberdinei aurre egiteko. Azterketa honen dimentsio estatistikoak ez du aukerarik ematen EAEn aurrera eramandako politika sozialen edukian

eta emaitzetan sakontzeko, baina ez litzateke bidezkoa izango azken kapitulu honetan ez aipatzea euskal erakundeek, oro har, eta Eusko Jaurlaritzak, bereziki, pobretasunaren aurkako borrokan egin duten lanaren garrantzi historikoa. Euskadi Pobretasunaren kontrako Plan Integral bat prestatu zuen lehen Autonomia Erkidegoa izan zen, 80ko hamarraldiaren bukaeran, eta lehena izan zen, baita ere, diru-sarrerak bermatzeko sistema espezializatu bat ezartzen ere. Sistema horretan Oinarrizko Errenta sartzen da, baina baita Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eta enplegua sustatzeko neurriak ere. Laguntza horiei guztiei Pentsioen Osagarriak gehitu behar zaizkie 2008. urtetik aurrera. Sistema erabat osatuko da, ziur asko, hurrengo hilabeteetan, beste ekintza-neurri batzuekin, Etxebizitzen Osagarriarekin, besteak beste.

Prestazioen euskal sistemaren eragina, unitate onuradunen terminoetan, begien bistakoa da. 1989an 4.885 unitate izan ziren Oinarrizko Errentaren onuradun, eta 1996an, berriz, 16.052 unitate. 2000. urtean, zifra horrek ez zuen gorabehera handirik izan: 16.550 unitate. Handik aurrera erregistratutako hazkundea, baina, izugarria izan zen, 2000. urtetik aurrera urtez urte handitu baitzen laguntza jasotzen duten familia-unitate titularren kopurua. 2004an, 28.889 ziren, eta 2008an 3 8.900 izango direla aurreikusten da. Termino erlatiboetan, hazkundeak honako bilakaera izan du: 1989an, Euskadiko familia-unitate guztien %0,76 unitate inguruk jaso zuen laguntza; 1996an eta 2000an, %2,35ek; 2004an, %3,85ek; eta 2008an, %4,83k. Esan beharra dago hazkunde hori bateragarria dela onuradunek lana eskuratzearekin, eta enplegua sustatzeko politikari esker lan-munduratzearen maila %40ra hurbiltzen ari dela progresiboki. Maila horiek Frantziako RMIrenak baino askoz handiagoak dira, adibidez.

Gizarte Larrialdietarako Laguntzen (GLL) unitate onuradunen zifren bilakaera ere antzekoa da: 7.207 unitate 1989an, 11.718 unitate 1996an, 13.496 unitate 2000an, 23.357 unitate 2004an, eta, azkenik, 27.000ko unitatekopuru estimatua 2008an. GLLen bilakaerak, baina, berezitasun jakin batzuk izan ditu. Batetik, laguntza hori eskuratzeko izan beharreko diru-sarreren maila, hasieran, gutxieneko errentaren prestazioa eskuratzeko behar dena baino handiagoa zen, eta horrek horrela jarraitu zuen 1992 arte. 1922 eta 1994 bitartean laguntza horren erabiltzaileen kopurua ez aurrera eta ez atzera egiten ez zuela gelditu ondoren, gutxieneko errentaren prestazioa eskuratzen zutenen kopuruaren hazkundearekin kontrastean, 1995etik aurrera laguntza horren onuradunen kopurua oinarrizko errentaren onuradunen adina hazi zen. Dena dela, unitate onuradunen zifrak, guztira hartuta, txikiagoak izan ziren. Errealitate hori areagotu egin zen 2004-2008 bitarteko urteetan, Oinarrizko Errentaren onuradunen hazkunde-erritmoa askoz handiagoa zela. Termino erlatiboetan, EAEko familia-unitate guzti en aldean, Gizarte Larrialdietarako

39. GRAFIKOA

**EAEko Oinarrizko Errentaren eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzaren onuradunen urtez urteko kopurua (1989-2008)**




40. GRAFIKOA

**EAEko Oinarrizko Errentaren eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzaren unitate onuradunen urtez urteko ehunekoa**

(EAEko unitate-kopuru osoaren aldean) (1989-2008)



Laguntza hartzen duten onuradunen ehunekoa %1,12koa izan zen 1989an, %1,72koa 1996an, %1,94koa 2000an, %3,12koa 2004an, eta %3,35ekoa 2008an.

Langabeziaren eta pobretasunaren zifren bilakaera orokorrak agerian ipintzen duen bezala, Oinarrizko Errentaren eta Gizarte Larrialdi etarako Laguntzaren prestazioen estalduramailen hazkundea, 90eko hamarraldiaren bukaeratik aurrera gehienbat, ez zen izan premiaegoeren hazkundearen ondorioa, ezta arrisku-maila handiagoaren eraginpean zegoen bi ztanleria immigrantearen heldueraren testuinguruan ere. Hazkunde horren arrazoia beste bat da: alegia, laguntza horiek eskuratzeko irizpideak zabaltzea eta, batez ere, bermatutako zenbatekoa —Oinarrizko Errentaren esparruan gehienbat— handitzea erabaki izana. Hala, 1998 arte 360 euro inguruko mailetan eutsi ondoren, 2008ko prezioen termino baliokideetan, pertsona baten Oinarrizko Errentaren oinarrizko zenbatekoa 405,09 eurotara iritsi zen 2000an, 505,97 eurotara 2004an, eta 616,00 eurotara 2008an. Horrek esan nahi du bermatutako oinarrizko zenbatekoa, termino errealetan, %71,4 handitu zela 1998-2008 bitartean.

Begien bistakoa da, beraz, Eusko Jaurlaritzak pobretasunaren eta prekarietatearen kontrako borrokan azken hamarraldi honetan egin duen ahalegin ekonomikoa. Oinarrizko Errentari eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzari dagokionez bakarrik, gastu errealak, 2008koen zifra baliokideetan, honako bilakaera hau izan du: 22,5 milioi euro 1989an, 48,0 milioi euro 1996an, 91,8 milioi euro 2000an, 160,6 milioi euro 2004an, eta, aurreikuspenaren arabera, 233 milioi euro inguru 2008an. Gastuaren hazkundea nabarmenagoa izan da mende berrian, 1999an hasi baitzen modu nabarmenean handitzen, gastu errealaren maila, aldi batean, 1995 eta 1998 bitartean, ez atzera eta ez aurrera egin gabe egon ondoren.

Datuek erakusten dutenez, EAEko gastu soziala pobretasunaren eta bazterketaren kontrako borrokan bakarrik da Hamabosteko Europar Batasuneko herrialdeena baino handiagoa. Gauzak horrela, 2003an, Euskadiko biztanle bakoitzeko gastua gizarte-bazterketan —erosketa-ahalmenaren unitateetan— Europakoa baino %1,2 handiagoa eta Espainiakoa baino %172,2 handiagoa zen. Datu horien azpi an diru-sarrerak bermatzeko sistema baten errealitatea datza, era horretako sistemetan gehi en aurreratu duten herrialdeenarekin pareka daitekeena, zenbatekoari eta estaldurari dagokionez. Prestazioen euskal eredua oso txertatzailea da, gainera: ez du elementu murriztailerik sartzen biztanleri a atzerritarrari babesa bermatzeko garaian.

Gastu sozialaren aldeko politika hori erabakigarria gertatu da Euskadiko pobretasunaren kontrako borrokan. Lehen urratsak eman zituen garai an, 90eko hamarraldiaren lehen

41. GRAFIKOA

**Eusko Jaurlaritzak Oinarrizko Errentan eta Gizarte Larrialdietarako**

Laguntzan egindako gastua. 2008ko milioi eurotan (1989-200)




urteetan, delako politika horrek batez ere metatze-pobretasunaren zifren hazkundea geldiarazi zuen, paradoxa badirudi ere. Horren arrazoia hobeto ulertuko da kontuan hartuz gero Gizarte Larrialdietarako Laguntzaren eragina handiagoa izan zela hasieran, bai gastuan bai unitate onuradunetan. 90eko hamarraldiaren bukaeratik aurrera, hamarraldi horren erdialdeko prestazioen zenbatekoek ezarritako mugak egiaztatu ondoren, lehenbizi Bazterketaren kontrako Legea eta ondoren Oinarrizko Errentarena onartu izanak behin betiko bultzada ekonomikoa eman zion diru-sarrerak bermatzeko oinarrizko laguntzari. Errealitate horrek eragin handia izan zuen mantentze-pobretasunaren tasa doituen murrizketan, 1996tik aurrera.

2008. urtearen bukaeran, Euskadi bai metatze-pobretasunean bai mantentze-pobretasunean zifra txikiak izateagatik nabarmendu zen. Azken dimentsio horretan, baieztapen hori bereziki egia da arriskuan dagoen biztanleriarenen diru-sarrera erabilgarrien eta

pobretasun-atalaseen artean dagoen distantziaren terminoetan neurtzen bada pobretasun-maila. Datuek erakusten digutenez, Oinarrizko Errentaren onuradunen artean, tarte hori desagertuz doa benetan, prestazioa eskuratzean, eta desoreka nagusiak zerikusia du kolektibo batzuek laguntzak eskuratzeko dituzten arazoekin. Arazo horiek informazio nahikoa ez izateak eraginda daude neurri handi batean. Pentsioen osagarrien sistemaren gehikuntzarekin berriki zabaldutako sistema horretarako sarbidea bermatzeak nabarmen murrizteko lituzke, beraz, arrisku-mailak.

Eskura ditugun azterketek eta PGDIk berak baieztatzen dutenez, pobretasunaren kontrako euskal ekintza instituzionala guztiz eraginkorra gertatu da biztanleriaren pobretze-arriskuaren prozesuen kontrolean. Azkeneko hogei urteotan irekitako ildoan sakontzeko erakutsiko borondateak, eta arazo berriei aurre egiteko diseinatutako neurrien inguruan indar sozial eta politikoen artean dagoen adostasun oinarrizkoak etorkizunari baikortasunez begiratzeko arrazoiak ematen dizkigute. Pobretasun eta prekarietate-tasa txikietatik abiatzea da, dudarik gabe, euskal gizartearen abantaila lehiakorretako bat, gainean dugun krisiari eraginkortasunez aurre egiteko.

# BIBLIOGRAFIA

## PGDI BIBLIOGRAFIA

EUSKO JAURLARITZA (1986): *Arabako Gizarte Beharrak,* Lan, Osasun eta Gizarte Segurantza Saila, Estatistika eta Lan Dokumentu Saila, 11. zenbakia.

EUSKO JAURLARITZA (1987): *Pobrezia Euskal Autonomia Erkidegoan (Aurrerapena)* Lan, Osasun eta Gizarte Segurantza Saila, Vitoria-Gasteiz.

EUSKO JAURLARITZA (1996): *Pobreziari eta Gizarte-Desberdintasunei buruzko Inkesta, 1996,* Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila, Vitoria-Gasteiz.

EUSKO JAURLARITZA (2000): *Pobreziari eta Gizarte-Desberdintasunei buruzko Inkesta, 2000,* Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila, Vitoria-Gasteiz.

EUSKO JAURLARITZA (2004): *Pobreziari eta Gizarte-Desberdintasunei buruzko Inkesta, 2004,* Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila, Vitoria-Gasteiz.

EUSKO JAURLARITZA (2007): *Gizarte Zerbitzuen Eskaeraren Inkesta, 2006,* Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila, Vitoria-Gasteiz.

EUSKO JAURLARITZA (2008): *Pobreziari eta Gizarte-Desberdintasunei buruzko Inkestaren Proiektu Teknikoa, 2008,* Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila, Vitoria-Gasteiz.

SANZO GONZÁLEZ, L. (2001): «Beharrak eta Oinarrizko Errenta: PGDIren ekarpena», *Oinarrizko Errentari buruzko II Sinposiuma*, VitoriaGasteiz.

SANZO GONZÁLEZ, L. (2002): *Poverty Measurement In The Spanish Basque Country,* ISA XVth Congress of Sociology, Brisbane.

## HAUTATUTAKO BIBLIOGRAFIA OROKORRA

AYALA, L., PALACIO, J.I. (2000): «Hogares de baja renta en España: caracterización y determinantes», *Revista de Economía Aplicada,* 23 (VIII liburukia) 2000.

BICKEL, G., NORD, M., PRICE, C., HAMILTON, W. eta COOK, J. (2000): *Guide to Measuring Household Food Security, revised 2000.* US Department of Agriculture, Food and Nutrition Service, Alexandria, VA.

DELEECK, H. (1977): *Ongeljkheden in De Welvaartsstaat: Opstellen over Sociaal Beleid Tweede Bundel,* De Nederlandsche Boekhandel, Antwerpen.

EDIS-CÁRITAS (1984): «Pobreza y Marginación», *Documentación Social*, 56-57.

EDIS, AYALA, L., ESTEVE, F., GARCÍA LIZANA, A., MUÑOZ DE BUSTILLO, R., RENES, V., RODRÍGUEZ CABRERO, G. (1998): *Las condiciones de vida de la población pobre en España,* Fundación FOES-SA, Madrid.

EUROSTAT (1998): *Recommendations of the Task Force on Statistics on Social Exclusion and Poverty,* European Statistical Office, Luxembourg, October 1998.

EUROSTAT (2000): *Report of the Working Group: Statistics on Income, Social Exclusion and Poverty.* European Statistical Office, Luxembourg.

FOSTER, J.E., GREER, J. eta THORBECKE, E. (1984): «A Class of Decomposable Poverty Indices», *Econometrica* 52, 761-766.

GOEDHART, TH., HALBERSTADT, V., KAPTEYN, A., VAN PRAAG, B.M.S. (1977): «The Poverty Line: Concept and Measurement», *Journal of Human Resources,* 12. liburukia (4), 503-520.

HAGENAARS, A.J.M. (1985): *The Perception of Poverty,* OfFSStdrukkerij Kanters B.V., Albasseerdam.

MACK, J., LANSLEY S. (1985): *Poor Britain,* London, George, Allen and Unwin.

MARTÍN GUZMÁN, P., TOLEDO, M.I., BELLIDO, N., LÓPEZ ORTEGA, J., JANO, D. (1996): *Desigualdad y pobreza en España,* Madrid, Instituto Nacional de Estadística.

O'HIGGINS, M., JENKINS, S. (1987): *Poverty in Europe. Report prepared for the Evaluation Unit, European Poverty Programme,* December 1987.

O'HIGGINS, M., JENKINS, S. 1990. «Poverty in the EC: Estimates for 1975, 1980, and 1985.» In TEEKENS, R. y VAN PRAAG, B.M.S. (eds.) *Analysing Poverty in the European*

*Community: Policy Issues, Research Options, and Data Sources*. Luxemburgo: Office of Official Publications of the European Communities.

ORSHANSKY, M. (1965): «Counting the Poor: Another Look at the Poverty Profile», *Social Security Bulletin* 28(1).

ROWNTREE, B.S. (1901): *Poverty, A Study of Town Life,* Macmillan and Co., Ltd., London.

RUIZ CASTILLO, J. (1987): «La medición de la pobreza y la desigualdad en España», en BANCO DE ESPAÑA, *Estudios Económicos,* 42, Servicio de Estudios del Banco de España, Madrid.

RUIZ HUERTA, J., MARTÍNEZ, R. (1994): «La pobreza en España, ¿qué nos muestran las Encuestas de Presupuestos Familiares?», *Documentación Social,* 96.

TOWNSEND, P. (1979): *Poverty in the United Kingdom: A Survey of Household Resources and Standard of Living,* Harmondsworth, Penguin.

VAN PRAAG, B. (1968): *Individual Welfare Functions and Consumer Behavior.* North Holland Publishing Co., Amsterdam.

VAN PRAAG, B. (1971): «The Welfare Function of Income in Belgium: An Empirical Investigation». *European Economic Review* 2; 337-69.

VAN PRAAG, B., KAPTEYN, A. (1973): «Further Evidence on the Individual Welfare Function of Income: An Empirical Investigation of The Netherlands», *European Economic Review* 4 (April 1973): 33-62.

VAN PRAAG, B., HAGENAARS, A., VAN WEEREN, H. (1981): «Poverty in Europe», *Review of Income and Wealth,* 28.

# ERANSKINAK

# Lehen eranskina.
# Adierazleen glosategia eta definizioak

Eranskin honetan laburturik aurkezten dira azterketan zehar kontuan edukitako adierazleei buruzko ezaugarri nagusiak eta, hala behar denean, haiei lotuta dauden definizio batzuk[36].

## 1. MANTENTZE-POBREZIA ETA MANTENTZE-PREKARIETATEA

### 1.1. Definizioak

Etxeek mantentze-pobreziaren aurrean hartzen duten tokia aztertzean, PGDIk hiru ego-era desberdin bereizten ditu: ongizate-egoera bat, ongizate-gabeziako baina ez pobreziako egoera bat, eta, azkenik, pobrezia-egoera bat.

- *Mantentze-pobrezia*

Oinarrizko premiak —eta batez ere janari, etxebizitza, jantzi eta oinetako gastuekin zerikusia duten oinarrizko beharrak— epe laburrean asetzeko behar adina baliabide ekonomiko ez duenaren egoerari egiten dio erreferentzia mantentze-pobreziak. Aintzat hartutako erreferentzia-aldian oinarrizko premia horiei aurre egiteko adierazteko atalaseak baino diru-sarrerak urriagoak dituzten pertsonak, familiak edo etxeak pobrezia-arrisku larrian aurkitzen dira.

- *Ongizate-gabezia mantentze-dimentsioan*

Mantentze-dimentsioan, ongizate-gabeziako arazoek gizarte jakin batean espero izatekoa den gutxieneko ongizate-mailari eta erosotasun-mailari eusteko beharrezkotzat

[36] Alderdi horietan gehiago sakondu nahi izanez gero, edota beste kontu metodologiko batzuk (laginarekin zerikusia dutenak, esaterako) hobeto ezagutu nahi izanez gero, PGDIren Proiektu Teknikoa kontsulta daiteke (Eusko Jaurlaritza, DJESS, 2008).

jotzen diren ohiko gastuei epe laburrean aurre egiteko behar adinako baliabide ekonomiko ez duenaren egoerari egiten diote erreferentzia. Errealitatean, ongizate-gabeziako arazoek gizarte horretako ohiko bizimodu, ohitura eta jardueretan parte hartzen uzten dute, baldintza minimoetan bada ere. Erreferentzia-aldi jakin batean, bizi diren gizartean espero izatekoa den ongizate-maila lortzeko adierazitako atalaseak baino diru-sarrerak urriagoak dituzten pertsonak, familiak edo etxeak ongizate-gabeziako arriskuan aurkitzen dira.

- *Ongizatea mantentze-dimentsioan*

Mantentze-dimentsioan pobrezia-arazorik edo ongizate-gabeziako arazorik ez duten pertsona, familia edo etxeei dagokie egoera hori. Egoera horretan daudenek behar adina baliabide ekonomiko dituzte epe laburrean oinarrizko premiak asetzeko eta ongizate-egoeretara iristeko behar diren gutxieneko gastuei aurre egiteko.

## 1.2. Mantentze-pobreziaren eta mantentze-prekarietatearen PGDIren adierazleak

PGDIk Leydenen erregresio-eredua erabiltzen du bi atalase osagarri lortzeko: pobrezia-atalasea, zentzu hertsian, eta ongizate-gabeziaren atalasea. Atalase horiek ekuazio honen bitartez kalkulatzen dira:

$$Y^{*}\text{min} = \hat{a}0 + \hat{a}1\,fs + \hat{a}2g$$

Y*min: Pobrezia-atalasea edo ongizate-gabeziaren atalasea, kasuan kasukoa.
*fs*: Etxebizitzaren tamaina.
*g*: Familien ohiko gastuak.

Hurbilketa honetan, etxeek galdera batzuei emandako erantzunak aztertuz lortutako emaitzetan oinarrituta lortzen da y*min atalasea eratortzen den ymin aldagaia. Hauek dira galderak:

— *Zure etxeko egungo egoeran, zein dira hilaren amaierara iristeko behar-beharrezko gutxieneko diru-sarrerak?* (ongizate-gabeziaren atalasea kalkulatzeko);
— *Zure etxeko egungo egoeran, zein dira oinarrizko beharrak betetzeko behar-beharrezko gutxieneko diru-sarrerak?* (pobrezia-atalasea kalkulatzeko).

Gastuaren *g* aldagaia etxeek galdera honi emandako erantzunetatik lortzen da: *Zenbatekoa da familia honetako hileko batez besteko gastua?*

PGDIren metodoak premien atalase desberdinak erabiltzen ditu pobrezia gainditzeko edo gutxieneko ongizate-mailara iristeko, bizizikloaren arabera. Horretarako, etxean bizi den pertsona nagusiaren adina hartzen da kontuan. Horren arabera, hiru etxe mota bereizten dira: 45 urtez azpikoak, 45 eta 65 urte bitartekoak, eta 65 urtez gorakoak.

2008. urtean, hauek dira metodoaren aplikaziotik eratortzen diren atalaseak:

A1-1. TAULA

**Mantentze-pobreziaren eta ongizate-gabeziaren atalaseak PGDIren metodoaren arabera. 2008**

(Datuak eurotan)

| Etxebizitzaren tamaina | 45 urtez azpikoak | | 45-64 urte bitartekoak | | 65 urtez gorakoak | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Pobrezia | Ongizaterik eza | Pobrezia | Ongizaterik eza | Pobrezia | Ongizaterik eza |
| Pertsona 1 | 947,24 | 1.231,41 | 792,75 | 1.187,90 | 560,07 | 786,19 |
| 2 pertsona | 1.136,56 | 1.527,22 | 968,42 | 1.470,73 | 770,13 | 1.061,53 |
| 3 pertsona | 1.264,39 | 1.732,19 | 1.088,71 | 1.666,44 | 927,85 | 1.265,36 |
| 4 pertsona | 1.363,71 | 1.894,10 | 1.183,02 | 1.820,89 | 1.058,98 | 1.433,29 |
| 5 pertsona | 1.446,09 | 2.030,03 | 1.261,76 | 1.950,49 | 1.173,33 | 1.578,76 |

*Iturria:* PGDI 2008.

Honako hauek dira, berriz, lortutako atalaseei loturiko baliokidetasun-eskalak:

A1-2. TAULA

**PGDIren metodoaren arabera mantentze-pobreziaren eta ongizate-gabeziaren atalaseei dagozkien baliokidetasun-eskalak. 2008**

| Etxebizitzaren tamaina | 45 urtez azpikoak | | 45-64 urte bitartekoak | | 65 urtez gorakoak | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Pobrezia | Ongizaterik eza | Pobrezia | Ongizaterik eza | Pobrezia | Ongizaterik eza |
| Pertsona 1 | 1,00 | 1,00 | 1,00 | 1,00 | 1,00 | 1,00 |
| 2 pertsona | 1,20 | 1,24 | 1,22 | 1,24 | 1,38 | 1,35 |
| 3 pertsona | 1,33 | 1,41 | 1,37 | 1,40 | 1,66 | 1,61 |
| 4 pertsona | 1,44 | 1,54 | 1,49 | 1,53 | 1,89 | 1,82 |
| 5 pertsona | 1,53 | 1,65 | 1,59 | 1,64 | 2,09 | 2,01 |

*Iturria:* PGDI 2008.

PGDI-k azalduriko metodoa aplikatzen du halaber, adierazle osagarri batzuek lortzeko. Hauek, ereduko aldagai desberdinei etxebizitza alokatu edo erosteagatiko (amortizazio eta interes) gastuak kenduz lortzen dira (PDGIren metodoa etxebizitza gastuak kenduta).

### 1.3. Mantentze-pobreziaren eta mantentze-prekarietatearen Eurostaten adierazleak

PGDIn Eurostaten adierazle hauek erabiltzen dira, mantentze-pobrezia eta mantentze-prekarietatea neurtzeko:

- *Pobrezia-adierazlea*

Biztanleko tarteko diru-sarrera garbi erabilgarri baliokideen %40 baino diru-sarrera txikiagoak dituzten pertsonak edo etxeak.

- *Diru-sarrera urrien edo ongizate-gabeziaren adierazlea*

Biztanleko tarteko diru-sarrera garbi erabilgarri baliokideen %60 baino diru-sarrera txikiagoak dituzten pertsonak edo etxeak.

Hauek dira hurbilketa honi dagozkion atalase espezifikoak:

A1-3. TAULA

**Diru-sarrera urrien eta pobrezia larriaren atalaseak Eurostaten metodoaren arabera**

(Datuak eurotan)

| Etxebizitzaren tamaina | Pobrezia larria | Pobrezia erlatiboa/ Diru-sarrera txikiak |
|---|---|---|
| Pertsona 1 | 545,60 | 818,40 |
| 2 pertsona | 818,40 | 1.227,60 |
| 3 pertsona | 982,08 | 1.473,12 |
| 4 pertsona | 1.145,76 | 1.718,64 |
| 5 pertsona | 1.309,44 | 1.964,16 |

*Iturria:* PGDI 2008.
0,5 eskala bigarren pertsonarentzat eta 0,3 gainerakoentzat.

## 1.4. Pobrezia-adierazleen eta prekarietate-adierazleen tratamenduan erabilitako adierazleak

Bai PGDIren metodoan, bai Eurostaten metodoan, estatistika-adierazle desberdinak kontuan hartuz zehatz daitezke pobrezia-adierazleak eta prekarietate-adierazleak. Adierazle horietako nagusiak honako hauek dira:

- *H adierazlea edo pobreziaren edo ongizate-gabeziaren tasa orokorra*

PGDIren txostenetan eta tauletan erabili ohi den adierazle honek pobreziaren edo ongizate-gabeziaren arriskuaren tasari egiten dio erreferentzia. Honela definitze da:

$$H = q / n$$

$q$: aintzat hartutako egoeraren eraginpean bizi den biztanleria.
$n$: biztanleria osoa.

- *Foster, Greer eta Thorbecke-ren adierazleak (FGT)*

Adierazle horiek honako formula honetan oinarritzen dira:

$$FGT_{\infty} = (1/n)\sum_{i=1}^{q}(g_i / z)^{\infty-1}$$

∞-ri izendatutako balioak oinarri hartuta, FGT(1), FGT(2), FGT(3) eta FGT(4) definitzen dira. FGT(1) eta H pobrezia-tasaren berdinak dira.

- *Hagenaars-en adierazlea*

$$HAG = q/n\ [(lnz_n - lnMG_q) / lnz_n]$$

$lnMG_q$: aintzat hartutako egoera-arriskuaren eraginpean dauden herritarren dirusarreren neurri geometrikoa (logaritmo nepertarretan).

$lnz_n$: biztanleria osoaren batez besteko pobrezia-lerroa (logaritmo nepertarretan).

- *Sen I adierazlea (income gap ratio)*

$$I = (g / qz)$$

$g$: $\sum_{i=1}^{q} g_i = z - y$

*gi*: ezarritako pobrezia-lerro edo ongizate-gabeziaren *(z)* eta etxeko diru-sarreren *(y)* artean dagoen distantziari dagokio.

*g*-k: desberdintasun horien batukaria biltzen du, azterketa honetan aintzat hartutako egoeraren eraginpean bizi diren herritarrei dagokienez.

*q*: aintzat hartutako egoeraren eraginpean bizi diren herritarrak.

*z*: batez besteko pobreziaren (edo ongizate-gabeziaren) lerroa.

Adierazle horrek prekarietate-egoeran dauden etxe edo pertsona guztien artean metatutako distantzia islatzen du, aintzat hartutako pobreziaren edo prekarietatearen atalaseei dagokienez. Ehunekoetan neurtzen da.

- *HI adierazlea (PGDI)*

$$HI\ adierazlea = H * I$$

*H*: pobrezia-tasa (edo ongizate-gabeziarena).
*I*: SEN adierazlea.

HI adierazlea eta FGT(2) baliokideak dira praktikan. PGDIren metodoan, HI adierazlea oinarrizko erreferentzia-adierazlea da, mantentze-pobreziaren eta mantentze-prekarietatearen egoeren jarraipena egiteko orduan. Pobreziaren neurketan aintzat hartu beharreko elementu guztiak (intentsitatea, distantzia eta barne-desberdintasuna) kontuan hartzen uzten duen adierazle bat da egiaz. Gainera, erraza da hari buruzko interpretazio soziala jendarteratzea, adierazlea pobreziaren edo ongizate-gabeziaren tasa teoriko baten baliokidea baita, zeinean haren eraginpean dauden guztiak baliabiderik batere gabeko egoeran aurkituko liratekeen; hau da, haien diru-sarrerak 0 izango lirateke.

FGT (2) adierazlea oinarri hartuta, PGDIk FGT (2) kurbak deiturikoak eskaintzen ditu. FGT (2) kurbek aldagai bakoitzean aintzat hartutako talde edo tipo bakoitzari dagokion FGT (2) adierazlearen metatutako maila aurkezten dute modu grafikoan, aldagai sozioekonomiko desberdinentzat, erreferentzia-biztanleria osoari dagokion metatutako pobrezia-bolumenarekin edo prekarietatebolumenarekin lotuz.

Txosten eta tauletan, atal honetan aintzat hartutako tasa eta adierazleen aurkezpena ehunekoetan egiten da.

## 1.5. **Diru-sarreraren kontzeptua**

Mantentze-pobrezia eta mantentze-prekarietatea kalkulatzeko, PGDIn erabiltzen den etxeko diru-sarrera edo errenta erabilgarriaren kontzeptuak erreferentzia egiten dio lau iturri desberdinetatik datozen diru-sarrera garbien baturari, hilez hile kalkulatuta:

*a)* Diru-sarrera propioak, lanetik edo kapitaletekinetatik datozenak.
Lanetik eta norberaren kapitalaren ustiapenetik datozen diru-sarrera garbi mota guztiak hartzen ditu barne, baita Ogasunaren ordainketei edo itzulketei lotutako doitzeak ere.

*b)* Gizarte Segurantzaren prestazioetatik datozen diru-sarrerak eta antzekoak.
Gizarte Segurantzaren erretiro, alarguntza, zurztasun eta elbarritasun prestazioak hartzen ditu barne, hala kontributiboak nola ez-kontributiboak; baita aurre erretirorako prestazioak, langabezia-prestazio edo langabezia-sariak —lanbide-heziketari, enpleguaren sustapenari, mugigarritasun eta birkokapen-sariei lotutakoak barne—, eta familia babesteko (natalitatea, amatasuna, haurren edo adinekoen zaintzea) eta ardurapeko seme-alaba bakoitzeko aldikako prestazioak ere.

*c)* Gizarte Laguntzatik eta beste gizarte laguntza batzuetatik datozen diru-sarrerak.
Oinarrizko Errenta eta Gizarte Larrialdietarako Laguntza gisa jasotzen diren diru-sarrerak hartzen ditu barne; baita Emantzipazio Oinarrizko Errenta, jaiotza edo adopzioarengatiko ordainketa bakarreko prestazioak, ikasketa-bekei dagozkien diru-sarrerak, adin txikikoentzako laguntzak, asistentziazko beste laguntza publiko batzuk (udalarenak, aldundiarenak, eta abar), eta antzeko diru-sarrerak ere.

*d)* Gizarte zibilaren laguntza osagarrietatik datozen diru-sarrerak.
Ahaide, lagun edo auzoen zuzeneko laguntzetatik datozen diru-sarrerak hartzen ditu barne, eta baita laguntzako erakunde partikular edo pribatuetatik datorrena ere (Caritas, Gurutze Gorria eta antzekoak).

Diru-sarreren zenbaketa egiteko, etxe batean bizi diren pertsona guztiak hartzen dira kontuan. Horren haritik, diru-sarrera hertsiki pertsonaletan oinarritutako adierazle espezifikoak eskaintzen direnean salbu, adierazle indibidualen kasuan, PGDIren ohiko prozedurak etxe baten bizi diren pertsona guztien errentaren zati proportzionala esleitzen dio haietako bakoitzari. Hala, besterik zehazten ez bada behintzat, pertsona bakoitzak pobrezia-arriskuaren edo prekarietate-arriskuaren aurrean duen posizioa etxe osoarena da.

PGDIk etxebizitza-gastuen neutralizazioan oinarritutako adierazleak eskaintzen ditu, egotzitako alokairua deiturikoa kontuan hartzen duten Eurostaten adierazleak, besteak beste. Baina berorien erabilera oraindik ez denez alde guztietara zabaldu, lan honetan ez dira xehetasunez aztertuko.

## 1.6. **Gizarte-transferentzien aurreko eta ondoko adierazleak**

PGDIk gizarte-transferentzien aurreko eta ondoko adierazleen eraginari buruzko informazioa eskaintzen du. Hori dela eta, hona hemen hiru egoera horiei dagozkien adierazleak, diru-sarrerak nondik datozen kontuan hartuta:

*a)* Hasierako errenta: Diru-sarrera propioak aintzat hartzen dituzten adierazleak (edozein transferentzia mota baino lehen).

Kasu honetan, zuzeneko ekonomia-jarduera bati lotutako diru-sarrerak hartzen dira kontuan. Kasu honetan, pobreziaren eta ongizate-gabeziaren adierazleak diru-sarrera propioei aplikatzen zaizkie, edozein gizarte-transferentzia mota deskontaturik, dela publikoa, dela pribatua.

*b)* Tarteko errenta: Diru-sarrera propioak eta pentsioak aintzat hartzen dituzten adierazleak.

Kasu horretan, pobreziaren eta ongizate-gabeziaren adierazleak diru-sarrera propioen eta honako gizarte-transferentzia hauen batukariari aplikatzen zaizkio:

— Zahartasun, jubilazio edo erretiro-prestazioak.
— Aurre erretiroagatiko pentsioak, industri birmoldaketatik etorritakoak salbu.
— Biziraupen-prestazioak (alarguntza, zurztasuna edo ahaideen aldekoa).
— Ezintasun-prestazioak 65 urtez gorako pertsonen kasuan.

Era honetan, hasierako errentari, jubilazio eta biziraupen-pentsioei dagozkion transferentziak gehitzen zaizkio.

*c)* Azken errenta: diru-sarrera mota guztiak aintzat hartzen dituzten adierazleak.

Kasu honetan, pobreziaren eta ongizate-gabeziaren adierazleak diru-sarrera erabilgarri guztiei aplikatzen zaizkie. Beraz, partikularren transferentziak ez ezik sistema publikoaren gainerako transferentzi guztiak ere aintzat hartzen dira: bai gizartelaguntzari dagozkionak (RMI, AES, eta abar), bai gizarte-segurantza eta langabeziari dagozkionak (langabezi sariak, familiaren babeserako laguntzak, ardurapeko seme-alabagatiko prestazioak, gaixotasunprestazioak, ezintasun-prestazioak 65 urtez azpikoen kasuan, eta industri birmoldaketa edo berregituraketagatik eratorritako aurre jubilazioak).

Azken *errentaren* adierazle hori bat dator, noski, PGDIn erabiltzen diren pobreziaren eta ongizate-gabeziaren adierazle orokorrekin.

*d)* Gizarte-transferentzien eragin erlatiboa.

Adierazle honek, pobreziaren edo ongizate-gabeziaren tasa orokorrean, gizarte-transferentzia mota guztien aplikazioari lotuta datorren murrizketaren ehunekoa *islatzen* du.

Hau da transferentzia guztien eragina kalkulatzeko formula:

$$\frac{[(y1 - y2) / y2]*100}{t2 - t1}$$

$y1$: EAEko etxe guztietako diru-sarrera garbiak transferentzien ondoren.
$y2$: EAEko etxe guztietako diru-sarrera garbiak aintzat hartutako transferentziak baino lehen.
$t1$: Azken tasa (pobreziaren edo ongizate-gabeziaren tasa) transferentzien ondoren.
$t2$: Hasierako tasa (pobreziaren edo ongizate-gabeziaren tasa) transferentziak baino lehen.

## 1.7. **Gabezia-adierazleak**

### 1.7.1. Elikadura egokia izateko arazoak

a) *USDAren adierazleak*

Adierazle horiek «Short Form of the 12-month Food Security Scale» (FSS) aplikazioaren ondorioa dira. Aplikazio hori 2000. urtean erabili zen lehen aldiz PGDIn. Estatu Batuetako Nekazaritza Sailak erkidego jakin batean egon daitezkeen elikadura arazoak neurtzeko diseinatutako estatistika-metodo bat da (USDA)[37]. Metodoa erantzuten errazak diren 6 galderez osatua dago eta haren helburua da hiru biztenleria-kategori handi bereiztea, herritarrek beren elikadura-beharrak betetzeko segurtasunari dagokionez hartzen duten tokiaren arabera. Kategoria hauek bereziten dira:

---

[37] USDA (United State Department of Agriculture) Mark Nord eta Margaret Andrews-ek (Economic Research Service) zehaztutako metodoaz, Gary Bickel-i (Food and Nutrition Service) eskatutako argibideez, eta Stephen J. Blumberg (National Center for Health Statistics), Karil Bialostosky (National Center for Health Statistics), William L. Hamilton (Abt Associates) eta Ronette R. Briefel-ek (National Center for Health Statistics) aurrera eramandako ikerketaz baliatzen da kasu honetan. Informazio horren laburpen bat izan na hiz gero, begiratu hemen: http://www.ers.usda.gov/briefing/foodsecurity/surveytools/FS SHORT.pdf

Beste aukera bat Bickel-ek aurkeztutako sintesi-lana aztertzea da (Bickel et al, 2000).

— Beren elikadura-beharren estaldura ziurtatuta duten etxeak.
— Estaldura ziurtatuta ez duten etxeak, baina elikadura-beharren estalduran muturreko atsekabezko egoera bat erakusten duten adierazle elkarturik ez dutenak (elikadura-arazo larriak).
— Estaldura ziurtatuta ez duten etxeak, baina elikadura-beharren estalduran muturreko atsekabezko egoera bat erakusten duten adierazle elkartuak badituztenak. Errealitate horrek gose-egoeren edo gosetik oso hurbil dauden egoeren pertzepzioa ekarri ohi du (elikadura-arazo oso larriak).

Azken bi kategoria horiek elikadura-beharren estaldura ziurtatuta ez duten etxeen (edo etxe bateko pertsonen) multzoa definitzen dute.

Kategoriak inkesta egiten den unearen aurreko urteko egoeraren arabera definitzen dira.

b) *EU-SILC adierazlea*

2004ko operazioaz geroztik aintzat hartzen hasi da Europako EU-SILC-en gaineratutako elikadura-adierazle nagusia, elikadura-beharren estaldura ziurtatua ez egotearen arazoekiko hurbilketaren osagarri. Adierazle horrek gutxienez bi egunean behin behar bezalako otordu bat egiteko adina diru ez duten lagunen kopuru osoa biltzen du.

PGDIn, honako galdera hau dago adierazle horren azpian:

> *Badute gutxienez bi egunean behin haragia, oilaskoa edo arraina duen (edo baliokidea, barazkijaleak badira) otordu bat egiteko adina diru?*

Adierazle horri buruzko informazioa ere inkesta egiten den unearen aurreko urteko aldiari aplikatzen zaio.

1.7.2. Etxebizitza lortzeko ahalegina

PGDIk etxebizitza lortzeko ahaleginaren adierazle bat eskaintzen du. Adierazle horrek, ehunekotan adierazia, etxebizitza-gastuek diru-sarrera erabilgarrien aldean duten proportzioa biltzen du.

Aintzat hartutako etxebizitza-gastuek honako hauek guztiak biltzen dituzte:

— Etxebizitzaren alokairua.
— Etxebizitzaren amortizazioa eta interesak.
— Komunitate-gastuak.
— Udaletako ur, estolda eta zabor-tasak eta udal zerga.
— Energia-gastuak.

Adierazle hau lortzeko kontuan hartzen dira erreferentzia-unitatearen diru-sarrera garbiak, kasu honetan etxekoak.

Etxeak batez bestekoa baino ahalegin handiagoa egin behar duela esaten da, etxebizitza-gastuak etxeko diru-sarrera eskuragarrien %30 baino handiagoak direnean.

### 1.7.3. Zorrak egiteko arriskua

Zorrak egiteko arriskua honako bi baldintza hauek betetzen diren egoerei egiten die erreferentzia:

— Etxeko hileko gastuak diru-sarrera erabilgarriak baino handiagoak izatea.
— Hurrengo hileko ohiko gastuei aurre egiteko behar adina aurrezkirik ez izatea edo daudenak nahikoa ez izatea.

### 1.7.4. Gabeziaren adierazle sintetikoa

Adierazle honek honako talde hauetan sailkatzen du biztanleria, mantentze-pobreziaren ongizate-gabeziari dagokionez:

• *Oso prekarioa*

Etxean honako arazo hauetako bat duten pertsonak hartzen ditu barne:

— Oinarrizko premien estaldurari dagozkion arazo orokorrak.

— Betebeharren estaldurari (edo oinarrizko premien estalduraren eta betebeharren estalduraren arteko baturari) dagozkion bi arazo-adierazle edo gehiago.
— Bizirik irauteko oinarrizko gastuei aurre egiteko ezintasuna.

• *Prekarioa (oinarrizko aspektuak)*

Aurreko taldean sartzen ez diren baina betebeharren estaldurari (edo oinarrizko premien estalduraren eta betebeharren estalduraren arteko baturari) dagozkion bi arazo-adierazle edo gehiago dituzten etxeetan bizi diren pertsonak hartzen ditu barne.

• *Prekarioa (hain oinarrizkoak ez diren aspektuak)*

Aurreko taldeetan sartzen ez diren, oinarrizko premien eta betebeharren estaldurari dagokienez arazo-adierazlerik ez duten, baina aisialdia izateko aukerari dagokionez, berriz, bi arazo-adierazle edo gehiago dituzten etxeetan bizi diren pertsonak hartzen ditu barne.

• *Ez hain prekarioa (bizimodua ahalik eta gehien doitzeko beharra)*

Aurreko taldeetan sartzen ez diren baina arazo hauetako bat duten etxeetan bizi diren pertsonak hartzen ditu barne:

— Elikadura-arazoak, nahiz gose izateko arriskurik edo elikadura orekatua eta anitza izateko zailtasunik ez izan.
— Aisiarekin zerikusia duten beharrak estaltzeko, bizimodua ahalik eta gehien doitzeko beharra.

• *Ez prekarioa*

Oinarrizko premien estaldurarekin edo betebeharren estaldurarekin itxuraz arazorik ez duten eta beren asialdi beharrak asetzeko orduan ongi moldatzen diren etxeetan bizi diren pertsonak hartzen ditu barne.

Oso prekario taldea lotua dago mantentze-pobreziaren egoerak indarrean egotearekin. Gainerako prekarietate-egoerek ongizate-gabeziaren arazoak islatzen dituzte gehienbat.

Talde ez hain prekarioek eta ez prekarioek, berriz, ongizate-egoerak edo ia ongizateko egoerak islatzen dituzte.

Mantentze-dimentsioaren ongizate-gabeziaren adierazle sintetikoari buruzko atalean delako adierazlea eraikitzeko aintzat hartutako aldagaiak azter daitezke.

## 2. METATZE-POBREZIA ETA METATZE-PREKARIETATEA

### 2.1. Definizioak

a) *Metatze-pobrezia*

Metatze-pobreziak prekarietate diferentzialeko egoera ez espezifiko, baizik eta global bat dakar berekin, epe ertain eta luzean bizimaila egokiari eusteko (hau da, behar bezalako etxebizitza bat, behar bezala jantzia, eta gutxieneko biziegokitasun-arauak betetzen dituen izateko) behar diren kontsumo-ondasun iraunkorrak lortzeko orduan.

Epe ertain eta luzean prekarietatea ekar dezakeen neurrian, metatze-pobreziak zerikusia du, halaber, krisi edo larrialdi-egoera berezietan bizimodu normalizatua izaten jarraitzeko, eta, beraz, gutxieneko segurtasun ekonomikoa eskaintzeko, etxeek gutxieneko beharrezko ondare-baliabideak metatzeko dituzten zailtasunekin.

Honako hauek dira metatze-pobreziaren ezaugarri nagusiak: oso ondare-baliabide gutxi izatea, eta ohiko etxebizitzaren ezaugarriei dagokien guztian ere (biziegokitasuna, instalazio erabilgarriak eta ekipamendumaila) gabezia handi samarrak izatea, bai kualitatiboki bai kuantitatiboki.

b) *Prekarietatea metatze-dimentsioan*

PGDIk prekarietate-egoera jakin batzuk bereizten ditu metatze-dimentsiorako. Europako testuinguruan ez baitago horri buruzko bestelako erreferentziarik, metatze-dimentsioko prekarietate-egoerak arazo horren eraginpean dauden pertsonak ongizate-egoerara edo ia ongizateko egoerara iristeko dimentsio honetan definitutako errealitatetik kanpo uzten dituzten egoerak dira, pobrezia-egoeratzat hartu ezin badira behintzat.

## 2.2. **Metatze-pobreziaren eta metatze-prekarietatearen PGDI metodoa**

Adierazle honek taldeka sailkatzen ditu herritarrak, metatze-dimentsioaren pobrezia/ongizate eskalan hartzen duten tokiaren arabera:

• *Pobrea (prekarietate handia)*

Etxebizitza-arazo oso larriak eta, *aldi berean,* oso ondare gutxi dituztenen egoerak hartzen ditu barne. Pobrezia-arazoak zirkunstantzia hauetakoren bati lotuta egon ohi dira:

— EAEko etxeen batez besteko ondarearen %25etik azpiko ondarea, hamar urte baino gutxiagoko ibilgailu bat eduki edo ez.
— Batez besteko ondarearen %50etik azpiko ondarea, baldin eta arrazoi ekonomikoak direla medio hamar urte baino gutxiagoko ibilgailurik ez badu.
— Etxebizitza oso baldintza kaskarretan egotea, hau da, ur berorik edo instalazio elektrikorik ez izatea, edo batere erosotasunik ez izatea.
— Etxebizitzaren instalazioen edo ekipamenduen maila oso eskasa dela adierazten duten bestelako egoerak. Honako hauek, esaterako:

  • Komun-ontzirik eta bainu-ontzirik edo dutxarik ez izatea.
  • Instalazioen gabeziak nabarmen metatzea, eta ondorioz etxebizitzaren erosotasun-maila eskasa izatea.
  • Arrazoi ekonomikoak di rela-eta, oinarrizko ekipamenduei dagozkien gabeziak nabarmen metatzea: hozkailua, sukaldea, garbigailua edo koloretako telebista. Azken hori oinarrizkoa ez izanagatik ere, arrazoi ekonomikoak direla medio halakorik ez izateak gabezia-egoera larria adierazten du.

Hala ere, esan beharra dago metatze-pobreziaren egoerak aipatutako ondare-arazoetako bat ez ezik, oso etxebizitza-arazo larriak ere badaudela adierazten duela.

• *Prekarioa (batez bestekoa baino nabarmen txikiagoa)*

Honako egoera hauek hartzen ditu barne:

— Oso etxebizitza-arazo larriak eta ondaremaila txikia edo normala.

— Etxebizitza-arazo larriak eta ondare-maila txikia edo normala.
— Etxebizitza-arazo ez hain larriak baina oso ondare-maila txikia

• *Nolabaiteko prekarietatea baina ongizate-gabeziaren ebidentzia argirik gabe (ia ongizatea)*

Honako egoera hauek hartzen ditu barne:

— Etxebizitza-arazo larriak eta ondasun-maila normala.
— Etxebizitza-arazo ez hain larriak eta ondasun-maila txikia.
— Etxebizitza-arazorik ez eta ondasun-maila txikia edo oso txikia.

• *Ongizate-egoeran*

Etxebizitza arazorik ez (edo larririk ez behintzat) eta ondasun-maila normala duten etxeak hartzen ditu barne.

Prekarietate-adierazleen aurkezpenari dagokionez, 3 eta 4 taldeak ez-prekariotzat hartzen dira.

Metatze-pobreziaren eta metatze-prekarietatearen PGDI adierazlea etxebizitza-arazoekin eta ondare-baliabideak lortzeko eragozpenekin zerikusi a duten ongizate-gabeziaren adi erazle sintetikoen emaitzetan oinarritzen da.

### 2.3. **Gabezia-adierazleak**

a) *Etxebizitza-arazoen adierazle sintetikoa*

Etxebizitzaren instalazioekin eta ekipamenduekin zerikusia duten garapen-aldagai espezifikoei emandako tratamendua, batetik, eta etxebizitzaren egoera orokorra, bestetik, aintzat harturik, honako lau maila hauek berei z-ten dira PGDIn, etxebizitzaren biziegokitasun-baldintzei dagokienez:

1. Oso etxebizitza-arazo larriak.

   Honako egoera hauetako edozein hartzen du barne:

   — Ur beroko instalaziorik ez izatea.
   — Instalazio elektrikorik ez izatea.
   — Komun-zulorik eta bainu-ontzirik edo dutxarik ez izatea.
   — Oinarrizko ekipamenduetan bi gabezia edo gehi ago izatea.
   — «Ez, inoiz ere ez» erantzutea honako galdera honi: zure etxebizitzaren maila eta erosotasuna nahikoak eta haren kontserbazio-egoera, dekorazio-maila eta barneko txukuntasuna egokiak direla esango zenuke? (Etxebizitzaren erosotasunari buruzko galdera).
   — Etxebizitzaren instalazioetan bi gabezia edo gehi ago daudenean etxebizitza nahikoa erosoa ote den galderari «Ez, ez da nahikoa erosoa» erantzutea.

2. Etxebizitza-arazo larriak.

   Aurreko kasuak gertatzen ez direlarik, kategoria honek kasu hauetako edozein hartzen du barne:

   — Etxebizitzaren instalazioetan gabezia bakarra dagoenean etxebizitza nahikoa eroso ote den galderari «Ez, ez da nahikoa erosoa» erantzutea.
   — Oinarrizko ekipamenduetan gabeziaren bat izatea.
   — Hezetasunak, jende-pilaketak, zaratak edota kutsadurak sortzen dituzten arazoekin zerikusia duten bi gabezia edo gehiago.
   — Hain oinarrizkoak ez diren ekipamenduetan hiru gabezia edo gehiago izatea.

3. Hain larriak ez diren etxebizitza-arazoak.

   Aurreko kasuak gertatzen ez direlarik, talde honek egoera hauetako edozein hartzen du barne:

   — Etxebizitzaren instalazioetan inolako gabeziarik ageri ez denean, etxebizitza nahikoa erosoa ote den galderari «Ez, ez da nahikoa erosoa» erantzutea.
   — Hezetasunak, jende-pilaketak, zaratak edo kutsadurak sortzen dituzten arazoekin zerikusia duen gabezia bat.
   — Gabezia bat edo gehiago hain oinarrizkoak ez diren ekipamenduetan.

4. Etxebizitza-arazorik ez.

   Aurreko hiru kategorietan aipaturiko gabezietako bat ere ez duten kolektiboak.

b) *Ondare-baliabideen adierazle sintetikoa*

Etxeen ondare-egoerarekiko hurbilketa biztanle bakoitzeko ondarearen balioaren estimazio batean oinarrituta egiten da. Ondare-ondasun erabilgarriak eta haien balio estimatua kontuan harturik, honako kategorietan sailkatzen dira ondare-baliabideen lortze-mailarekin zerikusia duten egoerak:

1. Oso ondare-maila txikia.
   Kategoria honek honako bi egoera hauetako edozein hartzen du barne:

   — Batez besteko ondarearen %25etik azpiko per capita ondarea.
   — Batez besteko ondarearen %50etik azpiko per capita ondarea, arrazoi ekonomikoak direla eta hamar urte baino gutxiagoko ibilgailurik ez badu.

2. Ondare-maila txikia.
   Aurreko egoerak gertatzen ez direlarik, talde honek egoera hauetako edozein hartzen du barne:

   — Batez besteko ondarearen %50etik azpiko per capita ondarea.
   — Batez besteko ondarearen %100etik azpiko per capita ondarea, arrazoi ekonomikoak direla eta hamar urte baino gutxiagoko ibilgailurik ez badu.

3. Ondare-maila normala.
   Aurreko kasuetan aintzat hartu ez diren ondare-egoera guztiak hartzen ditu barne.
   Ondarearen zenbatekoa neurtzerakoan, honako osagai hauek hartzen dira kontuan:

   — Norberaren etxebizitzaren balio estimatua eta adierazia.
   — Norberaren gainerako ondasun-baliabideen balio estimatua eta adierazia.
   — Norberaren aurrezki erabilgarrien balio estimatua.

Aurrezkiak kalkulatzeko, kontuan hartzen da bai zenbat hilabetez eutsi ahal zaion ohiko kopuruari, bai zenbatekoa den gastu-mota hori, bi faktoreak elkarrekin biderkatzeko.

Batez besteko ondarea etxe bakoitzeko biztanle bakoitzeko ondare-baliabideen mediana oinarritzat hartuta kalkulatzen da, tamainaren araberako baliokidetasun-eskalak aintzat hartu gabe.

## 3. **BENETAKO POBREZIA ETA PREKARIETATEA**

### 3.1. **Definizioak**

Benetako pobreziak zirkunstantzia jakin batzuk adierazten ditu. Zirkunstantzia hone-tan, hain zuzen, pobrezia dimentsio batean edo bestean (hau da, mantentze-dimentsioan edo metatze-dimentsioan) agertzen diren oinarrizko beharrek behar bezalako estaldura ez izateko arrisku-egoerak ez dira behar bezala konpentsatu herritarren eguneroko bizitzan.

### 3.2. **Benetako pobreziaren PGDI adierazlea**

Metodologiari buruzko atalean aipatu den bezala, pobrezia errealaren bi PGDI adierazle daude. Txosten honen emaitzen aurkezpenean erabiltzen dena, bilakabideari buruzko atalean batez ere, *zirkunstantzia berezietan egokitutako benetako pobreziaren adierazle objektiboa* deiturikoa da.

Adierazle horren arabera, honako etxe hauek benetako pobrezia-egoeran daude:

— Metatze-pobreziaren egoeraren eraginpean dauden etxeak.
— Mantentze-pobreziako arazoak dituzten etxeak, metatze-dimentsioan ongizatea edo ia ongizatea lortzeak egoera konpentsatzen ez badu bederen.

Adierazleak, baina, kontuan hartzen ditu sailkapen objektiboaren eta pertzepzio subjektiboaren arteko distortsioa gehiegizkoa den egoera batzuk. Hauek dira kontuan hartutako egokitze elementuetako batzuk:

— Metatze-pobreziako egoeran egon arren, egun, mantentze-terminoetan, ongizateko egoeran bizi diren pertsonak ez-pobretzat hartzen dira, erreferentziazko etxea egoera ekonomiko erosoan baldin badago.
— Aitzitik, mantentze-pobreziako egoeran dauden pertsonak pobretzat hartzen dira baldin eta, metatze-dimentsioko ongizate-egoeran edo ia ongizateko egoeran egon arren, beren burua pobretzat edo oso pobretzat badute, edota beren burua nahiko pobretzat jo eta haien diru-sarrerak oinarrizko premiak asetzeko adierazitako kopururik txikiena baino txikiagoak badira.
— Pobretzat jotzen dira, halaber, ongizate-gabeziako egoeran dauden pertsonak, mantentze-dimentsioan pobre ez izan arren, eta prekarietate-egoera nabarmenean bizi dire-

nak, metatze-dimentsioan pobre ez izan arren. Kasu horretan, pobreziaren pertzepzio subjektiboa izan behar da, eta diru-sarrera erabilgarriek oinarrizko beharrak estaltzeko adierazitako kopururik txikiena baino txikiagoak izan behar dute.

### 3.3. Prekarietatearen PGDI adierazlea (prekarietate-egoera errealekiko hurbilketa)

Aurreko adierazlea kontuan harturik, prekarietate-egoerak ez pobrezia errealeko egoerarik ez ongizate osoko egoerarik ez dagoen tarteko maila batean kokatzen dira. Azken egoera hon ongizateko edo ia ongizateko ego-era batek definitua dago, hala mantentze-dimentsioan nola metatze-dimentsioan.

Hasieratik, mantentze-dimentsioko ongizate-gabeziako adierazleek kezka berezia sortu duten arren, PGDIk ez du sakontzen mentatze-dimentsioarekin zerikusia duten prekarietate-egoeretan, batez ere Europan ez dagoelako erreferentziarik pobreziaren dimentsio hori aztertzeko. Hori dela eta, prekarietateari buruzko datuak, mantentze-dimentsioa eta metatze-dimentsioa kontuan hartzen dituen hurbilketa multidimentsionalean, kontu handiz aztertzekoak dira. Zuhurtasunez jokatzea are gomendagarriagoa da prekarietate-egoeran dauden pertsonak eta etxeak barnean oso heterogeneoak direla kontuan izanda. Izan ere, talde hori osatzen duten pertsonetako batzuk ia pobrezian bizi diren bitartean, beste batzuk ongizate osoko egoeretara hurbiltzen dira.

## 4. EZKUTUKO POBREZIA ETA PREKARIETATEA

### 4.1. Definizioak eta adierazleak

- *Mantentze-dimentsioko pobrezia eta ongizate-gabezia indibiduala*

Adierazle hori ikuspegi hertsiki indibidual batetik hurbiltzen da pobrezia eta prekarietate ekonomikoaren azterketara, eta norberaren diru-sarrera pertsonalen arabera balioztatzen du pertsona bakoitzak pobrezia-ongizate eskalan hartzen duen tokia, etxeko gainerako kideak kontuan izan gabe.

Horretarako, soldata eta lansarien diru-sarrera indibidualak, Gizarte Segurantzaren prestazioak, janari-pentsioak, oinarrizko errenta, eta norberaren enpresa edo jarduera pro-

fesionalaren ustiapenari dagozkion diru-sarrerak batzen dira. Aurrekoaren kalte gabe, etxeko diru-sarrera guztien zati baliokidea izendatzen jarraitzen da, diru-sarrera jakin batzuei dagokienez (ondasun higigarri edo higiezinen ustiapenari dagozkion diru-sarrerak, gizarte asistentziako laguntza ez periodikoak eta bekak eta partikularren transferentziak)[38].

PGDIn mantentze-dimentsioko pobreziaren eta ongizate-gabeziaren arrisku-egoeren presentzia kalkulatzeko, hurbilketa metodologiko orokorraren arabera pertsona bakarrei dagozkien pobreziaren eta ongizate-gabeziaren atalaseak aplikatzen zaizkio EAEn bizi den pertsona bakoitzari, haren diru-sarrera pertsonalak —hori eta ez besterik— kontuan hartuz. Kasu honetan ere erreferentziazko pertsonaren adin-taldea hartzen da kontuan (45 urtez azpikoak, 45-64 urte bitartekoak eta 65 urtez gorakoak).

Zentzu hertsian, EAEko herritarrentzat bakarka bizitza independentea lortzeak duen arrisku-maila indibiduala islatzen du adierazle horrek. Arriskua mantentze-dimentsioko pobrezia potentzialaren eta/edo pobreziagabezia potentzialaren terminoetan neurtzen da. 25 urtez gorako herritar guztiei aplikatzen zaie adierazle hori, eta baita 25 urtez azpikoei ere, ikasleak ez badira.

Adierazleak ez du balio absoluturik, orientagarria eta konparagarria baizik. Horren haritik, adierazleak islatu nahi duena da zer talde dauden abiapuntu-egoera prekarioago batean potentzialki.

- *Baliabideen banaketaren barruko desoreken adierazlea*

Adierazle horrek erakusten duena da emakumeek beren bikotearen baldintza berberetan erabil ditzaketen edo ez etxeko baliabideak.

Informazio hori eskura dezaketen emakumeak bikotekidearekin bizi dira, etxeko talde nagusiari atxikiak daude eta informatzaile zuzenak dira galdeketa-prozesuan.

---

[38] Izan ere, arrazoi praktikoengatik, diru-sarrerei buruzko datuak lortzeko galdetegiak etxe hurbilketa bat planteatzen jarraitzen du, diru-sarrera mota horientzat. Diru-sarrera mota horien garrantzia, baina, mugatua da, aintzat hartutako adierazle indibidualak lortzeari dagokionez, herritarren diru-sarreretan duten pisu erlatibo txikia kontuan izanda, batez ere arrisku handieneko taldeetan.

• *Independizazio-arazoen adierazleak*

Independizazio-arazoak independizazio prozesuen blokeoaren ondorioz ezkutatuta geratzen diren pobrezia eta ongizate gabeziako errealitateen azterketan zentratzen dira.

PGDIn, ezkutuko pobrezia eta prekarietate mota horrekiko hurbilketa egiteko, galdetzen da ea etxean norbaitek bizimodu independentea izan nahi duen eta ezin duen baliabide ekonomikorik nahikorik ez duelako. Erreferentziazko taldeari galdetegi osagarria aplikatzen zaio orduan, atzemandako arazoari loturiko zirkunstantziak neurtzera bideratua.

Ezkutuko pobreziaren eta prekarietatearen adierazleak etxe independentea osatzeko behar adina diru-sarrerarik ez dutela adierazten duten pertsonengan zentratzen dira, batez ere diru-baliabide nahikoak izanez gero urte baten epean —ziur asko edo ziur— etxe propioa izango luketela diotenengan. Kasu horretan, etxe berria izan dezaketen pertsonen diru-sarrera eskuragarrien arabera neurtzen da pobrezia-egoera edo ongizate-gabeziako egoera ematen den edo ez. PGDI metodoaren arabera orokorki finkatutako atalase-sisteman oinarrituta kalkulatutako mantentze-adierazleak eskaintzen dira horrela.

Metatze-dimentsioarekin zerikusia duten adierazleak ere eskaintzen dira, batez ere etxebizitza propioa lortzeari eta aurrezkien eskuragarritasunari dagokionez. Etxebizitzaren kasuan, kontuan hartuko da etxearen ekipamendu-maila.

Era berean, PDGI-k, EAE-ko etxebizitzentzat eta populazio osoarentzat, ezkutuko pobrezia kontutan hartzen duen pobrezia eta ongizateezaren adierazle orokor bat eskaintzen du (mantentze-pobrezia adierazlea ezkutuko pobreziarekin). Adierazle hau, urte baten epean aparteko etxebizitza bat sortzeko intentzioa duten pertsona bakar edo taldeen egoera espezifikoari egokitzen zaio. Aldi berean, pertsona hauek utziko lituzketen etxebizitzei pobrezia/mantentze-ongizate eskalan legokikeen posizio berria kalkulatzen du, familia lagatzen duten pertsonen diru sarrerak kenduz, eta familiak izango lukeen tamaina berria kontutan hartuz.

## 5. DESBERDINTASUNAREN AZTERKETARI BURUZKO HURBILKETA

PGDIk desberdintasun sozialaren adierazle batzuk eskaintzen ditu, errentaren azterketan zentratuak gehienbat.

## 5.1. **Desberdintasunaren adierazleak**

Honako hauek dira PGDIn aintzat hartutako desberdintasun-adierazle nagusiak:

- *S80/S20 erlazioa*

Errentaren banaketan per capita errenta handiena duten pertsonen %20aren eta errenta apalena duten %20ren arteko erlazioa.

- *S90/S10 erlazioa*

Errentaren banaketan per capita errenta handiena duten pertsonen %10aren eta errenta apalena duten %10ren arteko erlazioa.

- *Giniren koefizientea*

Bere errentaren arabera banatutako biztanleriaren pisu metatuaren eta biztanleria horren errenta eskuragarriaren pisu metatuaren arteko erlazioa, honako formula honen bidez adierazten dena:

$$G = \left|1 - \sum_{k=0}^{k=n-1} (X_{k+1} - X_k)(Y_{k+1} - Y_k)\right|$$

*X*: aztergai den biztanleriaren proportzio metatuta.
*Y*: errenta edo diru-sarreren proportzio metatua.

Koefiziente-balioa 0 eta 1-en artean dago. 0-k erabateko berdintasuna adierazten du eta 1-ek, berriz, erabateko desberdintasuna. PGDIn datuak ehunekoetan adierazten dira.

- *Batez besteko errenta*

Biztanleria-talde jakin bateko pertsonen batez besteko errenta-maila, aldagai desberdinen arabera zehaztua (sexua, adina, familia-taldearen mota, adin txikikoen presentzia, ezkontza-egoera, nazionalitatea, ikasketa-maila, jarduerarekiko harremana, eta abar.

# Bigarren eranskina.

# Pobretasunaren eta prekarietatearen zifrak doitzea azterketa ebolutiborako

Epe luzera konparatutako hurbilketa batean, bi datu konparagarri behar dira; bi datu baliokide, beraz.

Doikuntza-prozesua 2008ko metatze-dimentsioko pobretasunaren eta prekarietatearen atalaseak PGDIren eta ESSDEren aurreko operazioetan aplikatzean oinarritu da. Doikuntza-faktore gisa, bi aldagai hartu dira kontuan: biztanleriaren zati batek begietsitako ongizate-mailetara iristeko batez besteko kostuan izandako aldaketak, eta maila horien arteko desberdintasunak, etxebizitza eskuratzeko alokairu-kostu eta amortizazio-kostu diferentzialak egotearekin edo ez egotearekin lotuak.

Doikuntzak kontuan izan du, baita ere, 1986ko Euskadiko Gizarte-Egoera Ahulei buruzko Azterketaren (EGEAA) metatzepobretasunaren adierazleen kalkulua egokitzeko mekanismo bat sartzeko beharra, adierazle horiek PGDIren hurbilketarekin konparatu ahal izateko.

## 1. DOIKUNTZA-PROZEDURA MANTENTZE-DIMENTSIOAN

Txostenean, pobretasun-zifrak doitzeko prozedura bat sartzen da, haren bilakaera termino konparagarrietan aztertu ahal izateko. Era horretan, doitutako mantentze-pobretasunaren eta mantentze-prekarietatearen zifretan antzemandako aldaketak aztertu ahal izango dira, 2008. urteko pobretasunaren eta ongizate-gabeziaren terminoetan. Prozeduraren helburu nagusia da atalase horien balioa doitzea PGDItik edo EGEAAtik hartutako informazioa erabil dezakegun aldi desberdinetara.

Horretarako, 2008ko PGDIn lortzen den mantentze-dimentsioko pobretasunaren eta ongizate-gabeziaren atalaseen balioa doituko duen adierazle bat ezarri beharra da, 2008 aurreko PGDIren edo EGEAAren operazio bakoitzerako. Honako hauek dira prozeduraren oinarrizko ezaugarriak:

1. Sei doikuntza-indize espezifiko lortu behar dira 2008 aurreko EGEAAren edo PGDIren fase bakoitzerako. Indize horiek PGDI mantentze-atalaseak lortzeko prozesuan kontuan hartzen diren etxeko pertsona nagusiaren adinaren arabera definitutako taldeei dagoz-

kie: 45 urtetik beherako, 45 eta 64 urte bitarteko eta 65 urtetik gorako pertsona nagusiak. Adin-talde bakoitzarentzat, indize espezifiko bat kalkulatzen da, aintzat hartutako atalase-motaren arabera pobretasuna edo ongizate-gabezia.

2. Adin-taldea eta atalase-mota elkarrekin gurutzatzen diren kasu bakoitzean, 2008an estandarizatutako gutxieneko diru-sarreren balioa (*2008_est_Gds)* doikuntza-indizea kalkulatu nahi den eragiketaren urteko gutxieneko diru-sarreren balioaz (*n_Urtea_est_Gds)* zatitu behar da. Gero, aurreko emaitza hori zuzenketa-faktoreaz zatitu behar da. Faktore horrek kontuan hartzen ditu, erreferentzia-urte bakoitzean, biztanleriak etxebizitza eskuratzeko eta mantentzeko gastuengatik jasaten duen presio handi edo txikiagoarekin zerikusia duten aldaketak *(ZFak_ Urtea_n)*.

Hala, n_Urtea doikuntza-indizea = (2008_est_Gds / n_ Urtea_est_Gds / n_ Urtea_ZFak

3. 2008rako estandarizatutako gutxieneko diru-sarreren balioa (*2008_est_Gds)* 2008an egindako inkesta-prozesuan galdekatutako etxe bakoitzeko pertsona arduradunek adierazitako gutxieneko diru-sarreren zifren batez bestekoari dagokio, gizartean erosotasunezko egoeran ez dauden pertsonak harturik erreferentzia-taldetzat. Batez bestekoa termino estandarizatuetan kalkulatzen da, banaketa bakarra eginez, pertsona nagusiaren adin-taldearen eta etxebizitzaren tamainaren arabera. Estandarizazioa honetan oinarritzen da: etxeak 2008ko adin-taldearen eta etxebizitzaren tamainaren arabera banatzean, berriro orekara jotzen duten egitura demografikoetan ohikoa den bezala.

Aintzat hartutako gutxieneko diru-sarrerak definitutako adin-taldeentzat eta atalase-motentzat kalkulatzen dira.

4. Gutxieneko diru-sarreren balioa doikuntzaindizea kalkulatzen den eragiketaren urtean (*n_Urtea_est_Gds)* erreferentzia-urtean egindako inkesta-prozesuan galdekatutako etxe bakoitzeko arduradunek adierazitako gutxieneko diru-sarreren zifren batez bestekoari dagokio. Gizartean erosotasunezko egoeran ez dauden pertsonak hartzen dira erreferentzia-taldetzat kasu honetan ere. Batez bestekoa termino estandarizatuetan kalkulatzen da, 2008ko etxeak adin-taldearen eta tamainaren arabera banatuz egindako banaketatik abiatuta.

5. Urteko zuzenketa-faktoreak *(_Urtea_Zfak)* indize bat sartzen du, EGEAA edo PGDI egin den urte bakoitzeko etxebizitza-gastuek, 2008ko egoeraren aldean, egiten duten pre-

sio diferentziala neurtzeko. Indize hori, besteak bezala, adin-taldearen eta atalase-motaren arabera aplikatzen da, eta honako ekuazio honen bidez kalkulatzen da:

n_Urtea_Zfak = n_Urtea_doitutako_Gds_Etxebizitza / n_Urtea_Gds_Etxebizitza

*a)* n_ Urtea_doitutako_Gds_Etxebizitza indizeak gutxieneko diru-sarreren balio estandarra definitzen du, kontuan hartuz GEAA edo PGDI egin den urte bakoitzeko etxebizitza-gastuen presio diferentziala. Honako ekuazio honen bidez kalkulatzen da:

n_ Urtea_doitutako_Gds_Etxebizitza = n_Urtea_est_Gds_Etxebizitza /
(n_Urtea_EtxebizitzaGEragina/ 2008_EtxebizitzaGEragina)

n_Urtea_est_Gds_Etxebizitza indizeak eragiketaren urteko gutxieneko diru-sarreren balioa birkalkulatzen du erreferentzia-etxeentzat, kontuan hartuz, alde batetik, etxebizitza-gasturik gabeko etxeei dagokien batez bestekoa, eta, bestetik, etxebizitza-gastuak badituztenei dagokiena (hipoteka-kreditu baten interes eta amortizazioagatik, edota alokatze edo berralokatze gisa). Hori termino estandarizatuetan egiten du, etxebizitza gastuak dituzten eta ez dituzten 2008ko etxeen banaketa harturik banaketa oinarritzat.

n_Urtea_EtxebizitzaGEragina indizeak, berriz, eragiketa egiten den urte bakoitzean etxebizitza-gastuek gutxieneko diru-sarreren balioan duten eragin diferentziala neurtzen du. Indize hori kalkulatzeko, etxebizitza-gastuak dituzten etxeek eragiketaren urte bakoitzean adierazten dituzten gutxieneko diru-sarreren balioa gastu-mota hori ez duten etxebizitzei dagokien balioaz zatitu behar da.

*2008_EtxebizitzaGEragina* indizea aurreko indize horren beraren 2008ko aplikazioa da.

*b)* n_ Urtea_Gds_Etxebizitza indizea n_ Urtea_est_Gds_Etxebizitza indizea bezala kalkulatzen da. Dena dela, eragiketaren erreferentzia-urtean etxebizitza gastuak dituzten eta ez dituzten etxeen arteko banaketa erabiltzen da.

Aise ikus daitekeen bezala, gero eta biztanle gehiago ongizate-egoerara iristeak dituen ondorioak saihestearren, beren ustez erosotasunezko egoeran edo batez bestekoaren gainetik ez dauden kolektiboetan egindako aplikazioa bakarrik hartzen du kontuan prozedurak.

Esan beharra dago aipatutako doikuntza ohiko prozeduretatik hurbiltzen dela. Prozedura horiek Kontsumorako Prezioen Indizearen (KPI) bilakaera orokorretik eratorritako

zuzentzaileen aplikazioan oinarrituta zeuden. Aukera horrek ekarriko zukeen doikuntzaindize bakarraren ordez, askotariko doikuntza-indizeen sistema bat aukeratu da. Bizizikloaren une guztiak kontuan hartuta, erosotasunezko egoeran ez dauden etxeek oinarrizko beharrak asetzeko eta ongizatera iristeko behar dituzten gutxieneko diru-sarreren balioen bilakaeran oinarritzen da sistema Gainera, etxebizitza-gastuen presioaren aldi bakoitzeko eragin diferentzialarekin zerikusia duten zuzenketa-faktoreak ere txertatzen dira.

Hurbilketa horren ezaugarri nagusia da haren doikuntza-indizeak KPItik eratorriko liratekeenak baino handiagoak dira.. Gutxi aldentzen dira, ordea, KPI ofizialaren bilakaeratik, 45 urtetik gorako pertsonak buru dituzten etxeen ongizate-gabeziako atalaseei dagokienez. KPIren datuek, ordea, gutxietsi egiten dute oinarrizko beharrak eskuratzeko eta, 45 urtetik beherakoak buru dituzten etxeen kasuan, gutxieneko ongizate-mailara iristeko kostuan antzemandako hazkundearen benetako eragina.

Argitu beharra dago erabilitako prozedura uste honetan oinarritzen dela: alegia, inportanteena ez dela hainbeste beharrezko ondasun edo zerbitzuen saski finko bat eskuratzeko kostua neurtzea, baizik eta, behin etxebizitza gastuen presio diferentziala deskontatu ondoren, une bakoitzean helburu horiek berak bermatzeko (hau da, pobretasuna eta ongizate-gabezia gainditzeko) balio duten ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko kostua neurtzea.

## 2. **DOIKUNTZA-PROZEDURA METATZE-DIMENTSIOAN**

Metatze-dimentsioan, zentzu hertsian aplikatu da adierazleak lortzeko eragiketa bakoitzean erabilitako prozedura, 1996 eta 2008 bitartean aurrera eramandako eragiketen ohiko praktikan. 1986ko eragiketarako, berriz, 1996tik aurrerako metatze-pobretasuna neurtzeko erabilitako metodoaren aplikazioari dagozkion zifrak lortu dira, EGEAAn eta PGDIren eragiketa desberdinetan adierazle komunak ditugula aprobetxatuz.

# Hirugarren eranskina. Galdesortak

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# Oinarrizko galdesorta

## INKESTA: POBREZIA ETA GIZARTE-DESBERDINTASUNAK 2008

| | |
|---|---|
| **KODEA** \|__\|__\|__\|__\| | **ETXEBIZITZA-MOTA** |
| **UNITATE INDEPENDENTEA** \|__\| | Etxe familiabakar isolatua (independentea) .......... 1 |
| **GALDESORTA-ZK.** \|__\|__\| | Etxe familiabakar adosatua edo binakakoa ........... 2 |
| **LURRALDE HISTORIKOA** \|__\|__\| | Apartamentua edo pisua (10 etxebizitzatik behera) 3 |
| **ESKUALDEA** \|__\|__\| | Apartamentua edo pisua (10 etxebizitzatik gora).... 4 |
| **UDALERRIA** \|__\|__\|__\| | Infraetxea........................................................ 5 |
| **BARRUTIA** \|__\|__\| | Bestelako etxebizitza......................................... 6 |
| **SEKZIOA** \|__\|__\| | |

**HELBIDEA**

**IZEN-ABIZENAK:** ______________________________

**HELBIDEA:** ______________________________

**UDALERRIA:** ____________________ **TELEFONOA:** __________

| KONTROL-DATUAK | | | |
|---|---|---|---|
| **ELKARRIZKETATZAILEA** | **ELKARRIZKETAREN DATA ETA IRAUPENA** | | |
| \|_\|_\| | EGUNA \|_\|_\| | URTEA | 2008 |
| | HILABETEA \|_\|_\| | IRAUPENA | \|_\|_\| |

| | P2 | P3 | P4 | P5 | P6 | P7 | P8 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| HURRENKERA-ZK. | FAMILIA-TALDEAREN MOTA | FAMILIA-TALDEAREN HURRENKERA-ZK.<br>(Ez baduzu familia-talderik osatzen jarri 9) | TALDE BURUA | PERTSONA NAGUSIA | INFORMATZAILEA | AHAIDETASUNA EDO HARREMANA ERREFERENTZIAZKO PERTSONAREKIN<br>(Emaztea, semea/alaba, erraina, aita, koinatua, biloba, osaba, iloba, zerbitzaria, apopiloa, laguna, etab.) | SEXUA |
| 1 | Ez da familia-taldea ................ 1→P5<br>Seme-alabarik gabeko senar-emazteak/bikotea .................... 2<br>Seme-alabadun senar-emazteak/bikotea .................... 3<br>Seme-alabadun aita edo ama.. 4<br>Bestelako familia-talde bat...... 5 | | Bai....1<br>Ez.....6 | Bai......1<br>Ez.......6 | Bai......1<br>Ez.......6 | Erreferentziazko pertsona (EP)..............1<br>EParen ezkontidea edo bikotekidea......2<br>Semea/alaba, semeordea/alabaordea....3<br>Suhia, erraina ..........................................4<br>Aita, ama, aitaginarreba/amaginarreba...5<br>Anaia/arreba, koinatua/koinata ..............6<br>EParen beste ahaide bat .......................7<br>Etxe-zerbitzuko langilea .......................8<br>Ahaidea ez den beste norbait ...............9 | Gizona.......... 1<br>Emakumea.... 2 |
| 2 | Ez da familia-taldea ................ 1→P5<br>Seme-alabarik gabeko senar-emazteak/bikotea .................... 2<br>Seme-alabadun senar-emazteak/bikotea .................... 3<br>Seme-alabadun aita edo ama.. 4<br>Bestelako familia-talde bat...... 5 | | Bai....1<br>Ez.....6 | Bai......1<br>Ez.......6 | Bai......1<br>Ez.......6 | Erreferentziazko pertsona (EP)..............1<br>EParen ezkontidea edo bikotekidea......2<br>Semea/alaba, semeordea/alabaordea....3<br>Suhia, erraina ..........................................4<br>Aita, ama, aitaginarreba/amaginarreba...5<br>Anaia/arreba, koinatua/koinata ..............6<br>EParen beste ahaide bat .......................7<br>Etxe-zerbitzuko langilea .......................8<br>Ahaidea ez den beste norbait ...............9 | Gizona.......... 1<br>Emakumea.... 2 |
| 3 | Ez da familia-taldea ................ 1→P5<br>Seme-alabarik gabeko senar-emazteak/bikotea .................... 2<br>Seme-alabadun senar-emazteak/bikotea .................... 3<br>Seme-alabadun aita edo ama.. 4<br>Bestelako familia-talde bat...... 5 | | Bai....1<br>Ez.....6 | Bai......1<br>Ez.......6 | Bai......1<br>Ez.......6 | Erreferentziazko pertsona (EP)..............1<br>EParen ezkontidea edo bikotekidea......2<br>Semea/alaba, semeordea/alabaordea....3<br>Suhia, erraina ..........................................4<br>Aita, ama, aitaginarreba/amaginarreba...5<br>Anaia/arreba, koinatua/koinata ..............6<br>EParen beste ahaide bat .......................7<br>Etxe-zerbitzuko langilea .......................8<br>Ahaidea ez den beste norbait ...............9 | Gizona.......... 1<br>Emakumea.... 2 |
| 4 | Ez da familia-taldea ................ 1→P5<br>Seme-alabarik gabeko senar-emazteak/bikotea .................... 2<br>Seme-alabadun senar-emazteak/bikotea .................... 3<br>Seme-alabadun aita edo ama.. 4<br>Bestelako familia-talde bat...... 5 | | Bai....1<br>Ez.....6 | Bai......1<br>Ez.......6 | Bai......1<br>Ez.......6 | Erreferentziazko pertsona (EP)..............1<br>EParen ezkontidea edo bikotekidea......2<br>Semea/alaba, semeordea/alabaordea....3<br>Suhia, erraina ..........................................4<br>Aita, ama, aitaginarreba/amaginarreba...5<br>Anaia/arreba, koinatua/koinata ..............6<br>EParen beste ahaide bat .......................7<br>Etxe-zerbitzuko langilea .......................8<br>Ahaidea ez den beste norbait ...............9 | Gizona.......... 1<br>Emakumea.... 2 |
| 5 | Ez da familia-taldea ................ 1→P5<br>Seme-alabarik gabeko senar-emazteak/bikotea .................... 2<br>Seme-alabadun senar-emazteak/bikotea .................... 3<br>Seme-alabadun aita edo ama.. 4<br>Bestelako familia-talde bat...... 5 | | Bai....1<br>Ez.....6 | Bai......1<br>Ez.......6 | Bai......1<br>Ez.......6 | Erreferentziazko pertsona (EP)..............1<br>EParen ezkontidea edo bikotekidea......2<br>Semea/alaba, semeordea/alabaordea....3<br>Suhia, erraina ..........................................4<br>Aita, ama, aitaginarreba/amaginarreba...5<br>Anaia/arreba, koinatua/koinata ..............6<br>EParen beste ahaide bat .......................7<br>Etxe-zerbitzuko langilea .......................8<br>Ahaidea ez den beste norbait ...............9 | Gizona.......... 1<br>Emakumea.... 2 |

| HURRENKERA-ZK. | P9<br>LEGEZKO EGOERA ZIBILA | P10<br>BETETAKO ADINA | P11<br>ERROLDATZE-EGOERA | P12<br>ZEIN DA ZURE NAZIONALITATEA? ZEHAZTU | P13<br>IRAKURTZEN ETA IDAZTEN BADAKIZU? | P14<br>EGINDAKO IKASKETAK<br>(Jarri egin eta gainditu dituzun maila handieneko ikasketak, eta zein urtetan lortu zenuen maila hori) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Ezkongabea ................ 1<br>Behin ezkondua .......... 2<br>Bi aldiz ezkondua ....... 3<br>Alarguna ...................... 4<br>Dibortziartua................ 5<br>Banandua ..................... 6 | [ ][ ] | EAEn erroldatua ............................ 1<br>EAEtik kanpo erroldatua ............ 2<br>Erroldatu gabe ............................. 3<br>**EAEn erroldatuta emandako denbora:**<br>Betidanik 1<br>Betidanik ez 2→ Zenbat urte [ ][ ] | Espainiarra.................. 1<br>Ebkoa (15) .................. 2<br>EBkoa (kide berriak) .3<br>Beste estatu batekoa...4<br>..............................<br>.............................. | Bai 1<br>Ez 6→**P17** | ..............................<br>..............................<br>..............................<br>MOTA [ ][ ][ ]<br>MAILA [ ][ ]<br>URTEA [ ][ ] |
| 2 | Ezkongabea ................ 1<br>Behin ezkondua .......... 2<br>Bi aldiz ezkondua ....... 3<br>Alarguna ...................... 4<br>Dibortziartua................ 5<br>Banandua ..................... 6 | [ ][ ] | EAEn erroldatua ............................ 1<br>EAEtik kanpo erroldatua ............ 2<br>Erroldatu gabe ............................. 3<br>**EAEn erroldatuta emandako denbora:**<br>Betidanik 1<br>Betidanik ez 2→ Zenbat urte [ ][ ] | Espainiarra.................. 1<br>Ebkoa (15) .................. 2<br>EBkoa (kide berriak) .3<br>Beste estatu batekoa...4<br>..............................<br>.............................. | Bai 1<br>Ez 6→**P17** | ..............................<br>..............................<br>..............................<br>MOTA [ ][ ][ ]<br>MAILA [ ][ ]<br>URTEA [ ][ ] |
| 3 | Ezkongabea ................ 1<br>Behin ezkondua .......... 2<br>Bi aldiz ezkondua ....... 3<br>Alarguna ...................... 4<br>Dibortziartua................ 5<br>Banandua ..................... 6 | [ ][ ] | EAEn erroldatua ............................ 1<br>EAEtik kanpo erroldatuta ............ 2<br>Erroldatu gabe ............................. 3<br>**EAEn erroldatuta emandako denbora:**<br>Betidanik 1<br>Betidanik ez 2→ Zenbat urte [ ][ ] | Espainiarra.................. 1<br>Ebkoa (15) .................. 2<br>EBkoa (kide berriak) .3<br>Beste estatu batekoa...4<br>..............................<br>.............................. | Bai 1<br>Ez 6→**P17** | ..............................<br>..............................<br>..............................<br>MOTA [ ][ ][ ]<br>MAILA [ ][ ]<br>URTEA [ ][ ] |
| 4 | Ezkongabea ................ 1<br>Behin ezkondua .......... 2<br>Bi aldiz ezkondua ....... 3<br>Alarguna ...................... 4<br>Dibortziartua................ 5<br>Banandua ..................... 6 | [ ][ ] | EAEn erroldatua ............................ 1<br>EAEtik kanpo erroldatuta ............ 2<br>Erroldatu gabe ............................. 3<br>**EAEn erroldatuta emandako denbora:**<br>Betidanik 1<br>Betidanik ez 2→ Zenbat urte [ ][ ] | Espainiarra.................. 1<br>Ebkoa (15) .................. 2<br>EBkoa (kide berriak) .3<br>Beste estatu batekoa...4<br>..............................<br>.............................. | Bai 1<br>Ez 6→**P17** | ..............................<br>..............................<br>..............................<br>MOTA [ ][ ][ ]<br>MAILA [ ][ ]<br>URTEA [ ][ ] |
| 5 | Ezkongabea ................ 1<br>Behin ezkondua .......... 2<br>Bi aldiz ezkondua ....... 3<br>Alarguna ...................... 4<br>Dibortziartua................ 5<br>Banandua ..................... 6 | [ ][ ] | EAEn erroldatua ............................ 1<br>EAEtik kanpo erroldatuta ............ 2<br>Erroldatu gabe ............................. 3<br>**EAEn erroldatuta emandako denbora:**<br>Betidanik 1<br>Betidanik ez 2→ Zenbat urte [ ][ ] | Espainiarra.................. 1<br>Ebkoa (15) .................. 2<br>EBkoa (kide berriak) .3<br>Beste estatu batekoa...4<br>..............................<br>.............................. | Bai 1<br>Ez 6→**P17** | ..............................<br>..............................<br>..............................<br>MOTA [ ][ ][ ]<br>MAILA [ ][ ]<br>URTEA [ ][ ] |

| | P17 | P18 | P19 |
|---|---|---|---|
| **HURRENKERA-ZK.** | **JOAN DEN HILEAN ZEIN JARDUERA-EGOERATAN ZEUNDEN?**<br>(Prestakuntza- edo ikastun-kontratua dutenak lanean dauden pertsonatzat hartzen dira) | **LEHENGO HILEAN ORDAINDUTAKO LAN EDO JARDUERARIK EGIN AL ZENUEN? (EDOZEIN MOTATAKOA, LANTXO BAT BESTERIK IZAN EZ BAZEN ERE)** | **1 ZEIN DA ZURE LANBIDEA EDO EGITEN DUZUN LAN NAGUSIA?**<br>**2 ZEIN DA LANEAN ARI ZAREN EDO ZUZENTZEN DUZUN ESTABLEZIMENDUAREN JARDUERA?** |
| 1 | 1 Neure kontura lan egiten nuen<br>2 Etxeko negozioan lan egiten nuen modu etengabean<br>3 Soldataren truk lan egiten nuen aldi baterako kontratu batekin edo kontratu mugagabe batekin **P19**<br>4 Aldi baterako bajan nengoen, gaixotasunagatik edo amatasunagatik<br>5 Etxeaz arduratzen nintzen<br>6 Ikaslea, eteng. prestakuntzakoa, ordaindu gabeko lan-eskarmentuduna nintzen<br>8 Erretiratua, erretiro aurreratua hartua edo kargua utzia nintzen<br>9 Baliaezintasunagatik erretiratua nintzen<br>10 Lanerako ezindua nintzen<br>11 Errentaduna nintzen<br>12 Langabezian nengoen<br>13 Beste arrazoiengatik, ez nintzen lanean ari (zehaztu arrazoiak)<br>14 Zaintzaile ez profesionala nintzen (Mendekotasun Legea) → **P19** | Bai ...........1<br>Ez ............6→ **P23** | 1<br>.........................<br>..................<br>\|_\|_\|_\|<br>2<br>.........................<br>..................<br>\|_\|_\|_\| |
